

ORAINGO GAZTE EROAK

Gogoetak ETaren sorrera inguruko
kultur giroaz eta gaurkoaz

JOXE AZURMENDI

enbØlike

Luma Liburuak

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren
laguntza izan du liburu honek.

© Joxe Azurmendi

© Argitalpen honena: LUMA

Istillaga plaza 2, beheka C. 20304 IRUN

I.S.B.N: 84-920333-2-0

Legezko Gordailua: SS 631/98

Inprimatzailea: ITXAROPENA, S.A.

Araba kalea 45. 20800 ZARAUTZ

ORAINGO GAZTEEROAK

Gogoetak ETaren sorrera inguruko kultur giroaz eta gaurkoaz

Pako Sudupek liburu bat idatzi zuen Nemesio Etxanizen bizitzaz eta ideologiaz, eta gero –hasitako lanari jarraituz– getraosteko exilioan zeuden Andima Ibinagabeitia eta Zaitegirekin erabilitako haren gutunketa, bilduma batean publikoari eskaintzea deliberatu zizun. Hark eskatua eta berak eskatu moduko bildumaren hitzaurrea izan nahi zuen, orain, han eta hemen zerbait osatu eta luzatua, eskuetan duzun saio honek berez.

Ez nago neu ohartu gabea, egiaz oso problematikoa dela gure arazoen hemengo trataera. Adiera ezberdin askotan duzu hori. Zentzu elemental batean bederen, oso kontzienteki da nahitaez problematikoa, eta nahi du izan. Bestelako modurik neuk ezagutzen ez dudalako, edo sinesten ez dudalako, batik bat. Baina hain zuzen, total nagusi dabilen trataera «ez problematiko» dogmakoiari total uko egitea zelakoxe ere bai, kasu honetan, ene xede irrikatuena. Oso xede partziala da noski.

Zer ari zaigu gertatzen?, problema pentsatu nahi duen pentsamenduak, horixe baituzu orriotan hizpide, problemari problema izaten utziz eta problema errespetatuz pentsatu (ez aldearez batek ba omen daukan soluziotik pentsatuz, gehienetan ikusten dugun bezala), ez dakit nola lortu ahal izango lukeen, ez izatea problematikoa.

Oso simple, hauxe da nire irakurketa, zer ari zaigun gertatzen: Franco hil zen, eta «botereek» (*Leviathan*-en 10. kapituluak erakusten duenez, boterearen kontzeptua esanahi askotakoa da) bozketa proportzioen bidez arautzea erabaki zuten handik aurrera beren arteko

gorabehera publikoak. Zutitu zituzten Alderdi erori batzuk, beste ordura arte madarikatu batzuk xuri-xuritu, berriren bat asmatu, sindikatu hau kaskarragotu, izena besterik ez zuen bestea presaka handipuztu, etc.; diktaturaren aurka protagonismoa eraman zuen ETArekin, gortesia moduko keinu batzuk egin zizkieten distantziatik, festak permititu ziren herrietan, presoak atera ziren ziegetatik, eta «heroitxo jubilatua» lanera eta isilik egotera: politika jende serioak egin behar du. Horrela antolatuz zuten oholtza, joko berriak funtzionatzeko. Hori da «trantsizioa».

Operazio abil bat izan zen, zalantza gabe. Funtziona zezakeen. Gertatu ez balitz, bakarrik, ETArekin kontatu gabe nahi zirela kontuak egin, eta ETak, berarekin ere kontatu gabe konturik ez dagoela, demostratu ez balu harrez gero. Euskal Herrian behintzat trantsizioak ez du funtzionatu.

Hortxe gabiltza orain. Jokoan sartu ziren batzuentzat ETArekin hitz egiterik ez dago, eta hitz egiterik ez dagoela mila arrazoirekin demostratzen saiatzen zaizkigu kalakatsu Estatuaren bitarteko guztiekin (hedabideetako bortxatik tortura eta hilketaraino). Alfer-alferrik. ETak, orain arte onartu nahi zaion mintzaira bakar horretan demostratzen du behin eta berriro, nahi bada eta ez berarekin hitz egin beharra dagoela, bestela ez demokraziarik eta ez bizimodu normalik egongo dela hemen sekula. Eta horrela goaz aurrera urtean urtean, inora ez daroan bidean.

Problema politikoa da. Baina ni ez naiz problema propioki politikoa ihardungo. (Politikariez bai)

Ez naiz batere gure arazoa «euskaldunon artekoa» dela iritzikoa. Baina euskaldunon arteko arazo batzuk badaude arazo honetan, eta geroz eta larriagoak ari dira bihurtzen. Pentsamendu eta kultura mailakoez bakarrik dihardut orain. Eztabaida publikoaz. (Norbaitek objektatu nahi balit, beraz, zergatik ETA ez dudan berdin kritikatzin: hor ETak ez duelako parterik, Estatuaren peko domeinua da hori). Publikotasun horretan gabiltzanok, ordea, elkar ulertu nahi ez badugu, ez dugu ulertuko (ohartua nago, badagoela interes bat, elkar ulertzerik ez dagoela, a priori zertifikatuta edukitzeko); nahita ere nekez elkar ulertu ahal izango dugu, haatik, Gurutzadaren Teologiaren lekuan Demokraziaren Mitologia bat inposatu nahi bada.

Hortxe hasten da saio hau. Nemesio, Zaitegi, Andima irakurtzen ari nintzela eta batera egunoroko albisteak entzunez, 96ko udaberrian nire burura etorri ziren oroipen/gogoeta problematikoak.

Dogmatismoa lehen artxikatolikia zela eta orain artxidemokratikoa dela, beharbada hortxe dago alde guztia. 60. urteak errepikatzen ari direla, tonto-tonto, halako zerbait da nire inpresioa gaur. «Horrela ez goaz inora!» eta, desesperazio frase harrizteraino berdin-berdinak entzuten dira behin eta berriro. «Barrenak ez dit agintzen ixilik egotea, liburu honek gaurko gazte-jendearen artean egin dezakeen kaltearengatik. Leartza, liburu hontako giza-nagusia, europear bihurtu zaigu, izurri gaizto batean, behintzat. Ez dugu hemen holakorik behar», honelaxe erreseinatu zuen Orixek *Peru Leartzako*, indignazio makabeoz suturik (1960). «Gure razionalitatean» sartzen ez direnak eroak eta irrazionalak deklaratzeko, aspalditxokoa da ikus dezakezunez. «Liburu hau burutik egina dago», bukatzen zuen Orixek bere epaia. Aspaldian izurria gure inguruan bide dabilkigula ere, ikusten duzu hor. (Gero berriro etorri nahi nuke kontzeptu horretara).

Hasteko: balioen krisialdi batean idazten zuela, Max Weberek zergatik identifikatu ote zuen razionalitatea instituzioekin, batere gogoko ez omen zuen Hegelen erara (XX. mendeon ez dugu maite ohi «espekulazio» filosofikoa, bai jakintza zientifiko solidoa), eta, esate baterako, ez Kantek bezala arrazoimena eta askatasuna, arrazoimena eta kritika edo zalantza? Euskal arazoen eta nazionalismoaren ikerketetan, diskurtso zientifiko ofiziala bezalako bat ezartzen ari baita, izan ere, UPV/EHUan azken urteotan, razionalitatearena eta irrazionalismoarena besterik ez dena, metodikoki eskema (gainaxalean bakarrik!) weberiano horri lotu-lotua¹, eta a priori legez, arrazoiak eta arrazoizkotasunak

¹ Max Weberen pentsamendua, a) Estatu biolentziaren monopolioaren instituzioa da, b) Estatu razionalitate juridiko eta politikoaren instituzioa da, bi tesi polarren arteko «dialektika» zailak eta bitxiak eutsita dago: zaila, biolentzia eta razionalitatea elkarri behar dituelako; bitxia, b) tesiarekin a) estali eta ahazterazi egiten delako, sinpleki Estatuaren erpetzarrak inuzentzia aingerutarraren zetazko eskularruz jantziz; ordea, are bitxiagoa, tranpa zahar hori denok aspaldi erreparatu genion arren, erreparatua diogula ere denborarekin ezkutatu eta ahazterazi egiten digulako emeki-emeki, marrukeria guztia «gure begien bistatik galdu egiten bazaigu, nagusitu egin delako bakarrik izaki», Nietzschek esango zukeen.

instituzioekin eta Estatuarekin kointziditzen du beti. Arrazoa Estatu modernoan inkarnatzen da. Razionalitate juridikoan, ekonomikoan, politikoan. Zuzenbideko Estatu esaten dena. Zuzenbideko ordena horren ukoa automatikoki zuzengabekoa eta irrazionala bihurtzen da. (Hor sartzen dira samaldan, beste danganino askorekin, «gaurko gazteak»).

Beraz, akademikoa bilakatu da orain, atzo postura erreakzionario oso bulgare ezagutu genuena.

(H. Heinek ez zuen «zuzenbide» horrentzat Hegelentzat baino errespetu handiagoa sentitzen nonbait, bera ikasketaz jurista izan arren: «zientzia iliberala» eta «egoismoaren biblia» zeritzon; eta Zuzenbideko Estatu santu horri, soldadu eta berdenboran abokatu omen zen erromatarraren asmazioa, ezpatarekin eginiko lapurreta legearekin hobeto gordetzeko).

Berriro 60. urteetara gatozela ari nintzen esaten eta orduan bezalakoxe nahasteria daukagula berriro.

I

Oraingo gazteak ero hutsak direla, denok badakigu. Eta zer ziren gazteak, orain aitonatxoak garenon «gure garaian»? Hogeita bost/hamar urte lehenago gerra galdutako gudariak etxejaun prestuak bihurtuak zeuden ordurako: arrazoizkoak, tailerraren jabeak. Ordena egoki bateko jendea. Politikan oraindik ez zeuden nagusi, udaletxe eta Diputazioetan. Maisuak ere frankistak izaten ziren. Administrazioan, Espainiatik etorritako maketoak. Orain gure profesoreak eta ministroak dira haien semeak. Baina ekonomian eta gizartean, gudari ohiak aski jauntxo zuzenak eta errespetatuak ziren hemen, eguneroko munduan eta kalean, tabernan eta plazan. Gainera berak demokrata pijoak ziren, gudari ohiak. Eta arrazoia berek zeukaten, armarik eta hegazkinik ez zeukatelako gerra galdu bazuten ere. Gizarte modernoak demokratik ziren European, Afrikan ez bezala. Jende ordenakoa, zuzentasunekoa. Gero, mendian eta bazkalondoan, urdailekin izpirituak ere berdintzeko, puru eta kopaz, oihu batzuk ongi zeuden «Gora Euskadi askatuta!». Inoiz pasa gabe, noski, passa gabe. Guztizko jende txintxoak ziren behialako gorriak.

Etorri ziren denok dakigun gazte zoro batzuk eta mundu baketsu, dena txukun-txukun atondu hura, hankaz gora jarri zuten. Alegia, askotan ematen du, Francoren aurka denok etengabeko borroka heroikoan aritu omen ginela. Frantzian denak lehen-lehenengo ordutik Erresistentzian egon omen ziren bezala. Baina egia, 1964ean «25 años de paz» ospatu zela da, goi-goitik. Eta astia daukanak estudiantio bat egin lezake nola ospatu zen, eta zer esaten zen bakearen santuaz eta bizitzaren sakratuaz eta aurrerapen ekonomikoaren sakrasantuaz orain bezalaxe. Eta orduko kazetariak, profesional hutsak zirenek, oraingoak bezalaxe, eta besterik ez, *Diario Vasco* eta *El Correo Español*-en zer idazten zuten, profesionalen objektibitate huts-hutsarekin. Eta orduko gudari ohiak zer irakurtzen zuten egunero-egunero, oraingoak bezalaxe... Bakea hainbeste aipatzen den honetan, ez ote du inork estudiantio bat egingo bakearen bi predikazioen konparazio batekin?

Adornoren esaldia: «Auschwitz ondoko kultura oro zaborra da», ikasi egin behar da ulertzen. («Frankismoaren ondoko kultura oro...»).

Demokrazia izan liteke herri batek bere historian, poliki-poliki, lan eta borroka artean, irabazia eta landua eta beti landuz jarraitzen duena. Kultura bat. Edo izan liteke dekretu batez goitik behera ezarria, Alemanian izan zen bezala, tropa aliatuek militarki garaitu, okupatu eta herri gatibuari inposatu ziotena. Begientzat axala gainean aldatu bada, barruago kultura ez. Baina pentsa dezagun berriro: demokrazia etor daiteke puntu batera, non berari eusten dion kultura –axaleko formak utzita– funtsean faxismoari eusten zion kultura berbera den. Axalean askatasun sistema bat dirudiena, dominazio sistema bat izan daiteke barnean (zirkunstantziek hala eskatuz gero formak ere komeni bezain totalitariak hartzeko eskrupulorik gabe). Eta Adornok hori salatzen du: Auschwitzek begien bistan erakutsi duen kultura burges hori, mendebaleko «zaborraren estalkia» besterik ez dela. «Razionalitatea» etab., behiala askatasun borrokaren tresnak izan zirenak, kultura burges modernoa, dominazio tresnak bilakaturik daude. Hori da faxismora ekarri gaituena. («Barbariak berdín existitzen jarraitzen du eroriko hura ahalgarritu zuten baldintzek existitzen darraiteno. Horre guztia hori da»)². Nazismoak eta gerrak kiskalitako hiriak, irekitako zauriak, holokaustoa, haien gainean fabrika eta kale komertzial dotoreak eraikiz estali eta ezkuta litezke, Alemania berri-berri bat eraiki alegia: bizitza hondakin eta zauri haien ahazturaren gainean antola daitekeela, esanahi du horrek, ezer egon ez balitz bezala; eta nahiago dugula horreoa estali eta ezkutatu, beti begien aurrean gorde eta jasan eta mediatu ordez.

Frankismoa, nahiago izan dugu tapatu eta ahaztu eta ezkutatu, agian demokrazian errege omen den herri horrek, eta demokrazia horretan oholtza okupatu duten heroi berriek halaber, ekonomikoek eta politikoez –atzoko urdinek eta gorriek eta txuriek, orain denak adiskideak eta demokratikak–, bakoitzak, balio elektoralik badu behintzat, guztiz uko egin gabe atzoko bere aureolatxoari (nahi dutenean buruan ipini, nahi dutenean patrikan sartu, darabilten hori), atzoko heroitasun eta borrokako zer erakutsi handirik oso gutxi dutelako denek ere zalantza gabe azken finean, erakundeen mailan batik bat. Dotoreak Konstituzioaren Festak eta Herriaren Parlamentuak: azpiko zaramaren

² ADORNO, Th. W., *Stichworte. Kritische Modelle 2*, Frankfurt 1969, 85.

estalkiak. Zeinen meritua da, izan ere, zer kulturak eraiki du –zein «herrik»–, «demokrazia erreal» hau?³ Zein Espainian aspaldiko «kulturaren» obra izan zen eta da zinez?

Hona lehen puntua: ez dezagun iragana idealizatu (gutunok lagunduko digute!).

Gu historia pobre batean jaio ginen eta ume pobreak izan ginen. Gure gurasoak ez ziren heroi handiak. Gaur bezalaxe, konforme asko bizi ziren agintzen duenarekin, euskaldunak beti egin duen eran. Eta gehien-gehiengo beti konforme horren ondoan, Nemesio Etxaniz bezalako zoro gutxi batzuk eta haien ondoan gazte ero bakan batzuk bakarrik izan ziren, orduan ere mugitu zirenak. Orduan, guri interesatzen zaigun historia, zoro gutxi eta ero bakan horien artekoa da. Oso jende gutxiren artekoa. Eta helduen eta zentzudunen gizarteak zenbateraino gazte haiek ezulertu zituen ikusteko⁴, gaur bezala orduan boterearen bakearen organoak ziren kazeta horietara jo beharrik apenas dago. Nemesio Etxanizek berak –bestela eskandalotsuki irekia kontsideratu beharko genukeenak ordurako– nahikoa erakusten du hori gutun horietan.

Errepikatzen ohi ez omen den historia, gu errepikatzen ari gara hortaz.

Erantzun hori lehenengo batean Euskadi Irratiko kazetariari eman nion, egungo egoerari zer irizten nion itauntzen baitzidan. Zedozer erantzun beharra egoten da. Bat-batean zerbait jaulkitzen duzu eta zeu ere kezkatan geratzen zara, ahotik zer atera zaizun zeuk entzunda.

³ Egunotantxe, logika bitxi bat ari gara kalean ikusten Parisen: herriak Le Pen bozkutzen du, eta Le Pen da antidemokrata eta faxista, ez herria. Berak hautatuz gero A, B eta C politikoak -izenak zeuk ipini- bere magiaz betidaniko demokratak eta agintari zuzenbidezkoak bihurtzen dituena, eta Le Pen, Hitler eta Mussolini hautatuz gero ez, herri bitxi hori (edo demokrazia hori, bitxia).

⁴ Ik. P. SUDUPE, *Nemesio Etxanizen biografia eta ideologia*, Bilbo 1996, 170 or.: «Zahar-gazteen arteko teinka dela bide, belaunaldien arteko haustura sakonaz eta bien arteko zubirik ezaz, bereziki komunikabideak uneoro mintzo direla 60ko hamarkadan: «Mundu guzian kezka bat sortu du gaurko gaztediaren okerrerako grinak. Eta jende nagusia eskuak burura eramanda or ari zaigu oiuka: Zer da au? Nora goaz onela? Zer egin dezakegu gazte biurri auekin?».

Benetan, hori zen buruan daukadana? Gurxienez batere ziur ez zaude, zure egiazko inpresioa horixe ote zen, edo holaxe behintzat. Dena dela, ni ez naiz analista bat adiera estriktoan eta ez naiz hasiko orain deus inporta ez zaidan zehaztasunagatik arduratzen. Ikusten dudana ikusten dut eta pentsatzen dut, ez naiz inkestak egiten eta, ezeren tripak barrurago ikusi nahita ibiltzen. Halere Nemesio eta haren lagunen gutunketa hau irakurriz orain, berriz ere horixe da nire inpresioa: istilu dena atzera errepikalardasten ari garela.

Ordea Pako Sudupek aspaldiko eskutitz bildumari eta oraingo bere gutunketari Nemesiorekin hitzaurrea eskaintzen dit, eta zalantzak, idatzi ondokoak ondoko, erantzunik eman aurrekoak inbaditzen nau burutik beheraino. Zer esan. Eta zeini esan ahal diot nik ezer Nemesiori buruz. Ez behintzat Pako Suduperi, eta esan nezakeen dena nik baino lehenago eta hobeto badakienari. Izan ere, *Nemesio Etxanizen biografia eta ideologia*, 1996, Eskaltzaindiaren Mikel Zarate Saria Saioan irabazitako liburu ezin hobeki informatuaren autorea baita Pako Sudupe, aparte beste idazkiren batzuen Nemesiori buruz, bereziki *Egan*-en.

[Nemesio ezezik, XX. mende hasierako euskal gizartea, eta gero gerraondoko eta 60 inguruko giroa ezagutzeko, badago beste ganorazko liburu bat ere, hain zuzen haren testu biziki interesgarriak biltzen dituen: *Izotz kandelak (eleberria).-Gobernadore Jaunari eta beste zenbait jauni (gutunak)*, Iñaki Seguirolaren aurkezpena, edizioa eta oharra, Elkar, Donostia 1992] [hemendik aurrera IK].

Idatzi beharrak beldurra ematen du, adeitasunaren kariatz soil-soil eskaini zaizun huskeriatxo bat izanik ere inon esan beharra daukazuna (beharbada huskeriatxo batek gehiena hain zuzen). Peter Handkek hala aitortu du interbista batean Brita Steinwentner-ekin: «Idazterakoan beti beldurra edukitzen dut. Hitzaurre txiki bat idatzi behar dudanean ere, itzulpen frantses baterako adibidez, edo berak idatzi dituen poemen bilduma bat egin behar dudanean lagun batentzat eta poema horietaz saio antzeko zertxobait idatzi; edo esaten didatenean: «idatz ezazu parrafo pare bat». Beldur naiz eseri eta, behin eta berriz eseri eta, ezer ez zaidala aterako. Beldurra daukat eduki, idazten ez duen jendeak –Peter Handkek pintoreei eta aluditzen du hemen– idazteko aktoa zer den ideiarik ere ez daukala ematen duenean ere...»

Gutunketak gauza intimoak izaten dira eta, kasu batzuetan are gehiago, nola ez beldurra edo ez dakit zer sentitu barru-barruan, atzera eragiten, pudorea edo zerbait, inoren intimitatea, komentatzeko ezeze, irakurtzeko ere.

Ohartuta denok gaude, noski, gutunok honez gero dokumentuak direla. Ez dokumentu pertsonalak bakarrik: interes handienekoak kuriosoentzat eta ikerlariantzat, baliotsuak gerraosteko giro politikoaren, literaturaren, euskara batuaren eta gauza gehiagoren azterketarako. Baina historiako periodoak eta analisten kausak eta efektuak gorabehera, barruan hor dago taupa-taupa gizona, gizontxo, eta hortxe darama herrestan bere intimitate urratua. Orduan, benetan, ezer esateak beldurra eta lotsa ematen du.

Orain ere badira penak euskal kulturaren munduan, beren ahalegin guztiak euskarari eman eta, ustez aski ezagupen aurkitzen ez dutelako batzuek, gure kabila honetan mukerkeriak eta tratu nahiko txarrak inoiz faltatzen ez direlako besteren batzuek. «Holandan hobeto tratatzen naute hemen baino!» (Egia da, geuk ere jeneralean «Holandakoak» hobeto tratatzen ditugula bertokoak baino). (Eta egia, errazagoa izaten dela askotan haiek hobeto tratatzea ere)⁵. Betiko basamortu berdea gara. Halere, eta noizean behingo norgehiagoka transzendental hura berriz hamaikagarren aldiz hasi gabe, gehiena zeinek sufritu duen, lehen edo lehenago ala berdin oraintsuago, gerraondoko hura besterik izan da, nik uste. Ikaragarria izan da. Bere anbiguotasun bihuririlun guztiekin, nahi bada (*Euzko Gogo*a eta *Egan* arteko gorabeherak, esate baterako, edo Euskaltzaindiaren gerraondoko «birsorreraren» istorioak). Beste zerbait izan da hura zalantza gabe. Andimaren patua eta tragedia serioegia da –Andimak bere diruak eta hezurak ezezik, ia bere buru eta bizitzaren sentidoa galdu dizu borrokan– desafekto gehixeago edo gutxixeagoren kontuekin konparatzeko. Ikusi besterik ez, Nemesiok, Andimak, zer burubide ukan duten azkenean eta nola bukatu duten, edo Mirande batek –Zaitegik berak ere bai, baina begira nola bukatu duen Mirandek: eta zer Orizek berak ere azken batean? Eta ikustea dago zeintzu ziren hain zuzen hiru

⁵ Ez dakit Dostoiievskik ala Tolstoik esaten bide zuen, berak lagun urrutikoak, denak maite-maite zituela; hurkoak izaten zituela ezin eraman.

haietxek, eta zer egin duten eta zenbat ahalegindu diren, gero azpian hala zapaldu eta baztertuko dituen aro gazte horrexen esperantzaz, eta hori pizteko. «Ni, ilda bezalaxe bizi naiz», idazten dio letra dardartiz Nemesio haurtxo zaharrak mistagogo beneratu zahar Zaitegiri: latza da benetan bilduma horretako azken eskutitz hori, erruki eta laguntasun eske negarrez, azkenaren atarian. Latza zen bezala 61ko udazkeneko aitortza: «Ezertarako gogo gabe nauzue. Gure sinisteak galaziko ez baligu, zenbat aldiz nere burua garbitu nuen, jende irendu hontatik ihes egiteko!». Holakoen ondoren itxurazkoa dirudi edozeinek nahiago izatea isilik gelditu eta ez esan ezer.

Baina ez gara hain aguro sentimentalak jarriko, ezta? Saia gaitezen, bada, ikusten, gizonarekin zer den hor gertatu dena 60. urte haietan.

Hau da, Nemesioren lantu moldeok Gabriel Arestiren azken aldiko berdintsu askorekin antz handia daukate itxuraz. Baina uste dut kasu zeharo diferenteak direla biak. Edo, behintzat, klabe diferentetan irakurrita direla biak interesanteak.

Gure historian ez Nemesioren, ez Arestiren penak guztiz ohizkanpokotzat har genitzake zoritxarrez —azken ehun urte honetan bederen, edo Iparragirrez gero, gutxienez. Gizarte eta historia mila eratan txikitua gara. Mindua gero, gaizkoatua. «Euskal Herriak ez du bozkariarik ematen: kixkali egiten du», esan du Gandiagak. Eta herri honen «herri nahi ta ezina», «heltzera heldu ez den Herriaren/ heldu-egarria», mikaztasuna, garraztasuna, *Txakolinaren Ospakuntza*-n sinbolizaru digu⁶. Gandiagak Salvatore Mitxelenaren lehenagoko «Herri bai ta Herri ez» samin hari egiten dio eko nolabait. Gerraostean Salvatorek ondu duen euskal historiaren irudikapenari, guruzbide bezala, «behinberriz jausi/ behinberriz jeiki». Izan ere, seguruenik euskal historia osoa da nahiko tristea. Miseria asko dago. Baina bereziki gerraondoaz esan beharko genuke, Mikel Lasa poetarekin, «Oi gure denbora hunen desolamentua!». «Gerrate ondorena» izenburuko poesia batean⁷ berak oso ondo espresatu du desolamentu hori:

⁶ GANDIAGA, B., *Hiru gizon bakarkia*, Bilbo 1974. Ezinak bere lagunak ei ditu haserre eta umore txarra. «Hara:/ Jan dut euskara/ xardina xaharra./ Edan dut euskal/-tasun txakolina/ ta/ bihotz-errea daukat/ eta umore txarra» (33 orr.). Euskal mundua hautatzen duenaren adur segurua.

⁷ LASA, M. eta LASA, A., *Poema bilduma*, Donostia 1971, 95-96.

*Altsasua, gerrate ondorengo ixil-unea.
Pagadietan atxeman diat gotorkeria.
Bibotzean hildura. Bidekurutzetan
ikusi dizkiat gizonak bakanduak,
mutu geldiak,
estrapuzko kapusaiaz buruak estaliak,
mendiari buruz atarrapazka gora zoazila
pausaldirik gabe, oi arraza galdua,
madarikatua.*

*No-man's-land bihurtua zakuskagu
oi enea zinen lurraldea. Ze ausardia,
ze argibide egarria, milaka urtetan
etenik egoen mintzaira hirekin lokarritzea.*

*Hemen herri batek bere buruarekiko oroitzapena galdu bide du, lurra
kiskaldu da, gizona mututu, adimen izpia irauungi, ziurki. Hemen euria
ateri gabe ari da joandaneke mendeetan. Bisutsak txorabiatzen ez duen
lur-barruko hilerriaren ixiltasun pixua dario. Hemen formaren
arrastorik ez dut ikusten. Dena zaigu xabutu, errausi,
ezeztu. DESHISTORIAREN ERREINUA DA GURE HAU*

Desertu kiskali horretan hasi da –batzuk gazteak, besteak gutxiago– gerraostea esaten duguna.

Bigarren puntua: min handiz beteriko mundutxo da euskal mundua. Aseezin samarrak ere bagara –negartxo anitz egiten da, bestalde, *fishing for compliments*– eta, batez ere, oraindik ez dugu ikasi gu guztion festan lagunari hankak zapaldu gabe dantza egiten. Orain hala da eta lehen are gehiago.

«Gizonak asko sufritzen du», esan zuen Arestik –eta gehitu zuen: «Baina bere ametsek kontsolatzen dute». Nemesiorenгатik, bere ametsek ito egin dutela, esango litzateke. Etorri da, etorri, ekartzen bera hainbeste saiatu den mundu berria, eta ikaragarritzko krudeltasun hotz batekin etorri da. Ia ezer gabeko hogeit urte beltz ondoren poliki-poliki gorpuzten hasi den antolakunde bakoitzak –Euskaltzaindi berria, euskarazko aldizkariak, mugida politiko eta kultural gaztea, Arestiren poesia, ikastolak, Lizeoa–, arrazoi batzuenгатik batek eta bestelakoengatik hurrenak, denek, edo zokobazterrera utzi dute Nemesio, edo espero

zuenaren zeharo bestelakoak heldu dira eta arras desengainatu dute. Gerraostean birrantolatu den Euskaltzaindia haren guztiz gogokoa ez izateaz gain, «Asteasuko Beltza» etengabeko gerra egiten ari zaio handik. Azkenean bere izena gabe eta Euskaltzaindiaren babespean agertuko da Metodo famatua. Sariak Nemesiok irabaziz gero, Euskaltzaindiko «komisario politikoa» haren izena prentsan publikatzea galerazteraino iritsiko da (ik. orobat IK 259-261). Gerra bukatu da, baina karlistek –«Viva Cristo Rey!»– beren gerra oso kristauan jarraitzen dute atsedengabe Euskal Herriko herri eta herrisketan, parroketan, konbentuetan, eta ez dute ezer gorrotatzen amorratukiago abertzaleak baino (jeltzaleak). Nemesio jeltzalea da; beraz, gorria, komunista edo komunisten bidelaguna, apaiz gaiztoa, deabrua sotanapean. (Askotan jeltzaleak karlistekin berdindu nahi izaten da orain: gure herri eta familietako mila borroken historia ahaztea da, bai gerran eta gerraondoan eta bai gerraurrean; Alderdi bien arteko liskarrak ez aipatzeko, Arana Goiriarekin berarekin hasita). Baina Nemesio ez du karlisten gorrotoitsu horrek baino gutxiago jeltzaleen oportunismoak mindu. Nemesioren guruzbidean hirugarren erorraldia bakarrik izango da gazteen desengainua. Urte mingotsenetan Gotzainei eta Gobernadoreei bakean uzten ez zien Nemesioren ausardia goraiatu duten abertzale, berak ezer ez egin eta gero besteak egindakoaren betiko gudari heroikoek, giroa piska bat bigundu orduko, zuhurtasunaren apostoluak bilakatu dira eta harengandik distantzia errealista sano bat hartu dute. Piska bat Franco hil eta gero, neurri handiagoan, berriro gertatu zen bezala. «Ni, ba al dakizu zeintzuk utzi nauten baztarrera? Geuretar epel batzuek. Euskaltzaindiaren Laguntzaileak nere etxean batzen ziran; hortarako oso ona nintzan haientzat, nahiz eta haietako zenbaitek nik baino etxe zabalagoa izan. Baina sortu zuten Liceo berria, arratsaldean euskera eta goizetan batxilerra erakusteko gaztetxoei. Ni omen nintzan hartarako kapelaurik egokiena, baina ni abertzale agiriagia nintzala eta beste apaiz bat hartu zuten hortarako. Hemengo ikastetxeetan ere sortu ziran euskal ikasketak. Ni ez nintzan hortarako egokia; eta beste batzuen bila ibili zitzaizkidan. Azkenean, besterik bila etzutenean, neregana etorri ziran lan horretarako. Nik konprometitu egingo nituan eta... Bada munduan txepelik ugari!» (60. XII. 16). «Zeruko Argiatik bota nahi ninduten, zapukeriz, eta egia esan, gizonak beti burukoak hartzen bere neurria betetzen zaionean, halako beste mundurako gogoia ere hartzen du

azkenerako» (65. VI. 1). «Zeruko Argia poliki dijoa. Ni alde guzietan «idazle izengabekoa» nauzu. Guziak beldur baitira nere izena tartean sartzeko» (65. IX. 14)... Uztagun. Irakurleak laster irakurriko ditu berak istorio guztiok. Anekdotak hau ala hori ez da kontua.

Kontua da, etorri datorren mundu berriak, jada 60-65 aldera nagusi samartuz doala ageri duenak euskal kulturaren munduan, bere errealitate propioa dakarrela; eta hura gehien-gehiena ekarri dutenon mentalitateari eta sentimentuei –batez ere beldurrei– jaramonik ez diela deus egiten. Orain daukagun hauxe zen funtsean, hasieren ohiko zalaparta batzuekin, euskal mundu berri hori, gerraurrekoarekin etenda. (Hau da, etena eginez baino gehiago, zegoen eten batetik sortua, gerrak sortutako arrakala gaitzetik). Hala ulertu du Pako Sudupek, gutunak eskuartean, azterketa edo komentario historiko bat egitera eseri ordez, bera tartean sartu eta gutunketa jarraitzea guztiz naturala ikusi duenean. Zalantza gabe gure mundu hauxe da hiru idazlagunen gutunketan dabilena, Nemesio eta Andimaren artean bereziki. («Zuen arteko eztabaidatik berrogei urtetsura, gauzak ez dira gehiegi aldatu»). Eta, beraz, gutunok interesgarriak ditugu ohartzeko non gauden ere, edo gure problema bizi-bizi batzuk zein problema zaharren transformazioak baino ez diren askotan.

II

Nemesio ezagutu duten denek aitortzen dizute, zein alai, kantari, umoretsua izaten zen lagunartean gizona. Teatroa eta jolasa maite zituen eta ihauteria...

Hurrengo ihauterietan berriz egongo da mahainguru bat, eta gizon zuhurrek euskaldunon umoreaz deliberatuko dute han berriro zuhurki mahaiaren inguruan. Eta berriro gizon zuhur bat izkina batean egongo da esaten, bere betaurrekoekin besteok ikusten ez dugun ezkutukoa ikusteko kristal berezia duenak bezala: «bai, umorea bai..., baina politikan ez, hori tabu!», eta txikituta utziko gaitu mahai azpian salaketa horrekin, obligaziorik handiena bezala baita egun horietan edozertan umorea edukitzea, eta munduko umoretsuenak geu ginela sinestuta geunden ordura arte.

Inork ez du galdetuko: «egia da, umorerik ez dago sobera gure politikan: zergatik ez dago, ez badago?, zergatik dauka egon beharra?, ba ote dauka egoterik ere? Zer da, gero, umorea?» Uste dut, gure politikan umorea badagoela; baina ez dago edozertan. Egoten ere jakin egin behar baita. Eta beti ez lekua eta ez ordua da, eta ez modua dago. Denok izan gara, hileta batean arras ezlekuko umoreaz mozkorren batenak edo, lekukoak. Niri tokatu zait polizia espainolak torturatuei beren torturak kontatzen entzutea, eta askotan, gaueko hamabiak ezker, jan eta edan bapo egindakoan, sekulako barre algaratan kontatzen zituzten jasandako izugarrikeriak: eta denok sekulako barreak egin eta geroxeago, edozein momentutan, denok negar egiten genuen. Nik ezagutu ditut Auschwitzten egondakoak. Dachautik milagrozt bizirik irtendako baten etxean egon naiz bizitzen. Eta beti, esperientzia muturreko horiek jasan dituztenak, edo isil-isilik geratzen dira burumakur, edo umore kasik absurdu batekin saiatzten dira estaltzen beren oraingo sentimentu kontraesankorrak.

Hau dena Nemesioren umoreagatik esaten nuen (frakasatu egin duen haren umoreagatik). Umorearen problema dago eta umorearen pibibilitateena momentu batzuetan, edo jende batzuekin. Batzuetan geure umorea mendekatu egiten zaigu.

Rabelaisek badu ipuintxo bat, Pantagruelen Laugarren Liburuan, 13. kapitulua, Villonen fartsa tragikoarena⁸, berez apenas dirudi biziki deigarria, baina Mikhaïl Bakhtinen atentzioa erakarri duena. Maître Villon zaharrak behin, feria dela eta, Pasioaren Misterioa jokarazi nahi du plazan, «diableria handi» bat ere oholtzaratuz (elementu karnabaleskoa), h. d., deabru jende kikirriki baten komeriak sartuz Pastoral sakratuan. Dena prest dago, bakarrik Aita Jainkoa janzteko falta dira txalmak. Tappecoue sakristauak uko biribila ematen dio indignaturik kapa solemnea eta estola zeremonia horretarako lagatzeko eskeari, profanazio hutsa iruditzen baitzaio aldareko paramentu sakratuak eszenatokian hola erabiltzea. Villonen eginahalak otoi eta otoi alferrik dira. Orduan mendeku tzarra hartzea erabakitzen du Villonek. Jakinaren gainean sakristaua, parrokiatik bueltan, noiz pasako den bere astoaren gainean halako kale kantoi batetik, diableriako tropa guztiak hantxe bildu isil-isil eta, bat-bateko tarrapatan ekinda jesukristoren izuikara eman diote lapiko zartaka eta marruka, asto gaixoa deabru guztiek hartuta bezala ateratzen baita tximista batean kale bazterrak aurrera galopean, Tappecoue tarraka daramala, dinbili-danbala, akabatu arte, mila puskatan burua, besoak, iztarrak, han hemen zatibanatuz. Hau da ipuintxoa, ez da istorio txit edifikantea noski. Galdera da, «pourquoi Tappecoue a-t-il mérité un sort aussi cruel?» Eta orain uste dut Mikhaïl Bakhtinen esplikazioak merezi duela bere luze osoan aipatzea. «On peut affirmer que, même du point de vue du culte dionysien, le sacristain, ennemi de Dionysos, qui s'est insurgé contre ses yeux (pour des raisons de principe, il a refusé de prêter des vêtements pour une représentation théâtrale), a subi la mort de Penthée qui périt déchiqueté par les Bacchantes. Du point de vue de Rabelais, Tappecoue était un ennemi redoutable, l'incarnation de ce qu'il abhorrait le plus: un agélaste, c'est-à-dire un homme qui ne sait pas rire, un adversaire du rire... Le sérieux pieux, obtus et méchant, qui craint de faire de la parure sacrée un objet de spectacle et de jeu, se manifeste dans cet acte, et c'est lui que Rabelais déteste»⁹.

⁸ RABELAIS, *Oeuvres Complètes*, bol. II, Paris 1962, 74-77.

⁹ BAKHTINE, M., *L'Oeuvre de François Rabelais et la culture populaire au Moyen Âge et sous la Renaissance*, Paris 1970, 267.

Rabelais hori da. Baina Nemesio ez da Rabelais. (Ni neu ere ez naiz Rabelais, eta askoz nahiago dut ez izan). Baina hor badago problema bat.

Une batzuk historian esan daiteke bereziki sadikoak izaten direla historiarekin berarekin, tradizioarekin, arbasoengandik heredatu den «santu» eta «beneragarri» ororekin. Ernazimentua, Frantziako Iraultza, etab. Tarte horietan edozein astakeriak libre dirudi, publiko gaztearen dibertimendu bat bilakatzen da herriko tenploak kiskaltzea eta panteoiko heroiak dekapitatzea, jainkozkoaren ordezkari bedeinkatuak eta ordenaren Chiquanou madarikatuak oro zatarki biraokatzea –«et le tout en riant»–, txikizioaren eta sakrilegioaren festan gozamen delirio handiena sumatzen da. Beharbada horrelako zerbait izan dugu XX. mendearen hasiera ere, Europan behintzat, «mundu berriaren» harrokeria modu ezberdinez: komunismoa, faxismoa, futurismoa..., Urriko Iraultza, «Ordine nuovo». Barrea, algara eta lotsagabekeria. Iragana ezabatua da. Profeta guztiek mundu berri bat agintzen dute. «Alors soyez pretz, et venez en salle jouer la Tragicque comedie que vous ay expousé». Ez al da horrelako zerbait geuk ikusi duguna? Karnabala eta tragedia nahastuta. Momentu zailak artea, historia, tradizioa maite duten arima delikatuentzat –ez, tragedia ez da «sérieux pieux, obtus et méchant»entzat bakarrik (errazegia litzateke hala balitz!). Mundu berria nahita ere, ezin maitatuko da agian modu berri asko.

Nemesio gizarte *agélastoan* bizi izan da, «moral» eta erlijioa jokoan daudela susmorik txikiena egon orduko. Baina Nemesio bera mundu horretakoxe izpiritua da. Ikustea dago Don Ximonen historia. Beharbada Gobernadoreei-eta gutun batzuen azpian irria dago. Umore gutxi halere Alberto Onaindia Kalonjeari idazten dionean: «Euskal Herriak bere bizia eta fedea jokatzen dik, eta ondo konturatu duk lehengo txepelkerietan ezin gintezkeela ibili» (IK 231). Umorea? «It cannot be, it is impossible»¹⁰.

¹⁰ «(It is impossible) To enforce the pained impotence to smile» (Shakespeare, *Love's Labour's Lost* V, 2).

Bestalde, Salvatore Mitxelena, Andima, Mirande, Nemesio eta besteren batzuen Pleiade txikiak, asmo bat buruan erabili du, euskal letretako mundua gai «gordinetan» ere pittin-pittin bat inizatzeke edo –ezen trebatzeraino adinakorik ez gero!–, bere itxitasun klaustraletik aterazteko nolatzobait gaurko mundura eta bizitzara («euskara eta grinak»). Andimak Ovidioren *Ars amandi* itzuli du; Mirandek poesia paregabeak ondu; Andimarekin batera Boccaccio euskaratzekotan ere ibili omen dira biak (berdin geroago Aresti), etab. (Irakurleak laster aurkituko ditu Nemesioren gutunetan ahalegin «ausarditsuon» kontuak eta horien kalamitateak: ez gara luzatuko). Gerraondoko lehia bat izan da. Eta mugimendutxo horren esanahian, besteak beste, agian ez diogu zergabekoa iritzi behar bera, asmo hori, gerraondoko «grina» bat izateari. Deskribatu beharrik ez dagoen burdinsarezko unibertso itxi hartan, libertate erotikoa, forma karnabalesko alaietan (libertate imaginarioa bakarrik izanda ere), berri-berri eta fier, gizon-emakumeen existentzia osoa azpian estaltzen zuen antigualetiko kultura ilun itogarriaren mendeku bat signifkatzen zuen euskal letren aldetik, «bizitza salbatzeko». *Decamerone*-n izurritea da, Florentzia ilustreko ataurreak egunero gorpuz betetzen ari diren artean, *locus amoenus* batera erretiratu eta «dibertitzera eta barre egitera eta kantatzera» deliberatuak diren zazpi dama eta hiru galai gazte kontalariren mihi-askatasuna askatzen duena, solas-karnabal deliziotsua, «heriotzaren ihesi». Izurriteak, gerrak bezala, arau eta ordena tradizionalak apurtu egiten ditu: halako behargite gaitzaren eta miseriaren poderioan, legeen hala ohituren autoritate beneragarri oro suntsitu da, hirian bakoitzak bere ahaliritzi hoberenera jokatzen dizu, ia ezinbestean hiritarren jatorrizko usadioen arras kontrarioak sortu dira berriak ohiturak, hiletetan negarra eta lantuaren orde z barrealgarak eta ateraldiak entzutea ez da izaten harrizkekoa. Festarekin bakarrik egin dakioke buru oneski izurriteari. «Son tales los tiempos que toda conversación es permisible, siempre que hombres y mujeres se guarden de obrar deshonestamente. ¿No sabeis, pues, que por la iniquidad de esta estación [izurriteagatik alegia] los jueces han abandonado los tribunales, las leyes, tanto divinas como humanas callan, y a cada cual se le ha concedido amplia licencia para conservar la vida? Por lo que si algo se relaja vuestra honestidad al hablar (...) para deleite de los demás y vuestro, no veo con qué argumento plausible

nadie os lo pueda reprochar en el futuro», dio seigarren egunbeteko pasarte batek¹¹.

Euskal izurritean Andima, Nemesio eta besteen libertatetxo saioak ez du atarramentu onegia ukan –sakristia molde guztietako Tappecoue gehiegirekin egin dute topo. Sakristau bat, ordea, pertsona sensible eta onesto bat da. Sakratuaren errespetuan bizi dena. (Zeinek ez dauka bere kapitulutxo sakratua, ukiezina?). Boccaccioentzat izurriteak –«la peste»–, h. d., heriotzaren biolentzia indiskriminatuak, askatasunaren eskubide osoa justifikatzen du eta kasik behartu egiten du bizipozaren alde. Izurritearen zamak elizatik atera egiten du, filosofiako eskoletatik orobat, ordenazko seriotasun animalitik –alferrikako lor izpiritual gehitu guztietatik–, bizitzaren gaineko solasa; eta atzera bizitzaren lekura eramaten du, jardinetara eta olgetako toki alaiagarrietara («Autorearen konklusioa»). Bizitzak bizitza ezagutu ahal duen tokietara. Txantxara, ihauteriara. Baina ez baikaude Florentzian. Euskal Herritxo moder–moderno hau, Florentziaren Ertaro-amaierako libertate moldera ez bide da oraindik heldu seiehun urte luze geroago. (Konstatazio hutsa izan nahi du, ez iseka). Euskal Tappecoue zelatari ernaiak, «qui ne reconnaissent pas les droits particuliers du rire», Andima eta Nemesioren inguruko lagunek probatu nahi ukan duten karnabal saiotxoak, ez dute inola toleratu.

Ezin zuten (eta, esan bezala, ez da pentsatu behar, sakristauak derrigor memelo bat izan behar duela). Propioki ez da zentsura kontu bat izan. Izan da, euskal kontzientzia tradizionalak beste euskal kontzientzia bat benetan ezin –«kontzientzian»– onartu izateko momentua. Kontzientzi arazo bat. Tragediaren momentua, oholtza bezanbat motiboa, kaskarrak izan badira ere, gure hemendik gaur begiratuta. Kontzientzia hori erdibitzen ari da jada. Oinazetan, hortaz. Errealitatearen eta jokoaren artean galdu egiten da, bereizi ezinda; egiaren eta zuzenaren jabe dogmatikoak, ez daki, mundu berri honetan, errealitatearen beraren joko–naturari eta jokoaren errealismoari antzematen, izugarritzko arriskutzat jotzen ditu –intuizio artez mila–groso batekin, egia esateko– nahas–jolas horiek. Jokoan jabetasun dogmatiko huraxe dabil, ibili ere. Dogmatikoaren ohiko luziditate itsuaz igarri du berak hori, oso ondo igarri ere. Eta dogmatikoa, zerbait ez

¹¹ BOCCACCIO, *El decamerón*, Madrid 1987, II.bol., 517.

izatekotan, suizida ez da izaten. Dogmatikoa birjaiotzen ez den jeneroa da. Hiltzen ez delako. Betiereko eta gastaezina delako. Ordena sakratuaren ertzaina. «Tappecoue (...) a refusé des vêtements pour un déguisement, une mascarade, c'est-à-dire, en dernière analyse, pour une rénovation et une réincarnation. Il est donc l'ennemi du nouveau et de la vie nouvelle, il personnifie la vieillesse, qui ne veut ni naître ni mourir, une vieillesse récalcitrante et stérile, que Rabelais a en horreur. Tappecoue est l'ennemi de la joyeuse vérité de la place publique qui amène le changement et la rénovation, vérité qui imprègne les images de la diablerie imaginée par Villon. Pour Rabelais, ce personnage, dépeint uniquement dans son refus chargé d'une signification symboliquement élargie, est l'incarnation de l'esprit du siècle gothique, de son sérieux unilatéral, fondé sur la peur et la contrainte, de son désir de tout interpréter sub specie aeternitatis, en dehors du temps réel» (Mikhaïl Bakhtine).

Haatik, karnabala krimenerainoko seriotasunez hartua amorratuki, horra paradoxa. Azkenean Villon hori bera ez al da Tappecoue inbertitu bat bilakatzen, baina mila bider estuago eta krudelagoa? Bakhtinek ez dio jaramonik egiten alde honi. Iraultzaren festa sinbolizatuz geratzen da karnabala, barrez eta garaile. Ipuina polita da, eta sakristauaz eta krimenaz zilegi da barre gitea.

Baina borroka, ez iraultz eztanda bat, alaitasun gorrizkoa, Guruzbide luzea baizik, baldin bada?

Edo karnabala iraultzaren erradikaltasun guztiz onartzeko ez egonez gero benetan prest, ondorio guztiekin¹², zer egin orduan? Gure barruko Erdi Aroa zeharo sarraskitzeko ez bagoaude pronto?

¹² Umorea ez da nahitaez beti subertsiboa eta askatzailea. Ankerkeria, sofrimendua eta festa zenbat lotzen diren Nietzschek aski esana ez baligu (*Moralaren genealogia*, Bigarren Traktatua), Milan Kunderak azaldua digu *Barrearen eta abaztearen liburua*-n (1978), barre faxista/stalinista bat ere nola egon badagoen, boterearen kolaboratzailea, ordenaren harrokeriazko edo koldarkeriazko festa. (Askatzailea, orduan, amorrua eta negarra izango da, eta desesperazioa). Lehenago ere irri eta pantomima eta juduaren isekaren funtzioa mitin nazietan Max Horkheimerek analisatu zuen. Baina V. Hugok adierazten zuen jada -in *L'Homme qui rit*- jendemasaren barrea eroen barrea izaten dela («Les tempêtes d'hommes pires que les tempêtes d'océans»). Eta demokrazia modernoetako masaren barre horretaz okupatzera M. Horkheimer nazismoaren esperientziak eraman du esanahitsuki, cfr. *Éclipse de la raison*, Paris 1974, 125-126.

III

Nemesio Etxaniz funtsean etsi eta «bere aroaren» kode moralaren pean makurtu egin da arazo honetan, beste askotan bezala. Horrela bizipozezko jolas alaiak izan zitekeenak, desbideratu egin behar ukan du, eta nobela antzeko erreportaiak maskaltxo bat, alai gabea, bilakatu da. Askatasunaren bide-urratze alairik ez dago. Saio karnabaleskoak frakasatu egin du. (Herri honek frakasatu du, saio karnabaleskoa frakasaztean). Saio tragikoa geratzen da.

Boccaccioren alaitasun sublimatua inpossible bada solasetan, Villonen festa makabroa izango da posible, mendekuaren bortxarekin. Atentatu bat txanpainaz eta kantaz ospatuko du Rabelais berriak. («Umore» politiko hau ote da, Euskal Herrian falta omen dena?).

Paradigma zahar batetik —orain esaten den bezala— irteteko, eta beste berri batean bizitzeko, edo beste bat berria jasotzeko, Erdi Aro erlijiosotik irten eta Ernazimentu humanista eraikitzeko adibidez, maisu greko-latinoen izpirituan, edo Antzinarte klasikoa deskubritzeko soil, laburki esanez (edo «begi berriak» edukitzeko), «il fallait affranchir sa conscience du pouvoir millénaire des catégories de la pensée médiévale, esan genezake M. Bakhtinekin, il fallait avoir pris position sur la rive opposée à la culture officielle, s'être dégagé de l'ornière séculaire de l'évolution idéologique». Ernazimentuko une konkretu horretan Bakhtinek ihauterari munduaren ikusteko modu bezala egiten dion arretari, orain ez gatzatzen interesatuko. Ardurazkoa guretzat fase berriak adierazten duen perspektiba berria izango da, permititzen duena, «de jeter un regard neuf sur le monde; un regard dénué de peur, de pitié, parfaitement critique, mais dans le même temps positif et non nihiliste (...) par carnavalisation du monde, c'est-à-dire affranchissement total du sérieux gothique, afin de frayer la voie à un sérieux nouveau, libre et lucide»¹³. Izan ere, beharbada hauxe izan da Nemesiok osoki lortu ezin izan duena, Nemesioren drama azkenean. Seriotasun zaharra ezin zuen jasan, eta «seriotasun berria» ezin baitaratu izan du.

¹³ BAKHTINE, M., aip. lib., 273.

Garibairen arima hori –ez zerurako, ez lurrerako, airean zintzilik–, uste dut jende askotxo garela egungo egoeran.

Baina zeri deritzogu ezin osoki lortzea eta baitaratzea «seriotasun berria», aro batetik besterako iragaitza libre eta luzidoa? Zeinekiko ez edo zeinekiko bai? Gerraondoa analisirako fenomeno hain konplexua egiten duten aspektuen artean, bat da, hasiera orokor bezala askotarikoa eta bere baitako jende eta proiektuetan ere guztiz ezberdina izan dela. Ez noa ni orain historia hura egitera. Gutun hauetxek ez dira lagungarri txarrak, noizbait egin dadin. Baina har bitez gogoan holako datu simple batzuk: esan daiteke hogei urtean –eta zer urteak!– Euskal Herri hegoan hutsunea totala dela euskal kulturari, 1936-1956. Aspaldi bukatu eta gero ere, gerrak agintzen du. 1956an euskal kultura berriro piska bat higitu nahita hasi denean (exilioan: Jose Antonio Agirre Lehendakariak deiturik, «Congreso Mundial Vasco», Parisen; barruan: gerraosteko lehen Batzarra Euskaltzaindiak, Arantzazun), dena ia mirarizko «berria» irudituko da, baina eszenategian agerturiko protagonista «berrion» adinak, ideiak (politikoak, linguistikoak, erlijioso-filosofikoak), horien proiektuak hitz batean, franko ezberdinak dira hasiera-hasieratik eta laster borroka sortu beharko dute beren artean. 1957an Orixek Agustin Gurenaren *Aitorkizunak* publikatu duenean, arras berria da lan hori hainbat modutan, momentuko giroan ezezik euskal literaturaren historia osorako ere, baina berritasuna diferente samarra gertatzen da gustu batzu eta besteentzat. Are gehiago *Euskaldunak*, batzuek hainbeste igurikia Mitxelenaren esanean, poema nazionala, euskararen historiako obra gailena, etab., aldiz besteren batzuek «un gigantesque album folklorique» eta «la apoteosis del jebismo» iritzia, edo Anuario de Eusko Folklore parekotzat gutxietsia... Dena da berria, baina mundu zahar, berri eta berri-berri diferentek dabilta batera nahasian. Behatzen dituzu protagonisten adinak eta:

- Autore multzo bat [1] XIX. mendearen burukoa duzu (Orixe, Nemesio bera) edo XX.aren hasiera-hasierakoa (Andima, Zaitegi, P. Lafitte, Antonio Arrue «Asteasuko Beltza»).
- Beste muturrean [2] orain autore begiratuak apika, orduan gaxte berde ausartak: Txillardegi, 1929an jaioa, h. d., Nemesio baino hogeita hamar urte gazteagoa; urte berekoa Alfontso

Irigoién (1929), Aresti (1933), Nemesioren gutunetan aurkituko ditugun gazte batzuen izenetara mugatzeko.

- Andanatxo bat gero, tartean [3], gazte helduak edo kontsidera genitzakeenak, eta bi taldetan bereiziko nituzkeenak, irudi bat egiteko: a) Elizako autoreak: Salvatore Mitxelena (1918), Eugenio Agirretxe eta Villasante (1920), Xarriton (1921), - eta b) laikoak: Jon Etxaide (1920), Krutwig (1921), Joan San Martín (1922), piska bat atzerago –eta Parisen– Jon Mirande (1925).

- Nahikoa bakar, azken talde honen [3] eta aurrenekoaren [1] artean kokaturik, Koldo Mitxelena dago (1915), bere adinak, historia pertsonalak (gudaria, heriotze zigorra) nahiz prestakuntza zientifikoak, [2] zein [3]ren gidari eta babesle rolean finkatu ahal izan dutena.

Hauxe duzu hirugarren puntua gogoan hartzeko: gerraondoko hasiera berria esaten denean, ez da belaunaldi berria ulertu behar. Berria denbora da, egoera. Eta «berriaren» esanahi konplexuan hori ere. Oroitzen naiz Rikardo Arregi nolako estuasunean aurkitu zen «gazteria berriaren» analisia egiten hasi zenean: gazte asko zaharrak ziren! «Badira zaharrak eta zaharrak, eta badira gazteak eta gazteak», erabaki zuen orduan. Gaztea edo zaharra izatea izpiritu kontua ei da. 1955-1960an Nemesio zalantza gabe gazte asko baino gazteagoa zen izpirituan. Baina izpirituak horixe dauka kalkulazina: urte gutxi barru zahartua egon zitekeen, eboluzio disparatu baten bazterrerara geratuta.

Gerraondoko «hasiera», adiera konplexu honetan ulertu behar da: hasiera bai, hainbat aldetatik berria ere bai, baina zahar eta berri nahasietako hasiera gehienbat.

Dena den, gure zeregina hemen ez zen belaunaldien historia egitea. Nemesio noraino iritsi den eta noraino ezin heldu izan den ulertu nahi genuen, belaunaldi soka honetako eboluzio edo transformazio konplexuan. Alegia, hori ere, ez esplikatu, baizik planteatu bakarrik: gutun hauetan barrena, beharbada bertan sartu gabe, inguruan egonez (ez egonez oso egoteko modu bat bai baitago), zer izpiritu prozesu doan pasatzen ikustearren. Eboluzio –transformazio– honetako hainbat gorabehera errepasatzeko, Eliza eta fedearen aldetik orain badago

irakurgai polit asko bat, euskara dotorean, Eujenio Agirretxeren *Aldi bartan*, 1995ean Arantzazun argitaratua. Euskal Herriko herriskak eta gure herrietako bizitza katolikoa zer izan diren, mila aldiz ederkiago ikusten da hor, hainbat ikerketa soziologiko astaaakademiko zatarretan baino (*Izotz kandalak* bera ez da txarra horretarako). Euskal jendearen elizbizitza sakrifikatua, hileta tetrikoak (eta klasistak), haurtzaroko ejerzizio beldurgarriak, sexu arazoetako moral gogorkeria, kezka sozialen falta, etab., edo euskaldun jendearekin Elizak jokatu duen papera erakunde moral eta erlijioso errepresibo legez, edo inperialismo espainolaren amaraun eta sare gisa, ideologiko eta kulturala, berdin aitortu eta salatuta ikus ditzakegu Nemesioren nobelan nahiz Agirretxeren autobiografia xume egiatian. Hori dena gauditua duenaren kontzientzia purifikatutik aitortu-salatuak hain zuzen.

Laugarren: errepikatzearen errepikatzez ere oraindik egiazko bihurtzea lortu ezin izan den tesi txar baten arabera, ETArekin bortxa katolizismoaren ondorioa izan da. Ez dugu eztabaidatuko. (Ezagunki, katolizismoak influentzia gutxi du Santanderren edo EAJ-PNVan). Beste honek behintzat eztabaidezina dirudi: gerraostean euskal gizarte osoak bere postura birpentsatu beharra eduki duela katolizismoaren aurrean. Lehen fase batean, hainbat apaiz eta fraile zigorturik eta desterraturik, konbentuetako nagusiak eta Seminarioetako errektoreak frankista fanatikoak, eskolak osoki kontrolatuak herrietan, etab., hiritar guztiak desgorrituak izan dira eta goitik behera birkatolizatuak. Eliza katolikoa Espainiako banderaren erlijioa izan da Jainkoarena baino nabarmenago: ezer gutxi egin zitekeen Eliza horrekin, soportatu baino. Familietako tradizio klerikalak (bai Nemesiok eta bai Agirretxek aipatzen dutenak aipatu idazkietan), eta urteotako inflazio erlijioso itzelak, «bokazioz» bete-betetzen zituzten Seminarioak eta konbentuak eta kongregazio laikoak eta mugimenduak. Euskal Herrian –falangeak eta, presentzia gutxiago zuten– Elizaren eskuetan geratu zen izpiritua bizitza esan genezakeen hori ia oso-oso. Beraz, soziologikoki, Euskal Herri publikoa orduantxe izan da, inoiz izan bada, erabat katolikoa, espaziorik gabe beste ezertarako. Gero, industriaren indartzea dator, belaunaldi berriak, eta orain interesatzen zaiguna: kultura eta bizitza publiko guztia berak osatzen zuen euskal gehi frankista eliza hori, bere barruko kontraesan horrekin gatazkan, bere buruarekin borrokan aurkituko da geroz eta

gordinkiago. Eliza hori Elizari berari gertatzen zaio irenstezina (apaizei, mugimendu eliztarrei) eta, eginahal guztiekin, transformatu egin nahiko da. Transformazioak, ordea, gauza diferente asko signifika lezake. Anekdotak kontatu ahal izango lirateke hemen, nola Txillardegik behin Xarritoni eraso zion esate baterako, hura kristautasunetik atera egiten zela, iruditzen zitziolako, bere transformazioekin, h. d., transformazio gehiegi zegoelako; edo nola beste behin Rikardo Arregiri, marxismoa funtsean Seminarioko fedearen transformazio hutsa omen zelako, eraso zion, h. d., transformaziorik aski ez zegoelako. Edo nola Alberto Onaindiak Rikardo Arregi –Xarritonek kontaktzen du– lepotik heldu eta garrasika erabili omen zuen «Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu»rengatik. Istilu hori guztia, Nemesio barruan egon delako, interesatzen zaigu hemen, «eliza» (kultura) hori transformatu nahiz. Eta esan beharra dago, transformazio horren protagonista handienetako eta ausartenetako bat Nemesio horixe izan dela.

Maila honetan esan daiteke, hamaika pena kostarik ere, osoki eraldatu ahal izan dela errealitate kulturala, eta –penduluaren legeari jarraiki, batzuek begiak atzera lehenera itzuliak diruditen arren– «seriotasun berria» txertatua dela, kontzientzia molde berria, kristautasun erlijiosoan. H. d., nazioarteko influentziak, Joanes XXIII.ak, Kontzilioak, etab., eta not least Nemesio eta Agirretxe bezalakoek hain zuzen, Atx-goiti edo Arri-gain hura orpo–orpotik aldarazia dutela, *Izotz kandelak* eta *Aldi hartan* liburuetako Euskal Herria. Merezimendu horretan sakondu gabe, ordea, txikikeria kurioso bat irakurleak ez du ohartu gabe pasako eta, ez dezagun pasa aipatzeke saio honetan ere: ordena baten antzaldapena, ez hondapena, haren barrutik ihardunez, eta ez kanpotik, eragin nahi izaten duenaren katramilak, esango diogu. Hots, «gizaldi zaharreko apaizentzako, gizaldi berriko apaizen kontuak gazte haizatien berrikeriak ohi dira; eta gizaldi berriko apaizei, berriz, apaiz zaharren iritzi eta asmoak oso atzeratuak iruditzen zaizkie»: baina Don Ximonek apaiz zaharrei minik eman gabe nahiko dizu bere ideiak aurrera atera, kontuz-kontuz ibiliz («etzetzatela uste berak aurea hartu nahi zienik»), aitzaki-maitzakiak hola eta hola asmatuz lantze bakoitzean, bere dirutik ipiniz parte bat ezkutuan, etab. (IK 103-104). Delikatesa inoiz galdu gabe. «Bestearen lekuan» jartzen saiatuz beti. Gobernadore espainol frankistari berari serio-serio irakatsiko

dio, espainolismoaren egiazko logika jatorra zein den, espainolismoaren logika jatorra Nemesioren balitz noski: «que el euskera es la única lengua propiamente española», nola ez, eta euskara zapaltzea «la peor faena contra Franco»! (IK 147, 150). Horrela arrazoitzen duenak, arrazoiketa bat egiten du, arrazoiketa hori ez du derrigor berak sinesten. («Iberomaniarik» Nemesiok ez du bestela inon ageri). Eta poesia erotiko gordinaren premia euskaraz ere holaxe arrazoitu gura izan die euskaltzale puritanoei: puritanoei esplikatzetik ez dagoena, agian euskaltzaleei ulertaraziko zielakoan. Egia esan, guri ere ez zaigu arrazoi hori aparteko sinesgarria iruditzen, poesia horren asmoa euskararen ahalmenen frogak erakustekoa izatea: aitzitik erabat sinesgarria, Nemesiok euskal apologetika zaharra euskal izpiritu are zaharragoa pittin bat berritzeko asmoarekin erabili nahi izatea, iruditzen zaigu... («Gezurtxikion» beharraren azpian igartzen den hipokrisia establituaren ozeano kultural handian barrenago murgiltzeko tentazioa, libre uzten dugu irakurlearentzat).

Nemesio/Don Ximonek antzaldatu, gaintitu nahi lukeen mundu katoliko serioa, bere seriotasun beltzean gatibu dago: Nemesio/Don Ximonen karnabaltxo saioek ez dute izango soluziorik, tragedian bukatuko dute. Poesian bezala Erosen, izan ere, samurtasun humanorik ez dago Argain/Euskal Herri horretan, ez dago barruko askatasunik, beraz umore posiblerik. *Decameron*-n izurrite lazgarria ipuin-ihauteriaren aurrean dago, eta Florentziako neska eta mutil izpiritu-alaien jaia irekitzen du; *Izotz kandelak* nobelan Azkoiti/Argaingo seme alaiaren izpiritua, desenkantatua, izurritean bukatzen da, ipuin guztiak eta fedea galduta. Ez dut bi obren konparazioen bat iradoki asmorik, baina, izurrite deskribatua batean eta bestean itzela izanik, baliapide horren funtzio sinbolikoan, Boccaccioarentzat narrazioaren hasieran eta Don Ximontentzat akaberan, nolabait nabarmena da bien kontrastea.

Hala eta guztiz ere, horrek hausturaren muga-mugaraino gakartza, baina Nemesiok ez du inoiz marra pasatzen eta, gutunketa honetan zehar, aurrerago eta nabarmentzenago doan problema, paradigman transformazioarena baino gehiago, haren (h. d., «fedearen, esperantzaren eta karitatearen») ukoarena eta abandonoarena izango da, langa pasata, jendearen parte batetik bederen, eta paradigma zahar eta berri ezberdinen arteko ikusiko duzun konfliktoarena hortik hara, fede

gutxi eta karitate ez gehiagorekin, gogor. Euskal mundu fededunaren barruko etena –belaunaldien artekoa bide batez– honelaxe deskribatu du Agirretzek: «Eliza Amaren ondotik bere seme eta alaba asko ihes egiten hasi ziren. Eta gure poz asko atsekabe bihurtzen ere bai: ekaitz bortitz bat sortu zen Euskadin. Ekaitzak uholdea ekarri zuen. Eta uholdeak Elizaren baratza oso murriztua utzi zigun. Belaunaldi gaztea sekularismoaren eta politika gogortuaren urek eramane zuten». Agirretzek bere eta, duda gabe, garaikide askoren «fedezko abentura» deritzona, Nemesiok ertz-ertzera ino eramana dago, hein batean nobelatua, hein batean berak bizitua (ik. in IK, Sudupe, Onaindia apaizlagun kalonjeei gutunak adibidez: baina hemen ez dugu izango inolako interes biografikorik arazo honetan). Seminarioan ikasitako sinesmenaren aldeko arrazoiek, egiaz, lehendik sinesten ez duen inori sinestarazteko, ez dute ezer balio (IK 119). Lehendik sinesten zuenak eta fedean seguru zegoenak, froga beharrik ez zuen: horregatik arrazoiek erraz konbentzitzen zuten. Zer egin orain, alde guztietatik zalantzak indartu direnean? «Abade izatera heldu eta orain zeri heldu asmatu ezinda gelditu nauk», aitortzen dio fedearen begirale eta zalantza-dunen zurkaintz berak izan beharko lukeen Don Ximonek adiskideari. «Honetaraino iritxi eta orain gure betikotasunerako jakin behar genituzkeen egiak lainopean galduak ikusi behar!»... Don Ximon ez da pertsonaia pribatu bat. Izpiritu bat da, euskal historiako etapa bat, belaunaldi bat, esperientzia molde bat. Euskaldun askok egin behar ukan duen bere fedearen porrot osoaren esperientzia. Oroit San Manuel Bueno. «Sinistu nahi nuke eta ezin dut» batekin ezpainetan hil da Don Ximon –hil da izpiritu bat Euskal Herrian. Hurrengo belaunaldiak ez du sinestearren halako ahaleginik egin nahiko. Fede desesperatu horren aldean¹⁴, orain, fedegabezia kiskaldu bat edo, egongo da, edo karga astun bat kontzientzietatik iraitzi izanaren ezia. («Kateak apurtu litezke,

¹⁴ Don Ximonen azken orduko aitortzak honelakoak izan dira: «Alperrik dituk nere ahaleginak; munduko etorkizuna lausotan galdua agertzen zaidak, eta heriotza aldapan behera zetorrek nere bila». «Zulo ilun batera erortzera baninjoa bezela, hemen natxegok nora noan asmatu ezinik. Nun izango ote diagu gure betiko lekua?». Beti kuriositate bezala, baina, ez ote litzateke interesantea Don Ximonen eta *Leturiaren egunkari ezkutua*-ren bukaeren artean konparaziotxo bat? Krisi orokorraren ispilu txikiak.

transformatu ez», pentsatuz). Agirretxe eta Nemesio bezalakoak, aldiz, kristautasunaren «agoniari» —adiera unamunotarrean— atxeki zaizkio, arrazoi guztien aurkako esperantzan.

Gerra zibila piztu denean, Euskal Herria era tradizionalen herri katoliko xaloa da, eta Espainiako Hierarkia katolikoak, eta Vatikanokoak berak, «zuek zer zarete lehenago: katolikoak ala abertzaleak?» auzi larrigarriaz estularritu dituzte fededun euskaldunak. Orduan oraindik Jeltzaleak gorriekin joan dira armetan aderez beterik. Baina gero, gerra galdu eta, oinaze tresna batez bezala, euskaldunen kontzientziak alternatibarekin egunoro tormentatzen jarraitu du Elizak sadiko: abertzaleak ala katolikoak lehenago? Nola nahi duzue katolikoak izan eta gorriak izan?... Bukatzen ez zen drama bat izan da kontzientzia askorentzat. (Orixeren *Quito-n arrebarekin* horren lekuko)¹⁵. «Milla urteon katoliku duzu Abendats... Guk eztugu euskotar uts izan nai puntu ontan. Baizik euskotar katoliku», desesperatzen da Salbatore Mitxelena orobat («nolako burruka, nolako larrimiña daramagun barruan»). Salbatore gaixoak —gerra Francoren aldean soldadu egin beharra izan duen abertzaleak eta alde guztietatik bere fede katolikoa gainezka darion fraide frantziskotarrak— azkenean ez daki zulotik nola irten: «Gorde dakigula zeruak gure katoliku fede itxuaren erokeria!»¹⁶.

Hurrengo belaunaldiak ez du eroa izan nahiko. Edo, eroa izatekotan, norbere erokeria hobe dela norberak aurkeratzea eta ez heredatzea, pentsatuko du.

¹⁵ «Amalau urte ditxin ekaitz ori asi zala, ta gogorrena, iru urtetan ibitu zan arren, oraindik irauten dula, ifork uste baño biziago», adierazten zuen Orixek 1951ean (*Euzko Gogoa* 7-8 zenb.).

¹⁶ Salbatorek nahiko garbi azaltzen du, alternatiba horretan zinez abertzaletasunaren lehentasunaren alde erabakiaz gero, pikutara bidali beharko dela Eliza, fede katolikoa eta komeria guztiak (beharbada Elizak zapalduentzat duen «ez-bortxazaletasuna» ere?). «Eztut pentsatu ere nai, Unamuno -idazten du Salbatorek-, katoliku zintzo ezpagiña noraño itzuri ginjoazeken (...). Abenda uts-utsari bakarrik jaramon egingo banio, zurekintxe [Unamunorekin] ninduzuke euskotarrei otseginka: «Jetxi mando gañetik!». «Askotxo, zoritxarrez (ohartzen du jada 1957-58 goiztiar hauetan) aolku ortara okertzen asiak dira», ik. S. M., *Idazlan Guztiak*, Arantzazu 1977, 403.

Bostgarren puntua: bizi, han bizi diren euskal mundu katoliko hori, erradikalki aldatu nahita, berak mundu gabe geratu direnak, ez hango ez hemengo...

(Muturrak erabat erradikaltzen direnean, izpiritu horiek leku gabe gelditzen dira munduan: alegia, ez dagoen leku batean inor ez dago –lekuren batek «irentsi» egiten zaitu nahitaez. Orduan erabateko ukoak «politika orori» emango du salbabide bakarra. Askotan arima sensibleenak bilatzen duten lekua. Ordea: ez dagoen lekuan, ezin izaten da egon).

Beste bide bat izan liteke: honez gero leku denak borrokakoak direnez gero, zeure borroka zein bai eta zein ez den zehatz-mehatz ikusi, eta hura kirmen defendatu.

Nemesiok ustez bazekien, zein zuen bere lekua, apaiza izanda. Baina nola jakin ezer, krisia totala denean?

IV

Aro berri bat hasi da sortzen derrotatik eta desenkantutik («Munduak gezurra diotsu, bihotza» meditatzen du Krutwigek), fedegabetasunaren itsasoan jaio eta geratzeko. Esperantzak hil dira («Itxaropena/ izena duen zital-lili haur!», madarikatzen du Mirandek). «Ezer ezaren samina» erostatzen ari da Joan San Martin «Otsalar». Horixe da Leturia halaber: fede baten, esperantza baten, «lilura» absolutu baten iluntzea eta zuloa. Dena lilura hutsa izan da: «Lilura batek eusten baninduen, ezaguera batek jaurtiki nau» («Uda», 9). Bestelako Euskal Herri baten esnatzea da – mendeetatik!

Elizaren maisu-petralkeriak ez dira gehiago jasango. Fedegabea da –izango da laster– belaunaldi berria, borrokan jarraitzen duen artean «en una desolación activa y resignada», San Manuel Bueno berri «gaizto» baten maneran. Bestelako gorritasun batez –dena ebatsia diotenaren gorritasunaz– helduko dio belaunaldi honek orain politikari («Aberri iopu baten joan zait gaztaro»: J. San Martin), bizitzaren sentidoari, etikari, gizarte arazoari, euskarari eta literaturari, batasunaren borrokari, larre-kultura baserritarra gaunditzeari. Ezin dugu imaginatu, noski, etena, momentu batean garbi-garbi emanda, pun!, hortxe erakuslehoan agertu denik. Erroma 753an fundatu bazen, fundazioaren esanahia askoz geroago ikusi da. Denborarekin joango da azalgaineratuz, abiaburu berriek (pluralen, aniztasun ezberdin eta aldakor handi batekin ageri baita belaunaldi berria) zer ekarriko duten euskal mundura. Edonola ere «Itxarkundia» berri bat, su hotzeko desliluratu bat, sumatzen da «hausturatik» etortzen, eta –hein batean bederen– «mendeetako hautsaren zamatik» libre datorrena. Don Ximon hobiratu eta, Euskal Herrian, «kanposantuko horma zaharretan zintzilik agiri ziren izotz-kandelak, fedea galdutako arima larriak ziruditen»... Mundu modernoa unibertso desenkantatuaren mundua da, adierazi du Max Weberek¹⁷. Eta –berak ere mende hasierako Alemania desliluratu batean

¹⁷ Gure arrazoitxoaren paradoxala! Enkantamendu berri batean arras galdu garenean (razionalitatea deritzo) argitzen zaigu, gurasoen enkantamendu zahar hartatik orain desenkantatuak gaudela. Horrelaxe doa gizadia, enkantamenduz enkantamendu, «razionalizatzen».

gogoetan ziharduela— ezinbesteko «ilusio gabetasunaren» erabateko garrantzia mundu modernoan azpimarratu du tinko, politikarako bereziki. «Mundu honetan politikan interbenitu nahi duen edozeinek, behar du oroz gainetik ilusio guzti-guztietarik gabetua egon». Ilusio edo «balio sakratuen» lekuan, proiektua eta plana beharko dira; ardura moral demo-kristauaren lekuan efikaziaren ardura ezarriko da. Eta ezer handirik lortzeko, egia bada politikoak nahitaez grina eta amorrua behar duela, batez ere pragmatismoaren zentzuan da. Kontzientzia derrotatuaren «arrazoia guk» bandera santu kontsolagarriaren tokian — gerraosteko belaunaldiari horrek lagundu dio zutik irauteko— «irabazi!» jasoko da bandera kontzientzia berri mindu agresiboetan.

Eta ez dago hori gaizkiago interpretatzeko modurik, «moral fal-ta» bezala interpretatzea baino.

Momentu horretan garbi dagoen bakarra da, «moral»ek ezin duela «katolikoa» significatu, katolikok frankista significatzen badu. Horrela —egia da hori— ordura arte «moral» esanahi zuen bakarra, erre kara bota da. Inportantziarik handiena, erlijiozkoetik ahalik libreena dagoen diskurtso laiko bat lortzeko hartuko du gazteriarentzat, «europarra», soil humanoa eta arrazoizkoa... (Modernia zaharraren lehen fasea besterik ez zela hori, askoz geroago ikasi genuen). Hala, marxismoaren jakinmina pizten da, etab. Gutxi batzuk katolizismoarekin erabat hautsi eta beste tradizio batzuetan murgildu dira (Krutwig, Mirande). Baina gazteriak, orohar, katolizismo itxian eskolatua, oraindik ez du aski kulturarik ere, horrelako urrats bat egiteko...

Camus izan zen guztion maisu handi bat urte haietako literaturan hain zuzen. Eta Charles Moeller zen orduan, Lovainako profesore eta pentsamenduaren kritikoa, munduko literaturaren berriemaile inportante bat gure irakasle gazteentzat eta guretzat, Espainia itxi zentsuratuan (*Littérature du XX. siècle et christianisme*, 1953, 5 tomokoa; itzulpen esp., 1955). Moeller horrek, kristau errigortsua baina iparralde libre urrutikoak, Camus fedegabea, etika zindo eta santutasun berri ateista¹⁸ baten bilatzailea, biziki positibo aurkezten zuen («Albert

¹⁸ Ez da ongiegi esana. Gustatzen zaidan formula batekin, Camusek berak honela aitortzen zuen bere buruaz: «Je ne crois pas en Dieu, mais je ne suis pas athée pour autant».

Camus ou l'honnêteté désespérée»)¹⁹, «Jainkoaren isilaldiko» gure denbora nahasiotan gizatasunaren «testigo» edo lekuko bezala, hitzak orduan zuen konotazio erlijioso iradokiorrarekin, eta kasik eredutzat jartzen zuen izpiritu kezkatu kristautentzako. Camus izpiritu independentea, kritikoa, «Camus le juste» esaten zena orduan, Camus beti antifrankista deklaratu guretzat.

Garai hartako izpirituaren espresio bat hartzekotan, bada –hezi eta eratu gaituena, guretzat «liberazio» bat signifikatuz– Camus hori hauta liteke. (Sartre edo beste asko ezertan gutxietsi gabe –Unamuno bera ere!). Camus ez omen da benetan filosofoa. Berdin da. Filosofoa historiarentzat edo akademiarentzat zer den utzita, filosofoa guretzat ez da gauzak pentsatu dizkiguna, pentsarazten dizkiguna baizik. Plantearazera obligatzen gaituena. Eta Camus, «solidaritasunaren lekukoa», bere nobelekin eta teatroarekin, saioekin, bere aureolarekin (Nobel Sari gaztea, Erresistentziako kazetaria, Algeriako gerran kritikoa, kritikoa beti Estatuarekin eta Elizarekin, etab.), bere pentsamendu egia moralarekin, «libertinoa» nolabait aldi berean, azkenean bere heriotza tragikoarekin ere istripu «absurdu» batean (1960ko urtarrilean), kontzientzi maisu miretsi eta maitatu bat izan zen gerraondoko gazteriarentzat. JAKIN aldizkariak interes eta sinpatia handizko Iñaki Bastarrikaren artikulua bat eskaini zion 1957an jada, haren gizatasun paregabea goratuz, ideologiaren eta Alderdien ginetik beti «gizonaren eskubideen alde». (Arestik berea egin eta gogotik erabiliko duen espresioa zen hau; eta ez da esamolde batere marxista). Camus hil zenean Txillardegik *Egan*-en artikulua batekin agertu zion bere omenaldia («Lekuko bikain bat hil da», 1960). Eta harekiko interesarentzat, geroago ere, gure artean, ik. Beltza, «Sartre Camusen aurka edo Iraultza eta Errebolta» *Jakin* 14/15 (1980) 190–195. Yoldi Iturbide, I, «Errebelamendua Camusen ikuspuntutik», in *Giza kontuak*, UEU 1987.

Esan behar da gerraondo tenore hartan iraultza, borroka, herria eta holakoak (orduan herria esaten zen, orain gehiengo) euforiaz aipatzen ziren gaiak zirela pentsamendu filosofikoan, batez ere harro-harro nazismoaren garaile sentitzen zen Frantziako pentsamendu ezkertiarrean. Aro horretan Frantziako filosofia gehiena, edo dena, Hegel eta

¹⁹ «Albert Camus o la honradez desesperada» itzulpen espainolean.

Kojèverekiko erreferentzian ulertu ohi da (V. Descombesen historiatxo ezagunean, adibidez, *Le même et l'autre*, 1979). Izan ere, 1933 eta 39 artean Alexandre Kojèvek²⁰ Ecole Pratique des Hautes Études-en emaniko ikastaroeak, Hegel komentatuz, esan liteke joera filosofikoen erabateko buruzgaina eragin dutela Parisen. Entzule izan ditu A. Koyré, Raymond Aron, P. Klossowski, Eric Weil eta Aita Fessard jesuita, Sartre, Merleau-Ponty, G. Bataille eta Lacan, etc., alegia, Argien Hirian berehala «les maîtres penseurs» bezala nagusituko diren guztiak. Kojèverekin historiaren gailur absolutua eta maisuen maisua filosofian Hegel bilakutzen da. Baina Kojèvek bere-bere modura irakurtzen duen Hegel gudari bat, historia guztiaren ardatza ugazabaren eta esklaboaren dialektikan ezartzen duena («dialektika» hitz magikoa modan jartzen da denboraldi guztirako) eta harrera marxista bat ere problemarik batere gabe onartzen duena bere baitan, norbaitek Marx gustoago izanez gero edo Alderdiaren organuetan karrera egin behar. (Ez al zituen Hegel irakurtzera premiatzen Leninek berak militante komunistak?). Orduan Kojèverengan aurkitu dute beren maisu filosofikoa eskola guztietako «iraultzaileek». Gizadiaren eta historia unibertsalaren interpretazio bat da haren *Fenomenologia*-ren iruzkina. Hor, aurrenik gizatasuna eta gero historia dagiena, gatazkak eta norgehiagoka odoltsuak dira, ez arrazoia; Ideiaren tresna itsuak dira tiranoak, gerrak, Iraultzen sarraskiak eta Alderdien krimenak: beraz, historiako alde negatibo negargarrienak positiboak dira; gizon-emakumeek elkarrekin borroka etenezin batean dihardute martxan, berek nahi gabe, ulertu gabe, beren grinek herrestatuak, borroka irrazionalerik historian arrazoizkotasuna eraikitzen. Kontzientziaren eta historiaren errealitatea gerra da. Bortxa eta borroka. «L'homme «s'avère» humain en risquant sa vie pour satisfaire son Désir humain (...). Autrement dit, tout Désir humain, anthropogène, générateur de la Conscience de soi, de la réalité humaine, est, en fin de compte, fonction du désir de la «reconnaissance». Et le risque de la vie par lequel «s'avère» la réalité humaine est un risque en fonction d'un tel Désir. Parler de l'«origine» de la Conscience de soi, c'est donc nécessairement parler d'une lutte à mort en vue de la «reconnaissance». Sans cette lutte à mort de pur prestige, il n'y aurait jamais d'êtres humains

²⁰ «Philosophe français né à Moscou», irakurtzen da in HUISMAN, D., *Dictionnaire des philosophes*, Paris 1984.

sur terre»²¹. Besteen ezagumentua edo berrezagupena lortzen ez badugu, beti esklaboak izango gara. Aurrez-aurrekoaren ezagumentua eta aitortpena lortzeko, banakoen, nazioen, Estatuén borroka atergabe hori besterik ez da historia; gerra eta odol arteko arrazoiaren, kontzientziaren martxa; eta egiaren eta zuzenaren martxa bera, azkenean. Zeren eta martxa horretan ongi irabaztea dago, gaizki galtzea; eta egia eta arrazoia edukitzea ezagumentu eta aitortpen lortzea bezainbat da, eta ezagumenturik ez lortzea arrazoirik gabe geratzea... Banakoek bezala nazioek eta klaseek borroka egin behar dute mundu honetan beren ezagumentua lortzeko besteengandik: borroka gaizto kupidagabea, «car toute Action est égoïste et criminelle, tant qu'elle n'a pas réussi»²²; erreusituz gero, aldiz, ederra eta zuzena izango da. «Todos los medios son buenos cuando son eficaces», esango du Hoedererek in *Las manos sucias*. Orduan, ongiaren eta gaizkiaren eskrupuloak utzita, egungo gizadi zanpatuak –proletargoak, nazioek, Hirugarren Munduak– kontenplazio gabe borroka egin beharra dauka ezer nahi badu, betirako esklabo izan nahi ez badu, erabateko ezagumentua lortu arte gaurko zapaltzaileengandik; gaurko borroka gaiztoa orduan ongi egonen da. Bidezkoa eta zuzena, historian, egon dagoena, nagusitua dena, baita; ez, galdu eta suntsitu zena. Dagoenaren aurka egotea eta borrokatzea, hortaz, hasieran beti gaizki dago: dagoena egon ez dadin arte alegia, borrokak irabazi egin duelako. «Est bien ce qui existe et en tant qu'il existe. Toute action, étant négatrice du donné existant, est donc mauvaise: un péché. Mais le péché peut être pardonné. Comment? Par son succès. *Le succès absout le crime* [nire azpim.], parce que le succès c'est une nouvelle réalité qui existe»²³.

²¹ KOJEVÉ, A., *Introduction à la lecture de Hegel*, Paris 1968, 14.

²² *Ib.*, 153.

²³ *Ib.*, 95. Garaipenak «arrazoia ematen» duela, hegeliario edo marxista baino lehenago eta hobeto, Erdi Aroko ordalia eta «Jainkoaren epaien» filosofia da, edo nahiago bada Testamentu Zaharreko profetismoa eta Harri Aroko teologia, gero nahi den eran moderniza litekeena teoria politetan. *La Chanson de Roland*-en, Oger daniarrak eraso batean intsignia-eramaile mairua lurrreratzen du; bere intsignia zangopilatua eta Mohameten estandartea laidotua ikusirik, emir mairua «s'en aperceit/ Que il ad tort e Carlemagnes dreit» (vv. 3553-3554). Mairuena ez dakit, baina bistan da zaldun guruztariena eta kanta horren kantariarena, monje bat seguraski, horixe zela bortxaren «zuzentasun» jatorraren filosofia. Gero kapitalistak, edo Max Weberen kalbinistak, negozioiei aplikatu die zaldun germaniarraren filosofia.

«Qué importancia le das a tu pureza, chico! ¡Qué miedo tienes de ensuciarte las manos! – esaten dio politiko iraultzaileak intelektual iraultzazaleari. ¡Bueno, pues sigue siendo puro! ¿A quién le servirá y para qué estás con nosotros? La pureza es una idea de fakir y de monje. A vosotros los intelectuales, los anarquistas burgueses, os sirve de pretexto para no hacer nada. No hacer nada, permanecer inmóviles, apretar los codos contra el cuerpo, usar guantes. Yo tengo las manos sucias. Sucias de mierda y de sangre hasta los codos. ¿Y qué?»²⁴.

Borroka odoltsua bere tresna duen «historia itsuaren» filosofia triunfalista honek (Descobesek historiaren filosofia «terrorista» deritzo) ezaguna da urte loriatsu haietan nolako arrakasta izan zuen intelektualeria frantsesean –hein batean bera ere orduantxe borroka kriminal edo «gaiztoaren» esperientzia pertsonalarekin garaipentsu zetorrena Erresistentziatik. Harro-harro, Frantzia ezezik, mundua askatzeko iraultza banderak zabaldu ditu... Momentu hartan Parisek itzal handia zuen euskal gazterian. Hasia zegoen, gainera, gazteen emigrazio politiko uholdea, estudiante dezenterekin haien artean. Eta horietan batzuek, gorri-gorriak eta internazionalistak (orain pazifistak dira noski), «errealismo» modu honi gogotik atxeki zaizkio: Euskal Herriaren historia modernoa «bilakatua denaren» zuzentasunaren premisatik irakurtzen da honez gero (Foruen galera, etc.)²⁵; eta etxetik Parisera bota zituen euskal iraultza txikia han aurkitu dizuten munduko iraultza handian galdu da. Dialektikak eta burdinezko historiaren zientzia errukigabeak, Stalinen krimenak ontzat ematera ezezik, Mao eta Txina Gorria eredutzat hartzeraino bihoztu ditu. Horiek historiaren lanak dira, onartu beharra dago (subjektiboki mingarriak, baina objektiboki progresistak). Bortxa historiaren emagina da...

²⁴ SARTRE, J.-P., *Las manos sucias*, Madril 1981, 182-188 [orig. 1947koa]. Obra hau espainolez bakarrik dago EHUko biblioteketan. (Sartrearen Obra Osoen edizio frantsesik ere ez dago, espainola bakarrik baino!).

²⁵ Burujabetasun forala galdu bada, Euskal Herrian erdara nagusitu bada, etab., etab., hori dena «historiak» hala behar zuelako gertatu da, progreso guztiz positiboa da eta ez du bueltarik, eta oso ongi dago. Horren aurka («historiaren aurka») setatzea, abertzaleek egiten omen dutena alegia, erreazionari hutsa da. -Dena den, dogmatika historiko hau «progresisten» metafisika ofiziala zen orduan, Paris gabe ere; eta gazteago hauek filosofiako erreibelazio gisa liluraturik deskubritzen zutena, politikan dogma zahar batzuk ziren aspaldi.

Orain bezala, orduan ere denok ez ginen iritzi batekoak. Bazeuden, Jainkoa ez denean, Historia beren alde edukitzen dutenak; eta bazeuden, ez Jainkoa, ez historia eta ez deabrua beren alde suertatzen zaienak, Euskal Herriaren historia berrienean gehienetan gertatzen dela ematen duenez. Ez dut esan nahi, bada, denok Camus irakurtzen genuenik orduan; baina bai, gehien-gehienok inoiz ez garelako izan tamaina horretan hegelianoak –batzuk bederen, aski ezagutzen ez dugula baino arrazoi handiago gabe, egia esateko–, ez marxistak edo Marx-zaleak ere molde horretan, beharbada egia izango delako, euskaldun askori ideia handiak ez omen zaizkigula oso ondo sartzen buruan; baina ziur-ziur, Francok zama handiegia zuelako gure gainean, garaipenak ezer justifikatzen duela onartzeko. (Batzuek esan duten ETArek teoria falta hori, orduan, besteren batzuen sobera baizik ez da izan apika). Egia da Fidel Castrozaleak denok ginela, eta hunkituta ikusten genuela Habanan jende-itsaso baten aurrean «la historia me absolverá» deiadarka. Baina filosofia asko gabe ulertzen genuen hori oso ondo, geu ere esperantzaz betetzen gintuela. Gero, biktimak ginela oroitzen ginen; eta biktimak sekula absolbitzen ez dituen Historia hori –Jainkoa bezala singular absolutuan deklinatzen dena– utzi, eta gure egokierako lanaren eta borrokaren beste kontzeptu baten bila, han–hemengo historia txikar apaletan, herrien eta patuen aniztasunean aurkitzen genuen bidea Camusekin, gure askatasunaren filosofia txiki, tesirik gabeko batzuetan...

Bere obra batean, Jean-Louis Barrault-ekin batera kontzebitua duen *Setio* egoera teatro alegorikoan, Estatu (Modernia) autoritariaren oholtza Cadizen kokatzen zuen Camusek, Espainian hortaz (*L'État de siège*, 1948). Obra hori Camusek berak auto sakramental espainolekin alderatu izan du, hor ere gaia nolabait erlijioa dela aitortuz espreski: baina hori, XX. mendean, «tirano eta esklaboen mende honetan oraino bizirik dirauen erlijio bakarra da, askatasuna». Beraz, askatasunaren auto sakramental bat da, bere kontzeptuan, *Setio egoera*²⁶. Beharbada ez da

²⁶ Estatu modernoari buruz ikus halaber *Les Possédés*, Dostoiievskiren egokitzapena teatorako. Luzaro pentsatu izan da, dio Camusek, Marx izan dela XX. mendearen profeta; baina mende honen egiazko igarlea, dio berak, orain badakigu Dostoiievski izan dela. Berak igarri du inork ez bezala Boterearen zeharoko garaipena Justiziaren gainean, Inkisizio Handiaren Jaurlaritza.

obra teatral benetan potente bat (batez ere Orwell, etab., gogoan edukiz gero), baina hauxe dizu bere mamia: egun batez Izurritea (Modernia) gobernadore dator Cadiz hirira, h.d., hiri alai zorongo batean Ordena – letra maiuskulazkoa– uniformeaz jantzi eta autoritate, Estatu bilakatu da. Berehala izurritea, h.d., modernitatea, fakto bilakatu da kalez kale gizartean, instituzio, lege, ebidentziaren inperio; beraz, Zuzenbide. Ajuriaenea bilakatu da. Bizi nahiz hil, ordena hertsian egingo da aurrerantzean. Hertsi-hertsi razionalki programatzen da dena, guztientzat berdin. Diferentziak eta irrazionaltasuna abolituak geratu dira (diferentzia irrazionaltasuna da!). Logikak agintzen du erlazioetan, bihotzaren sentimentuak ezabatuak izan dira plan berrian; preskribizioek arautzen dute unibertsoa. Maitasuna eta, surtara²⁷. Zigortuta dago beldurrik izatea. Isiltzea debekatuta dago: hiritarrei ahoa indarrez irekiko zaie, eta hiritar zintzoak esan behar dituen hitzak eta pitzak esango dituzte denek, inor ezingo da isilik geratu. (Aginteak konbokatzen dituen manifestaldietara hiritar zintzo denak joango dira...) Banakoaren existentziak ez du ezer kontatzen, ez du baliorik eta ez zentzurik. «Herri bat ginen, orain masa bat gara». Aparatu teknikoki perfektua izango da hiria. Hiritar orok existentzi-agiri bat edukiko du, eta ez daukana borratuta geratuko da existentziatik; bere batelxoan zahartu den arrantzaleak, hemendik aurrera txartel bat beharko du kaitik ateratzeko; zure pauso denak banan-banan zenbatuak eta kontuan hartuak egongo dira administrazioan, etc... Problema unibertsalak. Erregimen frankista autoritarioa baino gehiago, Modernia dago hor planteatuta.

Gerraondoa kulturalki izpiritu berri bat sortzeko proiektua da Europa osoan. Gizakera berri bat. Gerrak mundu zaharra triskatu badu, ez da nahi atzera kaiola zahar hura. Ez faxismoarena eta ez gerraurreko demokrazia ustelena. Mundu berri bat, askatasunarena, gizakiaren errespetuarena, justiziarena, eraiki nahi da.

²⁷ Camusek ironiaz ohartzen duenez, Jainko zaharraren aldean Botere garratza eta razionala da Modernia. Jainko kristaua funtsean anarkistazahar desordenatu bat zen konparazioan, Logikaren jaramonik batere egiten ez zuena eta kategoriak nahas-mahas nahasten zituena: boteretsu ahalguztiduna zen eta ber denboran bihozbera errukitsua, etab. Modernia logikoki estriktoa izango da: ez du Boterea sentimentuekin nahastuko.

(Zer besterik lortu nahi zuen Nemesiok poesia erotikoarekin, askatasun espazio txiki bat baino izpirituentzat? Esanguratsua izan dugu haren frakasua. Eta esanguratsua, hura planteatzeko ere hainbeste zailtasun zuen gizarteak eta kultura berak, biolentziarena bezalako arazo ikaragarriak edukitzea jada mahai gainean, eskandalo gutxiagorekin!... Baina izpiritu hark ez zekien eztabaidatzen, ez dialogatzen, ez zalantza egiten, ez handia eta txikia berezten, ez erlatiboaz ikusten. Bere gotortasun vatikandarrean gaztelututa, denak «mundu gaiztoaren» heresia deabruzko berdintzat jo ditu poesia erotikoa, nobela existentzialista, bortxa armatua eta «H» batua).

Camusen obran, etxean eztabaidatzerik ez zegoen ideia guztiak aurkitzen ziren, misterio gabe lasai-lasai azaldu eta jorratuta: frankismoaren kritikarekin, komunismoaren kritikarekin, demokraziaren kritikarekin, dena liberekin freskoenaz. Eta ez zeurea zein den ikusi ezin dugun posizio batetik dena erraz kritikatu, baizik posizio politiko eta moral garbiekin konprometaturik. Demokrazia, iraultza, bortxa: gaitxuriturik gabe eta santukeria gabe erabiltzen ziren problema guztiak, eta ez zen ematen eskolako soluzio bat, arazo bakoitzaren errezeta modura, baina izpiritu bat irakasten zen orohar eta bizitzaren filosofia bat —«inolako metafisikarik, inolako sineskerarik» nahasteke: doktrinarismoaren arrastorik ez!—, arlo guztietan bakoitzak nola ibili jakiteko. Soluzioa ez dakigu. Dakigun bakarra da, zein izpirituekin beti jokatu. *L'homme révolté* saioan, 1951 (gaztelaniaz irakurri nahi zuenak, Argentinatik lortzen zuen kontrabandoan) tribunal aurrera deitzen dira, XX. mendeko desastreetara ekarri duten ideologia eta Eliza eta utopia denak, denak berdin kondenatuak uzteko. Liburu hau Frantziako Iraultzaz gerozko pentsamendu europarraren epaiketa bat da: «harrokeria europarraren historiarena». (Maritainen *Humanismo integral*-aren —1936 eta 1946— antz-antzekoa, eta oso diferentea batera). Moderniaren —nekez heldu eta erraz nagusitu zaigun horren— kritika erradikala hortaz.

Seigarren puntua: gu non kokatzen gara historia horretan, ala guretzat ez dago inon lekurik? («Historiaren bazterrean geratu ziren herriak...»). Euskal Herria izan nahi badugu, nolakoa izan nahi dugu? Askatasuna lortu nahi badugu, bortxa bai, ez, etab.: zein terminotan planteatuko ditugu auzi guztiok, arazoiketa moderno —ez eliztar— bat eginez? Arlo honetan Nemesiok bere postura tinko hartua daukala,

ikusiko duzu; halere ez da ikusten nola arrazoitzen duen postura hori. Pentsatzekoa da gerra justuaren eta tiranizidioaren doktrina tomistarekin egingo zuela. Baina horrek kristau-demokraziaren barruan bakarrik balio zezakeen, eta han ere gutxienez dudamudagarria zirudien: biolentziaren onarpena eta kristau-demokraziaren abandonoa, biak batera eta eskutik etorri dira behintzat gazterian. Eta gazteriararen une horixe genuke doi-doi esplikatuz beharrekoea, munduaren, historiaren, borrokaren ikuspide berri bat adierazten duen puntu berri baterako mentalitateen transformazio moldea, begien berritzea –«un regard neuf sur le monde, un regard dénué de peur»–, baina horixe da zailena ere (horregatik sinplifikatzen da beti hain estupidoki).

Zein da arazoa, zehazkiago? Arazoa modernitatea bera da. Gizaki modernoak gizaki matxinatua da (errebeldea). Matxinoak dena zehatu du: Jainkoa, erlijioa, jainkozko legea eta ordena (moralak, politikoa), tradizioa...

Gizaberearentzat gauzak ulertzea, ordena batean nola kokatzen diren eta beren lekua doi-doi non daukaten ulertzea da. Ordena bat, haren printzipioa(k) ulertuz, ulertzen da. Horrela, bada, hona hemen bidaia horren geltokiak:

- [1] a) Unibertsoa ordenatua da, barruan –edo gainean– Jainko ordenatzaile bat dagoelako, geometria edo arkitektura eskuarki.
- b) Giza historia guztiz ordenatua da, jainkozko Probidentzia bat dagoelako beti hura ordenatzen eta partiera batetik helmuga batera gidatzen.

[2] Ordea, gero, zeruko Geometria eta denboraren gobernuak Begia kentzen baditugu, orain jada ez garelako fededunak, mundua eta historia ulertuko baditugu, geuk ipini beharko diegu beren ordena. Horixe dago «razionalismoak», Jainkoarekin barik, arrazoimen geometriko eta aurrikusle baten uste edo suposizioarekin. (Pentsamenduaren «sekularizazioa» deitu ohi dena, hortaz, askoz gehiago da filosofiaren teologizazioa eta «Arrazoimenaren begitazioa»: h.d., maskara aldatu, maskaradarekin jarraitzeko).

[3] Gero (Marxekin, Freudekin, etab.) Arrazoimenak bere geometrikotasun jainkozkoa galdu du: dena batasun ordenatu

handi batean biribil dezakeen «azken printzipioaren» (edonolako «Jainkoren») suposizioa abandonatuz gero, unibertsioan hala historian dena jare dabil, kaotiko. Dena erlatiboa da: espazioan ez dago ipar eta hegoa absoluturik, historian ez ongi eta gaizki absoluturik. «Si no se cree en nada, si nada tiene sentido y no podemos afirmar valor alguno, todo es posible y nada tiene importancia. Sin pros ni contras, el asesino no tiene ni deja de tener razón (...). Maldad y virtud son azar o capricho», laburbiltzen da egoera «moderno» hau *El hombre rebelde*-ko Sarreran²⁸.

[4] Kaosa gizakiak ezin jasan du. Historiaren nagusi osoa bera bilakatzeko gizakiaren hurrengo saioa ikaragarria izan da: Estatu bakoitzak (inperialismoa), ideologia bakoitzak (marxismoa, etc.) bere burua absolutua deklaratu du, ongiaren eta gaizkiaren jabe eta munduaren birrantolaketaren arkitektu. Matxinoa «iraultzaile» bihurtu da eta unibertsoa nahiz historia «irauli» beharra daukala eta egin ahal duela uste du gizakiak bere absolututasun uste harroan. Ondorioa XX. mendeko gerrak, kontzentrazio zelaiak eta txikizio basatiak izan dira: Gizaki Jainkoaren obra.

[5] Orain gu behargite (moral) horretantxe gaude eta ez dugu historia hori gehiago jarraitu nahi. Baina ezin dugu historia horren aitzinera itzuli ere. Nola ordenarik lortu orain, printzipio absoluturik gabe, arrazoimen absoluturik gabe? Beraz, egia, justizia, ongi eta gaizki absoluturik («bortxa oro...») gabe? «El hombre rebelde es el hombre situado antes o después de lo sagrado, y dedicado a reivindicar un orden humano en el que todas las respuestas sean humanas, es decir, razonablemente [kasu ez dioela «racionalmente»!] formuladas».

Ikuspideen edo arrazoipideen txango honi, historia intelektual honi, Rousseauk trazaturiko historia (in)morala alboratzen zaio, harako gizaki natural zintzotik hiritar biziotsurako jokabideen bilakaera, «zibilizazio» modernoak ekarri duen gainbeherarena: gizakiak

²⁸ Beste pasarte batean, Nietzsche komentatzen ari dela: «Si nada es verdad, si el mundo carece de regla, nada está prohibido; para prohibir una acción se necesita, en efecto, un valor y una finalidad. Pero, al mismo tiempo, nada está autorizado; se necesitan también un valor y una finalidad para elegir otra acción».

errugabeak eta bertutetsuak zirenean, berekin batera txabolan edukitzen zituzten jainkoak, beren egintzen lekuko; geroago batean, gaizkinak bilakatu zirenean, beren gaiztakerien ikusliar inkomodorik ez zuten nahi eta, jainkoak Tenplu bikain aparteetara aldendu zituzten; geroenean, gero, Tenplu bikain haietan, edo haien pareko zutoin marmoreduneko jauregietan, berak jarri dira bizitzen. Hori da modernia, jainkoen Tenplua –sakratuaren espazioa– gizakiak okupatua: «ce fut alors le comble de la dépravation et les vices ne furent jamais poussés plus loin» (*Discours* 1750). Gizakiaren tenplu edo errege eta patrizio eta magistratuen jauregiotan ikusten du Genevako kalbindarrak errepresentatua gizatasunaren korrupzioaren mukurua.

(Problema ez dira fededun erlijiozkoak, horiek «eskizofrenian» salbatu dira: badakite lau ebangelioekin ez dagoela dendarra eramaterik, edo lantegirtoa kudeatzerik, ez politika egiterik; eta ongi bereizten dituzte barruti batzuk eta besteak, mundu publikoa eta intimoa. Problema «Ilustratuak» dira, antirromantikoak, erlijio gabe sinestunak. «Ilustrazio eta Erromantizismoaren arteko eztabaida da gure artean mugitzen dena» Kortazarrek zioenez, Jon Juaristirekin bat eginda)²⁹.

Orain erantzule bakarra bera dago historian eta munduan, jainkoak ordezkatu dituen gizon-emakume ilustratu eta razional hau. Eta? Erregimen Zaharrean historiaren kapitain oso trebea agertu ez bazen Jainkoa, jainkogabetasuna ez da ikusten trebeagoa Modernian. Arrazoimenaren Auschwitz eta Gulagek, fedearen Auto da feak aise berdindu eta gainditu dituzte. Horrexen azterketa duzu *L'Homme révolté*, 1951. (Honen argitalpenak Sartrekin polemika biolento bat piztu zuen eta bien arteko etena).

Camusen «soluzioa» xehe-xehe esplikatzeko ez gara saiatuko berriro (ik. Beltzaren eta Yoldiren aipatu artikulua), horrelakorik zentzu estriktoan ez dagoelako egon, eta dagoena bera ez litzatekeelako hemengo solaspidea. Gizakia bere neurrietara mugatze grekoan –«ezagut ezak heure burua»– sumariatzen da. Matxinoak gizakiaren kaizuko borrokak eta helburuak ez ditu inoiz traspasatu behar: absolutua lortzeko hybris edo nahikeria denak injustizian amaitzen dira. «Gizakiak posible duena, berari dagokion tamaina ertaineko pentsamendua eta ekintza da»,

²⁹ Ik. *Jakin* 56 (1990) 189.

Camusen formulazio franko dibulgatuak esaten zuenez. Historia ez da absolutua obratzeko lantegia, politika ez da erlijioa. «Pentsamenduaren eguerdian, matxinadak dibinitateari uko egiten dio horretara, gizakiaren borroka eta patu arruntetan parte izateko»³⁰. Egiten duen bere borroka konkretua da gizaki matxinoa handitzen duena, ez aitortzen dituen ideologia eta helburu unibertsalen handi-mandia. Bakoitza bere harriak egiten du, egunero berriro gure harria maldan gora eramateak. Sisiforen patua da gizon-emakumeona. Baina ez asturu tragiko bezala ulertuta, gizakiaren ahalmen eta eginkizun alai gozagarri bezala baizik. Hori da historiaren kontzeptu berria. «La lutte elle-même vers les sommets suffit à remplir un cœur d'homme. Il faut imaginer Sisyphe heureux».

Rousseauk gizakiaren gainbehera morala eta jautsapena ikusten duen historian, Camusek gizakiaren gaingora eta menpegabeziaren konkista, autonomia, libertatea ikusten du, txit positiboa. Historia modernoa ez da negargarria gizakiaren perbertsio moralen bategatik, hark perbertsio erlijiosotik aski liberatzea eta garbitzea oraindik lortu ez duelakoxe baino.

³⁰ «Justiziarik ez dago, baina mugak bai», esaten du koruak *Setio egoera*-ren amaieran (1948). «Eta batzuek, ordenarik sortu nahi ez dutenek, eta besteek, ordenaren barruan dena hertsatu nahi dutenek, muga horiek molde berdintsuan trasgreditzen dituzte». «Ekintzak bere mugak dauzkala» (askatasunaren heroia erraz bihur daiteke kriminal bat) *Justuak* dramaren gaia da batez ere, «eta muga horiek onartzen dituena bakarrik da ekintza ona eta zuzena». *Justuak* (1949) gertakari historiko batean oinarritzen da.

V

Camusek XIX. eta XX. mendea etapaz etapa errepasatzen ditu eta, ikusten duzunez, kritikoa da (kristautasun, liberalismo, marxismo, idealismo) «ideologia unibertsal» guztiekin. «Iraultza» amets guztiekin. (Ez oraingo status quoari onirizteko, noski!). Frantziako eta Errusiako Iraultzen esperientziekin, XX. mendeko gerra eta faxismoekin, ideologien eztabaidarekin, eta mundu hau aldatzeko asmoari ukorik ez egitearekin halere, nahitaez leku handi bat haren gogoetan biolentziaren eta ez-biolentziaren eztabaidari dagokio. Hain zuzen terrorearen esperientzia berri-berritik Europan abiatu delarik gogoetan, Camusek orrialde bortitzak eta bikainak dauzka «bortxaren kondenan» esaten dena: esan dezagun, gizakiak gizakia sakrifikatzearen horrorezkoa larrugorritan jartzen eta salatzen –beti eta kasu guztietan hori, salbuespenik gabe: ideologien eta helburuen axolarik ez, eta horienik hain zuzen gutxien-gutxiena. Ideologiek produzitu duten bortxa da (matxinoa iraultzaile bilakatu izatea) Camusen kondenagai nagusia, eta horregatik batez ere Elizaren, marxismoaren, faxismoaren haren kondenak. Arrazoia simplea da: norbere burua gizaki orok estimatzen badu, bere buruan doi-doi gizatasuna aitortzen eta baloratzen duenak (ez animalitasuna, hots, indarkeria, etab.), ezin du bestearen gizatasuna gorrotatu, erdeinatu, triskatu, ber denboran bere gizatasun propioa konprometatu gabe. Inoren gizatasunari egin irainak, norbere gizatasunaren aurka bihurtzen dira. Neure gizatasunarenak dira, gizatasunaren ukoak oro, nornahirenak direla izan zirkunstantzia jakin batean.

II. Mundu Gerra ondorenean, morala mendebaleko pentsamenduan oinarri zeharo berrien gainean pentsatu beharra dagoela, erabaki duten filosofo, batez ere juduen artean, Emmanuel Lévinas dago, filosofo frantsesa (Kaunasen jaioa, Lituanian), judua bera eta nazismoa eta *stalg* aleman batean presoaldia bere hezurretan sufritu behar izan ditu (gure Etienne Salaberri filosofo abertzaleak bezala, biak oso Bergsonzaleak izan baitira). Pentsagai zentrala biolentzia eta gerra da

beti, zuzenean ala zeharka. Eta bere obra nagusiaren aurreneko lerroetan, 1961ean aurkitzen genuen, garbi-garbi, Lévinasen epai guztiz negatiboa bortxari buruz —egia esateko, ez dut uste lehen urte haietan eragin partikularra izan zuenik gutako gehienez artean oraindik (70. azken urteetakoa izango da haren arrakasta filosofiako ikasleen artean bai Frantzian eta bai Espainian), baina gerraren horrorea funtsean orduko filosofia guztietan berdintsu isladatzen zen eta, gainera, 60. urte horietan mugimendu pazifisten indartze berri bat egon da, Vietnamgo gerrarengatik: gerra, dio Lévinasek, ez da gure historian ustegabeko bat; mendebaleko razionalitatearen ekarri bere-berezko logikoa da. «Ebidentea» da, esango du, mendebalkumearen munduan paratzeko jitearekin. Platonez gero filosofoek «politikaren gainean funtساتzen dute morala»; h. d., ekilibrio inposible bat entseiatzen dute eta ulertzekoa da gero beti huts egitea. Gerra ebitatu nahi bada, moral tradizional hori abandonatu beharra dago. Gerra eta morala ez dago uztartzerik (azken batean ezta politika eta morala ere, iritziko du Lévinasek, politikak beti gerraren posibilitatea pentsatu behar badu). «La conciencia moral sólo puede soportar la burlona mirada del político si la certeza de la paz acalla la evidencia de la guerra». Gerra eta morala ezin da bateratu. Baldingabeko pazifismoa eta mendebaleko kultura, ezin dira konpagnatu. Pazifismo absolutu bat («bortxa oro...!» kondena eta antzeko zerimoniez) absurdua da, lotezina da mendebaleko kultura eta pentsamendu arruntarekin. Lévinasek, bada, bakea absolutu egiteko, Bestea —Bestearen aurpegi desarmatua: «Ez nauzu hilko!», «Ez nauzu hiltzen utziko!»— inperatibo kategoriko gisa onartzen duen jarrera morala galdatzen du. Berria. Orain arteko guztia baino beste pentsamendu eta filosofia bat. Zeren eta: «El estado de guerra suspende la moral; despoja a las instituciones y obligaciones eternas de su eternidad y, por lo tanto, anula, en lo provisorio, los imperativos incondicionales. Proyecta su sombra por anticipado sobre los actos de los hombres. La guerra no se sitúa solamente como la más grande entre las pruebas que vive la moral. La convierte en irrisoria. El arte de prever y ganar por todos los medios la guerra —la política— se impone, en virtud de ello, como el ejercicio mismo de la razón. La política se opone a la moral, como la filosofía a la ingenuidad»³¹.

³¹ LÉVINAS, E., *Totalidad e infinito*, Salamanca 1977, 47.

Bestalde, ordea, nolabait existitu beharra dauka gizakiak; bortxa edo indargintza historian ukatzea, historia ukatzea da (seguruena, ez mendebaleko historia bakarrik). Eta, askotan, historia ukatzea, gizatasuna ukatzea izaten da. Euskal Herriko 339 apaizek euren Gotzainei egin gutunean (1960), *Izotz kandelak* liburuan jasota datorren horretan, Pariseko Kardinal Saliègen aipua ematen da buruan: «Resignarse ante la injusticia sin protestar contra ella, sin luchar, no es digno de un hombre ni de un cristiano». Garai hartan asko erabiltzen zen aipua eta ideia da hori (Erresistentziaren justifikazioan, etab.). Biolentzia bidezkoaren doktrina klasikoa da, erasotuek, Aita Vitoriak irakatsi bezala, «beren buruak zaintzen ahal dituzte(la) eta behar diren guziak egiten horretarako, zeren zilegi baita indarrari indarrez ihardokitzea». (Laster ulertu zen, eraso Franco baino lehenagotik zetorrela). Irakurlea gomutatzen bada, F. Fanonen *Les Damnés de la Terre*, 1961, Sartreren Hitzaurrean ere hauxe irakurtzen genuen: «Erregimena orohar eta zuen gogoeta ez biolentoak ere zapalketa milurtezko batek baldintzatuak badaude, orduan zapaltzaileen aldean zeurok paratzeko bakarrik balio du zuen pasibitateak». H. Marcusek era kasik probokatiboan formulatzen zuen: «En términos de función histórica hay diferencia entre violencia revolucionaria y reaccionaria, entre violencia practicada por los oprimidos y por los opresores. En términos de ética ambas formas de violencia son inhumanas y malas, pero ¿desde cuándo la historia se hace de acuerdo con normas morales?» (*Tolerancia represiva*, 1969). Holatsu da Camusen pentsamendua ere. Bortxa «onartu» beharra dago, historiako (gizatasuneko) elementu bezala. Eta bortxa historian onartzea, gizakiaren tragedia onartzea baizik ez da. Zenbait lantzetan –«guztion duintasunaren defentsan»– gizakiak beste aukerarik ez du indargintzarena baino. *Combat* Erresistentziaren egunkariko zuzendari eta editorialgile bezala, milaka irakurle frantses –eta euskaldunentusiasmatu duen epikaren autorea izan da Camus Liberazio egun heroikoetan. «En la noche de agosto París dispara todas sus balas, hasten zen editoriala, Erresistentziaren isilpeko prentsa izan eta gero *Combat*-en aurreneko zenbaki publikoan, Pariseko batailaren egunetan³². En

³² Sentitzen dut hemen Camus gaztelaniaz aipatu beharra: baina unibertsalismoa eta mestizaia kulturala eta antzeko txilibitukeriak hain arrandioso goraiatzen diren herri honetan (beti espainolez hori), UPV/EHUko bibliotekarteko zerbitzuetan Camusen obrak ere espainol unibertsalean bakarrik daude, ez frantsesez!

este inmenso escenario de piedras y de agua, alrededor de este río de olas cargadas de historia, se han levantado una vez más las barricadas de la libertad. Una vez más la justicia debe comprarse con la sangre de los hombres» («Askatasunaren odola», 1944eko abuztuaren 24). Hotzikara batekin irakurtzen zuen euskal irakurle gazteak: «Una vez más la justicia debe comprarse con la sangre de los hombres»... Eta frase ikaragarriak doinu epiko bat zeukan. «Esta noche vale todo un mundo, es la noche de la verdad. La verdad en armas y en lucha, la verdad de la fuerza después de haber sido durante tanto tiempo la verdad de las manos vacías y el pecho descubierto. La verdad está por doquiera esta noche en que pueblo y cañón rugen al unísono». (Orduan zentsuraren erreinu frankistan asko aipatzen zen beste esaldi bat, «egiak libre egingo zaitue» ebangelikoa zen³³). Abuztuaren 25ekoa sonatua bilakatu da, eta milioi bat aldiz aipatu zen gero:

«A los hombres nada les es dado y lo poco que pueden conquistar se paga con muertes injustas. Mas la grandeza del hombre no está allí. Está en su decisión de ser más fuerte que su condición. Y si su condición es injusta, hay una sola manera de superarla: ser justo él mismo».

Ematen du tragedia grekoa eta lau ebangelioak uztartu direla.

Historiari begiratzen badiogu –gure kultura egiten duen historia horri behinik behin–, aparte «gera justuaren» teoriak ere, beti egon da mendebalean manupekoen indargintza edo bortxa politikoaren legitimazio «moralik», egon, Erdi Aroaz gero, lehenik kristau-teologikoa (S. Tomas), razional-filosofikoa hurrena Modernian sartu orduko (H. Grotio, etab.). Baina legitimazio haietan beti ordena sozial «natural» bat badagoela, suposatzen zen, eta hura puskatzen zuela «tiranoak» nolabait: haren aurkako subditoen gatazkak, ordena haren legeen eta hura berrezartzeko xedearen peko baldintzetan aurkitzen zuen legitimazioa. Doktrina horiek izan zitezkeen aplikagarriak Francoren

³³ Itxaropen ondo «Ilustratua» horixe! Baina Ilustrazioaren paradoxak: Freiburgeko Unibertsitatean, eskualde hartan eskuarra den harrigorritzko horman, urrezko letra handitan dago irarrita promesa hori: Heideggeren «Errektorego hitzaldi» tristea, berak ere nolabaiteko Aro berria iragarritz, gogorazten baitizu gaur! (Adorno-Horkheimeren «Ilustrazioaren dialektika» alegia!). Modernitatea esperantzen eta promesen San Ferminak izan da. Gero, «pobre de mí»!

kontra. Nemesiok hala hartu ditu eta, nik uste, ETaren hasierako militanteei ez zitzaizkien ezezagunak. Paradigma horretan ordena natural legitimoaren izenean justifikatzen da aginte (i)legitimoari borroka. Bigarren ikusmolde batean, ordea, eta Euskal Herrian belaunaldi berriak berehala aurkitu du arazoa modu horretan ere planteaturik, ordena naturalik ez dago, ordena sozial denak historikoak dira: hala ordena bera deklaritzen da arestian bidegabeko eta, ordena sozial berria sortzeko, biolentziarekin dena «irauli» nahi da, agintea nahiz ordena (Iraultzaren Teoria). Fase honetan –biolentzia «iraultzailea» ordena berriaren kreatzailea bihurtu da– esan daiteke indargintzaren legitimazioa, XIX. mende osoa eta Bigarren Mundu Gerra ingurura arteko literaturan, kasik egiaz haren apologia eta epopeia bilakatu dela: Lenin eta Trotzkyrenak ezezik, Lukacsen beraren testu anitz ez dago bestela irakurtzerik (eta Lukacsek izan ditu hemen irakurle debotoak)³⁴, gero ere halatsu jarraitu du Vietnamgo gerraren edo Hirugarren Munduko herrien antiinperialismoaren ospakizun erritualetan nahiko berandu arte (komunistek ezezik, PSOEek ere, beti egin dituenak), orain Bakunin edo G. Sorel bezalakoak ez aipatzeko. Filosofia honek euskaldun gazteren batzuk entusiasmatu zituen, esan bezala, eta beste batzuk batere ez³⁵. Dena dela, oraintsu arteko gure historia horixe izan da mendebalean. (Eta militantzia horietako hainbeste jende geure artean eta kargu

³⁴ LUKACS, G., *Historia y conciencia de clase* (orig. 1923) eta *El asalto a la razón* (orig. 1953) batez ere.

³⁵ Egia da, Sobiet Batasunak intelektualan fedea eusteari utzi zionez gero, entusiasmo horiek itzaliak direla; baina interesantea ez da hori, baizik beren atzoko moralaren zein irakurketa egiten dizuten gaur, leihatila eskeptikotik: «En realidad, aceptar la idea de revolución como violencia, como asunción de un «valor» absoluto al que sacrificar la vida, propia o ajena, significa que no se puede argumentar nada contra el terrorismo: éste tiene razón si gana, y está equivocado si pierde», ik. VATTIMO, G., *Más allá del sujeto*, Barcelona 1989, 16. Horrela, atzo bortxari oniritzen zionak (Alderdi nahiz militante «iraultzaile» guztiek egiten zuten!), arrazoia zeukan, iraultzak irabaziko zuela uste baitzuen; eta gaur bortxa kondenatzen badu, berriro arrazoia dauka, badakielako iraultzarik ez datorrena. Honelako moral batetik oportunistora zer distantzia dagoen, ez da zaila neurtzea: kontua da, baina, problema hori horrelaxe biolentziaren «legitimazio moral» positiboki oinarritzea entseiatzen den guztietan jotzen dela (salbu, beharbada, planteamendu nietzschear heroiko-tragikoan, gerraondoko Euskal Herri hartan Mirandek egiten zuen maneran). Berdin gertatzen da doktrina tomistan edo jusunaturalistan.

altuenetan dabilelarik, slogan batzuen garraisi ozenez hori dena estali edo faltsiatu nahi izateak ez dirudiela intelektualki oso «zintzoa», esan genezakeen gutxiena da). Honela, bada, «bortxaren legitimazioa» eraiki, konstrukto intelektual gisa, inspirazio ezberdinetatik eraiki liteke, nahi izanez gero (inori interesatzen zaio jada?), arazo handi gabe kultura mendebaldirrean –horregatixe pazifista komodo eta intelektualki alferren Gandhi eta urrutiko beste kultura batzuetara ihes egiteko joera hori!

Oso pudoretsuak bihurtuak gaude guztiz orokorki eta arrunki ere biolentziaz eta biolentziaren paper gizakiaren historian «beharbada positiboaz» zipitzik hitz egiteko –Kantek oraindik lasai-lasai aitortzen zuena, positibotasun hori, eta Hegelek, eta Humboldtek, eta UNESCOren bortxaren definizioak berak mingulin gabe kontenplatu duena³⁶. Gerraren –bortxaren– apologiarik egitea³⁷ ez da inoiz nire lana izango: bortxa darabiltenak badaude, ordea, munduan, eta horiek kausa justu baten zerbitzu justuan ezin sekula ibili litezkeenik, ez dago zeruan idatzia. Gutxiago memoria historiko «nazionalean» –monumentu publiko, jaiegun, museo, himno, eskolako irakaskuntza– gerra eta biolentzia loriatsuzko iragan batez esplikatzen direnean oraingo legezketasun baketsuaren oinarriak! Ordea gai baten horrelako tabuizatze

³⁶ «Bortxa ezin da aztertu fenomeno erabat negatibotzat, erasozko portaera gisa soilik ulertuta, baita ere ulertu beharra dago beste baliokide batzuk erabiliz interes positiboak lortzeko balioko lukeen moduan, edota gizartearen egituraren baitan dagoen, baina gutxiago ikusten den bortxa negatiboari erreaziozko erantzuna ematea ere badela» (Mikel Zabaletaren tesi doktoraletik hartua: «Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazka politikoa eragindako bortxak duen zentzuaren bila», Donostia 1996, Psikologiako Fakultatea).

³⁷ Ik., euskaratu berria, FRAZER, J. G., *Urrezko abarra*, I. bol., Bilbo 1995, 88: «Aurrerapen intelektuala, artearen eta zientziaren hazkundean eta ikuspegi liberalagoen hedapenean ageri dena, ezin bereiz daiteke ekonomi edo industri aurrerapenatetik; hauek, berriz, bultzada izugarria jasotzen dute konkistatit eta inperiotik. Ez da kasualitatea giza gogoaren jardunaldi indartsuenak gudu-garaipenen ondotik etorri izana, eta munduko arraza konkistatzaile handiek gehien egin izana zibilizazioa aurrerarazi eta zabaltzeko (...). Ez da kasualitatea zibilizatorako lehen jauzi handiak batzuetan gobernu despotiko eta teokratikoen menpe eginak izatea, hala nola Egipton, Babilonian eta Perun...» Eskertzekoa da, antropologo ingeles ospetsuak Inperio ingeles ospetsuaren apologia gehiegi ez duela disimulatzen.

«mugatu» absolutuak bistan da hemen zein interesi eta estrategiari zerbitzatzen dion... Pudorerik batere ez, aitzitik, bortxa hori eta horiek burutik behera nolanañi madarikatzeko ez da behar hemen (eta bortxaren «aurka edo» pudorez bakarrik zauden horrek, ez duzu jakiten burua non sartu: bortxaren ukatzaile absolutuak onartzen dira soil). Telebistako albistegiek, Estatuan ofizialki sinpatiaz ikusten diren borroka haien informazioan ere (palestinarren borroka, adibidez), bortxaren alderdia ostentzeko hizkera sibilinoa daukate gurilandua –ez bedi norbait animatua sentitu haiek imitatzer, edo haien borroka «legitimoarekin» bere borroka legitimatzer!

Bi Mundu Gerren artean, eta bigarrenaren ostean oraindik (faxismoa, Erresistentzia, kolonietako matxinadak gero: Indiaren etsenplua –Gandhi–, Algeria, Vietnam, Cuba) indargintzaren arazoa zabal-zabal egunerokoa zen, filosofian bezala (Sartre, Maritain) literaturan ere (Brechten teatroan bertan): gerra zuzena, erresistentziaren eskubidea, iraultza sozialaren bidezkotasuna, etab. Eztabaida horretako testuak genituen: Sartreren hainbat idazki militante, Simone de Beauvoiren *Pour une morale de l'ambiguïté*, 1947, Merleau-Pontyren eboluzioa *Humanisme et terreur-etik* (1947) *Les aventures de la dialectique-ra* (1955), eta beste hainbeste. (Merleau-Pontyk asko inpresionatu zuen Rikardo Arregi). Giza bizitzan eta ihardueran, batzuen alde eta bestetzuen aurka egiten da beti, zernahi egin («Aucune action ne peut se faire pour l'homme sans se faire aussitôt contre des hommes»). Giza existentzia atsedengabeko drama hori da (kontzientziarentzat). Gizakiaren borroka eta indargintza gizakiarekiko beti da tragikoa hortaz; batzuen alde ezer egin nahi bada, beste batzuen aurka dago egin beharra. «Au nom de quel principe choisir entre eux?», galdetzen du S. Beauvoirek. Biolentziaren etikaren arazo lazgarriena, geroago batean (baina aspalditxo jada: 1980!) hain zuzen Camus iruzkinduz Beltzak honelaxe laburbildu duena zuzenki eta garbi: «iraultzaren izenean errugabeen heriotza justifika al daiteke? Haren izenean edozein pertsonaren heriotza onar al

dezakegu?» (*Jakin* 14-15, 193 orr.)³⁸. Borrokaren ongi ala gaizkiaren kriterio bakarra, bere prezioekin, askatasuna da orduan, erabaki zuen S. de Beauvoirek: gizakiak gizakia menperatzeko borroka oro da gaitzestekoa, askatasun borroka oro da gizatasunaren eginbeharra. (Ez «ene» askatasunarena, indibidualarena: «se vouloir libre, c'est aussi vouloir les autres libres», dio hark, Sartrek eta Camusek ere bezalaxe hain zuzen). Hirugarren Munduaren askatasun borroka gure/nire askatasun borroka da. Munduko zapaldu guztien borroka nirea/gurea da. Eta Hirugarren Munduaren garaipena, iraultza –filosofia entusiasmo horretan bizi zen orduan– gure iraultza eta garaipena izango da. Mundu osoa martxa bakar batean, askatasunera, garaipenera martxan.

Camus, mundu historiaren irudi optimista hori gabe, eztabaida intelektual horretan txertatzen da bera ere eta, doi-doi, indargintza ontzat daukanean ere, indarkeria «iraultzailearen» aurka azaldu da bera beti eta «askatzailearen» alde bakarrik. Teoria unibertsal bat gabeko bortxaren alde, nolabait esateko. Triunfalismo gabe. Biolentziaren legitimazio etsi bat, esango genuke, Euskal Herrian gazte askok ikasiko dion modura.

(Gainera, inportantea iruditzen zait hemen gauza bat gogoan edukitzea: Euskal Herrian bortxa legitimo *bat* jada egon badago, errealitate bat da, eta, hasteko, eztabaida ez da historian biolentzia legitimorik egon al daitekeen edo ez, baizik, beti dagoen biolentzia hori, noiz jo daitekeen bidezkotzat eta noiz ez; h. d., biolentziaren *etikaren* eztabaida hau guztia, Frantzian ez bezala, Euskal Herrian bortxa faxista garailearen aurrez-aurre, eta haren bedeinkazio katoliko eta demokratikoaren, hots, Francoren de fakto «bortxa legitimo» –Elizarentzat nahiz mendebaleko demokrazientzat– eguneroko errealitate gordinari buruz buru, eta errealitate haren aurka, behar izan dela –eskeptikoki– mediatu. Beharbada bortxaren «legitimazio» eztabaida oro ad absurdum eraman beharra zeukan egoera batean hortaz. Geroreago ikusiko dugu hobeto).

³⁸ Noski, betidaniko, edo munduan moralik dagoen ingurutiko, galdera zaharra da hori, Aita Vitoriak ere zalantza artean planteatzen zuena: «Errugabeen hiltzea zilegi ote da?», ik. F. DE VITORIA, *Indio aurkitu berriak* [Charrittonen itzulpena], Bilbo 1993, 283.

Biolentzia, bada, gizon-emakumeen askatasun borrokak, erresistentziak, matxinadak, Camusek onartzen ditu eta kantatzen ere ditu. Gizon-emakumeon oraingo problemen oraingo soluzioetarako izan daitezela. «Hemen lurrean nahi dugu/ zeruetako erreinua jaso», Heinek esaten zuena (*Deutschland*), umorearekin ulertzen bada, proiektu egokia da azkengabe matxinoarentzat. Camusen eskemetan kabitzen ez dena, munduaren salbazio handirako triskantzak dira. Eta konformismoa orobat, utzikeria, burgeskeria. Camus Iraultza unibertsalaren teoretatik aparte mugitzen da. Gizon-emakume txikion eskualde txikian, txokoan³⁹. Matxinadan. Askatasun konkretuan. Euskaldunak erraz aurki zezakeen bere burua haren meditazioetan. Arestiren «aitaren etxea» bezalako bat ere aurkitzen zizun han: «Quien se entrega al tiempo de su vida, a la casa que defiende, a la dignidad de los vivos, se entrega a la tierra, y recibe de ella la cosecha que siembra y alimenta de nuevo. Finalmente, hacen que avance la historia quienes saben rebelarse también contra ella en el momento deseado».

Beraz, zazpigarren: ez dugu borrokatzen sinesten dugunaren alde, ikusten dugunaren aurka baizik.

³⁹ Ez dago uste izaterik, halere, ideologiaren eta gizatasunaren artean bakun-bakuna denik aukera. Sartrek ez dio muzin egin auzi horri, baina Hoederer «zikina» da gizon-emakumeen egiaz begiratzaila: «Tú no quieres a los hombres, Hugo [«garbiaren» rola daukana]. Tú sólo amas los principios (...). Yo los quiero por lo que son. Con todas sus porquerías y todos sus vicios. Quiero sus voces y sus manos calientes, y su piel, la más desnuda de todas las pieles, y su mirada inquieta y la lucha desesperada que cada uno a su vez riñe con la muerte y la angustia. Para mí sí cuenta un hombre de más o un hombre de menos en el mundo...»

VI

Gerraondoan iturri eta inspirazio ezberdin horien influentzi hariak batera-bestera segitzea nola joan diren korapilatzen, nahasten, autonomo bilakatzen eta garatzen, ezin interesgarriagoa izango litzateke ikergaia. Baina iturri edo ispilu inportante bat Camusen «matxinoa» izan zela, ari ginen ikusten. Erreboltatua.

«Zer da gizaki matxinatua? Ezetz esaten duen gizakia», esplikatu du Camusek. «Diguem no», kantatzen zuen Raimonek. «Ez, ez, ez: ez dut nahi / holako zibilizaziorik!», berak abestu du irakurleak seguru asko. Brechten «Ezetz esalea» (tradizio sakratuenak, birpentsatuak izateko daude!). «Mil fusiles apuntándole no impedirán que un hombre crea en su fuero íntimo en la justicia de una causa. Y si muere, otros hombres justos dirán «NO!» hasta que la fuerza se canse» (Camus).

*Hemos visto el miedo
hecho ley para todos.
Hemos visto sangre
-que sólo hace sangre-
hecha ley del mundo.*

*No,
yo digo no,
digamos no.
Nosotros no somos de este mundo.*

(Gabriel Celaya)

(«Ni ez naiz hemengoa»...).

Belaunaldi honentzat ezetz esateak —esan beharrak— eduki zuen esangura hertsakorra ezin ahaztu dugu. «Ez da ezer ez da egia/ kontra nagona naiz/ kontraren kontra/ eta inor ez dago nere alde», erreparatzen zion bere buruari Mikel Lasak.

Gero ezetz, abertzaletasun edo euskaltzaletasun zaharrari esan zaio urteotan besteren artean. Orixeren Poemako Euskal Herriari, esan daiteke

beharbada orokorki. Orixe hil denean, haren Omenaldi liburuko lagunartean Nemesio Etxaniz dago (1965). Euskal mundua «burruka latzean» ageri bazaio, honez gero bere burua ez du ikusten datozen gazteekin, doazen zaharrekin baino. Gazteak, antza, euskararen onerako baino kalterakoagotzat dauzka. Liburu horrexen hitzaurrean, ordea, Koldo Mitxelena begien bistako ezbaigabeko fakto bezala konstatatzen du Euskal Herrian («gertatua da eta ezinbestekoa, gertatua denez gero») giro-aldaera larria, «herriko eta atzerriko haize berrien eraginaz», gerraz gero. Mitxelena «usteak, sinesteak eta ospeak astindu dituen balioen trukaera» batez mintzo da; eta, zalantza gabe, «balioen trukaeraren» kontzeptu nietzscheanoa beren-beregi hautatua suposa genezake hor. Orixeek –eta Nemesiok berak– ulertzen ez zuen «oraingo eta oraintsuagoko jendeak» nahi duena zeharo bestelako Euskal Herria baita Poemakoa-edo baino, eta bestelakoa Euskaditxo burges deboto txukun bat baino ere. Askatasun berdearen eta justizia gorriaren Euskadi bat nahi da.

Abertzaletasunak baditu formula eta agerkeria jasangaitz batzuk. Ez da espantatzekoa, gero, hari buruz honelako arrazoiak entzutea, abertzaletasunaren derrigor etsaia ez den zenbaiti ere: «sentimentu abertzalerik ez dut nik: ez dut ulertzen, neu han jaioa naizelako leku bat besteak baino hobetzat jotzea», edo «maiteago izatea», etc. Baina «maitatzen dugulako» ala noizbait «maitatu ahal izan dadin» egiten dugu Euskadi nazkagarri honetan borroka? («Euskal Herri nerea ezin zaitut maite...», abesten genuen Leterekin). Egia, ikusten dira «abertzale» batzuk, inoren lotsa eragiten dizutenak, «ño!, hau adinakorik etzegok, inon ez da hemen bezala bizitzen». Egia, non jaten da munduan Sukal Herrian baino hobeto? (Gehienbat horixe dago gaur bilakatua antzina Euskararena omen zen Herria). Eguzkiaren azpian geu gara jatorrenak, ea non dagoen halako harrijasotzailerik (edo formula finagoetan: Donostiako hondartza bezalakorik, etab)... Harrokeria gutxi-asko naiboak edo handiputzak, berdintsu lotsagarriak. Baina A. Elorzak gerraurreko abertzaletasunaz seinalatzen zuen jada, tipo ezberdinetako formulak aurkitzen zirela hor, ea inportantzia handiagoa kulturari eta hizkuntzari, ala politikari, kontzertu ekonomikoari eman, azkenean xedeak ere diferenteak ateratzen zirelarik handik: independentzia, federazioa, etab. Problema hori abertzaletasun guztiekin

edo gehienekin dago: besteren artean, abertzaletasunak berak ez direlako historian higitu gabe egoten, eta historia ere lo ez dagoelako haien inguruan. Aipatu ohi den etadura sakon bat mugimendu politiko modernoetan, interes nazionalak eta interes sozialak, batez ere Erteuropan eta Austria-Hungarian, banatu, eta elkarrekin etsaitu ere, egitera heldu direnean jazo da. Harrezkero «iraultza burgesa» eta «iraultza proletaria» deitzen ziren proiektuak —modu ezberdinetan, Euskal Herrian gehienbat Alderdi eta erakunde nazionalista/abertzale eta sozialisten dikotomiaren forman— etsaiturik ibili dira. Iragan hori izan da gerraondoan hautsi eta gainditu nahi izan dena, konfesional/laiko, katoliko/ez-katoliko eta beste dikotomia hemeretzigarrentiar askorekin batera. Ezetza, beraz, ez da izan uko hutsa, bide berrien bilaketa libreari baiezko kuraiatsua baizik. Aberriaren askatasuna bilatzen da; baina askatasunak proiektu sozial bat behar du.

Tradizio handi baten garaipena izan da, gure artean nazio arazoaren eta gizarte arazoaren bateratasuna deitu da. Baina justiziaren galdea, kontzientzia sozialaren erradikaltasun berri batekin, nonahitsu izan da gerraondoko fenomeno guztiz zabala. Urte horietan kristau-demokraziak berak produzio tresnen jabego pribatua ezabatzea eta kapitalismoa gainditzea agintzen zuen Europa osoan: Rikardo Arregik, desengainatu eta, 1965ean abandonatu du definitiboki kristau-demokrazia hori (EGI-EAJ), iraultzaren eta justizia sozialaren beste bide batzuen bila. Aberri bat nahi badugu, nahi duguna ez da museo bat edo fabrikaren bat. Justiziaren aberri bat nahi da. Gerraondoan —Camusek behin eta berriro dio— ezta gerraurrea ere ez da itzuli nahi, are gutxiago Ertaroko arkadia ilunen batera. Suntsimendu handiari gainbizitakoek, gerraurre horretan ez dute ezagutzen ustelkeria baino, sarraskira ekarri duen gizartearen egoismoa, kobardekeria eta injustizia. Iraganera ez dago eta ez da nahi itzulbiderik. «Aberri berriak» nahi da, justizia eta solidaritzazko mundu berri bat. «No se puede esperar que hombres que han luchado cuatro años en silencio y días enteros entre el fragor del cielo y de los fusiles consientan en ver retornar las fuerzas de la renuncia y de la injusticia, bajo cualquier forma que sea» (*Combat*, 1944eko abuztuaren 24). Erresistentziak askatasun nazionalaren eta justizia sozialaren kausak, aspaldian etenak, berriro lotu ditu («El patriotismo, en primer lugar, no es una profesión. Es una manera de amar

su patria que consiste en no quererla injusta y en decírselo»), ehun urte lehenago bai burgesia alemanaren eta bai Marxen aurka alferrik H. Heinek hotsegiten zuena berea eginez: «bihur ezazue aberriaren bandera gizatasun askearen bandera, nire bihotzaren azken odol tantaraino isuriko dut haren alde orduan... Hau da nire abertzaletasuna» (*Deutschland - Ein Wintermärchen*, Hitzaurrea).

Hola moduzko literaturaz elikatu da belaunaldi berria, Aro berria.

Aro berri honi jaioturteren bat ipintzekotan, gero, jakindarrok⁴⁰, Sudupek bere lehen gutunean gogoratzen duen bezala, 1956 aipatu ohi badugu, inportanteena signifkazioa da, ez urte data. Nolanahi ere urte horrek ez dirudi desegokia, adierazi nahi dena ongi ulertzen bada, edo ongi uler dadin hain zuzen. Plan berrien eta asmo berrien plazaratze bat⁴¹. Izan ere, Euskal Herrian ere ziurrenik nahikoa bai, baina Europa osoan ere nolabait «gerraondoaren bukaera» eta gerraren oroipen zama gabeko fase berri libreago baten hasiera, 68an euforiazko eztanda eta Ministerioen birrajuste estua edukiko duena, maiz ikusi ohi da urtemuga horretan edo horretantsu. Adibidez, gizaki modernoaren autokontzientziak nola eboluzionatu duen ikertzen diharduela, *El hombre como argumento* liburuan Miguel Moreyk honela dio —eta bistan da gure erreferentziak kulturaren eta pentsamenduaren mundukoak direla beti ere: «El enfrentamiento entre Heidegger y Sartre sobre la cuestión del humanismo marcará el punto de partida de una polémica que se extenderá y diversificará durante los años siguientes —alcanzando su clímax simbólico en el año 1956, ocho años después de que la Asamblea General de las Naciones Unidas votara la Declaración Universal de los Derechos del Hombre. Fue aquel el año de la gran encuesta sobre el humanismo, dirigida por la Unesco a los más relevantes intelectuales del momento; fue aquel el año del primer encuentro entre cristianos y marxistas, en Salzburgo, en la que una anunciada y mutua vocación

⁴⁰ Ik. «1956: urte mugarri bat», in: *Jakin* 21 (1981) 35-48 orr. - 25 *Urte euskal kulturari*. (Joseba Intxaustik idatzirikoa atala).

⁴¹ Pako Sudupek berak, aip.lib., 125, euskara kulturalaren ereduaren inguruan Alfonso Irigoyen eta Nemesioren arteko ikamika aipatzen du 1956an, «1955ez gerokoan agertu eta urteen joanean geroz larriagotzen den maila-alde askotariko tirabiren hastapeneko agergarri».

humanista actuó como elemento aglutinador; y fue también aquel, finalmente, el año del XX Congreso del PCUS, en el que la crítica a los «excesos» del estalinismo puso de relieve el carácter encubridor del humanismo abstracto imperante en los discursos oficiales —al tiempo que marcaba el inicio de la penetración del «humanismo burgués» en el seno de los discursos, prácticas y actitudes comunistas»⁴².

Aski. Urte kritiko batzuk ez ditugu bihurtuko urte mitiko batzuk. Ulertzea da orain kontua, Nemesioren bihotza buruarekin ezbai gatazkan zebilen artean, *Izotz kandelak* idazteko posibilitatea pentsatzen eta ez ausartzen, Txillardegi *Leturia* eta *Peru Leartzako* publikatzen ari zela jada: denbora diferente biren arteko desfasea alegia une berean euskal kulturaren. Berdin, *Euzko Gogoa* vs. *Egan*, eta antzeko beste fenomeno batzuk, ez dago sinpleki esaterik gerraurrea eta gerraondoa direla; baina nolabait bi kultur fase diferente adierazten dituztela, ez dirudi gezur handia. Bi izpiritu beharbada, nor bere bidetik ibiliko dena hurrengo urteetan, elkarren ondoan, batzuetan elkarri laguntzen eta gehienetan elkarren aurka.

⁴² Zilegi bekit gehitzea [azken orduko eranskina] LOPEZ ADAN, E., «Rikardo Arregiren garaiko mogimendu politiko-sozialak» artikulutik, in: VV., *Rikardo Arregi: gizona eta garaia*, Andoain 1996, 209: «Kraskaldia abiatu zen 1956 eta 1959 artean. Ipar eta Hego Euskal Herrian, Espainian eta Frantzian ere bai, geroko protagonistak martxan ezarri ziren. Bordeleko ikasle euskaldunak, Ximun Haranen eraginez, *Enbata* aldizkaria argitaratzen hasi ziren 1956an; urte berean Alderdi Komunistaren ezkerrean eta intelektual katoliko progresisten eraginez sortu zen Frente de Liberación Popular erakundea (...). Urte hartan berean Ekinek egin zituen bereak eta bost nazionalismo jelkidea barnetik aldatzeko», etab.

VII

Hori esanda, esan beharra dago segituan, Nemesio ez dagoela mugatzerik bere aldia edo bere fasea errepresentatzera, hots, ez dela izan bere denborako edo faseko izpiritu batere «tipikoa». Nemesio gerraurrekoa da eta gerraondokoa, eta biekin zorrotza. Guztiekin dago eta guztiekin dabil zogi. Guztiekiko aski diferentea izanez bakarrik dago guztien nahikoa gertu. (Telesforo Monzon gogorarazten ote du?). Diferentzia gurbil, dotore horretatik, konfliktoa zebilenoro alderdi etsaiei hurbiltzen eta bitartekoa egiten saiatu izan da euskaltzaleen artean. «Orain gure lana, gazte eta zaharrak alkarrengana batzen egin behar dugu». Hortaz hagitz kritikoa izan da «zaharrekin». Eta ez gazteen arrazoi partea bermatzearren bakarrik. Miranderi bezain jasanezina berari egiten zitzaion giro puritano demokristau extu-zikina, moral faltsua eta integrismoa. Edo «abertzaleen» hizkuntzako espainolismo hutsa Txillardegiri bezain lotsagarria iruditzen zitzaion berari ere. (Hautzaroko bere inpresioa EAJ/PNVeko propagandista haiei buruz *Izotz kandelak* nobelan adierazi du Nemesiok: «Ta benetan, orduko azkoittiarrentzat, bizkaitar erdeldun aiek maketuak ziran»). Gogoeta bat honez gero merezi beharko ligukena da hainbeste denboraren buruan, Azkue, Orixe, Lizardi bera, etab., etab., euskaltzale handienek EAJ/PNVarekiko beti eduki behar izan duten jarrera superkritikoak⁴³, edo Mitxelenak berak izan duen kontzesio estupidoak egin behar izatekoak, zer adierazten duen aspaldiko gure euskararen historian politikarekiko. Ikus hementxe Nemesio, Zaitegi, Andima zer-asma. «Gure herrietako euskararen gainbehera behar hori abertzaletasun gorienak bakarrik eutsi lezake», esango du Zaitegik. Eta halaxe da, izan: bakarrik, abertzaletasun hori Zaitegirena eta Andimarena eta Nemesioren dela, ez Jainkoa eta Lagi Zarrarena. Zeren-ta, Jainkoak eta Lagi Zarrak gobernatzen duten Alderdi hori eta bere organoak, ederki konprenitzen dira erdaraz. «Lotsagarria da eta lotsakizun hori urte asko dira Alderdiak bere lepo gainean daramala», protestatuko du Andimak. Eta komikoa irudituko litzaiguke, istorioaren betikotasunak aspaldi

⁴³ Ik. *Jakin* 21 (1981) 19-34 («JAKINen historiaurrea: abertzaletasuna eta euskara»).

komizitate oro higa-higatua ez balio, Zaitegi eta Nemesio alde batetik enpeinatuta ikustea, Andimak Alderdiaren «Alderdi»n kolabora dezan, eta hau are tematuagoa bestetik ezetz eta ezetz. Nemesiok, abertzale zaharren itxi-kikiri ideologiko eta erdalzaletasun liberal-antza betiraundeko/derako horiek, nazkaezagun askoak ditu, baina halere kolaboratu egin behar dela haiekin uste du euskararen alde. Geroxeago, integrista artaburu haien aurka, ETArekin kolaboratu behar dela ere usteko duen bezalaxe alegia, euskararen alde izanez gero (1966. X. 27)⁴⁴.

Batzuek, historian arbasoak eta nobletasuna⁴⁵ bilatzeko; historiatik eta historia guztietatik askatzeko, batez ere, besteren batzuek, etorkizunerantz: historiaren meditazioa, ikustea eta bizitzea tokatzen zaigun historiatik, eta bakoitzak hor paratzeko dugun maneran, egiten dugu hein batean denok. Batzuek ez ezer ikusi eta ez mediatu egiten dutela beren begiekin eta buruarekin, sekula ez direla esnatzen hortaz (eta garai guztietan egoten direla ez dakigu zein –iragan edo etorkizun–tenoretako jendeak), ez da objekzio bat. Esan nahi duen guztia da, batzuei besteek egiten dietela beren historia. Euskaldunon kasuan asko bide dira horrelako ames edo logaleak. Nemesioren jarreran (eta besteren batzuenen harekin), munduan begiak erne ibiltzeko, erabakiorra gerra zibileko ikuskizuna izan da. Ezin hobeki han ikusi baita, ideiak eta ebangelioak gauza ederrak direla, beste bat kanoiak eta bolbora, «última razón de reyes», Calderón katoliko espainol garbiak aspaldi irakatsi

⁴⁴ «1970ez gero gazteekiko loturak hautsi zitueino -adierazi digu Pako Sodupe, aip.lib., 120 or.-, 60ko hamarkadan integrista ez ziren zahar abertzaleak eta marxista leninista ez ziren gazte abertzaleen arteko zubia egin nahiz ibili zitzaigun».

⁴⁵ Lehengo «odolaren» leinu harrokeria (jatorria, deitura), orain -piska bat modernizatzen ari garen seinale- leinu izpiritualarena bilakatu da: historian arbaso izpiritualak bilatzen dizkiogu orain, ilustreak gure buruari (Ilustratuak), laidogarriak auzoko turkoari (Erromantikoak). Modernizatu gara, beraz, baina beti ere Filipe II.darrak izaten jarraituz izpiritu muinean. Ez da hemengo arazoa, baina, historia mugitu egiten da eta, uste dut, askatasunaren borroka, Ilustratua XVIII. mendean, XIX.ean «erromantikoek» jarraitu dutela, ez burgesia zentzudun eta guztiz ilustratu «antirromantikoak» (Rousseau, gaitz guztien aitarzat madarikatu duenak); eta XX.ean ez dakit zeinek egingo duen, iraganean -beraiek partikulazki maite ez duten Abandotarraren antzera- Arkadia intelektual galduak asmatzen dituzten neoilustratuek behintzat ez. (Gaurko benetako faxistak ez du bere burua atzoko faxistaren jantziekin jantzen; edo, Horkheimerek ohartarazten zuen bezala, Ilustrazioak superstizio eta zuntzunkeria bihurtzeko joera du bere baitan).

zuen bezala⁴⁶. Eta kontatzen duen egiazko arrazoi bakarra, egiaz kontatzen duen azken kontadurian, kanoiak eta bolbora direla. Errealitatean zein gutxi balio duten printzipio handiek eta hitz ederrek. «La prueba de fuerza es la prueba de lo real», Lévinasek aitortzen zuen, moralaren oinarrien arazoa mendebaleko pentsamenduan erradikalki planteatzean («si la moral no es una farsa»). «Arazo sozialak ez dira konpontzen printzipioekin, indarkadekin baizik», Bataillek 1933an ohartua zeukan. Ikasiko du Nemesiok ere. Baina hori horrela ikusi eta mediatu, ikasia zuelako aurretik bere barruan, egin du azkenean Nemesiok, zer den «euskarri izan dituen sineste sendo guztiez gabeturik gelditzea», hau da, ume-umetatik bera inozo asko han bizi zen fede-egilorreko teilatu oinarriak deseginda aurkitzea, erabateko krisian eta biluz, «ordura arte itsu-itsuan irentsitako egien gezurra eta usteen usteltasuna hautematen», Iñaki Seguroiak *Izotz kandelak* nobelaren aurkezpenean idatzi zuen eran. Demokrazia, Eliza ala ebangelioak esan: historian arrazoia indarra da⁴⁷. Alegia, indarra duenari, Elizak nahiz demokraziak laster emango diote arrazoia. Indarrak ez baduzu, ez Elizak, ez demokratek eta ez inongo herrik aintzat hartuko zaitu. Beraz, historian aurrera irten eta zanpatua geratu nahi ez baduzu, badakizu zer egin behar duzun aurrena. Irabaziz gero, etorriko zaizkizu behar dituzun bedeinkazioak eta arrazioak. Eta bakea.

«Gerla galtzen dutenek ez dute sekulan arrazoinik», idatzi zuen Txillardegik *Huntaz eta Hartaz*-en (1965). Ez dut aipatzen arrazoi bereziki originala iruditzen zaidalako, gerraondoko sentimentu samin hori zein antzina-antzinakoa («victrix causa diis placuit», aspaldiago zioen Lukanoren bertsoak)⁴⁸ eta zein gutxi originala den adieraztekoxe

⁴⁶ Calderón de la Barcaren *En la vida todo es verdad y todo mentira*. Gero, Frantziako Luis XIV.ak arrazoi hori bere kanoietan grabarazi du («ultima ratio regum»); hari jarraiki, berdin egingo du Prusiako Federiko Handiak. Boterearen azkeneko arrazoia indarra da (hori ikasteko, nolana ere, apenas dago kanoietan irakurri beharrik); bortxaren gainean dago jasota Zuzenbidea: orain (demokrazian) disimulatu eta ezkutatu egin nahi izaten den hori, munduari erakutsi egin nahi izaten zioten harro-harro monarka haiek.

⁴⁷ Kontrastez, Karlos Santamariak ahalegin handia egin du, etsipen ilun honi buru eginez, politikoki zuzen jokatzea, moralagoa ezezik, historian efikazagoa ere badela luzarora, fedeari eusten Euskal Herrian.

⁴⁸ «Jainkoei garaileen kausa zaie laket».

baizik –Jesukristo baino ia lauhun urte lehenago esan bide zuen «vae victis!» ezagun hori latinez Breno galiarrak⁴⁹. «Bentzutuentzat, etsi zak behingoz,/ ez arrazoi ta ez agur», esan zuen Salvatore Mitxelenak (*Aberriak min dit*, «Abe Marikoa II»). «El vencedor siempre es juez», Joseba Elosegik (*Quiero morir por algo*, 1971) ... Baina 36ko gerra zibilaren ostean Nemesio eta Txillardegi, Joseba Elozegi eta Salvatore Mitxelena eta gainerako tristeak egiten ari direna etsipenez kargatuta, karlistadetako euskal historiaren XIX. mendeko esperientzia XX. mendean berriro mingoski errepikatzea besterik ez da azkenean. «Todos tienen razón, y no la tiene ninguno, el éxito es quien en definitiva la da», deritzo behin eta birritan ja Pachico-Unamuno hark *Paz en la guerra* nobelan. Oso garbia zen Unamuno horretan: karlismoak izan zezakeen munduko justizia eta arrazoi guztia, «no tendría razón mientras no venciese». Arrazoa garailearen pribilegioa da. Edo beste aldetik Foruak abolitu zituen Cánovasek garbi esango duen bezala, garailearen legea da zuzenbidea: «pues un hecho de fuerza es lo que viene a constituir el derecho, porque cuando la fuerza causa estado, la fuerza es el derecho». Beraz, Kardinal Cisnerosek esan bide zuen bezalaxe: «nire eskubideak hauek dira» –kanoiak seinalatuz.

Kontu zaharra horixe, euskaldunontzat ere kontu oso zaharra da hori, edo behar luke izan; baina saltus honetan Erroma ebangelizaturia ebangelizatuz pasa zenez geroztik, badirudi, aldiari aldiko autoritatean «fededun ikazkinontzat», beti berriro ikasi beharreko lezio ahaztua bilakatu dela. Ez Euskal Herrian bakarrik. Kultura erromatarrean eta kristaukumean Autoritatea beti «Jainkoak ezarria da», erregimen laiko jainkogabeenetan ere. Mesprezatzen dugun Sabinen Lagi Zarrean bezalaxe Iraultzak jaso zuen Errepublika laikoan eta frankismoak erditu zuen Demokrazia tolerantean. Boterea sakratua da. Harrizko bere tenplo santuak eta urtean zehar bere liturgia solemneak dauzka.

Diasporako judu batek Jerusalemgo Tenploa zinik sakratuena egiteko aipa lezakeen moduan, aipatzen da gaur gure artean demokrazia. Demokrazia da Moises eta profetak. Oraingo erlijio verdaderoa. Arrazoa eta Egia eta Zuzentasuna. «Demokrazian hori ez da zilegi!» –eta

⁴⁹ Eta Virgiliok *Eneidan* (II, 354) «una salus victis nullam sperare salutem» kantatzen zuen: garaituen salbazio bakarra salbaziorik ez itzarotean datza.

«moralki zilegi» ulertu behar omen dugu. Demokraziak nonbait Jainkosa Arrazoa produzitzeko dohaina du, itsasoko txirla handiak Venus produzitzeko bezala; gehiengoak sortzen du morala, egiaren kriterioak ez logikoak baino kuantitatiboak dira, egia bera iritzien kopurua da: eta bada Bizkaian teologiako profesore ezkertiar edo exkerrero bat ere, ikuspide teokratiko guztiak orain Daviden leinuari kendu eta demokrazian inkarnatzen dizkigunak. Zoritxarrez, agintean fedea galdu zuen belaunaldiak, konfiantza gehiago edo gutxiago izan dezake demokrazian, baina federik ez batere. Uste du, gainera, bere arazo etikoak ez dituela Gobernuarekin konpondu behar, eta honekin konpontzekoak ez direla kontzientziako gorabeherak.

Ez al zuen demokrazia batek sartu kartzelan Arana Goiri? (Eta Sokrate bera?). Ez al zuten, bada, etoiki «traizionatu» demokraziak Jose Antonio Agirre?...

Ez al da Israel demokrazia bat: eta zer demokrazia erabiltzen du palestinarrekin? Ez al da Errusia demokrazia bat: armak utzi eta hauteskundeetan saiatu behar ote dute txetxenek, demokrazian bortxa zilegi ez omen denez gero? Ez al da USA demokrazia bat, eta inperialismoa mihi gaiztoen inbentu hutsa ote da? Mexiko ez al da demokrazia eta Gobernuan iraultzaileak berak ez al daude: zer dabilta Chiapasko indioak armetan, Alderdi kristau-demokrata zintzo bat antolatu ordez eta bozketen emaitzei itxaroten egon? Estrainoa badirudi ere, oraingoxeak diruditen korapilo edo, ez dakit, sentimentu eta eztabaida hauek, biziki arruntak izan ziren 1960 aldera. Mirande ez dugu berriro aipatuko. Orain Gandhi berpiztu nahi diguten horietatik (zenbatgarren saioa, edo saio itxura, azkeneko berrogei urte honetan?), inork ez ote ditu, esate baterako, Txillardegiren «Kristautasuna eta mundutar garaitzapena» eta, saio aldi batean sonatuak, gogoratzen? Elizak (oraingo eliza Demokrazia da) berari komeni zitzaizkion armada eta triskantza guztiak onetsi ditu historian: Gurutzadak, Inkisizioak eta Franco. Ingalaterrak ez du inoiz gerra injusturik egin. Frantziak askoz gutxiago. «Ongiaren» (Demokraziaren, Monarkiaren, Espainiaren, Ingalaterraren) alde gerra guztiak izan dira onak, Ongiaren ustez.

Gogoeta modu haiek bakea eta ordena predikatzen zuen Eliza frankistaren aurka garatuak ziren; eta, filosofia unibertsalen bat baino

gehiago zalantza gabe, denok bizi genuen eta ikusten genuen ebidentzia bat espresatzen zuten. Gandiaga bakezalea bada oraingo bakearen profeta gehienak adinako samarra, nik uste, baina «bakea alfer-alferrik/deitzen dute bake...» ezkutatu behar izaten zuen bere pena poesia batean. (Momentu batetik aurrera, guztien ahotan dabilen bakea, mito hutsa bihurtzen da –hitzaren adiera txarrean– eta ez du ezer esanahi). Orduan ere ez ziren gutxi Francoren bakearen aldezeak: «noiz bizi izan gara hobeto?», «ez ditugu berriro Errepublika garaiko istiluak nahi». Asko eta askorentzat endredatzaile hutsak ziren Francoren aurka zerbait egin nahi zuten gazteak. Eta orduan ere prentsak –eta Elizak– Gandhi goraipatzen zuten. Gezurra dirudi, hortaz –beharbada hori da neoilustratu batzuek hainbeste loriatzen duten «sekularizazioa»– biolentziaren arazoan, oraingo politiko demokratek atzoko Gotzai frankisten diskurtso modu «moralista» bera errepikatzea beti ordenaren apologian. Ez gara konturatzen, edo ez dugu konturatu nahi nonbait, bere bizitzako esperientzian egitura moral («fede») horiek apurtu egin zaizkion gizartean gaudela, eta diskurtso piadoso horietxekin apurtu zizkietela hain zuzen... Biolentziaren problema (etiko) larrien-larriena, diskurtso antibiolentoaren gezur ebidentea besterik ez dela alegia. Horren lekuko Nemesio Etxaniz (ere!).

Batzuentzat, bada, gure sekularizazio moderno berandutxoaren hezurmuin guztia, antza, honetantxe datza: atzo Gotzaietxeko bake-mezu pastoralara zena egun Parlamentuko diskurtso demokratikoa izatean (ondorioz, UPV/EHUko Etikako Katedradun ateistaren begitan Donostiako Gotzai ebangelikoa bera ez da aski erradikalki morala orain); beste zenbaitentzat, ordea –gutxiengoa omen badira ere– utzi metamorfosi hauen fartsak eta, mezu haiek betiko funditu eta zeharo galtzea izan da sekularizazioa, diskurtso sasihumanista guztiakin: txoriaren janondokoa egiten diote gainera diskurtso politiko frakasatuak diskurtso moraletan mozorrotu eta salbatu nahi izate horri. Kasik groteskoa da, orduan, egoera horretan, politikoez eta pazifistek ez edukitzea 60. urteetako erretolikak errepikatzen desesperatzea –berak eta gu– beste ideiarik, batean deboto, garrasika bestean, bortitzak sermoi moraletan, ahulak soluzio politikotan. Ez baita izan «jarraitxu» bat gure herrian, desengainuaren poderioan, esperientziak «argituta» («Ilustrazioa» hori dela esan zigun norbaitek), honelakoak bizitzera eta

idaztera heldu dena: «Gure herriak beste gizaldi gogorragoa hazi behar du Euskadi askatzeko. Gu bigunegi eta klerikalegi haziak gera. Odolak eztingu onik egiten, eta odolik ixuri gabe ez Elizak, ez demokratik, ez dute inongo herririk aintzakotzat hartzen. Jendea hiltzen hasiz gero... A! orduan bai! Elizak ere induljentzi poltsa parra-parra zabaltzen du. Lapur guztiak, suerte ona izan dutenean, beti aurkitu izan dute nahikoa Gotzain, beren gaizkinak bedeinkatzeko» (1961. VII. 21). Zinismoa? Beharbada bai. Guztion begien bistan historian jaun dabilen zinismoaren behaketa, hori ziur. (Tragedian irauenez eta eutsiz aurkitzen omen duela egia izpirituak, irakasten zuen Hegelek, sekula egon den filosofo teologoenak). Alferrik da: herri honetan kontzientzia moral estuenak horixe pentsatzera heldu izan diren herrian gaude. Esperientzia horixe egin behar izan duen herrian. Desengainu tragikoenaren esperientzia. Derrotarena eta (Elizaren, demokrazien) isekarena. Herri honi «bortxak ez garamatza inora», «bakearen gozamenaren abantailak», «gure printzipio moralak biolentoen aldean», alegia, kazetari eta funtzionario eta Gotzain frankistek beti esan dituzten kontuak errepikatzea baino komeria hoberik ez ote zaio inori otuko? Holaxe mintzo zirenei buruz baitago idatzita: «Lehen bezala, pariseo eta eskribak dabiltz azalean igari. Jesukristo berriro Gurutzean».

Elizaren, demokrazien eta euskaldun inuxenteentzat «Ongia» errepresentatzen zuen oren desengainu tragiko haren aski lekukotza dago euskal literaturan, Orixerekin berarekin hasi eta, Andimarekin eta Salvatore Mitxelenaren desesperazioarekin jarrai, Mirandeganaino, azken honen erabateko ukoarekin azkenean demokrazia eta kristautasunari, gerraosteko «gazteria berria» martxan jarri denerako. Hori guztia nahikoa azaldua izan da beste toki batzuetan.

Zortzigarren puntua, hortaz: biolentziaren edo ETAREN jatorriaren azterketa asko psikologikoa (sozialpsikologikoa, psikopato-logikoa) izaten da. Psikologoak ez diren soziologoak, historilariak, juristak, literatoak, filosofoak, poetak, kazetariak, politikoak, beren esparrutik irten eta psikologian agertzen dira kasu honetan bortizki adituak eta iaioak bat-batean. Egunotantxe EHU/UPVeko soziologiako katedratiko bati entzun diot, gurasoei egindako umiliazioaren umeen mendekua bezala esplikatzan ETAREN sorrera eta, gero, oraingo gazteen istilumendi guztia. Testuren bat edo, 1955 aldekoa, horren frogatzeko, ez du agertu.

Aitortu behar dut, esplikazio horietako gehienen abantaila handia (ez dakit Ediporen edo Elektraren konplexuak edo, bulgarizaturiko Freuden topiko pare bat denok ezagutzen dugu eta), termino kultural pseudotekniko sinple horiekin misterio ilun dena koherenteki eta osoki argituta presentatzea dela, lasaitasuna ematen digularik, lehendik gure kulturaren geneuzkan eskema edo kategorietan horrela ETaren problema korapilotsu horrek ere leku bat azkenean lortzen duela ikusteak. (Gaur egun, psikoanalisi merke baten hokuspokus batzuk oso-oso terapeutikoak dira sozialki, ez ulertzeak sortzen dituen jendearen fantasmak, in segurantzia eta beldurrak, uxatzeko; halaber ikerlari eta profesore jaunentzat, «etsaiak» psikoanalitiko-akademikoki estudiatu, h. d., txorimalotu eta maspildu ahal izatea, leun-leun beti, edo Jon Juaristik Lizentziatu Pozari egin dion ikerketan bezala nobela fantastiko baten goiti-beheitietan zilipurdikaraztea, balio handikoa da, arazoak argitzeko ez bada —zer da hori: esperpento bat, edo adarjotze bat ikerketamolde akademiko konbentzionalei apika?—, autorearen katarsi sendagarri baten funtzioa betetzeko)⁵⁰. Desabantailarik handiena, gero, izaten da, esplikazio akabaila guzti horiek, esaten duten horren testurik edo daturik sekula alegatzen ez duten eraikuntza ofuskatu soil-soilak izatea, zientzia enpirikoetarako hipotesi eta are tesi bitxi samarrak gertatuz horrela. Beharbada problema horiek piska bat kultur-historikoki datuekin esplikatzeko entseia liteke, jeneralean gero ETan edo haren inguruan ibili direnak, edo harekin zerikusirik ukan dutenak, irakurtzen zuen eta idazten zuen jendea izan dira-eta. (Egia da askok euskaraz idatzi dutela, eta zientzia espainoetan *uasconica non leguntur*, Mitxelenak inoiz esan zuen eran). Euskal Herrian 55-65 aldera zer irakurri eta idatzi den behatuz gero, nahi diren bestelako esplikazio moduei ezer kentzeke, zerbait baldin bada ebidentea, krisiaren —eta espeziifikoki balioen krisiaren— gaia da hori, poesian, nobelan, saioan eta polemika politikoan bertan. Nemesioren gutun hauetxek material ezin egokiagoa lirateke

⁵⁰ «Es un instinto secreto, taimado, vulgar, no confesado tal vez a sí mismo, de empuñarse al hombre? [«Bestea» kaxkartzekoa alegia]. ¿O quizá una suspicacia pesimista, la desconfianza de idealistas desengañados, ofuscados, que se han vuelto venenosos y rencorosos?», cfr. NIETZSCHE, F., *La genealogía de la moral*, Madrid 1984, 30.

zentzu horretan (*non leguntur* arasan klasifikatuak geratuko direla ahazten bada). Laizismoaren bilaketa bat kontsidera genezake, balio tradizionalak («aitaren etxean» beti erlijiosoak) birrinduz gero eta berregin nahi ez direnez gero. Laizismo honek krisiak adina espresio modu dauzka. Alde batean Toribio Echevarria marxista bere-modukoak «el socialismo como teoría económica y social no es deísta ni ateo» aldarrikatzen zuen batasun bila, eta gauza bera errepikatzen ari zaizu bestean Rikardo Arregi, bere esanean katoliko askok ulertzen ez omen zuen katolikoa, borroka sozial eta politikoaren ez konfesionaltasuna errebindikatzeko. Ihes egin nahi zaie, historian beti nagusi ibili ditugun planteamendu «sinestunei».

Gure belaunaldiarentzat, 55/60 inguru hartarako esan nahi dut, gero Rikardo Arregik gazteriaren «esnatze garratza» deituko duena, aldez Camusek iragarria eta aldez berak irakatsia edo deskribatua kontsidera genezake (gehi Sartrek, etab., ere noski). Camusek dioen bezala, izpirituaren eta errealtatearen dibortzioa (*Le mythe de Sisyphe*, 1942), fedegabetasuna, desilusioa, munduan oro zerrikeria eta bortxia den inpresioa (orain berriro Roldán, Galindo eta GALen historia guzti horrek irakasten duena), belaunaldi honentzako abiapuntua izan da, ez konklusioa. Diferentzia inportantea duzu hori. Borroka ez da esperantzaren hautu bat izango, amorrutarena eta etsi ezinarena baizik: «...azkenean ikasi zuen izpirituak, ezpata ezin zuela ezpatagaz baino borrokatu eta hartu zituen armak» (*Actuelles I*, 1959). Toribio Echevarria Eibarko sozialistak «a la violencia de los violentos ha sido preciso responder con la violencia y vencerlos por la violencia» idazten zuen hunkituta. Agian ohartu da eta bere golkoan, «quid enim est, quod contra vim sine vi fieri possit?» («Zer da biolentziaren aurka biolentzia gabe egin litekeena?»), puntu askotan gizakiaren historiak dirudien «betiereko itzulera» honetan, antigualean jada Zizeronek galdetzen zuela, mediatu du, Venezuelako desterru isilean. Hau da, ideien inuzentzia galdu da. Galdu da «fede» bat. Historia tragedia da eta «konbertitu» egin behar dugu denok (gorriek, urdinek hala marroiek)...

Ez gara berriro garaiko «cet insaisissable sentiment de l'absurdité» hura deskribatzen luzatuko, maiz asko egin izan da: bakarrik sentimentu ilun horren barruan borbor irakiten dagoen matxinada, ausiabartzaren barruko errebolta etsia, «fedegabea» («sans appel..., sans espoir»)

nabarmendu behar dugu. («Euskal gazteria fedea galtzen ari omen da. Nik, hori, pozgarria dela esan daitekeela uste dut», epaitu zuen Rikardok)⁵¹. Izan ere, gazteriaren protesta, iluminatu eta utopista, «mundu salbatzaile» eta jainkoak daki zer gehiago batzuen bezala ridikulizatu nahi izaten da gehienetan, eta ahaztu egiten da, edo ignoratu egiten da, euskarazko ezer ez baita ikertzen, 55 eta 65 artean gutxi gorabehera, gazteriaren borrokak gerria hartu duen epe horretan alegia, esperantzak eta utopiak oso leku gutxi dutela, inoiz gutxi izan badute euskal gizartean eta euskal literaturan (cfr. Mirande, Krutwig, Txillardeggi, San Martin, Aresti, etab.en obra literaria urte horietan; eta zer esanik ez, Nemesio, Salvatore Mitxelena). Erresistentziaren izpiritua –«cette longue obstination» (*L'été*)– ez da utopiaren diridaitik bizi, desesperantzaren ilunetik baizik. Uko handitik, etsitik. Erreboltatua ez zaio garaipenagatik lotzen borrokari, derrotaren ukoagatik baino. «Hamaika amaren seme...»: ez irabazten den gerrara, galtzen ez omen den erresistentziara bakarrik, joanak. Etxetik negarrak eramane zituen gudariak, ez konkistaren ametsak. «La grandeur a changé de camp. Elle est dans la protestation et le sacrifice sans avenir», G. Bataille idatzi zuen bezala, honez gero iraultzaren egiazko izpiritua desesperaziotik bizi baita, ez «optimismo doilorretik», ez historiaren Hegel edo Marxen teologietatik («*Le Problème de l'État*»). «Atxikimendu iraultzaileak ez du kontzientzia dohakabea beste irtenbiderik». Irakurlea oroitzen dea apika A. Memmiren *Kolonizatuaren ezagugarria*-z, 1957, Txillardegik zoragarriro itzuli zuena? «Herri batek, irakurtzen dugu hango Sartreren hitzaurrean, bere heriotzaren tankeraz besterik hautatzerik ez daukanean, eta zapaltzaileagandik etsipenaz besterik ezer har ezin dezakeenean, zer besterik gal lezake? Zoritxarra bera bilakatuko du bere ausardia»... Tenore horretan literatura ugaria dago egon, nahi izanez gero, mundu

⁵¹ Gazteria abertzalearen fedetik (eta, beraz, fede tradizionalaren balio eta ordena-ereduetatik) urruntzea lehenagotik dago gure literaturan ohartua, Orixek (*Quito-n arrebarekin*, 1951), Salvatore Mitxelenak (*Unamuno ta Abendats*, 1958), etab. Ez ahazteko Miranderen deia kristautasunari uko zeharokoa egitera, edo Krutwigen kritikak Elizari (abertzaleatasunaren arrazoi moldez), etab., etab. Rikardok berak galdetzen zuena da, abertzaleatasuna zergatik ez zen borrokaria, eta «euskaltzaleen Jainkoa hiltzera» hotsegiten zuen. Gero gehiago puntu hauetaz.

zaharraren hondarretan piztu den izpiritu hori dena aztertzeko eta ulertzeko: Sartre, Camus, Bataille, etab., historiaren ezain kredo «ortodoxori» atxeki zaion hainbat errebolatu⁵². Gertatzen dena da, gure analista gehienak, berak direla Noeren Arka fededun eta salbatzaileren batean luzaro nabigatuak eta, orain lehorrean eta teilape akademikoan bizi direlarik, derrigor beste Arkaren batean situatuz baino ezin dutela ulertu besteak bestela borrokan aritzea uholde honetan, konpasik gabe eta izarrik ere gabe, bakarrik uhinen kontra: teoremak eta dogmak, hori ongi ezagutzen eta ulertzen dute, eta edonon horixe bakarrik bilatzen dakite, marxistak eta maoistak eta demokratikoak; ostera «ces élans nés du désert», beren izpiritu filisteoak ezagutzen ez duen elementu metafisikoa zaie hori. Borrokari ez mesianiko bat, ez dute imaginatzen. (Berak hala izan baitziren). Teoria handi gabeko borroka bat. Beraz, mila esplikazio daukate eta ezer ez dute ulertzen.

«Bizi nahi» gorria.

⁵² Ene ustez Camusen posizioa *Julius Caesar* tragediako Brutori Shakespearrek egiten duena baino erabakitsuago oniriztea da politikoki ere, ez moralki edo sentimentalki bakarrik: matxinada, h.d., Zesarren hilketa, norbere kontzientziarekin konfliktoan egiten da «with himself at war», -indignazio moralak eragiten du, eta libertatearen alde egiten da, ez anbizio pertsonalengatik, baizik ongi orokorraren alde. Eta, azkenean, heroiaren suntsipen eta heriotzarekin ordaintzen da: inmolazioaren bide hori da gizadiaren askatasunarena, ia modu ebangeliko, erradikalki etikoan. (Hau da, lehenengo matxinada egin eta gero gurutzean hiltzen den Jesukristo bar!). Ulertzen da Sartrek eta, onartu ezin izatea -eta Camusen euskal irakurleek ere bigarren plano batean bakarrik nahiago izatea ikusi inmolazioaren kapitulua, ez onartzen den eta nolabait bortxakeriaren justifikazioa a posteriori -erredentzioa!- ematen duen zerbait bezala, saihestu ezin den patu bezala soilik baizik.

VIII

Egia da 1967an Rikardo Arregik egin zituen gazteria berriaren analisi haiek («Sozialismoa modan dago», «Ezker berriak», etab.), koadro argitsu hagitzez baikorra, ideologizatuagoa, ematen dutela itxuraz: belaunaldi berria jada sozialista da, nolabait marxista, ezker berrikoa, iraultzaren xedea duena, etab. Azterketa horien mamia xeheki beharuz gero, ordea, hor ere ezetzak handiak eta borobilak direla, ikusten da, baietzak ez asko eta gutxi haiek ezbaitsuak; baieztapeak baino gehiago bilaketak, joerak. Hau da, kontzeptu berririk baino askoz gehiago kontzeptu zaharren kritika aurkitzen da. Belaun berria sozialista da, baina sozialismoa zer den galdezka; iraultzailea, baina iraultza nola egin bila dabil, etc. Belaunaldi horrek garbi dauka, aitzitik, abertzaletasun zaharra topiko pila eskolastiko bat besterik ez dela, eta sozialismo zaharra beste topiko pila zaharkitu burokratiko bat. Orduan, ez Francoren aurka soil, «arrazoizkotasun» zahar usandu horren aurka jaiki da gazteria. Eta, horregatik, «belaun hau rebeldea, konformagaitza eta radikala izango da», deskribatu du Rikardok.

Gerraosteko belaunaldi bat edo bi honen kritika gogorrena, Rikardo bera barne dela, Elizarentzat eta katolizismoarentzat izango da. (Kritika zeharo diferenteak: Mirande, Krutwig, Txillardegia, Rikardo...). «Une révolution s'accomplit toujours contre les dieux, à commencer par celle de Prométhée», beti Camusekin esateko. «Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu!» (Rikardo Arregi, 1967). Orixek lehenago abisatua zen: «gure yendea on izatez aspertzen ari din. Gure gazteria ezkerretara, gero ta geiago. Aski bultza egin zionate» (*Quito-n arrebarekin*, 1950-54). Zapuzten den Eliza hori, Jainkoa edo jainkoak hori, ordena moral osoa da gizartean, besterik ez: tradizioa da, balio sozialak («ez inor hil», «izan sexualki garbia eta kasto», «aginteari zintzo men egin»), historia –ustez orainari sentido ematen diona–, pertsonaren errespetua, lan baldintzen araudia, hots, gure autokontzientzia osoaren zuzentasuna da, esparru indibidualean zein sozialean. Eta hori dena da, belaunaldi hau porrokatzen ari dena, edo hori dena da hari porrokatzen ari zaiona. «Ce monde absurde et sans dieu se peuple alors d'hommes qui pensent clair et n'espèrent plus» (*Le*

M de S). Hutsune handian laster ideologia handiak sartu badira, ikusi dugu, polemika ideologikoez gar handiak baina iraupen txikia eduki dutela. Ez zegoen hor mamia.

Eztabaida ideologiko (eta existentzial) berezi-berezia Eliza espainolarekin ibili du belaunaldi honek, autoritarismo faxistari hemengo bere tankera «sakratu» partikularra janzten zionarekin. Bazeuden nazional-katolizismo horren kritika katolikoak Frantzian (Mauriac, Bernanos), zalantza gabe hagitzen kontsolatu zituztenak Nemesio eta. Baina, bat, ekarri egin behar ziren Frantziatik⁵³; eta, bi, ekartzen hasita, askoz kritika gehiago eta gogorragoak erraz aurkitzen ziren Frantzian bestelakoak, katolikoak baino: Camusen salaketak, adibidez, Gotzain espainol mertzenarioei, Aita Santu Pio XII.aren oportunitateak, edo Camusek Marcel filosofoarekin izandako polemika («Zergatik Gernika, Gabriel Marcel?») Espainiako tirania totalitaria eta Eliza ekialdeko erregimenekin eta Alderdi komunistekin parekatuz, Unescorekin haustura publikoa Espainia frankista barruan hartu zuelako, etab. Camus harago ere bazihoan, ordea, «kristautasuna bere esentzian injustiziaren doktrina da (eta horretantxe datza bere handitasun paradoxala ere)», azaltzen zuenean d'Ormessoni buruz buru. Kristautasuna «errugabekoaren sakrifizioan eta sakrifizio horren onspenean oinarritua da. Alabaina justiziarik ez dago—eta Parisek hala frogatu berria digu matxinadaren garrek argitutako bere gauekin—errebelamendu gabe». Katolizismo espainolaren konprometuz politikotik, kristautasuna bere funtsean zer den eztabaidatzeko—moralki, kulturalki—, eta hartan moral dekadente gizagabezle bat ikusteko, ateak zabaltzen zituzten horrela Camus bezalako autoreek.

Azentua ordura arteko munduaren gainbeheran jartzen ari banaiz, ez da gero harro asko ibili diren ideologiak ukatzeko, edozein kasutan ere hondamendi hura eskuarragoa eta efektuetan sakonago eta iraunkorrago agertu dela enfatizatzeko baino. Etsipena, esperantza, desesperazioa, utopia, nahiko nahastuta ibiltzen dira praktikan. Desira beti dago. Borrokan denak izaten du bere ordua. (Zibilizazioaren

⁵³ ETAk, armak baino lehenago, liburuak ekarri zituela herri honetara kontrabandoan, esan izan dut. Hau norbaiti bortxaren apologia iruditu bazaio, faltsutuz ez dugula hobeto ulertzen gure historia, jarraituko dut pentsatzen, bestelako enpeinu demokratiko handiena badago ere.

kolapsoetako «arimako zismaz» mintzo da Arnold J. Toynbee, eta ziurrenik bakoitzak eramaten dugu hori geure barruan). Marxismoak mundu berri bat agintzen zuen historiaren helmugan, esperantza handia. Existenzialismoan eta Camusen pesimismoan ere badago gizakiarentzako esperantza bat («l'espoir ne peut être élué pour toujours»), esperantza txikitxo, ja ez Hegelen edo eskatologia judu-kristauarena. Desesperazioaren errebolta itxaropen bat espresatzen da⁵⁴. Esperantza handiak eta txikiak nahastuta ibiltzen dira golkoan. Ez dut, bada, desesperazio eta fedegabezia sinpleak eman direnik, esan nahi, gure artean. Alderantziz, esan nahi dudana da, Nemesio baten desesperantzaren artean eta lehen itxura batean berdintsua eman zezakeen gerraondoko gazteen desesperantzaren artean, diferentzia kasik gaintezinak zeudela, baina berdintasun kasik bereztezinekin batera. Horrek egiten du momentu hau nahasia ulertzeko –eta gure gaurko egoera ere, nik uste. Eta hori da gutun hauetan egunez egun, urtez urte, esesten dugun drama handiaren bide txikia. Gure historia zein den (historia erreala, oso-osorik eta bakar-bakarrik gudan oraingoxe orainean, ez «iragan» gozo musealen batetan, laburbilki bizi den historia erreal bakar hau) ulertu nahi duenari, oraintxe zertan garen ulertu nahi genukeenoi hortaz, piska bat bederen gutunok kontatzen digute, batean esatekoak esan esanez, bestean isilduz. Asko da eta, Urumea ibai alboan behera pasiatzen zen irudi eleganteko apaiz diskretuak isildu egiten duena.

1953: «Gaur ikusten ditugun bidegabekeriak, bihotza zeharo mintzen digute (...). Jainkoak argi gaitzala, gure burua lepo gainean eusten». 1961: «Badugu nahikoa negarbidet, Jainkoak argi gaitzala». 1964: «Mundu zikin honek ez baitu bizitzerik ere merezi. Alde guzietan gezurra dugu nagusi».

⁵⁴ «The miserable have no other medicine but only hope» Shakespearek esan du (*Measure for measure* III, 1). «Il est singulier, en tout cas, que des oeuvres d'inspiration parente comme celles de Kafka, Kierkegaard ou Chestov, celles, pour parler bref, des romanciers et philosophes existentiels, tout entières tournées vers l'absurde et ses conséquences, aboutissent en fin de compte cet immense cri d'espoir» (Camus, «L'espoir et l'absurde dans l'oeuvre de Franz Kafka») Camus existenzialismoan sartzeko ohitura zahar bezain txar, baina komodoari amore ematen ari gatazka guzti honetan. Bego deklaraturata, nolana ere, Camusen beraren «non, je ne suis pas existentialiste» protesta firmearen zuzentasuna, izpiritu errigortsuen lasaitasun osorako.

Hitza gezurraren tresna, jendearen burmuin garbiketarako eta manipulaziorako boterearen aparatua bilakatu denean, errebolta ja ezingo da mintzoz mintzatu. Hitzak ja balio ez duenean, gizaberearentzat bortxaren balioa hasten da. Bortxak balio badu, hitzak balio ez duelako da: [Orixeren hiletaren ondoan:] «Negargarriena hauxe: gureak badijoazela, eta eden-jende hau ez dela hiltzen. Aterpe gabe gelditzen ari gara, basapiztiz inguratuak (...). Askotan egoten naiz nere artean asmatzen: ohean hiltzea zozoa litzatekeela, eta norbait garbitu aurretik, eta nere bizia gal behar nukeela»...

Esaten zuen Kierkegaardek, mutismo handiena batzutan mintzatzea izaten dela, ez isiltzea. Zer ilunpe eta desesperazio ikaragarri isiltzen da hitz horien azpian?

Gauzak ez sinplifikatzeko. «Hitzaren balioa»: ez da bestearen, eta gutxiago etsaiaren, hitza bakarrik. Norbere barruko hitz isil hori da orobat –familiako balioak, kode moral tradizional ezbai gabekoa, konfiantza lagunetan eta gizartean, «lur laueko legea» eta «odolaren mintzoa»: «izpiritu objektiboa» gure barruan– isil-isilik bakoitzari barruan mintzo zaiguna, eguneroko gure erabakietan eta, batez ere, ordu ilunenetan bidean gidatzen gaituen bruxula. Guri barruko hitz hori hautsi zaigu. Eta, bigarren, hitzaren balioaren hori kontu delikatu da: beira fin hau oso erraza baita puskatzen eta, behin puskatuz gero, oso-oso zaila berriztatzen. Orduan elkarrizketara dei egitea alfer-alferrik da, hizketarik ja ez dago eta. (Camusek idazten zuen legez, polemikari esaten zaio orduan «dialogoa»). Lehengo hitz hautsia are gehiago hausteko bakarrik hitz egiten da. Beharbada horixe ari da gertatzen gure tolerantzia intolerante guztiarekin:

- «Bortxak ez darama inora!»
- «Ezerk ez darama inora! (Ikus dezagun orduan horrela inora goazen. Uzten al diguten inora joaten)».

Zenbat aurreratzen dugu «dialogo» horiekin elkar ulertzearen eta bake eta askatasunaren bidean?

Habermas asko aipatzen da orain. Bederatzigarren: kontsensua modan dago eta kontsensuaren moral a omen da demokratikoa. Ez dago gaizki. Ondo ere, ordea, ez dagoena, moraltasunaren kondizio bezala

«besteek» «gure» moralera eta kontsentsura, h. d., gure joko arauetara etorri behar izatea da; eta, hori justifikatzearren, kontsensu politikoa («demokratikoa») lorpen moralizat saldu nahi izatea, inmoralea izanda ere. Kontsensuak ez du derrigor oinarri moralen gainekoa izan behar. (Rubert de Ventósen gardiz egun «los grandes consensos ideológicos expresan más la complicidad que la racionalidad del grupo», Debats, 55). Euskal Herria elkarbizitzarako kontsensuan elementu basikoenetarik ere batzuk falta dituen gizartea da. Eman dezagun, negoziazio batekin biolentzia armatuari soluzio bat aurkitzen zaiola eta, esanahi horretan, juridikoki bakea lortu dela. Biolentziarik egon ahal izateko egungo baldintza moralak ez dira konpondu horrekin. Euskal Herriaren «birregintza morala» eginkizun gelditzen da. Bizimolde bat elkarrekin de fakto kontsensuatu eta gero –edo batera: funtsean gauza bera den neurrian– kontsensua edo eraiki daiteke elkartasunean moral bat, ez lehenago. Hemen alderantziz nahi da. Eta horrela garaipenak eta derrotak posible dira, baina kontsensu moralak ez. Oraingoz hortxe gaude.

Artxipelago bat gaude bilakaturik, talde bakoitza irla bat, irla bakoitzak bere balioekin funtzionatzen duela, erabat arrotza, are etsaia bata bestearentzat: bateratu ahal izango gintuzkeen guztion gainetiko, guztiok onaturiko diskurtso minimo bat eta gutxieneko balio taula amankomuna bera gabe, etengabeko eta ezinbesteko bata bestearen karraskan, elkar ukitzen dugunoro elkar mintzen, herriska berean, etreko eskailera berean.

Bortxaren arazoaren dramatikotasunaz ez dakit benetan ongi konturatzen ari ote garen. Ez arazo politikoaz, orain, egiaz «moral» edo kulturalaz baizik, gutxiago aipatuko balute politikariek mesede egingo liguketen horixe, eta deus aipatuko ez balute hobe. («Etikarik gabe ez dago politikarik»: J. Otano, PSN/PSOE). Izan ere, testuinguru honetan morala aipatzen den ia guztietan, modu –beharbada oharkabe– iraingarri batean egiten da: «gu biolentziaren aurka, ez gaude arrazoi politikoagatik soil, batez ere moralagatik baizik». Antza, biolentziaren ukoa erabaki moral batek justifikatzen du; biolentzia, erabaki «moralgabeko» batek. Baina, indibidualki, nik ez dakit, Garaikoetxea eta Arzalluz, edo Atutxa eta Barrionuevo, edo ni neu eta zu kasurako, Herrera de la Mancha edo Salto del Negroko edozeintsu preso «terrorista» baino zinez moralagotzat jotzen ausartuko ote ginatkeen (ni ez behintzat); baina printzipialki

batez ere, pertsonalizatu gabe, bortxarik eza hautu morala da noski, eta –gustatzen zaie iturriak psikopatologian bilatzea, baina– giza kontzientzia afektatzen duen eta askatasunetik ernetzen den obra oro bezala, hautu morala da bortxa ere, gizakiaren kontzientziako erabaki zail tragikoa, besterik froga dadin artean. Bi moral diferente, seguruena, baina berdin moralak biak. (Eta bi-biak tragikoak, egiaz moralak badira). Tolerantziaren intoleranteek ez horrela ikusi nahi izatea logikoa da noski. Baina, itxura guztiz, hain zuzen sakon-sakonean bi moral (bi «kultura») diferenteren talka izateak egiten du hainbeste urtean gure arazoaren mingarritasun dramatikoak, ia ezinezkoa bihurtzen duena batak bestearen hitzak ulertu ere ahal izatea, ordea bakoitzak ezin izatea egiten duen bezalaxe baino bestela jokatu, borondate onenarekin ere bestearekiko; are, beharbada bestearen hautua erro-errotik «zuzengabeko» baino ezin ikusi ahal izatea finean (berdin da ekibokazioz izatea), moralki hain zuzen ere, politikoki baino lehen. Hola moduzko kinka baten azterketa, klasikoa bilakatu dena, Hegelek egin du *Izpirituaren Fenomenologia*-n, Sofokleren *Antigone* dramari buruz, kontzientzia grekoa landa eta hiritarretan erdibitu denean –Ancien Régime eta Modernia hein batean– eta bi parteek, nahitaezko krisi tragikoan, «sakrilegiaraino» eta hilketaraino bata-bestearekin konfrontatu behar ukan dutenean⁵⁵. Dena dela, gu gabiltzanarekin analogia klasikorik osatzeko, beste kasu modelikoa ere kontenplatu beharra egongo litzateke –kontzientzia kritikorekin errebelatu «beharrarena» hiriaren aurka–, Sokrateren xokea alegia Athenaiko erakunde demokratikoekin, kondenatu zuten juezekin, «qui représentaient la coutume et le culte consacrés», orain Alderdiek eta erakundeek egiten duten bezalaxe hortaz⁵⁶.

Berlin eta Viena Lehen Mundu Gerraren biharamunean –balio guztien zuloa– maiz izan dira zinemako («Cabaret», Liza Minnelliarekin), literaturako gaia («Tasunik gabeko gizona», «Mendi magikoa»). Zientzia

⁵⁵ «La posizione di ciascuno dei due visto dall'altro è qualcosa di semplicemente negativo e incomprensibile. Antigone vede in Creonte [Estatu moderno liberala eta «demokratikoa»] una forma di prepotenza e violenza che vuole imporsi ad ogni costo, Creonte vede in Antigone [EH foralaren eta gero abertzalearen erresistentzia] una semplice manifestazione di capriccio femminile».

⁵⁶ Ik. HORKHEIMER, M., *Éclipse de la raison*, Paris 1974 [orig. ingelesa 1947koa; 1969an itz. esp.]. Ik. kasu honen G. W. F. HEGELen interpretazioa in: *Lecciones sobre la historia de la filosofía*, II. bol., México 1955, 39-100.

sozialetan Max Weberen diagnosiaren terminoak ezagunak egin dira: Jainko Bakarra zerutik erori da, haren lekuan berriro antzinateko jainkoak itzuli dira agorara, eta Arrazoi (Egia, Zuzentasun...) Absolutu higigaitzaren lekuan jainko heleno kalakarien «eztabaida eternoa» daukagu berriro («politeismo modernoa») ... Hau da, porrot militarari, ideien eta balioen suntsipena gehitu zaio. Alemania, gerora, kaos izpiritualean, «bolkan baten gainean dantzan» bizi zela urteotan, esan ohi da. (Zeren gainean bizi ote gara gu dantzan?). «Ja ez zegoen baliorik batere, gizon-emakume horien guztien eskuar eta une berean gainetikoa, posible izan zekien haren izenean batak-besteia juzgatzea», karakterizatu du Camusek egoera (*L'Homme révolté*), nolabait logikoa sumatuz bidea Weimarko Errepublikatik –helduleku moral gabeziatik– nazismora, h. d., ukabilazko irtenbide baten hautu erradikalera eta katastrofera. Tolerantziaren apostolu inuxente batzuek ahaztu egiten bide baitute, «dena libre» badago, konfliktoaren soluzioa ja elkarrizketan eta arrazoiketan ez dagoela («arrazoia» beti gehiengoan eta kantitatean baitago azkenean: eta gehiengoa –dirua, propaganda, hedabideen jabegoa– indarraren forma sozialetako bat gehiago baita, ez arrazoi bat), zirtizartako erabakian baizik, eta, beraz, indar kolpe moduren batean.

Momentu batetik aurrera, tragedia bakarrik gertatzen da posible giza harremanetan. (Eta tragedia horri eutsiz bide du egia izpirituak argitzen...).

IX

Hamar: Joko hauek badakigu arriskutsuak direla, baina izari batean kontzientzia kolektiboaren eboluzioaren –erdibitzearen– historia kontsidera genezake Nemesiorena –eta piska bat gu guztiona. Egiatzko erlijioa zein den gehi arrazoizkotasuna zer den, Habsburgoen Inperioak mendez mende absolutuki erabaki izan duen balio esentzialen unibertso errime lotuan izan da Nemesio hezia eta erakutsia, «ohitura estuetan», Euskal Herriko herriska ia denak bezala. Bizimodu hori eta herri hura «Orduan etzen, gero, gaurko konturik» Nemesiok berak *Izotz kandelak* nobelan deskribatu ditu. Mundu itxi hori «kanpotik» eraso izan den artean –beltzek nahiz gorriek– bere barruan ez du ematen asko aldatu izan denik, gehiago ixteko bere baitan ez bada. Gerrak eta gerraondoak (askotan gerrarekin zerikusirik ez zeukaten arloetan: oroit Orixeren eztabaidak Donibane Lohizunen gizon-emakumearen jatorri eboluzionistari buruz; «Don Ximonen» zinezko ikerketa patetikoak bekatu sexual mortalaz eta benialaz, Erromako Doktoleen arrimuz), katolizismoaren barruan aburu diferenteak kabitzen direla, agertu dute (Europar katoliko sozialistak eta komunistak ateratzen hasten dira, Rikardorentzat argitsua izan da hori), kasik egia dogmatiko salbagarriztat edukirik doktrina asko zama historiko arras kontingentea baino ez zela, etab., etab. Hitz batean, «fedea» galdu egin da, h. d., ebidentziak banatu egin dira, utzi egin diote ebidentziak izateari. Horrela, galdu egin da lehen eduki uste zen eta elkarbizitzari lotura eta segurantzia ematen zion gure gehiagotasun moralaren sentimentu harroa («besteak» baino moral edo fede goragokoa beti izan da herri honetan gehien-gehiengoa, eta batez ere jauntxeria zibila eta dontxeria eliztarra: bakarrik, besteok lehenago urruti zeuden –protestanteak eta, frantsesak eta–, orain etxe barruan edo aldamenean dauzkagu): beste hitz batzutan, esnatu egin gara eta larrugorritan biluz-biluzik gaudela deskubritu dugu. Biluzik, esan nahi du, gezur eta hipokrisietan bizi izan garela ehundaka urte, zapalketa tresnak besterik ez zirenak gure handitasun eta goratasun moralizat edukiz. Eta lehen sistema moral dena ordenari absolutuki eusteko bazegoen, ordena hori bera jainkozkoa omen zelarik, orain ordena hura ikusten da aurrena auzitan (ekonomikoa, politikoa), eta hari

eusteko aparato guztia bide batez. Erlijioa, politika ororen gainean egotetik (hala ikustetik), politikaren azpiko zerbitzari frankista donge izatera pasa da (hala deskubritzera), etab. Bakea eta zuzentasuna ez direla bakea eta zuzentasuna deskubritzea, baizik beti sistema batena bakea eta zuzentasuna, hots, sistema baten eta, beraz, indar historiko baten garaipena, esperientzia bereziki urragarria izan da beti printzipio absolutu birjinetan ohituriko euskaldun moderno ilargitarrentzat: esperientzia hori gerra batekin eta derrotarekin lotuta egon delako batez ere («...gizonen irispidea azpikoz gora aldatu ohi da, bizitzak buruko asko hartzen jartzen gaituen unetik aurrera»). Gure «modernitate» errazagoa izango zen, arrazoimenak eta zientziak eta kritikak ekarri izan balute. Bakarrik, Gernikako bonbek eta Eliza katolikoaren ustelkeriak eta gaxte batzuen irakurketa klandestinoek ekarri bazuten, ez dago zer harriturik, izpirituen ustelkeria eta bonba artean klandestino jarraitzen badu gero.

Seguruena Miranderen beste bide batetik, eta Nietzsche gabe, deskubritu zuen hau Nemesiok – eta Nietzsche garbi-garbia duzu azken finean: «Gure negargarrikeriarik handiena, munduan –eta Eliza munduan dugu– erdipurdiko jendeak agintzea da. Norbait zuzentasun osoan azkeneraino iritxi nahirik hasten bada, gizarteak zapaldu egingo du, Jesukristo bezala. Oilokeria da gehienen jokaera lur honetan. Eta gizonik agertzen bada, oilokerizaleak ito egiten dute. Hau da herri txikien zoritxar-iturria. Indarra nagusi eta agintari okerrak gizon onen isilak eta buru-makurtzeak gizentzen ditu» (1965. II. 13).

(Salvatore Mitxelenari etabar ere aurkitzen zaizkien tonuak... Bakea eta ordena berdin konformismoa eta mediokritatea)⁵⁷.

Jakina gauzak ez direla hain sinpleak izan!

Baina kontua hain zuzen sakon-sakonki ulertzera iristea litzateke, nola bere edukazio eta fede erlijioso tradizional hartatik etorri den,

⁵⁷ «Gaurko Euskal Miñari alare aje bat nabari ziot, Abendats. «Pasibua» duk, pasibuegia, ta ez nik nai nuken bezin erasokorra, ortzakalaria. Bildotxegia jotzen diat otzanez; olloegi, kollonez; untxi edo, eramapenez». «Gizajokeri ori astintzen ez tugin bitartean, alperrik izango dira gure negar antziak, ez gera nik nai nuken bezela ezer «ikaragarririk» egitera elduko, ekintza ederrenak erdoituko dizkigu eta ez gera sekula mende t'erdia ontako giltzapetik jareingo». Ik. MITXELENA, S., *Idazlan Guztiak*, Arantzazu 1977, 414.

zalantzarik zalantza, Nemesio bezalako kontzientzia moral estu bat, ia eskrupulotsua, eta kontzientzia estua izateari inoiz utzi gabe, aitzitik, kontzientzia luzido erradikal baten esanguran, ondorengo tesi moduetara: «Euskaldunok burgestu egin gara; dirutu eta bigundu. Guztiek seme-alabak karreradunak nahi dituzte. Laster euskaldunok kapitalista gorrotagarri egingo gara, eta koreanoak [etorkinak] izango dira hemengo proletarioak. Gure artean, gainera, egundoko integrismo pixua dugu: lehengoan Zipitria andereño erremin hori aho bete hortzekin gelditu zitzaidan, Patxi gorra beste mundura bialtzeko kezkarik ez nukeela izango esan niolako. Ezin zitekeela hori egin; etzela zilegi. Esan niona: zilegi ezezik, barkamen osoa irabazteko lana zitekeela. Herria zapaltzen eta hainbeste urtetan, guzieren eskubideak jaten bizi dena, ezin garbitu alajaina! Horrelako burukerak galtzen ez diren bitartean, ez dugu ezer handirik egiterik. Euskaldunok bide bat besterik ez dugu: israeldarrek hartu zutena: hizkuntza piztu eta indartu, eta izkiluak zorroztu. Hori egiten ez duen herriari, ez dio inork begiratzen, ez demokratek eta ez Elizak. Gaizkilerik handienak, berriz, aurrera irteten bada, nahikoa begiramen iristen du bai demokraten aldetik eta bai Elizaren aldetik. Gizon handitzat saldu ohi izan dizkiguten Karlomagno eta haren kidekoak, zer ziren, lapur eta gaizkile handi batzuek baizik? Beren gurasoengandik jaso zituzten lurrez etziren asetzen eta inguruko kristau erregeei lapurtzen zizkieten beren lurak. Hala ere, aginpidea iristen zuteneko, beti inguratzen zituzten beren gaizkiginak bedeinkatuko zizkien nahi haina obispo. Zoritxarrez, hori da edestia, eta horrela jokatu izan dute gure gainetikoak... Gure arteko prudenteak, ostera, azkenik ez dute» (1961. VI. 17).

Hemen ja martxan dago historiaren birgogoeta⁵⁸: moralaren eta, barnago, filosofia sozial guztiaren birplanteamendua, geroxeagoko

⁵⁸ Birgogoeta honen abiaguneak -euskal historia osoaren ikuskera berriak eragingo dituztenak (ik. *Rikardo Arregi: gizona eta garaia*, Andoain 1996) eta historiografia kritiko berri baten fruituak ere laster ekarriko, Lopez Adan «Beltza»ren azterketetan esaterako: *El nacionalismo vasco*, 1974; *Nacionalismo vasco y clases sociales*, 1976; *Del carlismo al nacionalismo burgués*, 1978, edo F. Letamendia «Ortzi»renetan, *Historia de Euskadi*, 1975, etab.- autore ezberdinetan errepara litezke han-hemen gerraondoko giroan, beharbada bat seinalagarria Salvatore Mitxelena baita berriro (euskarazko testuetan): «Sumin santua» kapitulua, adibidez, in *Unamuno ta Abendats* (jatorrian

«marxismoaren» beraren susmur puntu bat sumatzeraino belarrian. Gogoeta hori azkeneraino eramaten bada, ondorioak latzaren latzak izan litezke.

Nemesio ez da joan azkeneraino. Hau da, bere desesperantza guztian, Nemesioren belaunaldiak ebangelioak irakur zitzakeen eta horretan kontsolamendu aurkitu bihotz penatuari (hain zuzen, gerraoste beltz hartan, Arantzazuko fraileek, Orixek, Kerexetak Bizkaian, lehian bezala ziharduten denek ebangelioak euskaratzen herri gaixoarentzat); baina Txillardegi batek –honen haurrak Nemesiok bataiatu zituen– edo Aresti batek, esaterako, ebangelioak euskara ikasteko irakurtzen zituzten, eta izpiritua elikatzeko Sartre eta Camus eta Unamuno. Horiengan oren gainetik libertatea maitatzen ikasten zizuten, zuzenak eta are «santuak» erlijio gabe izaten (Camusen *La Peste*-k, 1947, sekulako zirrara eragin zuen), iraultzaileak ideologia iraultzailerik gabe, gizakiaren eta askatasunaren maitasunez soil-soil abertzaleak. Bat bitan banatzen omen da: euskal mundua bi mundu ari zen bihurtzen, bata besteari arrotz, etsai. Batzuek eta besteek historia nola ikusten zuten, adibidez. Batzuentzat «euskal esentzien» altxor zaharra, euskal miserien esplikazio berria besteentzat. Zaharren aldean, «errebelazio kritiko» bat bezalakoa bizitzen ari zen belaunaldi berria. Mende bat lehenago Heinek Alemanian sumatua ari zen Euskal Herrian gertatzen, zaharraren eta berriaren etena:

*Hipokrisiaren askazi zaharra
desagertzen ari da gaur, Jainkoari esker,
hobian hondoratzen doa astiro, bere
gezurreriatik hiltzen.*

1956-58koa), ik. S. M., *Idazlan Guztiak*, bol.I, Arantzazu 1977, 413 eta hurr. Euskalduna gaur bakezale demokratiko beratza bada, «gexamexa ori ezpaitugu gerezkoa, kanpotarrek beren onerako itsatsia baizik» (415 orr.), etab. Salbatorek jokabide gogorrago batera dei egiten du. «Euskal Miñiak samifia aña sumifia bear du, bada, bai jaunak bai, sumifia, sakerra, erasogillea, gallena, ez indutarrena, baizik kantauriarra...» (416 orr.), eredutzat beti egiten zen bezala Gandhi aipatzeari alusio bat ote da, horren aurka?

*Askazi berria ari da bozitzen,
makilajerik ez hobenik gabekoa,
ideia librez, gurari librez
den-dena iragarriko diot boni.*

Halaxe da. Belaunaldi batek berari zuzen errebelatutzat hartzen duena, besteak ikusi ere ez du egiten. Belaunaldi bat kontsolatu duen zerak, hurrengoari ez dio ematen kontsolaziorik. Belaunaldi bat freinatu duten gauzek, hurrengo ez dute freinatzen.

Ene ustean, bada, Nemesiorekin azkenerako zer gertatu den, horixe izan da: martxan ipini den prozesuak berak jo eta bota duela bazterrera, eta gupida gabe zanpatu.

1961ean Eusko Jaurlaritza eta EAJ/PNVeko agintariei buruz Nemesioren iritzia ETAko gazteren baten antzekotsua iruditzen zaigu («Gure agintariok integrismoa uzten ez duten bitartean ez dugu ezer iritxiko»). Ilun eta pesimista ageri da inguruko «jende irendu»arekin (Miranderen oihartzuna?). Hurrengo urteetan –ETA, Enbata, Kontzilioa– mundu berri bat indartsu zabaltzen ari da, kalean bezala Elizan –«hau ez da 36ko Euskal Herria»–, eta itxaropena berriz argitzen da hodei artean: «gazteak harritzekoak datoz» (1965. VI. 1). «Noizbehinka bada ere poz bizi batzuek ere hartzen ditugu. Oraintxe sortzen ari zaigu euskaraz kanta berriak asma eta kantatzen dituzten emakume talde bat. Sei badira gutxienez, nexka gazte lirainak, kitarra hartu eta abesti berriak berak asma eta kantatzen hasi direnak herriz-herri. Sendagile gazte bat ere hasia da horiekin. Orain, kantari guziak talde batean bildu nahi ditugu, gero abesaldiak eta diskoak barreiatzen hasteko. Urnietako nexka gazte batek, batez ere, zoragarri abesten du (...). Ta nola oguzi euskaraz. Gure 's' eta 'z' haren ahoan ederki bereizten dira. Ikasbide ederra beste emakume txepelentzako!» (1965. IX. 14).

Ikusten duzu zerk xorabiatzen zuen gizona? S eta z ongi ahoskatuak, horixe zerua! Baina (agonia sentimentu mingarritzko euskal kulturaren) gauzak horrelaxe ezagutu izan ditugu, eta apropos kopiatu dizut kopiatu ere azken zatitxo hori: beste preokupazio modu batzuk ziren benetan, haiek bihotzean bizi zituztenak. (Nola ulertu ahal izango zuen gizon horrek Aresti bat?!! Badu Arestik ere azalpen entusiastiko

bat Lurdes Iriondo «Urnietako nexka» horri buruz, justu urte bete geroago –1966.XII.10– eta merezi du biotan sinbolizatuta ageri den begitasuna eta lilura konparatzea, h. d., «bi gerraondo» horiek)⁵⁹. Historia egiten ez daukagu jarraitu beharrik: etorri da, bada, mundu berria, eta Nemesioren harremana mundu edo gazteria berri horrekin geroz eta zailagoa izan da kapitulu guztietan, euskarari, politikan nahiz ideologia sozialean, azkenean euskaltzale gazteak adina Euskaltzaindia, denak etsai sentitzen zituela, ikusi dugun bezala bakardade osoan bukatzeko. Gazteen bultzadan ez du ikusiko eragabekeria besterik, narraskeria («emakumeak ere itsu-itsu jartzen ari zaizkigu komunisteri sinisten») eta lehengo Euskal Herri ederraren hondamendia.

Auskalo. Beharbada Kronos (Saturno, denbora: utzi egingo dugu K eta Kh nahasketaren arazo hori) ez da Goyak pintatu duen agure zahar terriblea, umeak jaten, eta bai mutil gazte harro bat agure zahar gaixoak jaten? Gazteek zekarten nahasteria guztia, Nemesiok ezin ulertu izan du.

Hamaikagarren, beraz: doi-doi zer da, egiaz ezin izan duena ulertu? Zer da oraintxe oraingo gazteei ere ezin omen zaiena ulertu? Beharbada askotan formak eta sinboloak eragozpen handiagoa dira jende batentzat edukiak baino. Ez dakit zer balioko duen test bezala, analisi baterako, nolana ere ohargarria da diferentzia Nemesiok esate baterako nola disentitzen duen eta hori nola dagoen espresatuta Txillardegirekin (Orixek hain garratz hartu zuena) eta Arestirekin.

Piska bat xokantea da Nemesiok, franko irekia bazenak orohar (bere estukeria guztiaren barruan) eta nolabait bera ere nahiko friboloa bai –horrela esatea zilegi bada– poesiaren tenploan bere gisara libre ibiltzeko, Aresti horrengan hain zuzen ez sumatzea batera fazeta positiborik nonbait eta hura dastaezina aurkitzea puntu guztietan – oi, haren azentua! (1960. IX. 8; 1966. II. 8). Arrazoi bat, beti bezala,

⁵⁹ «Ilunpean dabilela konturatzen den gizonak, honelako pozgarriak edukitzen ditu noizbehinka, argi-pizka bat ikusten duenean, argia dela konturatzen delako. Zuek, eta beste batzuk (...) nire arrazoi bakarra zerate. Zuek jai ez bazinate, nire bizitza frakaso izugarri bat izanen litzake», etab. Ik. 1967ko martxoaren 20koa orobat. «Niretzako zu Kurrubi horren antzekoa zara -deklaritzen dio Arestik Lurdexi-, munduan dagoen herririk desdixatuena holako Jainko batek zoriontsu izan dadin apropos egina». Ik. ARESTI, G., *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 1986, 162.

Krutwigen inguruko bizkaitarren mordoilokeria da noski –lehen garbiegi, orain zikinegi, bizkaitarrok beti ertzakoiak! (1956. III. 26). Baina inork edukitzekotan, euskara eremu berrietara zabaltzeko amorrua (poesia erotikora adibidez), poesiaren kontzeptu ia propagandistiko bat, pedagogiko utilitario herrikoa, kantuaren jaiera, euskara errazaren kezka, bertsoaren plazerra eta umorearen, forma xume popularren gustua, Nemesiok eduki zuen hori gure aurretik. Aresti horrekin guztiarekin oldartu denean, pentsa zitekeen Nemesiok bere bidean etorritakotzat har zezakeela. Baina gertatzen da, nik uste, beren posizioak itxuraz aski hurkoak direnean ere, barrutik erreferentzia kultural arras desberdinetatik bizi direla eta erabat sentido diferentea daukatela.

Seguruenik badaude honezkero gauza hauek hobeto arakatu dituzten lanak, ezagutzen ez ditudanak, baina onar bekit apur bat gogoratzea, euskal mundutxoan 60 aldera, *Maldan bebera* ondoren, Juan Ramón Jimenezen aurkako erreakzioarekin, etab., eta Colliuren zendutako Antonio Machadoren preferentzia errepublikanoarekin, «poesia sozialak» bortizki eraso zionean (poesia erotikoren saioak eduki ez zuen onarpenez), egiaz poesia zahar baten berritasuna zela, kasik fenomeno epigonal bat izan zela, literatura existentzialista sozialaren azken fase berantiar bat bezala eta, batez ere, aurreko hamarkadako Celaya eta konpainiaren kabalkada poetikoen hondar bezala. «Nuestros hermanos mayores escribían para «la inmensa minoría». Pero hoy estamos ante un nuevo tipo de receptores expectantes. Y nada me parece tan impresionante en la lírica reciente como ese desentenderse de las minorías y, siempre de espaldas a la pequeña burguesía semiculta, ese buscar contacto con unas desatendidas capas sociales que golpean urgentemente nuestra conciencia llamando a vida. Los poetas deben prestar voz a esa sorda demanda» (Celaya, *Poesía eres tú*, 1952). Nemesiok ez du besterik egin, apenas irakurtzen duen herri xume horri bere poesia eta kanta sortu baino, rumba, fox-trott eta habanera ritmoan, hain zuzen Camusek nahi izango zukeen bizipoz eta izpiritu «libertinoan». Andimarekin eta Zaitegirekin borrokan, herrikoia bilatu, kultura goitarren axola gutxiz. Horixe besterik ez dio Arestik: «Nik egin nahi nikek herrirako poesia bat. Gauza aspergarria duk, nire poesiak burges batzuren dostaketa direla

jakitea. Nik ikusten diat Donibaneko deserrian euskaldun burges deserritu eta abertzale bat nola bihurtzen den etxera, eta bertan eguneko lanetik deskantsatzeko, bere whiskia edaten duen bitartean, bere Bachen musika entzuten duen bitartean, Arestiren *Bizkaitar bat* irakurriko dik. Eta honek, laguna, narda egiten dirautak. Eskribitu nahi nikek herriarentzat...» (1961. V. 15). «La poesía –jarraitzen zuen Celayak– es un instrumento, entre nosotros, para transformar el mundo (...). En el poema debe haber barro, con perdón de los poetas poetísimos. Debe haber ideas, aunque otra cosa crean los cantores acéfalos. Debe haber calor animal». Poesiak borroka izan behar du: «La poesía no es neutral. Ningún hombre puede ser hoy neutral [Ajuriaeneako Mahaiak esaten du gaur hori!]. Y un poeta es por de pronto un hombre». Poeta gizon-emakumea da eta poesia mailu bat. «Tal es mi poesía: poesía herramienta». *La poesía es un arma cargada de futuro* Celayaren titulu ezagun bat zen. «Poesía para el pobre, poesía necesaria como el pan de cada día». «Maldigo la poesía concebida como un lujo cultural por los neutrales»...

Ordea Celayak 50. urteetan egiten zuena ere, ez zen besterik, gerrak eten egin zuen Errepublikara garaiko «poesia inpuruaren» mugimendua birrartu baizik: Miguel Hernández, Arturo Serrano Plaja, Luis Felipe Vivanco, etab., guztiak Nerudaren «Sobre una poesía sin pureza»ri atxekiak, honek sortu zuen polemikan 27ko Belaunaldiarekin, eta Leopoldo Panero, Luis Rosales eta besteak gero, José Bergamínen inguruan «Cruz y Raya»n bildu zirenak. (Zer gauzak: handik makina bat urtera Parte Zaharreko taberna batean elkarrekin bazkalduz ezagutuko nuen Bergamín xalo-xalo!). Eta Nerudak berak ja gerra zibilaren bezperan, Antonio Obregónek 1929an, Primo de Riveraren diktatura azkenetan, errebindikatua birrartzen zuen: poeta bat bizitzarekin bategina eta poesia bat oinak lurrean dituena, laborategiko argi garbi eta eskularru xuri aseptikoekin eginikoa gabe («Hacia el poema impuro»).

«Es muy conveniente, en ciertas horas del día o de la noche –idazten zuen Nerudak–, observar profundamente los objetos en descanso: las ruedas que han recorrido largas, polvorientas distancias, soportando grandes cargas vegetales o minerales, los sacos de las carbonerías, los barriles, las cestas, los mangos y asas de los instrumentos del carpintero. De ellos se desprende el contacto del hombre y de la tierra como

una lección para el torturado poeta lírico. Las superficies usadas, la atmósfera a menudo trágica y siempre patética de estos objetos, infunde una especie de atracción no despreciable hacia la realidad del mundo.

La confusa impureza de los seres humanos se percibe en ellos, la agrupación, uso y desuso de los materiales, las huellas del pie y de los dedos, la constancia de una atmósfera humana inundando las cosas desde lo interno y lo externo.

Así la poesía que buscamos, gastada como por un ácido por los deberes de la mano, penetrada por el sudor y el humo, oliente a orina y a azucena salpicada por las diversas profesiones que se ejercen dentro y fuera de la ley.

Una poesía impura como un traje, como un cuerpo, como manchas de nutrición, y actitudes vergonzosas, como arrugas, observaciones, sueños, vigiliass, profecías, declaraciones de amor y de odio, bestias, sacudidas, idilios, creencias políticas, negaciones, dudas, afirmaciones, impuestos» («Sobre una poesía sin pureza», 1935).

Hori dena 1935ean idatzi du hortaz Nerudak. Eta urtea behatzen baduzu, igarriko diozu guretzat ez zela estetika kontua bakarrik⁶⁰. Zegoen eguneroko garaileen epika triunfalaren aurka, galtzaileen epika irakurtzen genuen guk —ezkutuka— Neruda horren baitan:

*«Y una mañana todo estaba ardiendo
y una mañana las hogueras
salían de la tierra
devorando seres,
y desde entonces fuego,
pólvora desde entonces,
y desde entonces sangre.*

⁶⁰ Dena dela, «poesia soziala» orain ideologiko edo sozio-politikoki bakarrik ulertu nahi izaten den arren, ez litzateke guztiz ahaztu behar -Arestiren eboluzioa ulertzeko, adibidez- poesia sozialak estetikoki adierazten zuen arruntasunaren, kitscharen errebindikazioa sentimentuen munduan nahiz espresioan eta hizkeran (populismoa). Nerudarekin esateko: «Y no olvidemos nunca la melancolía, el gastado sentimentalismo, perfectos frutos impuros de maravillosa calidad olvidada, dejados atrás por el frenético libresco: la luz de la luna, el cisne en el anochecer, «corazón mío», son sin duda lo poético elemental e imprescindible. Quien huye del mal gusto cae en el hielo».

*Bandidos con aviones y con moros,
bandidos con sortijas y duquesas,
bandidos con frailes negros bendiciendo
venían por el cielo a matar niños,
y por las calles la sangre de los niños
corría simplemente, como sangre de niños».*

(Topiko poetiko-politikoak ere errepikatu egiten dira historian, ikusten duzu. Inspirazioak eta «jeinuak» inondik ere gizadiaren adin zaharra dizute):

*«Generales
traidores:
mirad mi casa muerta»*

jarraitzen genuen (eta hor bere imaginarioaren geografiaz irakurtzen zizun Neruda euskal gazteriak)

*«mirad Euskadi rota:
pero de cada casa muerta sale metal ardiendo
en vez de flores,
pero de cada hueco de Euskadi
sale Euskadi,
pero de cada niño muerto sale un fusil con ojos,
pero de cada crimen nacen balas
que os hallarán un día el sitio
del corazón».*

Esan nahi dut, mundu berria –poesian orain– berez ez zela hain berria, euskal munduan sartu 30. eta 40/50. urteetan eta agian mendeetan ere sartu izan ez zen mundua baino. Euskal Herria zenbait tradiziori itxi egin zaio: gu tradizio guzti horien uholdeak inbaditu gintuen gerraostean. XIX. mendeaz gero, salatzen zuen Rikardok, euskaltzaletasun ikaratuak euskal identitatea baserriarekin eta sakristiarekin identifikatu nahi zuen aldaezinki, bere baita zaharrear bilduta, inguruan mugitzen ari zitzaion mundu guztiarekiko defentsiba itxian. Belaunaldi berria, ia ezagutzen ez zuen euskal tradizio batetik adina edo gehiago, Espainia ofiziala zen ororen ihesi, literatura frantsesaz eta, bereziki, Erresistentziaren epikaz kitzikatua, bere barru aldera Errepublikaren –madarikatuaren– birdeskubrimendu argitsu bat bezala

identifikatu da (gorriak baginen, gorriak izango ginen!), bozkarioz, libertatez gainezka. Ezkutatu zitzaigun historiaren deskubrimendua. Autore eta ideia debekatuena. Exilioarena. (Exilioak, gorriak eta txuriak, berdinak egiten zituen)... Walter Benjaminen «izan gabeko historiaren» nostalgia handi bat esnatu zen. Posible izandako mila amets ezabatu haiena. («La pensée d'un homme est avant tout sa nostalgie» irakurtzen genion Camusi). Eta Lasaren poeta berria kitarra hartu eta, «ardura gabe eta triste», eresi bat kantatzen geratu zen artean, harri-meta txiki baten alboan, beste kitarrajole gehienok, prosaikoagoak, miliziano gorrien «Los cuatro generales» eta «En el frente de Jarama» egoten ginen koadrilan orruka gau beranduraino kantuan, «¡Ay Carmela, ay Carmela!» mendeku gozoena bezala gozatuz. Ez zela izan poetika kontua bakarrik, esan nahi dut. Kultura berri bat zen. Edo (beharbada oraindik ez genuen kultura askorik) nahi berri bat, nahi bizia. Neorrealismoa zen, existentzialismoa zen, eta dena zen. Salvador Garmendiaren Maria Magdalena eta Lekuonaren «meretriz hila», Leturia, Peru Leartzako, Aresti. Balio mundu bat goitik behera eta aurrean beste mundu bat, balioak oraindik bila.

X

Batzuetan pentsatzen dut –hamabi– gure arazoa belaunaldi bakarrean lau mende eta hiruzpalau iraultza batera bizi behar izatea dela: hori zeinek zuzen asmatu? Gu sozialki modernoak bilakatu nahita amorratzen, indibidualki posmodernoak garenean gabiltza. Problema dauzkagu beti denborarekin. Eta hori, gure belaunaldia ibili den zirkin-zarkun kaotikoetan (eta manda batetik bestera ikusi dugun hamaika «konbertsiotan») aski nabaritu da.

Makina bat lan eta borroka egin zuen Koldo Mitxelena, urteetan, gazteen alde eta galtzaileen alde. Behin, bera beti «con los pobres de la tierra» egongo zela, ez agintearekin, idatzi zuen; munduko madarikatuen «Lugarren Internazionalean», inon egotekotan erakunderen batean. Garaiak ez ziren gehiegi aldatu, EAJ/PNVaren boteretroa ez da erraldoia, baina hari atxeki-atxekia ikusi genuen gero, gazteagoak eta ahulagoak bapo diziplinatzen. Alabaina «gazteago» horiek, Nemesiok esango zukeenez, urte batzuk lehenago «zaharragoen» aurka Mitxelena horrek berak harrotutako lotsagabeak ziren... Eta, lehenago, Nemesio hark berak harrotutakoak...

Gaur hemen, bihar hor. Batek ez daki, bera aldatzen ote den, ala garaia aldatzen zaion inguruan.

«Parisek balio du meza bat» enblematikoa, zerik sakratuenak ere bost axola zaizkion zakurkeria politiko doilorrenaren goiburutzat aipatu ohi da. Ez dakit. Azkenean, bakoitzarentzat Parisek zenbat balio duen edo meza batek zer balio duen, izanen da kontua. Nafarroako Hendrike III. hori, Frantziako IV.a, protestante hazi zuen amak; gero Margarita de Valois esposatu zuen, Frantziako erregearen arreba, eta, Pariseko Gortearen presioaren pean edo, katoliko egin zen; Nafarroara itzulita, hemengo aireek berriro protestante bihurtu zuten; eta, azkenik, Frantziako errege izateko abagunea presentatu zaionean, aprobetxategiak ez du aukera galdu eta, Saint Denis katedraleko atarian apal-apal belauniko, katoliko egin da berriro, karia honetara asmatu baitiote osterako ben trovato hori, «Paris bien vaux une messe». Erromako Aita Santuak biziki eskertu dio konbertsioa eta, are, lehengo barrabaskeria

guztien absoluzio solemneaz gain, Margaritarekiko ezkontzaren anulazioaz ere saritu du, eztei oportunoagoak egin ahal izateko Maria Medicirekin, hau bando katolikoaren guztiz fidela.

Baina Parisek meza bat balio badu, «Nafarroak balio du afari bat» («Zena» bat, esango luke Leizarragak), J. M. Olaizolaren *Euskal Protestantismoaren Historia*-ri eskerrak orain dakigunez. Hendrike horren aitak jada, Antonio Bourbongoak, Joana Albretekoaren senar legez Nafarroan errege bera, aurrena protestanteak pertsegitu omen ditu; gero bera protestante egin da, erregekin berak oraindik urrats hori egin ez zuenean, eta katolikoak pertsegitu ditu; geroenean (Olaizolari segitzen diot), berriro katoliko egitekotan zen, Espainiako Filipe II.aren, egiaztatu balitz beharbada interesatea izango zen konspirazio zikin bat bilbatuz, balbek eraman duenean⁶¹.

Zer da hori, Panurgotarren familia bat, ez Jainko, ez fede eta ez lege?

Buruzgainka hauek planteazten digutena, krisialdietako izpirituen jite intelektual eta moralaren arazoa da. «Frantsestuen» edo «txaketeroaren» fenomeno. Zer balio dute doktrinek eta tradizioek, beharbada leialtasun batzuek ere, lurrikara dabilenean?

Goethek, «Emigrante alemanen solasaldiak» narrazioan, hainbat ihardunkizun paratzen du, tropa frantsesen martxak Rhin ondoko beren etxaguntzetatik ihesarazi dituen solaskideen denborapasa eta barreiamendurako, tenore hartan jende jaunaren solaspide zirenetarik Alemanian: populuaren sineskoikeria xumea sorgin eta misterio ipuinetan; ongiaren eta zoriontasunaren arazoa; Kanten etika bera, serio asko Zaharrak dama gazte bati irakatsi nahi diona, eta natura

⁶¹ «Antonio recibió de Felipe II la sugerencia de que se declarara a favor de la doctrina católico-romana y que procurase aniquilar a los protestantes. Para ello le ofreció que el papa disolviera su matrimonio por causa de la herejía de su mujer, la reina Juana, que la excomulgara y la despojara de todos sus Estados y derechos, que serían dados a él, el rey consorte Antonio, con el consenso de los reyes de España y Francia. Y Felipe II le restituiría de la parte de Navarra ocupada, o le daría por equivalencia la isla de Cerdeña y le casaría con María Estuardo de Escocia. Antonio aceptó en el año 1562» (J.M. de OLAIZOLA, *Historia del protestantismo en el País Vasco. El reino de Navarra en la encrucijada de su historia*, Iruña 1992, 124).

grinatsuaren eta arrazoimenaren arteko gatazka erremisio gabea. Literaturaz ere gogoetak ez dira falta, eta dama gazte horixe da gogait-gogaituta ageri zaiguna, «gure irudimena beti urrutiko lurraldeetara behartzen duten istorioekin. Italian eta Sizilian, Ekialdean gertatu behar al du den-denak? Zerbait interesgarri gerta litekeen toki bakarrak Napoli, Palermo eta Esmirna ote dira, bada?» (Arestian horiek ziren paraje exotikoak). Eta bihotz feminino kontserbakoi lurrari atxekiaren alboan, nola ez, galai urrutimin idealista dago, Karl Lehengusua, ameslari eta frantsesua, elegantea, Iraultzaren mireslea beste emigrante guztien aurka, nahiz eta «bere printzeak, herriak eta berak ere frantsesen inbasioarekin asko sufritu behar izan» duten, bere arrazoi pasionatu iraultzaileekin begiak lore-lore uzten dituen kamarako mirabe nesgazteak: «etsaiaren bando progresistara» pasea hitz batean.

«Etsaiaren bandora pasea», zenbat galaitxo progre eta dotore ez du ezagutu gure historiak ere? Alemania «barbaroaren» historiako gauza asko errepikatzen da gure historian. (Psikozaleen ikergai bat horixe izan liteke: «euskaldunaren arlope konplexua eta haren gaindipena Madril edo Pariseko parfume piska batez»).

Dante eta Petrarcarekin hasita, Ernazimentuan halako hainbeste historia dago, lurrekoarekin batera izpirituko emigranterena: sortzen ari omen den mundu berrian, humanistak bere talentua eta dohainak, gaur Florentziari, bihar Milani edo Frantziako erregeari, eskaini behar izan dizkio bizitzeko; gaur kausa (politiko, dinastiko, erlijioso) honi eta bihar hari; katolizismoari orain eta protestantismoari gero; gaur gupida gabe borrokatzen duen etsaiari bihar, orain apaltasun eta atxekimendu debotoz zerbitzatzen duen printze honexen aurka. Humanista⁶², dilettantea da ideietan, ez dago haien menpe, abila da haien edozein manejuetan; politikoki inpotentea, boterean parte izateko, hura duenari erraz ematen diona bere burua lanabestzat, sariren baten truke. Ariostok esango duen bezala, «teilatutik gora ezer ez du sinesten» humanista horrek. Machiavellik Florentziari, Cesare Borgiari, Julio II.ari eskaini dizkio bere zerbitzuak; bere sorterrian Errepublikaren alde eta kontra ahalegindu da, Medicitarren kontra eta alde; txandaka ibili da Espainiaren eta Frantziaren alde hala kontra, Aita Santuaren kontra eta

⁶² Edo, orain: prentsa eta «literatura mertzenaria».

alde eta kontra; beti zorrotz kritikatu duen kristautasunaren eta Elizaren altzo kontsolagarrian santu baten moduan hil da, berak eskatu bezala Frai Mateorekin konfesatu eta itzulirik ez duen biderako azken sakramentuekin indarberritua.

Krisialdietako gizarteetan (Grezia klasikoan «sofisten» periodoa, etab.) ohiko letretako jendearen «mugikortasun» intelektual-moral estremo honen fenomenoak, geuk ezagutu dugu nahikoa, izenak ematen hasi beharrik ez dago. Gizarte hori dramatikoa izaten da, baina ez serioa. Burckhardtek bere betiko fintasunaz erreparatu du, gizarte oilategi horretan, esan ezin halako gizagabekeria eta dolore guztien arren, benetako tragediaren sentidorik ez dela sakon-sakonean sumatzen. Arrakasta duena komeria eta burla da, askotan burla krudel sarkastikoa. Humanistena txantxaren erreinua da. Sufrimenduaren ezaxola. Bere bizitzak asko balio ez badu (nahiko merke saltzen da), besterenak fitsik ez du balio humanistarentzat. Justiziaren zuzentasunean sinesterik ez dago eta, nolana ere, efikazagoa eta errazagoa mendekua da, gero egin barre. Eta, haren armekin, «bertsoak jartzea» da mendeku errazena, satira eta eskarnioa, kazetaritza eskandalosoak. Burckhardtek XV. mendeko Fernando Amezketar bat aipatzen du, eskarniatzailearen eta bat-bateko ateraldien, «Florentziako umorearen», prototipo bezala, auzo bateko Arlotto izeneko apezka, ez dakit gure «arlotte»rekin zerikusirik izango ote duen.

Baina krisialdietako fenomeno hau, beharbada bizitza publiko modernoaren ezaugarri bat bilakatu zaigu bitartean. Gaur beti krisian bezala bizi gara. Egunero hautu berriak egin beharrean. Erradikalki «konbertitu» beharrean (munduaren ikuspide eta arrazoi berrietara) bizitzan behin gutxienez, Descartesek berak jada egin behar izan omen zuenez, eta honez gero lanpostua ere bizitzan behin gutxienez aldatu beharra omen daukagun antzera: «de façon qu'il me fallait entreprendre sérieusement une fois en ma vie de me défaire de toutes les opinions que j'avais reçues jusques alors en ma créance, et commencer tout de nouveau dès les fondements». Beraz, «txaketeroarena», iseka gabe tratatzeko gaia bihurtu zaigu. Agian umorez bai: Tristan Bernardena omen den zirto hau, «los hombres son siempre sinceros: lo que pasa es que cambian de sinceridad», Santamariari irakurri nion nik. «La verdad de la mañana –komentatzen zuen Karlos Santamariak– no es la verdad de la tarde, la verdad económica no es la verdad moral. La verdad religiosa no es la

verdad política; la verdad ante el amigo no es la verdad ante el enemigo; la verdad literaria no es la verdad filosófica. El mundo de los negocios tiene sus leyes propias; el mundo político también (...). Sinceridades sucesivas, eso es todo».

Anbiguitate unibertsalaren xake hauetan, tipologia diferentetako joko moldeak imagina genitzake. Izpiritu liberal fin eta sensible bat, Nemesioren eite modukoa, hankatik lorutako txoria, kultura dogmatiko batean estekaturik eta larri; edo, kontrara, izpiritu agresibo bat, zuzen-zuzen trikera doana, edo oportunistak bat, edo fribolo bat, edo morroi-arima bat merke-merke salgai, edo sakrilegiaraino oldartsu bat, kultura dogmatiko horretantxe hamaika modu diferentetan jokatzeko eta salbatzeko Nemesio baino iaioagoak. Imagina genezake kultura edo giro liberal bat ere, eta izpiritu liberal arduratsuak, erreforma bat min gehiegi sortu gabe burutu nahi luketenak; edo izpirituak, liberalak beren eran agian bai, baina batez ere agintearen problemekin beti liberalak eta zabalak, bestela egozentriko absolutuak, handinahikume nanoak, beste guztiaren eta guztien kontrako errigortsuak (ahul guztienak alegia), eskalatzaile berdingabeak Jaunaren eskaileretan gora, etab., etab. Seguruenik, irakurle bakoitzak xake-raulako pieza denak betetzeko nahikoa etsenplu badauka berak, guk iradoki gabe.

Kaos horretan, Nemesio esplikatzea –ulertzea– ez zait iruditzen errazegia. Euskal Herriaren eta euskal kulturaren krisia dago; bere krisi pertsonal ezberdinak daude (sexuala, fedekoa): kontzientzia fina dago, etxean eta Seminarioan hartu duen heziketa kartoizkoa era berean. Bere kanbiorik ez egotea presuposatzen duten doktrinak daude; eta zeharo aldatzen ari diren garaiak, eta zeharo aldatu den Nemesioren barrua. Arima arranguratsua, gazteengana hurbiltzeko, Pako Suduperen informatzaile baten esanean, edozein barregarrikeria egiteko pronto egon zitekeena, azkenean bere kultura tradizionalaren sare «zaharrek» harrapatu dute preso. Bere buruaren barruan Elizaren nahiz filosofia klasikoaren edozein tesi kuestionatzeko eragozpenik ez zuenak, «Zuzenbide Naturalik ba ote zenentz» galdegiteraino⁶³, gero, *Zeruko Argia*-ko gaztetxoaren gorrikeriatxo batzuek izutu eta uxatu zuten. Eta,

⁶³ «Ohar, Nemesio Etxanizen gobernadoreekiko gutun guztien oinarri behinena delako Jainkoak berak ezarririko Zuzenbide Natural horretara jo beharrean oinarritua zela», abisatzen digu oso egoki P. SUDUPEK, aip.lib, 112 eta 130 orr.

azkenean, «On Manuel Lekuona Euskaltzaindiaren lehendakari-aulkitik kentzeak arras mindu zuen, eta lehendanik gazteekiko zituen ikuskera-ezberdintasunak areagotu zizkion hauekin etetera iristeraino» (Pako Sudupe). Nemesio bere baitako uhartera bildu zen, inguruan kultur paisaia guztia gazteriaren uharreak iraultzen ikustea eraman ezinda. Gazteria, berak hala zaindu eta lagundua, berri-gose zetorren; krisira iritsi ez, baina krisitik sortu egin zen, ez zekarren deusen begirunerik. Euskal Herria minbiziak jota zegoela, iruditu zitzaion orduan. Piska bat harritzekoa da, krisi pertsonala hain ongi ezagutzen zuenak, ez igarri izatea hobeto krisi sozialari, kolektiboari.

Nemesiok ja ez du ulertzen mundua. Denborak erabat ari dira kanbiatzen. ETAko gazte jendea bera egunero diferentea da, mila joera diferentetan ari da behin eta berriz puskatzen.

Burckhardtek kontatzen du, momentu batean, Florentzian, gizonezkoen modarik ez zela posible, bakoitzak beste guztietatik diferente jantzi nahi zuelako. Humanistak ez sorlekuari, ez filosofiako eskolari, ez fedeko artikulu eta ez dekalogori nahi zuen itxuraz bere burua gatibu aitortu. Ez zuen inorekin antzik nahi. Munduko txoria uste zuen bere burua eta, «ubi bene ibi patria», bere aberria zeruaren azpian edonon zegoela kantatuko zizun. Jacob Burckhardtek, betiko bere zolitasunarekin, askatasun eta kosmopolitismo axanpa horiek, tirano koxkorren hiri italiarretako libertate zibil basikoenen faltaren eta inpotentzia errealaren fruitua besterik ez zirela, erakutsi du, bizitza publikoak arras estu kontrolatzen zituen espazioetatik landara eremu pribatu arriskugabeetan askatasun txiki handienak hedatzea permitituz, «politikoki indiferenteak»: horrek, nolana ere, interesik eta eragipenik hurrengo historia kulturean ez die ukatzen haiei, azken batean Nemesiok eta, poesia erotikoarekin sortu nahi izan dutena, horrelakoxe askatasun esfera inokuo bat izan baita eta, kultura moderno batean omen gauden arren, euskal munduan ezin ukan dute lortu. Geroago ikusi behar izan ditugu halako askatasunak libre, eta ikusi ahal/behar izan dugu, askatasun txikien su artifizial handiok botereari asko gustatzen zaizkiola ere (quantum mutatus ab illo!), salbeak eta festak gotorleku setiatu bat bezala ertzaintzarekin su eta gar tiroka defendatzeraino alajaina. Burckhardtek Italiako hiri-estatuetan, formazio humanistako abenturero jende haren ugaritzearekin batera, nola garatu zen

administrazio sistema bat ere, deskribatu digu –Ferrarako kasua azaltzen du bereziki–, kargu publiko guztiak urtero salgai jartzen zituena «eskint-eske hoberenaren» azokan. Kargu salerosiotan denetik agertzen da, notario, juez eta podestà artean, kapitainak eta basozainak, eta poetak ere. Jendeak «deabruari baino beldur eta gorroto handiagoa izatea» kargudun publiko horiei, ez du milagroa ematen.

Ez gara geu holako ispiluetatik urruti bizi, geure buruak hor ezagutu nahi baditugu. Beste begiradaxo bat ispiluan botatzeko, kalera aurretik: Richard H. Popkinek erakutsi eta azpimarratu duen arabera, kritizismo eta eskeptizismo itxuraz ertzakoi hauek, mugabarru franko apaletan izaten dira hain kritiko eta eskeptiko oldartsuak, eta beste kapitulu batzuetako fideismo ikaragarriekin batera ulertu behar dira balentria horiek.

Jakinik, beraz, krisian gaudela eta ekaizpean galduta gabiltzala: zergatik dela uste dugu hori, eta doi-doi zer dela, iruditzen zaigu, gertatzen ari zaiguna? Bitxia da, baina Jon Juaristiren erantzuna, «nuestros padres mintieron: eso es todo», piska bat txundigarria egin bazitzaigun, Nemesioren erantzunak ez dirudiela asko diferentea funtsean, aitortu behar: «Zergatik etzigiten honela adierazi gure Apaizgaitegiko liburuetan?» (IZ 107)⁶⁴. Bietan, gurasoen munduak ez digula balio, deskubritu da, eta gurasoena da errua.

Nemesiok, bere aurrean krisia ikusten du eta bizi du, baina ez du haren kontzepturik, axal-axalekoa baino. Ez du barrura ikusten. Aurreneko krisi intimoen iturria Seminarioko moral irakasle beldurri-zuhur batzuetan suposatu ondoren, gazte nahastaile batzuk izango dira gero euskal munduko kalapiten kausa guztia. Zer jazoten ari den analisisian ere, Nemesiok, problema izugarrizkoak, arazo txiki pribatuetan ikusten ditu. Inoiz ez dio antzeman, gertatzen ari zena ez zela besterik gehiago, eta ez gutxiago, bere inguru guztian mundua substantzialki arraberritzen ari zela baino: beharbada harentzat aldatzerik ez daukan zerbait zelako mundua, egia eternoen eta esentzien haren kulturari.

⁶⁴ Lizentzi badut gogoratzea, Jessicaren jarrera guztiz femininoa da hori *Las manos sucias-en* (V): «¿Quién tiene la culpa? ¿Por qué nadie me ha enseñado nada?... ¿Por qué me habéis mentido?»

Erraza da halere, Nemesiok ez zuela ulertu, esatea. Geuk zer ulertzen dugu oraintxe, «ulertu»? ETB ikusi eta: «nola ez da herri honetan bidezkoa izango indarkeria?», asaldatzen gara. Atentatu bat gero, eta: «noiz bukatu behar du negarbide honek!». Albistegiak bakarrik egunero mutur batetik bestera garabiltza erauntsika gure sentimentuetan. Razonalki eta hotz-hotz analisatzera jarrita ere, ordea, piska bat kritikoak izan nahi badugu, nola «ulertu» hemengo politika eta politikeria zirkoa? Demokrazia honek Euskal Herria birregiteko balio duela, gaitza da sinestea, ikusitakoak ikusiz begien aurrean. Borroka armatuak zein garaipenetara eraman gaitzakeen, ez da ikusten garbiago. Gazteek autobusak erretzea, eta kalean harrika ibiltzea, herri erori bat jasotzeko oso metodo zuzena ote den, ez dakigu. (Baina seguru al zaude, borroka hori egiaz negatiboa izan dela bere emaitzetan? Eta zein da kontu modu hauek ateratzen jakiteko sistema?). Nor sentitzen da gaur ezertan seguru bere ustetxoen txalupan, uhinek alde guztietatik jotzen dutenean, egun batean bai eta bestean ere bai? Gerra zibilak, ni oroitzen naiz, zer ekarri zuen familian, kalean, herrian: zer ekarriko du honek guztiak? Zeinek ez du nahi bakea: baina nola izan behar du bakeak posible? Iluna eta dudagarria ageri da dena horizontean. Ez dakigu zer egin. Ezin dugu ezer egin gabe egon. Zerbait egin nahi orduko, kritika zaparradak jausten zaizkizu nondinahi buru gainera. (Gu mitomanoak, arrazistak, intoleranteak!...). Hizkuntzaren politika, sindikatuak, kirola, artea bera, «euskal» itxura apur bat erakutsi orduko, susmagarri gaiztoa da. (Egia da, piska bat aurreratu omen dugula: atzo separatismo fanatikoaren seinaleak zirenak eta zigortuak zeudenak –txistua jotzea edo txapela jaztea bezalako ekintza terroristak– orain «toleratuak» daude...). Ez dakizu nola ezer egin bake samarrean, eskandalo gabe, geure buruak arras saldu ere gabe. Konplexu, zalantza eta ikara artean bizitzea dela, ematen du, gure patua aspaldidanik. Eskuineko hala ezkerreko, espainoltxuek beren Espainiarekin eta historiarekin harro eta zoriontsuak dirudite beti (estatistikak omen dira), problemarik ez dute; euskaldunok Euskal Herriarekin eta gure historiarekin problemak besterik ez dugu, zorigaiztokoak izatera eta lotsatzera behartuak gaude beti gure miseria eternoekin. Besteek nahi digutena nahi izatera, pentsatzen digutena pentsatzera, obligatuak, txintxoak eta arrazoizkoak izateko. Zeuk ezer nahi izan izanez gero, dena konplikatu da, huskeria txikiena ere.

Horregatixe, gauzak behingoz garbi egotea nahi genuke. Garbi egotea, borrokak salbatuko gaituela eta demokrazia honek ez duela deus balio. PNVak bakarrik salba gaitzakeela. Ez dagoela PSOE beste irtenbide progresistarik. Garbi egotea zer egin eta zer utzi. Zer pentsatu. Obsesio bat bilakatu da planteamenduen eta soluzioen garbia. Ziurtasuna... Baina hemen ezer ez dago garbi. Ezer ez dago ziur. Krisia hemen guztion barruan eta kanpoan eta guztian dago.

Orduan salbabide «arrazoizko» bat, herri zail honetatik urrundu, norbere barrenera emigratu, jendeok eta jendeon ametsak erlatibizatu, zuhurtasun berria bestelako esfera batzuetan deskubritu, eta geuk asmaturiko independentzia baten oasian, razionalitatean, jakindurian gaztelutzea, izan daiteke. Ongiaren eta Gaizkiaren haraindi. Edo –arrazoizkoa hori ere–, norbere kontzientzia txikiko tormentuak haren kontzientzia sentimentugabe mandoan deskargatuz, erakunde baten burdinezko arrazoi elastikoan bilatzea betiko lasaitasuna eta egia (EAJ, PSOE, PP). Edo, isil etsita –ez oso «arrazoizkoa»–, gure tragedia pertsonala eta kolektiboa asumitu, eta, guztiaren kontra, borrokan iraun, egia absolutuaren jabe garenik pentsatzeke, gure egia txikiari eutsi halere, «RECISTER», Marie Durand kontzientzia zohardiaren heroisak zirrimarratu duen legez Aigues Mortesen Konstanzaren Dorreko ziega ilunean⁶⁵.

Hori fundamentalismo hutsa da, ordea!

Bai, «mamu bat dabil European zehar»: fundamentalismoa da hori. Iran, Irak, edo Islama orohar, USAren eta «mendebalearen» etsai guztiak fundamentalistak dira orain; lehenago USAko pentsamentu korronte

⁶⁵ Marie Durand, hamasei urterekin sartu eta hogeita hemeretzi urte egon zen preso, orain turistak hotzikarazten dituen ia argirik gabeko zulo hotzean: erresistentzia higanauta probentzalaren sinbolo hunkigarriena. Higanautak, ezaguna da, erlijio oker bateko fededunak ziren, h. d., erlijio zuzenekoak erresuma okerrean, Frantziako erlijio gerretan bando galtzaila suertatuak (Suitzan edo Herbeheretan ez bezala). Katoliko erregetiar frantsesek, beren fedea abandonatzeari uko egin zioten higanauta probentzalak Aigues Mortesko Konstanzaren Dorreko ziegetan pilatu zituzten kateetan (hor dago Marie Durandek ezten eskas batekin ortografia eskasagoan nekez horman marraturiko «recister» hori): Zaldunen Salako paretan zenbait jaun presoren izenak irakur litezke oraindik, bakoitzaren izenari VV gehitua dutela: «Vae Victis» -historiaren meditazio filosofiko, kartzelak irakatsia, berriro.

erlijioso-politiko herrikoi eta boteretsu bati zeritzon fundamentalismoa, Amerikako hainbat Estatutan influentzia handikoa XIX. mendearen amaieran eta Lehen Mundu Gerraren inguruan; hitza bera pentsamentu amerikar horren izendatzeko asmatua da, oker ez banago. Baina orain mendebaldarren eramilako inbasioari, ekonomikoki adina kulturalki zupatuak eta hurrupatuak izateari erresistentzia oro, islamdarra guztiz gain munduan, beren identitatea salbatzeko hauen edonolako ahaleginak –Irakeko diktaturan ala Frantziako eskola demokratikoetan–, fundamentalismo dorpe hutsa dira beti: Estatu aferak muntatzen dira neskato batzuen beloa gorabehera, «izpiritu errepublikanoa» mehatxatua ikusten da. Eta kontsumo gizarteari trabarik ipintzen edo botere «mendebaldarrari» (automatikoki hori beti arrazoizkoa eta ilustratua baita) buru egiten enpeinatzen diren erresistentzia mota guztiak, gutxiengo zanpatuenak bereziki, oraingo mamu horrekin identifikatzen dira (oraindik ez du asko, «fundamentalismo berde» bezala European borroka ekologista guztia deskalifikatu nahi ukan zela! Eta Frantziak Estatu Zuzenbidezkotzat jo zezakeen berde pare bat asasinaztea). Basamortuko barbarokume horiena ez bezala, «gurea» pentsamentu arrazoizkoa eta unibertsala da, pentsamentu mendebaldarra. Ez dakigu hau nola arraio izan litekeen unibertsala, bere baitan partikularrak barnebildu gabe, are ukatuz; baina logikarentzat geratzen den problematxoa da hori, eta partikular haientzako. Edonola ere arrazoizkotasuna gurea da; eta gure arrazoizkotasuna arrazoizkotasun ereduzko eta absolutua deklaratzeari, indartsuenak eta armatuenak ere geu garen artean behinik behin, ez da fundamentalismoa... Hauxe da, aitzitik, egiazko arrazoizkotasuna munduan.

Beharbada nahikoa fundamentalistak denok izaten gara. Baina prentsan eta hedabideetan batzuek besteak fundamentalistatzat erabiltzea, interes talde ezberdinen arteko gatazkaren eta, batez ere, edozein oposizioaren aurka boterearen beste arma bat bilakatu berria dugunez gero, kontzeptu horrek hainbeste gauza diferente esanahi du, ohartarazten du C. F. Geyerek, ezen ja batek ezin baitu jakin kasu konkretuan berba horrekin adierazi gura dena zer demonio den. New Age eta xiitak, «sekta» erlijiosoak eta Aita Santua bera, hooligan britainiar futbolzaleak eta oraingo euskal gazteria eroa, baina –momentuko polemika zein den arabera– kristau-demokrata serio askoak

ere izan daitezke fundamentalista kontsideratuak, h. d., sozial-demokrata ez den guztia, esate baterako, idazlea sozial-demokrata bada; edo energia atomikoaren alde mintzo den ikertzailea, ekologista amorratua ez den zientifikoa⁶⁶. Fundamentalista, aspaldiko «bestea»ren izen berria besterik ez da. Hedabideetako hitz terrible berri bat (zuk pentsatu beharra ekonomizatzen dizu), aldian-aldian kanbiatu beharra egoten den hori, turko berria asmatzeko. Hemen, bistan da, arrazoizkotasun ofizialera burua otzan-otzandu nahi ez duen guztia da fundamentalista. Mamu horrekin ikaratu nahi izaten dituzte umeak orain, ordenaren barruan beti txintxo-txintxo fededun, ez daitezen ideia peligrsoen kuskusera ilunpe horietara lerratu...

Benetan misterio bat da, krisi egunetan zergatik bat beti pilotan eta bere koadroan geratzen den, handik atera gabe, kaiolan bezala, borrokan, lanean, eta bestea haize guztiekin hegan joaten den eta konbertitzen den poker berri guztietara. Zein sartu, ordea, pertsonen barru ezkutuat epaitzera? Ageriko pentsamenduen prozesuak epaitzea bada nahikoa lan.

Wieland, izpiritu kontraesanez betea (W. Hinderer), aurrena idazle pedagogiko pietista, «ilustratu» guztiz arrakastatsua hurrengo, gero berriro zentsore moralizante gaiztoa agertu da behin. Lessingek, «bagabundoaren instintoak» atsedean gabe hara-hona purrustatu duen izpiritu geldigaitzak (N. Altenhofer), makina bat «konbertsio» ibili duenak berak ere (beti linea batean baina!), begirune baino zertxobait mesfida gehiagoz komentatu ditu Wielanden eboluzioak: «biraketa hori barneko jaieregatik (zarpail esateko), bere arimaren mekanismo propioarengatik, jazo baldin bada, orduan ere harengatik zur eta lur gotea ez dut utziko⁶⁷. Baina kanpoko zirkunstantzien batzuk eragina

⁶⁶ GEYER, C. F., *Einführung in die Philosophie der Kultur*, Darmstadt 1994, 130.

⁶⁷ Hemen berriro sentitu beharra daukat, edo esan beharra sentitzen dudala: honen itzulpen espainola, cfr. G. E. LESSING, *Escritos filosóficos y teológicos*, ed. A. ANDREU RODRIGO, Editora Nacional, Madrid 1982, 222, «mestizaia kulturala» da, h.d., nahas-borras gaizki itzulita dago.

izan bada, bere oraingo pentsaerara indarka, intentzioekin, aldatu behar izan badu, nire arimako barneenetik erruki diot orduan» («7. Guruna Literatura berri-berrienaz»).

Oportunistak, pioneroak, profetak, bide urratzaileak, traperoak, arima tormentatuak, adimen kritiko argiak, haizeburutxi putzak, izpiritu sentiberak, tripazaiak, idealista-idealistak, peseteroak eta balio guztien bostaxolak, denetariko karaktereak eta interesak eta proiektuak, eta denetarik apika gu bakoitzaren barruan ere, nahasian agertzen dira dilindan denak krisialdiko zirimoletan, elkar jotzen, karraskatzen: eta ez duela inork inor ulertzen ematen du. Ez da oraingoa. Lucien Febvrek seinalatu digu nola, ikerketa garaikideetan, Ernazimentuko autore printzipal ia guztiak modurik kontrajarrietan interpretatzen diren, Rabelais adibidez (*La religion de Rabelais*, 1968). Berdintsu gertatzen da Ilustrazioko autore interesanteenekin edo erromantikoekin. Krisi garaiak definizioz dira konplexuak. Eta krisialdiko kontraesanetan gogorkiago borrokan saiatu eta goititzen diren pertsonaiak, nortasun bizia erakutsi dutenak, kontraesantsuak izaten dira berak ere. Zein da Nafarroako Margarita egiazkoa: «La chrétienne du Miroir de l'âme pécheresse; la mondaine des contes de l'Heptaméron; la mystique des lettres à Briçonnet; la luthérienne qui traduit en vers français le Commentaire de Martin Luther sur l'Oraison dominicale; la calviniste qui soutint à ses débuts le futur auteur de l'Institution; la spirituelle qui protégea Pocques et Quentin contre les fureurs du Picard devenu Genevois; l'assoiffée d'amour divin... Avec tant de traits disparates (et qu'il serait vain de vouloir classer par époques), comment retracer une physiologie vivante, et cohérente?».

XI

«Geu izan»: esan dugun emigrazio izpiritual horietarik asko, postura berri bila egin da, krisi orokorrean galdu den leku baten bila norberetzat. Hau da, 1960 aldera, eta gero ere (honetantxe uste dut alderik ez dagoela, lehengo eta oraingo «gazte eroen» artean, handirik), Erresistentzian lotzeko erabaki, ez dakit fundamentalista, bai fundamentalala, hartzen zuenak, zer izan beharra zuen inposatzen zion presio familiar, eliztar, kultural, sozial itzelezko inguruaren «arrazoizkotasun» jada onartezinari egin behar zion buru. Hitz bakar batekin esan beharko banu, «Moderniari» behar zitzaiola iharduki, esango nuke. Baina zer esanahi du horrek? Modernia anabasa bat izan baita gure artean.

Beharbada hau da lekua, 60. urteetako gure pentsamenduaren beste influentzia batzuk aipatzeko –beraz, beste puntu bat gehituko dugu, hamairu–, seguruenik apalagoak izan badira ere Parisekoa baino: Frankfurteko Eskolarena, «neomarxista» deitzen zena nolabait egitearren, edo Simone Weilena esaterako.

Simone Weil gure artean, *L'Enracinement* haren liburua batik bat⁶⁸, Karlos Santamariak aipatu ohi zuen (Weilen gogoeten beste alderdi batzuk, eta haren pentsamenduaren funtsezkoena, aitortu behar dut ez ditudala ezagutzen). Hunkitzekoa da gazterik hildako andre judu filosofiako irakasle ezkertiar erradikal honen historia pertsonala (1909-1943). Parisen Alainen lankide eta ikertzaile filosofiko gisa nabarmendu ostean, gatazka politikoari lotu zaio burubelarri 30. urteetan, sindikalismo iraultzailean lerrotaturik; katedra utzi eta fabrikako langile bihurtu da –proletargoaren esperientzia zein den ez teorikoki bakarrik ezagutzeko– lanik gogorrenetan bere osasuna hondatu baitu; militante antifaxista sutua, Espainiako gerra zibilera boluntario etorri da faxisten aurka gudukatzeraz; naziek Frantzia okupatu dutelarik, ihes egin behar izan du USARA, handik Ingalaterrara pasa eta France Libren

⁶⁸ WEIL, S., *L'Enracinement. Prélude à une déclaration des devoirs envers l'être humain*, Paris 1949.

erresistentzian jarraitzeko, nekagabe borrokan beti, azkenean, osasun gutxikoa eta akitua, 1943ko udan Londresen bizia emanez.

Proletargoaren borrokaren borrokari erradikal hau franko kritikoa da Marxekiko, h. d., Marxen historiaren filosofiarekiko, haren optimismoarekiko batez ere progreso teknikoaren emaitza emantzipatzaileei buruz. S. Weilek azalduko duenez, proletargoaren emantzipazioaren arazoa ez da lanaren (produkzioaren) organizazioarena bakarrik, oinarritzko giza «beharkizunak» ere ekonomikoak soil ez diren legez. Gizatasuna bere osoan dago erredimitu beharra, hots, Europan aspaldiko historia politiko, kultural, sozial, moralak zanpatzen dutena, historia ekonomikoak bezanbat. Gero Adornok, Horkheimerek, etab., erakutsiko duten ikuspegi kritikoa razionalismoari eta Ilustrazioari, Moderniari buruz, 34/35 urteetan ageri du jada Simone Weilek. Beraz, mendebaleko historiaren, eta guri hemen interesatzen zaigunerako bereziki, «historia nazionalen» berrirakurketa guztiz kritikoa egiten zuen, askatasun eta gizatasunaren helburuaren argitan.

Konkretuki S. Weilek Frantziako historia, monarkiak hasi eta, gero Iraultzak eta Errepublikak jarraituriko Boteretik egin eta eragindako herrien, probintzien, eskualdeen eta nazioen «deserrotze» historia bat bezala irakurtzen zuen, jendemasa deserrotuokin Estatu-makina inpersonal abstraktu bat osatzeko (Espainiaren historia termino berdinetan irakurtzeko ispilu garbia baitzen guretzat). Okerrrena da, proletargoa askatu nahi omen dutenek berek ere, desaskatasun historia horrixek konformatu zaizkiola, hura ukatu beharrean jarraipena emanez, abertzaletasuna prejudizio burges hutsa omen dela eta, beren kontuzaharrekin⁶⁹. Faxismoaren gorak bakarrik birraurkiarazi bide die lider obreroei abertzaletasunaren balioa (34an hasi dira komunistak ikurrin trikolorez eta Marseillaisez manifestatzen). Baina Frantziako historia inguruko eskualdeak eta jaurerriak banan-banan paregabeko ankerkeriaz⁷⁰ konkistatzen, kulturalki eta politikoki desegiten, zangopean estekatzen doan Botere zentral baten hedapenarena da mendez

⁶⁹ «Pendant des années, on a enseigné aux ouvriers que l'internationalisme est le plus sacré des devoirs, et le patriotisme, le plus honteux des préjugés bourgeois» (aip. lib., 133).

⁷⁰ «(...) On peut trouver dans l'histoire des faits d'une atrocité aussi grande, mais non plus grande, sauf peut-être quelques rares exceptions, que la conquête par les Français des territoires situés au sud de la Loire, au début du XIIIe siècle» (Ib., 138).

mende. Okzitania, Burgundia, Britainia, Franko-Konterria, Korsika nola frantsestu diren, historia errepatzen du S. Weilek. Bestalde, Botere iredle hori bera, Frantzia, XIV. mendearen erdialdera Karlo V.aren finantza eta administrazio erreformekin hasi eta, «a cessé d'être une monarchie pour tomber dans l'état de despotisme»⁷¹; S. Weilen hitzetan, Luis XIV.aren «Estatua ni nai» absurduan prozesu hori koroatzeko⁷². «Quand on loue les rois de France d'avoir assimilé les pays conquis, la vérité est surtout qu'ils les ont dans une large mesure déracinés»⁷³. Frantzia horretan loratu den Ilustrazioak historia horrexen tradizioan garatu eta jarraitu du bidea egiten –Humboldtek ere ohartu zuena⁷⁴– eta Entziklopedistek («tous intellectuels déracinés, tous obsédés par l'idée de progrès») halakoxea inspiratuko dute Iraultza⁷⁵, iraultza hein batean, eta hein batean Richelieuren eta Luis XIV.aren obraren akabamendua izango dena: «Or non seulement l'État en question n'est pas le peuple souverain, mais il est identiquement ce même État inhumain, brutal, bureaucratique, policier, légué par Richelieu à Louis XIV, par Louis XIV à la Convention, par la Convention à l'Empire, par l'Empire à la IIIe République...»⁷⁶.

⁷¹ Ib., 135.

⁷² «Le régime de Louis XIV était vraiment déjà totalitaire. La terreur, les dénonciations ravageaient le pays. L'idolâtrie de l'État, représenté par le souverain, était organisée avec une impudence qui était un défi à toutes les consciences chrétiennes. L'art de la propagande était déjà très bien connu (...). Sous ce régime, le déracinement des provinces françaises, la destruction de la vie locale, atteignit un degré bien plus élevé... L'opération par laquelle la Révolution substitua au roi la souveraineté nationale n'avait qu'un inconvénient, c'est que la souveraineté nationale n'existait pas» (Ib., 152).

⁷³ Ib., 141.

⁷⁴ Humboldtek Luis XIV.aren periodoko kultura uniformista, eta bereziki klasizismoa, salatu ditu, gizatasunaren eta kulturaren eredu absolutu bakarra ezagutu duelako (ofizialki «frantsesa», h. d., Gortekoa), «eta dena arau bakar honi azpiratzen zioten partikularitateen axolarik gabe, ez baitzituzten aintzat hartzekoak ere kontsideratzen». Horraz politika iraultzaile uniformista baino lehen, Frantziar kultura bat egon da uniformista eta zentralista, 1789ko iraultzaileak hortxe haziak eta eskolatuak izango baitira. Ik. nire artikulua «W. von Humboldt: el concepto de individuo y la búsqueda de nuevo humanismo - Banakoaren kontzeptua: humanismo berri baten bila», in: *Revista Internacional de Estudios Vascos* 41/2, 1996, 329.

⁷⁵ WEIL, S., aip. lib., 141: «La Révolutions a fondu les populations soumises à la couronne de France en une masse unique, et cela par l'ivresse de la souveraineté nationale. Ceux qui avaient été Français de force le devinrent par libre consentement».

⁷⁶ Ib., 165.

S. Weilek historia modernoan Estatuaren eta nazioaren artean oposizioa, ez berdintasuna, erakusten zuen, denborarekin hor Estatuak nazioa irentsi egin baitu. («Le développement de l'État épuise le pays. L'État mange la substance morale du pays»)⁷⁷. Gero, Iraultzak formalki nazioaren subiranotasuna proklamatu duenean, ez dagoen zerbait deklaratu du subirano. Fikzio bat izan da. Erretorika hutsa. Estatuak nazioaren lekua okupatuko du, azkenean nazioa hitza bera Estatu adieraztera pasa da, dominazioa erabatekoa dela hobeto seinatzeko. «Le mot même de nation avait changé de sens. En notre siècle, il ne désigne plus le peuple souverain, mais l'ensemble des populations reconnaissant l'autorité d'un même Etat; c'est l'architecture formée par un Etat et le pays dominé par lui. Quand on parle de souveraineté de la nation, aujourd'hui, cela veut dire uniquement souveraineté de l'État»⁷⁸. Nazioa gabe, are nazioaren aurka basaki eraikitako Estatuaren subirano eta absolututasuna.

Estatu irensearen kritikaren azpianago dagoena, gizon-emakumeak errogabetu eta barne-hustu dituen Moderniaren kritika da. Unibertsalismo abstraktu eta mundu-hiritar lauaren aurka, «aberria», h. d., lurra, etxea, historia lokala, tradizioa, nazioa, gizon-emakumeak barnetasunez janzten eta hornitzen dituen, errebndikatzen du S. Weil judu frantsesak. Arras berria zen guretzat hori dena hain zuzen militantzia ezkertiar erradikaletik bindikatuta aurkitzea!

Rhinaren bestaldean hagitz diferentea izan da Estatuaren eta nazioaren historia Modernitate guztian (S. Weilek berak ohartzen duen bezala) eta, batez ere, 1930 eta 40. urteotan oso bestelakoa zen giroa batean eta bestean (Fronte Popularraren gatazkak Frantzian, nazismoaren erauntsia Alemanian). Alemanian ezin-ezinezkoa zen garai horretan, han nahitaez «Heimat» edo are «Blut und Boden» literaturaren keru mina eduki beharra zeukaten lurraren eta erroen errebndikazio tonu horiek judu batek, edo ezkertiar batek asumitzea⁷⁹. Han ere, ordea, Modernitatearen erradikalki kuestionatua ikusiko da. Modernitatearen ezaugarritzat

⁷⁷ Ib., 154.

⁷⁸ Ib., 164.

⁷⁹ Aitzitik presentzia handia dute Heideggeren filosofian. Egia da Frankfurtoko Eskolako autoreek gero Heidegger hori ederki aprobetxatuko dutela Modernitatearen beren kritikarako; baina kritika horretako motibo batzuk inola ezin hartuak egingo zaizkie.

jotzen diren ilustrazioa, «razionalitatea», eta horiekin jasotako gizartea eta Estatua bereziki.

Frankfurteko Eskolako edo horren inguruko autore asko juduak izan dira orobat (M. Horkheimer, W. Benjamin, etab.). Hasieran eskema marxista zen funtsean, praxiaren lehentasunaren tesiarekin, etab., beren lanetan Moderniaren irakurketa egiteko erabiltzen zutena: gizartea, sinplifikatuz esateko, ustiatzaile eta ustiatutan banatua dago, burgesia eta proletargoa, hori da historiaren funtsa; artea, filosofia, moralak, zientzia, etab., klase batek bestea menperatzeko arma ideologikoak baino ez dira. Historia klase borrokaren historia da; eta historia modernoa burgesia eta proletargoaren artekoarena. Ardatz horren arabera esplikatzeko dira kultura, politika eta biziera sozial guztia. Halere nazismoak eta II. Mundu Gerrak historia irakurtzeko eskema horren gehiegizko sinplismoa ebidentzia gorrian ipini du. Ez dira klase borrokakoak, European ikusten diren eta beraiek ere biktima bihurtu dituzten triskantzak eta ustiaketa basatienak, etnikoak baizik; klase analisi klasikoarekin ezin da esplikatu Alemanian nazismoaren fenomeno politikoa («ideologiek» ez dute funtzionatzen klase borrokako tresna soil gisa) eta gutxiago Sobiet Batasunean stalinismoa, edo Hitler eta Stalinen ituna bezalako gertakariak... Beharbada Frantzia «garailean» Kojèvekin historia pasa zitekeen malkorik gabe biktima guztien

Politikan bezala kulturean, edozer gauza esplikatzeko momentu horretan Alemanian dabilen eskema dikotomiko agresiboan, oposizio intelektuala izpiritu aleman jator, herriari eta lurrari arxeki, «autentikoaren» eta izpiritu unibertsalista, aberkabe, «juduaren» artekoa da. Eta oposizio horrek gogoratu beharrik ez dagoen esanahi terriblerik dauka. Izpiritu nomada, errogabea, kosmopolita «judua» da. 1964an oraindik Heideggeren aurka panfleto amorratu bat idatzi du Th. ADORNOK, beharbada ez arrazoi gabe, «Jerga de la autenticidad», ik. *La ideología como lenguaje*, Madril 1982: «El intelectual sin raíces lleva en filosofía, en 1927 [*Sein und Zeit* - «El ser y el tiempo» argitaratu zen urtea], la mancha amarilla de lo disolvente [juduaren marka]» (86 or.). «(...) El por Heidegger llamado suelo, que tienen los auténticos y falta a los inauténticos» (88), etc. Beraz, Modernitatearen aurka Frankfurteko Eskolakoei norbanakoaren, intimitatearen, tradizioaren errebindikazioak irakurtzen dizkiegunean orobat, modu subtilago, finago -baina ez erabakitasun gutxiagoko- batean egiaz zer errebindikatzeko ari diren jakin behar dugu ulertzen («aberriak» - juduak ere badauzkanak!). Eta ulertzen, orobat, sorlekuaren eta lurraren, erroen, nazioaren errebindikazioak, ez daukala derrigor Heideggerrek (edo naziek) nahi zuten adiera, eta ez daukala hura edukitzerik ere.

gainetik; Alemanian ez⁸⁰, eta ezago Frankfurteko Eskolako filosofo kritikoentzat (berak juduak gehienbat), munduan zehar sakabanatuak jada, bizirik atera direnak. Moderniaren beste irakurketa guztiz kritiko bat abiatu da orduan hauentzat, inspirazio marxistaz arnegatu gabe, baina klabe berrietan, Horkheimer eta Adornoren *Ilustrazioaren dialektika* (1947) testuan aurkitu duena bere formulazio sonatuena. Historia nola etorri den Auschwitzera, h. d., arrazoimenaren zein kontzeptuk ardatzu duen modernitate, bilatzen da orain. Eta arrazoimena dominazioarekin berdintzen duen gure kulturaren basakeria jatorrizko eta esentziala jarri da ageri-agerian. Irakurketa berri honetan hain zuzen biktimek –gutxiengoek, marginatuak, gazteria matxinatuak– paperik positiboena aurkituko dizute historian. Izan ere, modernitatearen prozesua desberezitzaila da, ugaritasun eta diferentzia oro zapalduz eta Bat absolutuan hurrupatu doana, pertsonak, taldeak, eskualdeak, azkenean denak sistema abstraktuarekin bat–bat egiten duen arte. (Faxismoak Ilustrazioan dauka bere erroak: mendebalearen «razionalizazio» prozesu horren fruitu heldua baizik ez baita faxismoa Horkheimer eta Adornoren balioespenean). Progresoaren izenean diferentziak inausi egin behar dira. (Foruak «diferentziak» dira; gero hizkuntza ere bai). Prozesu horri punturen batean, geografikoan edo sozialean, uko egiten eta ihardukitzen zaionean, zapal–berdindua izateari erresistentzia jartzen diozunean, tragedia nahitaez zartatzen da: sistemaren inposaketa historiko progresibo biolentoari (zenbait jenderi «naturala» iruditzen zaiona eta, horregatik, «minik» sentiarazten ez diona) bortxa moduren bat kontrajarri beharko zaiolako. Sistemaren perfekzioa guztien berdintasun eta uniformitatea da, hori da sistemak nora jotzen duen. Erroboten Estatua, zenbakien

⁸⁰ Hegelen esanahia ere ez da derrigor Frantzian bezain loriatsua ikusiko gerraondoko Alemanian: E. Cassirerek, historiaren zentzua irabazlearen arrazoiarekin identifikatzea eta, azken finean, Teodizea bat bihurtzea Boterearen historia, Jainkoaren errebelazioa bezala ulertuz, horrela bada inperialismoaren eta faxismoaren aitzindari intelektualaren rola jokatu izatea filosofian, egotziko dio, cfr. *Der Mythos des Staates*, Zürich-München 1978, 345 eta hurr., 356 eta hurr. [orig. 1946koa]. Aldiz Hegelen defentsan (faxismoaren salaketatik) ik. MARCUSE, H., *Razón y revolución*, Madrid 1972. (Defentsa horri lotu zaio orobat WEIL, E., *Hegel et l'État*, Paris 1966). Italian G. Gentilek Hegel Estatu faxistaren oinarritzeko aprobetxatu du («lo stato etico» hain zuzen, oraingo demokrata batzuen antzera!, gizabanakoaren heldutasun osoa ahalbidetzen ei duen toki bakarra); B. Crocek, aldiz, idealismo beretik partituz, manifestu antifaxistak ondu ditu.

gizartea. Beraz, erresistentzia oro helburu horren aitzi, progresoaren aurkako antimodernia eta erromantizismo irrazionaltzat erdeinatuko da. Razionala makina bihurtzen uztea da. Makurtzea, berdintzea, amen esatea. «Sólo el inadapado no ha perdido aún su propia mismidad entregándose a al sistema; de modo que podemos decir que la marginalidad, la soledad y el desconcierto son en nuestra cultura el último refugio de verdadera humanidad»⁸¹. (Tesi hau zentrala bilakatu da Marcuseren gogoetan). Eta, Camusena bezala aipatu dugun jarrera hartara hurbilduz hemen ere, ez dira historiaren filosofia handiak eta mundua salbatzeko gurutzada handiagoak bereziki estimatuko honez gero, kontzeptu eta borroka konkretuak baizik («pesimismo teorikoa eta optimismo praktikoa», Horkheimeren esaerak formulatuko duenez), gizakiak eta jendeak konkretuak diren bezala, eta beren penak: «No la justicia en general, sino aquella por la que clama el perseguido; ni la libertad como valor abstracto, sino la que se materializa en la liberación de los presos»⁸².

Modernia horren eraikuntzan, juduek berek ez dute parte kaskarra izan, ezaguna denez. Beren autokritika zorrotzean, orain, hainbat puntu argitsu zegoen euskaldunontzat. Askotan entzuten dugu: ez da egia espainolek euskaldunak zapaldu dituztela; euskaldunak izan dira langile euskaldunak ustiatu dituzten burgesak, etab. Edo: euskara gaizki badago, ez da Gobernu espainolak jazarri egin duelako, euskaldunek berek utzi dute euskara bazterrera. Eta egia da. Egia da, Franco galegoa zen, De Gaulle lotaringiarra, Napoleon korsikanoa, georgiarra Stalin, Hitler bera ez zen alemana (austriarra baino). Orain urte batzuk «Quisling» eta «harki» bezalako kontzeptuak aski korrientiak ziren Europako literatura ezkertiarrean («zipaioak» bakarrik geratu da, nik uste, eta hori ere

⁸¹ HERNANDEZ-PACHECO, J., *Los límites de la razón. Estudios de filosofía alemana contemporánea*, Madrid 1992, 47. Ikus «Teoría tradicional y teoría crítica» saio eragintsuan jada (1937) Horkheimeren hau: «La verdad ha huido hacia pequeños grupos dignos de admiración, que, diezmados por el terror, tienen poco tiempo para profundizar en la teoría», cfr. *Teoría crítica*, Buenos Aires 1990, 267.

⁸² Ib., 58.

hementxe). Aginte edo sistema baten zerbitzari lehiatuenak, hain zuzen hori beren dominazio eta ukoa duten haietxen artetik sortuak izatea, ez da berria munduan⁸³. Horrelako gertakariak sakonago ezagutzeko, irakaspentsua zen Hannah Arendten *Los orígenes del totalitarismo* irakurra⁸⁴. Juduak ez dira arrazismoaren edo nazionalismoaren biktimak bakarrik, haren kausak ere izan dira lehenago. Ikustekoa Disraeliren analisia («era un imperialista inglés y un chauvinista judío»): haren arabera «Historiaren giltza» arraza da («las vicisitudes de la Historia hallan su solución principal en la raza»); eta arraza —ez hizkuntza, tradizioa, erlijioa— odola da, «sólo hay algo que hace una raza y ese algo es la sangre»; odolak egiten du aristokrazia («la aristocracia de la naturaleza»), bakarra dagoena eta bera betikoa, «una raza sin mezcla y una organización de primera clase» (115), historia egiteko kargua bere gain duena, naturak berari gomendatua⁸⁵. Benjamin Disraeli (1804-1881), askazi sefardiko familia judu aberatsean Londonen jaioa, gaztetxorik Eliza anglikanoan sartu da eta bataiatu, goiko sozietate ingelesean «eroso sentitzeko»; gaztetan ez literato eta ez politiko gisa izan dute haren saioek arrakasta handirik —bere jatorri juduak ez zion errazten—, azkenean, elkarte enpresarialen aurka eta noblezia landajabearen faborezko bere jarrera politiko errabiatuak Torien Alderdiaren buruzagi eta gero Gobernuko Lehen Ministro altxatu duen arte, handik aurrerako urteetan Inperialismo britanikoaren gidari efikazena eta sinboloa bilakatzeko. Disraelik munduan ingelesik ingelese eta aristokratari aristokraten izaten, bere judutasunari ihes

⁸³ Bideabar ohartzeko, «mestizaia kulturalaren» kontu guzti hori, holakoxe iturrietatik dariona da arima morroien ur gozoa, beren kultura zapalduak apur batzuk kolonizatzailearen kultura handian eta hizkuntzan jasota ikusi nahi dituztena, eta «Négritude» guztiak gorabehera, L. Sedar Senghorren poesia zoragarrienak ere frantses huts-hutsa izatetik ez duena salbatu, kolorido eta musika afrikar piska batekin.

⁸⁴ ARENDT, H., *Los orígenes del totalitarismo*, 3 bol., Madrid 1987 [orig. 1951]. Ondorengoan edizio horren I. bolumeneko («Antisemitismo») orrialdea parentesi artean adieraziko da. Ikustekoa, baita, MEMMI, A., *Portrait du'un juif*, 1962.

⁸⁵ Orain urte batzuetako mintzamoldean, ohikoa zen marxista-leninista eta beste progresista batzuek (abertzaleen aurkako intentzior, jakina), naziorik ez dagoela eta, «bi nazioez» mintzatzea: goikoen nazioa edo «nazio burgesa» eta laborari eta proletariena edo «nazio popularra». Ez dut uste jakiten zutenik, Disraeli hau zela «bi nazioen» tesiaren egiazko aita, eta esanahi arrazial hauxe zela bere esanahi jatorrizko, ez metaforikoa.

egiten, egin ditu eginahalak. Horretarako ezdeustzat zeuzkan bere judutasunetik hizkuntza, erlijioa, tradizioak, eta funtsezkoa juduak herri bezala berezten eta zedarritzen ez dituen, baizik «gizatasun unibertsalera» zabaltzen dituen printzipio izpiritual etereo batean (printzipio semitikoak «representa todo lo que de espiritual hay en nuestra naturaleza») ikusten zuen, horrela bera ere noble ingeles bat izateko paradan kokatuz, historia goitik dagitenean arraza izpiritualekoen lagunartean.

Parentesi bat, Disraeli honen kontura: Disraeli, XIX. mendeko politiko ingeles deigarriena izateaz gain, literatoa ere bazen eta, besteren artean, trilogia bat egundoko arrakastakoa idatzi zuen, Ingalaterra viktoriano edo «Aro berri»ko diferentzia sozial itzelen mingarritasunaz: alde batetik aristokrazia kupidagabea («kupida txiroen kontsolamendua da»), jauregietako zerimonia, opera eta dantza festekin, bestetik langileria industrialaren errumeskeria eta gose gorrian suburbioetako txaboletan; eta guztiaren erdian politikoen axalkeria eta ezgaitasuna arazo sozialari irtenbide bat aurkitzeko. Trilogiako bigarren nobelaren izenburua *Sybil or The Two Nations* da, 1845. Melodrama bat —errealismo soziopolitiko eta *Garoa* moral artean— laborari lurgabetuen eta 1839ko Chartisten matxinadaren inguruan. Ingalaterrako aberatsak eta ezedukiak dira «bi nazioak». Hain zuzen Engels matxinada chartista hori baino geroxeago egon da bizitzen Manchesteren (1842-1844), langile erakunde chartista borrokariak hurbildik ezagutuz hango fabriketan eta haiengandik asko ikasiz; Engelsen bidez Marxek sakonki ezagutuko du langile mugimendu ingelesa; eta 49tik aurrera Marxek berak ere Londresen bizi behar izan du exilioan. Egun haietan Ingalaterran mundu guztiak bezala Disraeliren nobelak irakurri ditu noski Marxek ere. Eta gero, mundu guztiari ezaguna egiten zitzaion metaforaz baliatuz, pobreak eta aberatsak aipatzeko nazio bateko «bi nazioez» mintzatu izan da. Bakarrik, euskaldunek hori irakurri dute —ezkertiar ikaragarri batzuk— eta metafora bat zena derrefente metafisika bat bilakatu da haien eskutzarretan: burdinezko metafisika horren arabera, euskal naziorik ez dago [ez dago egoterik]; nazio bat burgesa eta beste bat proletaria (edo popularra) dago bakarrik [egotea]. Logikoki, euskal kulturarik ere ez dago — ezin da egon. (Kultura burgesa eta kultura proletaria). Euskal nazioaz edo euskal kulturaz bakunki mintzatzea burgeskeria hutsa da. Hala bada, behin

abiada hartuta, ikastolak ere burgesak ziren, euskara burgesa zen, eta «euskal» dena zen burgesa. («Errealitatearen analisi zientifiko» baten emaitza «dialektiko» bezala ez zegoen gaizki, burgesiak hain zuzen lehen momentutik muzin egin dion kausa batentzat!)... Urteak pasa dira. Trantsizioaren eta «demokraziaren» peripezietan, ezkertiar gogor haietako batzuk erabat utzia diote engoiti ezkertiar izateari, errotik aldatuak dituzte beren ideiak eta arrazoiak (arrazoiaren jabeak berak izateari momentu batean utzi gabe), alegia, situatuak daude; baina –misterioarenATEGATIK– euskal nazioak berriz ere ez esistitzen jarraitzen du⁸⁶. Beste batzuk, ezkerrean jarraituz, metafisikoak izatea da utzia dutena, eta eskerrak: irekiagoak dira zinez edozein analisisan; nazio kontuan, ordea («kontaminatzeko» beldurrez edo), bila eta bila segitzen bide dute oraindik, argi definitiboaren bila... Zenbat lan eta pena egiaz –konplexu eta dogma artean– gure ezkerrearenak!

ETA, «felipeak», zelula gorriak, «ETA quinta», «ETA sexta», marxista-leninista-trotzkista-maoistak... : identitate nazionalaren arloan Disraeli judua bezain konfuso ibili da ibili euskal ezkerre gerra gerraondoko gure historian («ezker berria»).

Ezker «zaharrarena» ere izan da, egia esateko, problema hori, hemen tokatzen ez bada ere historia hori zehazkiago egitea. Kuriosoki hemengo sozialistek (marxistak omen ziren garaian) austro-marxismoaren doktrinak esate baterako ez dituzte ezagutu ere egin, nazioen «autonomia kulturalaren» proposapenarekin («Brnoko nazionalitateen programa», 1899) –Arana Goiri zen haien ideiak hemen errebindikatzen zituena!– eta tradizio jakobino perfektuenean hazi dira, nazionalista eta zentralista pijoak (espainolak). Gero marxistak izateari uko egin diote: nazionalitateen kapitulu hau ez da zirkinik aldatu halere (kapitulu honetako beren tesiak «marxismoarengatik» ez ziren seinale). Komunistak beti liberalagoak izan dira nazio arazoan: Leninen eta Stalinen idazkiei jarraituz, autonomia kulturalaz gain, politikoa ere

⁸⁶ Jada Espainia neoilustratuan kontzeptu «marxistekin» ez dago arrazoitzerik, baina problemarik ez dago, arrazoi «analitikoekin» konklusio berdinerari iristen dakite: orain euskal nazioa (berdin: euskal kultura, etc.) «konstruktio» bat omen da (konstruktio «mitiko» bat, esango dizute askotan), «inbentzio» bat, etab. Irrazionala. (Lehen «burgesa» zen, funtsean ez baita oso diferentea - arrazoitzen duenaren «ideologia» funtsean berdina bada alegia lehen eta orain).

–federala– hein batean beti aitortu diete nazioei; are nazio orori printzipioz autodeterminazio eskubidea berez dagokiola, proklamatu dute beti teorian. Praxian, halere, teorian beti azaldu duten «momentu egokian» independentzia nazionalaren alde inork baino sutsuago beraiek borrokatzeko promesa, ia mundu osoan eta mende osoan «momentu egoki» bat suertatu gabe pasa zaiela, deitoratu beharko da bakarrik... (Independentziak proletargoaren interesei kalterik egiten ez dion momentuan, etab., seguru borrokatuko direla independentziaren alde, etc., ohiko diskurtsoa sinesten jarraituko al diegu?). (CC.OO.etan, hortara, zenbat komunista geratzen ote da?).

Makina bat gorabehera izan da, gerrak, Mundu Gerrak, diktaturak, demokraziak eta sasidekraziak, zirkunstantzia modu diferenteenak alegia, baina XX. mendean –XIX.aren hondarretan hasita jada–, inoiz ez da ezker sano autonomo baten gorpuztea eta ez ezkerrek (beti «dependentzia ideologikoan») nazio arazoa bere proiektuan jaso eta naturaltasunez bere gogoetan lantzea, erdietsi ahal izan Euskal Herrian. Ezkerreko euskal pentsamenduaren historia: horra gai polit bat ikerketa baterako – beharbada oso ikerketa lodia izango ez litzatekeena, original eta propioari bakarrik begiratzen bazaio, h. d., Ayamonten zeharo berdin-berdina ez denari, hots, EHan EHtik pentsatutakoari soil. Unamuno, Meabe: eskuinera, ezkerreko ikusten dugu ezker jendea zanbuluka, *bere buruari ibesi*, bere ideietatik bestelako edozeinetara emigrazioan; bere pentsamenduan tinko lotu ordez, eta hura sakondu, kuestionatu, zabaldu, beste ustekera batzuekin kontrastatu, elkartu, zalantza arriskatu; baina iraun –iraun!–, errotu, tradizio bat finkatu. Ezkerreko pentsamendua, apaltasun eta ausardiarik gabe, txikia eta estua geratu da Euskal Herrian. Gerraostean ezker bidetik sartu den belaunaldi berriak, zerotik bezala abiatu beharko du –hori bai, ausardiarik ez du falta izan honek–, aztamuka berriro. Ez da handia, askotan galdu samarra ibili izan bada.

Baina «où sont les neiges d’antan?» –urteak joan doaz errekan. Atzoko iraultzaileak «ilustratuak» dira gaur. Nekatuta, 60.etako gazte urduriek zuhurtasun zaharretan bilatu dizute komoditatea eta arrazoa, ezker «berria» eraikitzeko lan gaitza gaztegoei utzirik (eta nekagaitzago gutxi batzuei). Berriz ere beti aurrera jarraitu –etenik gabe– euskal «historia juduak» jarraitzen du.

Ingalaterran bezala Frantzian, Alemanian, judu aberastuak goiko klase sozialetan integratzen eta urtzen saiatzen dira, erlijio eta tradizio berezgarriak bazterrerara utziz. Horientzat judaismoak bakoitzak nahi zuena esanahi zuen, komeni zitzaiona, oztoporik egiten ez ziona; ezer ez objektiborik, zamagarririk. «El judaísmo se convirtió en una cualidad psicológica [subjektiboa] y la cuestión judía en un problema personal para cada individuo judío» (105). Juduak dago, ez herri edo nazio judurik. Beraz ez dago «arazo judurik» Estatuan; dagoena juduren batzuen arazo pertsonala da han eta hemen... Kuriosoki, baina, hori gizarte modernoan juduen berezitasuna eta libertatea onartu nahi ez zuten antisemita askoren arrazoa zen, hain zuzen. Antisemitak eta judu «liberal» integratunahiak bat zetozen hartara (biek herri edo nazio juduaren errealitatea ukatzen dute, judua indibiduo soil gisa onartzeko). Horrela ulertzen da, dio H. Arendtek, «que el judío Karl Marx pudiera escribir de la misma forma que aquellos radicales antijudíos» (65).

Holokaustoak juduei beren harrotasuna birreskuratu badie orain, ezagutzen dugun «euskaldunaren konplexuaren» antzera, H. Arendtek juduaren konplexua azaltzen du lehenago: «los judíos asimilados, mitad orgullosos y mitad avergonzados de su judeidad» (107). Harro, goititzea lortu dutelako; lotsa, behetik datozenaren judutasun marka geratzen zaielako. Lotsa eta kontzientzia txarra, beren jatorria ukatu beharra izan dutelako; harro eta kontent, madarikazioa eta bazterketa gainditu dutelako... Goiko klaseetan integratuz joan ahala, ordea, burgesia eta aristokrazia antisemitak –Frantzian, esaterako– «judu antisemitaren» fenomeno sortu du. Ez zen makala izan nire harritasuna irakurtzean: «La familia Dreyfus pertenecía a ese sector de la judería francesa que trataba de asimilarse, adoptando su propio tipo de antisemitismo». Ez dugu jarraituko orain familiaren historia, nola joan den judutasuna gainditzeko eta «integratzen», euskal historia paradigmaticoko perfektu bat badirudi ere. «Esta acomodación a la aristocracia francesa tuvo un resultado inevitable: los judíos se esforzaron por orientar a sus hijos hacia los mismos altos puestos militares que ambicionaban los de sus nuevos amigos [burges handiak eta aristokratak]». Eta hortxe zapartatu dira burgesia frantsesaren «liberalismo» guztiak: juduen semeak Armadako karguetan goititzen hasi direnean («cuando los judíos comenzaron a buscar la igualdad en el Ejército»), Dreyfus aferaren eztandak gauzak «bere lekuan» jarri ditu berriro! (153).

Gorabehera hauek, kolektibo zapaldu edo marginalen historiako korapilo behin eta berriro errepikatuak, zapalduak zapaltzaileekin identifikatzera daramatzatenak eta, eraman ere, zapaltzaileekin amorratuki berdin-berdintzerainoxe askotan, beren jatorriaren agergarri oro xahaturik (Euskal Herrian bezala Txekian, etab.), ez naiz ni sartuko psikoanalizatzaera. Baina horixe gusto zuenak, aurki zitzakeen molde horretakoak ere esplikazioak, Freudek berak emanak, arlootan nahikoa esperientzia zuen Inperio austro-hungariarreko juduak⁸⁷, «sistema dominatzaileko» idealetan eta kultura goitarrean partaide izateak beti pobretxoari ematen omen dion «asebete narzisista» azaldu duenean. «Cayo es un mísero plebeyo agobiado por los tributos y las prestaciones personales, pero es también un romano, y participa como tal en la magna empresa de dominar a otras naciones e imponerles leyes. Esta identificación de los oprimidos con la clase que los oprime y los explota no es, sin embargo, más que un fragmento de una más amplia totalidad, pues, además, los oprimidos pueden sentirse afectivamente ligados a los opresores y, a pesar de su hostilidad, ver en sus amos su ideal»⁸⁸. Urrutiko Inperio erromatarrean kokatu du Freudek adibidea, aski jendetasunez bere jendearekiko. Baina Kaio plebetar horrekin Austria-Hungariako judu, txekiar, serbiar, kroaziar eta enparaduak izendatzen dira, «periferiako» nazio txikietako baserri-sume soldaduak edo hiri-sume funtzionario eta burokratagaiak, Vienako Inperioaren zurkairtzak. Hitler nagusitu eta gero arte, judu asko egon da alemanik alemanenak berak zirela enpeinatuta. Eta Frantzian frantses edo Espainian espainol jatorrenak euskaldunok garela (jada horrelaxe esaten ausartzen ez denean, horrelaxe praktikatuz), aspaldi kontu eztabaidezina da hori.

Frankfurteko Eskolak, edo gerraondoko beste gogoeta korronte hauek orohar, analisi modu eta bilaketa horiekin, eskolako ortodoxia

⁸⁷ Ez da kasualitatea Psikoanaliaren asmatzailea judua izatea, esaten zuen Freud juduak.

⁸⁸ FREUD, S., «El porvenir de una ilusión», in: *Obras Completas*, VIII. bol. (1925-1933), Madrid 1974, 2966. Hori horrela izan dadin, hezkuntzak, erlijioak, etab., zapalduen kontzientzia ganean eragiten duen sakadura hertsakorra ere ezin da ezikusi (ik. or. 2986-88). Freuden azalpena konplexuagoa da (baina esan dugu, ez dela gure zeregina): zapalduak bere ego txikia gizarte dominatzaileko idealen ego handian urtu duenean, goiko bere ego ideala borrokan hasten da ego erreala ezabatzeko barruan. «La agresión es introyectada, internalizada, devuelta en realidad al lugar de donde

hegelo-marxista ohikoetatik jaregiten gintuen (marxismo estriktoa Alderdi Komunistako «Maisuen» monopolio herstua zen orduan, monopolioaren barruan eskolen zatitzea hasia bazen ere), edota gerrarekin apurtua zen ikuspide tradizionaletik, oraindik Nemesiori hain maitagarria zitzaionetik, dogmatismo berrietan amildu gabe aldegitoko irtenbidea eskaintzen zigun, geure egoera –historia, bereziki XIX. mendea– liberekin berriarekin berrikusteko, zentzu komunak eskatzen zuen adina marxismori muzin egiteke eta gehiagoren obligazio fedetsurik ere gabe, gure lanerako. Naturaltasunez begira genitzakeen gure miseriak eta handikeria kaskarrak –gure Modernitate, apologiarik eta ez diatribarik bihurtu behar izan gabe historia, gure buruak «salbatzeagatik»–, gure karlista erreakzioarioak eta liberal progreak (omen), nazionalismo zuriak eta arrazismo beltzak, espainolismo txapelgorri edo alkandora-urdirak eta sozialismo inperialak⁸⁹. Benetan, «ez bait gara zaldunak» izan.

procede: es dirigida contra el propio yo, incorporándose a una parte de éste, que en calidad de *super-yo* se opone a la parte restante, y asumiendo la función de «conciencia [moral]», despliega frente al yo la misma dura agresividad que el yo, de buen grado, habría satisfecho en individuos extraños. La tensión creada entre el severo *super-yo* y el yo subordinado al mismo la calificamos de *sentimiento de culpabilidad* « (Ib., 3053: «El malestar en la cultura»). Handik aurrera, (Madrilen) «maitasuna galtzeko beldurrez» biziko da kontzientzia txar gaixoa, maitasun hori ez galtzearen edozein komeria egiteko pronto. Izan ere, «cuando el hombre pierde el amor del prójimo de quien se depende, pierde con ello su protección frente a muchos peligros, y ante todo se expone al riesgo de que este prójimo, más poderoso que él, le demuestre su superioridad en forma de castigo. Así, pues, *lo malo* es, originalmente, aquello por lo cual uno es amenazado con la pérdida del amor» (3054). Botereak maite gaitu, eta Botereak gaizki tratatzen bagaitu, «geure erruz» da (3055). Eta gure arteko gazte eroren batzuk matxinatzen badira eta iskanbilak sortzen badituzte, horiek gure hainbeste ahalegin hura guztia hondatzen dute, «lehen ongi ikusiak ginen» eta orain gure izen ona kakaztu dugu (3058-3059)...

⁸⁹ Garai honetan egon den euskal historiaren berrirakurketa kritiko hori nabarmentzen da Rikardo Arregiren proiektuetan, adibidez, edo Beltzaren (E. Lopez Adan) lanetan. Ik. orobat Jakin aldizkariaren hainbat zenbaki: 30 (1968) «Euskal Herriko hiru he-reje»; 33 (1968) «Lehen karlistada»; 34 (69) «Euskal kultura»; 35 (69) «Gaurko pentsalari bat», hain zuzen Marcuseri eskainiriko zenbakia eta aldizkariaren debeku administratiboak segituko ziona.

Historiaren arazoa inportantea izan da guretzat. (Abertzaletasun tradizionalarekin polemikaren parte handi bat forma horretan egin da). Zertan zetzan, bada, historiaren inportantzia hori abertzaletasun berriarentzat? Eta zergatik ematen ohi omen diote beti abertzaleek –kritikatu ohi digutenez– halako «gehiegizko» inportantzia historiari?

Nik esango nuke herri bat batez ere bere historia eta bere utopia dela.

Baina hori ez da herri bat bakarrik. Pertsona edo nortasun gisa ulertzen dugun dena da holako zerbait. Neu zer naiz, zu, edozein, nire oroipena baino; nire oroipenean betiere errealak diren gurasoak, anai-arrebak, umetako kale bazterrak, bidaiak, herria; eskola, negarrak, lotsak, pozak, eraldaturik nire golkoan jarraitzen duten umetako maitasun eta higuintasunak... Nire barruan bizi den memoria hori –historia– naiz ni, horiek dagite nire nortasuna. Eta zer da Bilbo Athletic? Entzuten diozu edozein zaleri eta ez dakit zein garaitako futbolisten izenak buruz dakizki, gol historikoak, zeinek ez dakit non zeini egindako zango trabak –internazional batean–, arbitroaren putadak, eta aurtengo ligan seguru asko munduko aurrelari hoberen horrek, eta atezainak, egingo dituzten balentriak... Memoria eta ametsa. Nortasuna memoria da, hori ja Leibniz baitan dago. Kontzientzia dagoen tokian utopia dago, etorkizunaren proiektua. (Utopiarena gogoeta garaikideak azpimarratu du gehiago).

Historikotasunak nortasuna adierazten du. Gizakia da historia duen animalia bakarra. Nire historikotasunak esanahi du, ez naizela espezie bateko zenbaki soil bat (gizakia espezieko banako abstraktua, espezieko beste edozein eta denak bezalakoxea), ni naizen haxe baizik, neu egin naizen eta beti egiten ari naizena etengabe, ni bakar eta berezi hau, nire bilakaera guztiz partikularrarekin eta unibertso osoan niri bakarrik dagozkidan espektatiba eksklusiboekin. Nire historikotasunak egiten du berezia nire Ni hau, nire nortasuna; espezieko beste edozeinekin trukatu ahal izango nituzkeen «giza» dohain psikologikoen, edo moralek, edo nolanhikoen baino askoz errotikoago, gizaki guztiengan berberak direnek. Eta bere historikotasunak egiten du herri bat ere berezia, beste herri guztiekin berdina bestela.

Ez gara iragana kotsakratzen ari. Iragana, iragana den bezanbatean, ez da existitzen; existitzen den bezanbatean –museo batean

bada ere—, presentea da, bizia da, ez da iragana. Gure memorian bizi da, gure autokontzietziaren eta identitatearen parte legez aktuala da eta eraginkorra da orain bertan⁹⁰.

Baina historia azkenean anbigua da: ito eta paralisa gaitzake (hori uste zuen Mirandek euskal abertzaletasunaz: berak historiaren beste irakurketa bat kontraproposatu du), edo hipnotisatu eta alienatu (historia «probintzianoak» askotan egin digula uste dudanez: Legazpi, Okendo!, harrokeria txikiko narratiba heroiko antzua). Historia, nik uste, eskaintza bezala aurkezten zaigu: kritikoki bereizten jakin behar dugu, historiaren menpean ez erortzeko. Orduan, aldiari—aldian ikuspuntu berri bat eraikitzea, kokaleku berri bat hartzea da historian. Historiarekin aurrera nabigatzea, ez han iraganean baraturik geratzea. Behaleku horretatik behatuz, askatzen eta historiari begi kritiko berriekin jabetzen garen heinean, etorkizuna ere begi berriekin bistatzeko gaitzen gara. Eta berdin alderantziz, etorkizunari begi berriekin behatzen diogunean, irudi berri bat hartzen du iraganak.

Iraganaz kritikoki jabetzea ez da gu haiek baino gehiagoak sentitzea, haietaz trufatzea. Iragan hura maitatuz, gutxienez errespetatuz, haren mugak ohartzea da batez ere. Gauzak denborari azpiratuak bezala ulertzea. XVI. mendeko gizarte antolaera, soluzioak (euskal «nobletasuna», «demokrazia») momentu historiko bateko posibilitateak bezala ulertzea, eta —dibinizatu ere gabe noski— hala estimatzea, orduko artea, literatura, musika bezalaxe, guretzat horiek denak baitira posibilitate iraganak.

Haien produktua gara hala ere. Gure barruan haiek daude. Gaur haiek baino gehiago eta urrutirago ikusten badugu, ez da gu haiek baino handiagoak garelako, nanook erraldoi haien bizkarretan gaudelako baizik, Beñat Chartreskoaren esakuneak zioenez. Ridikuloa da iragana ridikulizatzea. Zerbait —XIX. mendeko ideologiak esaterako, karlistak

⁹⁰ «Iragana ez da urrun dagoen zerbait, gugandik banatuta. Ezpada iragan hori gu geu gara... Jada ikusten ez dugunean hain zuzen, egunorokoa bilakatua denean, noizpait ahalegin izpiritual handienaren lana izan zena ari da eragiten... Historia ulertzeak ezin du besterik esan nahi geure buruak ulertzea baino (...), Iraganaz jabetzeak, norbere burua harekiko zordun jakitea esanahi du»: HEIDEGGER, M., GA 19, 11, *Platon: Sophistes*.

eta liberalak— momentu historiko bateko posibilitatea bezala ulertzea, momentu historiko haren ezinbesteko mugekin ulertzea da: muga horiek halako muga gisa deskubritu, edo gaindituak ditugulako, edo gainditu nahi ditugulakoxe, deskubritzen ditugu. Iragana horrela kritikoki asumitzen dugunean eta harekin borrokan dihardugunean une berean, gara gu geu, historiaren nagusi, ez esklabo: ez iragaki huts, ez ni abstraktu hezurgabeko.

Moderniak gauza ezberdinak, eta askotan kontrarioak, esanahi ditu. Adibidez, historikoki, Euskal Herria azpizgain irauli duten XIX. mendeko aldagoiak, lur hau industrialki goititu eta politiko-sozialki suntsitu dutenak: horregatik, «antimodernia» oso moderno bat badago gero, euskalduntasuna eta jatortasuna iraganaldi premodernoarekin berdindu nahi izaten dituena, gure artean (baina ez gure artean bakarrik, Europa osokoa izan da fenomeno kultural eta politiko hau: arlo horretara geroxeago etorriko naiz). Abertzaletasun («antimoderno») klasiko edo «burges» horri adina, modernismo burgesari egingo dio zaputz belaunaldi berriak. «Gora Euskadi askatuta!» oihuari eusten dio. Baina zer askatasun da hori? Ez da XIX. mende erromantikoak asmatutako historiara itzuli nahi: ez dugu nahi «euskaldun jatorrak» izan. Libreak bakarrik. Ez handiagoak, ez txikiagoak, ez hobeak besteak baino. «Geu» izan.

Bakarrik, zer da geu izatea ere: zer da euskalduna izatea? Honelako auziak eztabaidatzen ziren 67-68 aldera gure artean, eta irakurleak maiz irakurria du, gerra ondoan «mundu berria» esanez eraiki den mundu zaharra arbuia nahi zuen gazteriarren eztanda urteak izan direla horiek, norberetasunaren errebindikaziokoak «aparatua» aurka, irudimenarenak «razionalitatearen» aurka. «Nik NI izan behar dut, ni euskaldun hau naiz, bizi naizen Euskal Herrian hori geroz eta zailagoa da ordea», protestatzen zuen Rikardo Arregik.

Lekuko bikaina dugu Rikardo, urte horietan borrokak zuen «gizagintza» sentidoarentzat, orain ez daukagu hori xehatzerik⁹¹. Inportantea da ulertzea, nolana ere, autoritatearen, tradizioen,

⁹¹ [Ik. ARREGI, B. eta beste, *Rikardo Arregi: gizona eta garaia*, Andoain 1996].

hezkuntza inpositiboaren (Eusebio Osari omenaldi bat zor zaio) aurkako sentimentu bizienak inspiratzen zuela borroka gazte hura, Uko Handia deitu dena. Inspirazio honetan tradizio pertsonalista (barruan eskuin bat eta ezker bat bezala bazituenen bera: Maritain, Mounier), modan egondako existentzialista zaharrak, askatasun indibidualen bindikatzailak, geroxeago Italiako «Il Manifesto»ko taldea eta Frantziako marxista humanistak berak (Garaudy, etab.) eta Frankfurteko Eskolako autore neomarxisten (Horkheimer, Marcuse) influentzia zuzeneko edo zeharkakoa, etc., anitz iturri ezberdin bateratu da «ezker berri» korrontean, W. Reich edo E. Fromm bezalakoak ahaztu gabe, errepresio sexualaren salatzaileak. Harritzekoegia ez da, behin elkartuta egon den jende asko, gero mila alde banatara joan bada, asmo eta inspirazio hain diferentetakoak izanik funtsean hasieratik bertatik. Eta, alderantziz, bereziak zebiltzanek, denborarekin elkarrengana aurkitzea. Baina, orain ohargarriagoa, irakurgai eta borroka berriekin, «kultura» berri bat jaiotzen nola joan zen Euskal Herri berrian –etenari edukin eta mami emango diona– ikustea komeni zaigu oroz gain. Eta kultura honetan banakotasunaren autonomiak badu zeresanik, tradizio eta inposizio molde guztien aurka.

«Ezker berriak» arbuiatzen zuena «razionalitate» modernoa zen, hots, razionalitate hori bilakatua dagoena: Horkheimerek zioen eran, «la raison est devenue irrationnelle et abêtie». Antzina gizakiaren esentziarekin berdindu zena, arrazoimen instrumentala bilakatu da, inhumanoa, aurrera programak ateratzen dituen eta jendea zanpatu, pertsonak «en automate de la raison formalisée» trasformatuz⁹². Horkheimerek, aipatu da goian, mendebaleko kulturaren historia franko kritikoa dauka, Ilustrazioaren joaira dialektikoarena bereziki (Argentinan, italiano bezala, Iluminismoa esaten dute: beraz, *Dialectica del Iluminismo*, 1947): Sokraterekin hasi eta kristautasunarekin jarrai, eta Ernazimentuarekin, mendebaleko historia banakotasunaren askatze, goratze, indartze prozesua izan bide da. Kontzientzia bakoitzaren menpegabetze eta nagusitzearena. Nolabait gailurra ibilbide horretan «indibiduo burgesarekin» jo da, printzipioz bederen gizartea banako subiranotan atomizatu denean, bakoitza monada bat, bere baitan itxia, denak berdinak eta guztien interesen armoniak Ongitasun Orokorra

⁹² HORKHEIMER, M., op. cit., 137-138.

osatzen duela. Orain, ordea, produzioaren eta kontsumoaren gizarte moderno teknikoak, gizabanako denak berdindu, atomizatu, «libre» horiei, beren banakotasuna ebatsi die barrutik, erabakimen oro beren eskuetan duten produzio, propaganda, aginte zentruen txotxongilo itzuliz guztiak. Produzioaren razionalitatearen existentziaren irrazionaltasunez ordaintzen da. Ilustrazioa bere kontrarioa bilakatu da, eta arrazoimen kritikoa instrumental hutsa. Indibiduoak ez du oinarririk, ez ekonomiko, ez politiko, ez moralik, bere buruaren jabe izateko. Era guztietako menpetasunetan bizi da berriro. Propagandak indibidualtasuna goratzen eta predikatzen jarraitzen du; baina haren suntsipen operazioaren parte duzu trikimailu hori: menpegabezia pertsonalaren kiskalpen erreala haren loraldi idealaren ilusio optiko batez konpentsatzen da. «L'individu n'a plus désormais d'histoire personnelle»⁹³. Eta Modernitatearen martxa honen azkenburua besterik ez da faxismoa, Horkheimerek ikusten duenez. Alegia, faxismoa XX. mendean ez da kasualitate bat, ez lau zoro eta fanatikoren asmaketa laborategiren batean: historia zehatz baten ekoizpen «razionala» eta katastrofea da. Ez da inola ere, «demokraziek» harekin zerikusirik izango ez luketen zerbait, razionalitate eredu berdinarekin baitihardute, faxismoak zinez «metodo terroristagoak» erabili baditu ere izaki humanoak gizartean atomizatzeke eta kontrolpean lotzeko. Estatu moderno guztiei doakiena da funtsezko arazoa. Modernia bera da hori.

Notatxo bat, bide batez: gero, «desenkantatu» liriko batzuek, beren desenkantua publikoan plazerez kultibatzen dutenek, 60. urteetako indibidualtasunaren errebindikazio hau halako intimismo indibidual osoki babestu eta bere baitan kiribildu baten antzera nahi

⁹³ Ib., 166. «Tout moyen d'intervention de la culture de masse sert à renforcer les pressions sociales sur l'individualité. Il empêche toute possibilité, pour l'individu confronté à la machine atomisante de la société moderne, de se protéger d'une manière ou d'une autre. Le fait que les biographies populaires, les romans et les films pseudo-romantiques mettent l'accent sur l'héroïsme individuel et sur le *self-made man*, n'inflirme pas cette observation. Ces incitants à la conservation de soi, fabriqués industriellement, accélèrent en fait la dissolution de l'individualité. Tout comme les slogans de l'individualisme forcené sont politiquement utiles aux grands trusts qui cherchent à se soustraire au contrôle social, ainsi, dans la culture de masse, la rhétorique de l'individualisme, en imposant des stéréotypes destinés à l'imitation collective, désavoue le principe même auquel elle rend un hommage hypocrite» (165-166).

dute ulertu (giza eskubide naturalak berak pribatuak dira, «ez kolektiboak», etab.). Bai Horkheimer eta abarrentzat, bai existentzialismoarentzat, gogorki errebindikatu duten indibiduoak, beti soziala da, eta askatasunaren eta justiziaren borrokaria da⁹⁴. Hain zuzen «l'individu seul» kartesiar hori da, boterearen aurrean desarmatua, atomizatua, gizartearen aurka boterearen faxismoa bideratzen duena.

Ez gehiago luzatzeko: are Moderniak gure artean erakusten zuen aurpegi –eta arima– erreakzionarioaren aurka izan da, zeren aurka altxatu den gazteria Euskal Herrian ere, ez Parisen bezalako festaz, baina bai hango antzeko irakurgetatik elikatuta. Kultura baten aurka, historiaren aurka; alde batetik nahiz bestetik nortasunarentzat inposatu nahi ziren eredu faltsu eta mitikoen aurka. Horkheimerek (lerro batean, hortaz, Camusekin, Bataillekin...), beste hau aurkezten zuen, birreraikitza zehazki gerraondoko Europan, gizarte berrirako jendearen eredutzat, bakoitza norbere nagusi izateko erresistentzian: «Les vrais individus de notre temps sont les martyrs qui, dans leur résistance à la conquête et à l'oppression, sont passés par les enfers de la souffrance et de la dégradation et non pas les personnalités gonflées comme des baudruches de la culture populaire, les dignitaires conventionnels. Ces héros obscurs ont consciemment exposé leur vie d'individus à l'annihilation terroriste que d'autres subissent inconsciemment à travers le processus social. Les martyrs anonymes des camps de concentration sont les symboles d'une humanité qui s'efforce de naître. La tâche de la philosophie est de traduire ce qu'ils ont fait en un langage qui sera entendu, même si leurs voix mortelles ont été réduites au silence par la tyrannie»⁹⁵.

Gure XIX. mendea berrirakurtzen ikasteko. Gure Modernia. Eta geure gerraondoa, noski.

⁹⁴ Erika ezezik ontologia bera subjektu indibidualaren erantzukizunean erradikaldutako duen Lévinasek ere zalantza gutxi uzten du hor: «En algún lugar he llegado hasta decir -son palabras que no me gusta mucho citar, dado que deben ser completadas por otras consideraciones- que soy responsable de las persecuciones que yo sufro. ¡Pero sólo yo! Mis «allegados» o «mi pueblo» son ya los otros, y, para ellos, reclamo justicia», ik. *Ética e infinito*, Madrid 1991, 93.

⁹⁵ Ib., 168.

XII

Lehengoan, Kanpo Elisioetan XX. mendeko eskulturaren erakusketa bat dago, eta bat-batean, Unamuno berbera!, Gargalloren brontzeko profeta begien aurrean zutik. Hori: Picasso eta Kafka, Rosellini, Ingmar Bergman, Familiaren Etorkia eta Manifestu Komunista, Heidegger eta Rilke, Freud, Teilhard de Chardin (debekatua!) eta Unamuno (Indexean: bekatu mortala egiten aritzeko terroreaz bihotzean irakurria, eskuak dardarka, «pozez eta beldurrez», Rikardok esaten zuen bezala berak Marx irakurri omen zuela)⁹⁶, burrunban dena batera berria izan zen guretzat, begietako banda kendu balitzaigu bezala urte askoren buruan. Mende hasiera samarrekoa izan behar du Gargalloren profeta kubistak, oilar demoniakoa egun berriari deika. Halere berria zen guretzat. Dena zen berria (*Garoa* edo ez bada behintzat), beharbada gaztea izatea dena deskubritzea delako arrazoi sinplegatik baino ez bazen ere. Lehen unetik gustatu zitzaidan asko. (Ez dakit nondik ezagutzen nuen lehenago, libururen batean erreproduzitua ikusiko nuen). Basamortua bere hezurretan duela. Hor goian orain, momentu batez Unamuno berpiztua dirudi bere

⁹⁶ Unamunoren zalea izateak, edo hura ez madarikatu gura izateak soil, tenorean nolako katamilak sor zitzakeen, ideia bat egiteko, anekdota argigarria kontatzen du P. Sudupek, aip.lib., 177, 78. oin-oharrean. Alegia, nola Nemesiok behin, solaskide baten erasien aurrean, Unamuno aldeztu ei zuen. Eta hori dena lagunarte giroko berriketan, Ondarroako Penalty tabernan agitu zen arren, apaizlagunak Gotzaiogan salatu zuela Nemesio. Bilboko Gurgipide Gotzainak -nahiz bere jurisdikziopekoa ez izan-amonestazio gutuna idazteko lain larria epaitu zuen arazoa! Unamuno 1943ko Gutun Pastoral batean Pla y Deniel Salamankako Gotzainak, geroxeago Espainiako Primas izango zenak, kondenatu zuen. 1953an Mons. Pildainek, Kanarietako Gotzain eskaldunak (abertzaleek maite zutenak, Espainiari Ebrotik behera Afrika deitu ziolako). 1956an Erromako Ofizio Santuak Indexean sartu zuen. Eta Mons. Gurgidek, Unamunoren jaiotzako ehunurtea zela eta, 1964an berriro kondenatu zuen, Kontzilio giroarekin batera egokitzen ez zen modu itxuragabea. Horren inguruan sortuak izan behar dute Nemesioren eta mahaikide estuaren arteko diferentziak. Hark euskarari buruz esandako kirtenkeria batzuegatik jeltzaleek zioten herraz gainera, katolizismo integristaren *bestia beltza* zen urte haietan Unamuno; eta, esanahitsuki, Unamuno horren sinpatisanteak euskaltzale gazteak ziren askotan (Txillardegi, San Martín, etab.), eta Nemesio bezalako izpiritu kritiko gutxi batzuk. Merezi luke azterketatxo bat.

zurda-buruaz. Gure aspaldiko Unamuno hura, maitatu eta borrokatua. Nemesioren belaunaldi euskaltzalea neurrigabe mintzen eta kezkatzen zuena, euskaldun arnegatu alen hori, «jainkogabea» eta euskararen etsaia... Gure hasieretan Unamuno horixe dago –gutako askorenean behintzat. Existentzialismoa. Zintasuna. (Urte haietan Unamuno existentzialista bezala irakurtzen zen, Heidegger eta Sartrekin bateginda). «Autentikotasuna» kontzeptu zentrala eta oinarritzkoa bilakatu da orduko pentsamendu kritikoa, tradizioaren, ohituren, konbentzioen, egunorokotasunaren, katolizismo ofizialaren... aurka –eta euskaltzaletasun klasikoaren aurka ere. «Autentikotasunaren» grina horrek betetzen zuen artea, zinema, literatura, fedea edo fedegabezia, politika bera. «Unamuno ala Jammes?» alternatiba planteatu du Txillardegik polemikoki⁹⁷. Jammesen Euskal Herria faltsua da. faltsua haren Euskal Herriaren maitasuna: haren pertsonak direlako faltsuak, eskolak, ez egiazkoak. Euskal Herri eta euskal jende «xeru» eta «garbi» horiek fikzio hutsa eta fikzio gogaikarria dira. Folklorismo txar merkea. Alderantziz, Euskal Herria maite ez omen zuen Unamunoren «gizonaren barne-sukarra eta gogo-zorabioa» egiazkoak dira, eta gure herriaren zoria haren angustian aurkitzen da zuzen espresatuta. Unamuno egia da, Jammes belaskeria. «Jammesen idaz-lanetan ez dago gizatar egarririk, ez dago surik, ez dago arimarik (...). Unamunoren izkribuenak ez. Unamunoren sortkariak eta giza-kezkak geureak dira; bere Euskal Herria, gaztetan gerra ondoan ezagutu zuena batez ere, geuk ezagutu duguna da, zoritxarrez, bere bidearekiko itsututa. Unamuno, gure etsai amorratua denean ere (eta gehiegitan dugu etsai, ondikotz!), geurea da, Baroja bezala; eta bere odolak daramazkien berotasuna eta ukoa, gure herri gizajoak eta gizadi osoak pairamendu eta sofrikario ikaragarritan zehar mamitu eta bildu dituen egia latzak baizik ez dira».

Orain, Unamunogandik aski urrundu gara ja (haren kezka existentzialetatik sozialagoetara, tradizio erlijiosoarekin zerikusi gabeagoetara). Baina hantxe hasi ginen. Unamunok adierazten zuen protestan.

Beraz, Nemesio edo Arestiren beren eskise bat izan litekeela eskultura hori, pentsatu dut gero, okotza aurrera bota eta aldiari alferrik garrasika. Trantsizioko profeta larritu bat, etorkizun-itsu, ikaratua.

⁹⁷ IGARA [Txillardegil], «Unamuno ala Jammes?», in: *Jakin* 21 (1966) 81-84.

Patuak dira, gizakiak batzutan pairatzen dituenak. Nemesiok, Arestik. Maiatza da [1996]. Ezpatazko hotza Parisen. Apunteok zirriborratzen ari naiz hotelean. Nemesio eta Aresti: biak izan litezke brontze hustu zainart hau. Profeta tragikoak biak, gure udaberri jelatukoak. Euskal Herriaren maitasun hotzak jelatuak. Eta zein diferenteak eta kontrarioak halere biak!

Ez bata, ez bestea izan dira jatorri estriktoki ruralekoak, baina ideologikoki edo, nahiago bada esan, kulturalki, kultura tradizioaletik zetozen bi-biak, Nemesio bezala Aresti, beren haseran, euskalzale gisa batik bat eta familiarki ere. Eta biei arras puskatu zaie mundu hori. Batek hondamendia ezin asumituko du, besteak bai. Asumitu eta guttiz eraldatu. Hamalagarren, bada: Euskalduna bezalako gizarte tradizionalaren imagina literaria (eta, heintxoren batean, autokontzientzia ere agian bai) nahiko ezaguna da, *Garroa* dela eta ez dela edo Orixeren poema dela, edo Arana Goiriren ideologia dela eta, mila bider aipatu izan da gure artean, batez ere ridikulizatu: baserriko emakumea zintzoa eta leiala da, gizona langilea eta jatorra, etc. Gero, nekazari jatorra sekulako gudaria ere izan liteke, deskuidatzen bazara, nahiz hori jeneralean antzinako kondairetan bakarrik agertu horrela, erromatarren aurkako gerretan eta hola. Orduan munduko gudaririk bipilenak bihurtzen dira bat-batean gure imaginazioan, artemeintxe baserrian bake-bakean ikusten genituen gizasemeak. Gizarte tradizionalaren literato ponpoxoak «aquellas tribus montaraces –bokatzen dizkizu patetismoz beteriko irudietan– aquel cántabro ferroz que pasó los Alpes y luchó con Aníbal contra Roma y derrotó a Escipión en el Tesino. Después hablaba de Augusto y sus legiones, venidos a Cantabria expresamente para someternos al yugo romano; de que tal era *nuestro* empuje, tal *nuestro* valor y tal *nuestro* apego a la independencia, que el César había necesitado seis años para triunfar en un empeño que le había parecido obra de pocos días; de los horrores de esta guerra bárbara entre inaccesibles peñascales y profundos y sombríos barrancos, donde rugían las aguas tintas en la sangre de los *nuestros* y de los aguerridos legionarios. No faltaba lo de las madres que durante la guerra mataban a sus pequeñuelos para no verlos esclavos de los triunfadores extranjeros, ni lo de la muerte en cruz de tantos mártires entonando himnos de libertad entre maldiciones al conquistador». (Unamunok noizbait holako balentriak Ernion kokatzen ditu: «donde decían que

los cántabros —en un tiempo se identificó a los cántabros con los vascos— crucificados morían cantando himnos a sus dioses», etab., ik. «De Oñate a Aitzgorri»). Literatoak batere problemarik ez du egungo artzain eta menditarretan bi mila urte lehenagoko gudari kantabres heroikoak bizirik ikusteko, eta erromatarren garaiko gerretan *gure* gerrak sentitzeko. Egungo artzain eta laborari gizarte menditarra —«gu»— aspaldiko jende hura bera da, denboran etenik gabeko jarraitasunean. Egungoa jende kristau debotoa bada, berriz, antzinako arbasoak ere, paganoak bai, baina fedetsu zintzoak izango dira eta monoteistak (ez erromatarren politeismo perbertsukoak): himno eta dantza kultural garbiak ere ba omen zituzten, «con que en las noches de luna llena se celebraba a un solo Dios vagamente conocido»⁹⁸. Eta horiek ez uste literatoaren asmazio hutsak direnik: zientziak eta ikerketa historikoak, «tradicionalismo científico y patriarcalmente democrático» batek hain zuzen (zientzia egiazkoak eta jatorrak alegia), hori dena ongi frogatua dizu. Zoaz zeu, hirizuloak utzi eta, mendira, ulertuko duzu oraintxe ere. Mendialdea paraje santua da, Jainkoaren hurbilagoa («tan cerca de Dios y tan apartado de los ruidos, de las miserias y hasta de los amparos de los hombres»); ez dago «ideien komertzioak eta industriaren kiratsak» andeatua, behean ibarrak bezala. Mendiko jende sano hau ia betidanik izan da demokratikoa, sozialki igualitarista, Erdi Aroan ez da han feudalismorik ezagutu eta orain ez dago klase borrokarik, «sin políticas bullangueras y perturbadoras había logrado resolver prácticamente, y por la sola virtud de los impulsos de su corazón generoso y profundamente cristiano, un problema social que dan por insoluble los «pensadores» de los grandes centros civilizados, y tiene en perpetua hostilidad a los pobres y a los ricos». Hitz bitan: egungo gizarte modernoa hirietan ustelduta dago, baserritik eta landatik etorriko da erregerazioa: horixe da politikoen eta elizaren eta literatoen eta zientifikoaren eta guzti-guztien lana, «obra eminentemente humanitaria y patriótica»...

⁹⁸ Berak betidanik «egiazko fedean» egoteko hainbat herritan aurkitzen dugun fede horren adibide polita ik. in SPERBER, D., *El simbolismo en general*, Barcelona 1988, 159-165: nola «betidanik» kristaua den Afrikako dorzé tribua, eta nola hiena parte gaiztokoa den eta leopardo kristaua.

Aski da. Goiko hori dena, nolnahi ere, aisa ohartu ez duenari baezpadan abisatzeko, ez ziren abertzale zoro edo literato euskorromantikoren baten sukar-eldarnioak. Pereda (1833-1906) literato eta patriota espainol prestuaren pasarteak izan dira denak, ez Arana Goriren edo (1865-1903) txorakeriak⁹⁹. Berdin beste hau ere: «La raza es de lo más sano y hermoso que he conocido en España, y creo que son partes principalísimas de ello la continua gimnasia del monte, la abundancia de la leche y la honradez de las costumbres públicas y domésticas», etc., Peredarena duzu orobat (*Peñas arriba*, 1894), maketoeak nahastu gabeko santandertarren arraza garbiaz («maketo») hitza bera Santandertik bide da Bilbora sartua, ez Sabinen *Bizcaya por su independencia*-koa (1892).

Izan ere –garaiari garaikoa–, inor ez dut Peredagatik edo espantatzen inoiz ikusi, baina gure artean topikoa bilakatu da iraganaren (historiaren) mitifikazio edo arrazaren edozein aipu abertzaletasunarekin, h. d. EAJ/PNVekin berdintzeko mitifikazioa (hau zinetan zinezkoa!)¹⁰⁰. Baina ez dago halakorik: kultura arrunt bat izan da, ezabertzaleengan

⁹⁹ Ipuin hauek ez dira XIX. mendeko erromantizismoaren partikularrak ere: horien jatorriaz eta jatorrizko esanahiaz Ernazimentuko historiografian, eta horien unibertsaltasunaz Europa osoan, ik. *Espainolak eta euskaldunak*, 1992 (euskaldunek orduan ere ez dute egin kopiatu baizik: baina orduan oraindik modu inteligentean). XIX. mendean, historiografiatik fabulaziora pasata honez gero, berriro indartu dira motibo horiek, topiko historiko-literari gisa orain, hainbat euskal ipuinetan eta Peredaren nobelan ere ikusten dugunez (beraz, anakronikoa bezain estupidoa da aspaldi, lantza «zientifikoarekin» norbait haizerrota horien kritikan kixotatzea XX. mendean oraindik). Dena den, topikoak zazpi bizitzako katuak izaten dira kulturaren historian, behar dizutenean bizilekuak eta formak aise aldatuz. Zer besterik da, izan ere, Asterix arrakastatsu hori, XIX. mendeko formula literari pseudohistorikoa aspergarria eta irenstezina bilakatu denean, kontsumo gustu berriaren oso gustuko formula egoki-egokia baizik, baina ipuin berbera beti? (Eta zein burutik sanori bururatuko zaio Asterix hori «razionalki» kritikatu Espainietan arrakasta bilatzea?).

¹⁰⁰ H. ARENDTen iritzian arrazismoa eta abertzaletasuna elkartezinak liriteke: abertzaletasunak herrian sinesten du, ez arrazan; «el racismo francés fue el más consecuente, porque nunca cayó en la debilidad del patriotismo» (aip. lib., II. bol., 271). Disraelik «odiaba la igualdad política que forma la base de la Nación-Estado» eta «tan consecuente como el más fanático racista, Disraeli habló solamente con desprecio del «moderno y novedoso principio sentimental de la nacionalidad»» (Ib., I. bol., 122)... Egiaz, arrazismoaren eta abertzaletasunaren elkartezintasuna aurrena proklamatzeko duena, h. d., arrazismoaren izenean aberriaren kontzeptua eta abertzaletasuna txoil ukatzeko dituen, Gobineau bera da (*Essai sur l'inégalité des races humaines*, 1853-1855): arrazaren eta aberriaren (nazioaren) kontzeptuak sua eta hura

besteongan adina aurkitzen dena¹⁰¹. Valenciako makina bat arroz jandakoak gara geu «arraza espainola indartzen duelako», garaiko propagandak zioenez. Nire hazaldian, euskal arrazaren kontzeptua eta arrazaren abantailak eta desabantailak, lehenago topatu ahal izan genituen guk Ortegaren eta Barojaren izkribuetan, arras debekatuak zeuden Arana Gorirenetan nahikoa berandu baino. Nobelazaleak beti errazago eskuratzen zizun Peredaren *Peñas arriba*, ezen ez Agirrerren *Garoa* bera. «Que los vascos son herederos directos del pueblo cántabro» eta haien balentriak –balentria espainolak– Zacarías Vizcarra frankista apostolikoaren *Vasconia españolísima*-n ikasi ahal genituen, etc. Francoren peko kulturari, EAJ eta abertzaletasuna guztiz pertsegituak zeuden arte berean –aurrena, ez ahazteko: gure maisu falangistek guri Euskal Herritik ez ziguten ipuinik ere aipatzen; eta irakurtzeko ipuin bila geure gisa hasita, ipuin horiek edo antzekoak libre asko aurkitzen genituen gure irakurgaietan: baina Espainia handi eta bataren zerbitzuko autoreetan!¹⁰² Besterik da, hori egia, belaunaldi berriak frankismoaren aurka bere

bide dira, eta patriotismoa eta nazionalismoa ez dira demokraten eta demagogoen bertuteak baino, haren arabera; ez bertute «germanikoak», herri semita-mestizo erkinenak baizik. Hitz batean: «munstrokeria kanaanar» bat duzu abetzaletasuna Gobinearentzat. Greziako hirietan nabaritzen den abertzaletasun sutsua bera, influentzia semitikoaren emaitza ei da. (Aranaren kasuan -euskal «igualitarismo» eta demokratismo tradizionalaren aldaki garaikide gisa- herriak eta arrazak funtsean bat egiten dute, eta «arrazismoa» ez da nazionalismoaren bermea besterik - ja horrek nahikoa adierazten baitu, harena ezin izan litekeela ohiko arrazismo klasikoaren maneran ulertua izan!).

¹⁰¹ Aitor eta beste halako ipuinei buruz euskal antzinateaz, «en esta poesía -gomutatzen da Unamuno- mecí yo los ensueños de mi adolescencia, y en ella los meció aquel hombre singular, todo poeta, que se llamó Sabino Arana». Denborarekin Unamuno bere aldetik beste interes modu batzuetara eta bestelako ikusmoldeetara etorriko da; eta beste hainbeste eginez beretik, «aquellas leyendas y novelas, lo mismo *caben* dentro del regionalismo vasco más extranjerista [espainolista] como dentro del nacionalismo» iritziko dio Arana Goirik Campionengandik urrundu nahiz. Ez aranismoaren asmazioa, ez oinarria, eta ez haren deus espezifikoa dira hortaz legenda historiko horiek, aro baten edo kultura baten arrunta baizik.

¹⁰² 1886ko udan Castellarrek Bizkaia bisitatu zuelarik, honela mintzo zen bere diskurtso durunditsuan Bilbon: «Cuando Indívil y Mandonio habían dejado caer los brazos rendidos en sus porfías con Roma, y Numancia estaba reducida tristemente a polvo en las entristecidas márgenes del Duero, y Viriato había muerto a la traición y al dolor (...), *vosotros* [!] sepultabais las legiones del tirano Augusto, mandadas por su

borroka hasi duenean, hura sostengatzen zuen eta hark ezartzen zuen pentsamolde kontserbakoi guztiaren aurka jokatu behar izan duela; handik hara, abertzaletasun klasikoaren ideologia guztia ere nahi izan duela nolabait desmuntatu eta, hain zuzen, historia hori, edo hobeto, legendako Euskal Herri hori bereziki gogor inarrosi duela. «Zergatik ez da borrokalaria euskaltzaletasuna?», galdetu du Rikardo Arregik. Euskal pentsamendua eskolastizismoan bizi delako, betiko ipuin eta topikoetan; hots, historiaren irakurketa nostalgiko alfer batean. Nemesiok historia horretan sinesten du eta maite du¹⁰³. Salbatore Mitxelenak poetizatu ere egin du bere gisara. Kontrara, Txillardegiren, Rikardoren polemiketan zaharragoekin, edo euskaltasunaren Arestiren birgogoetan, historia horren demitifikazioa kapitulu inportantea izan da. Horienez ez da izan halere historilarien bahelana. Borroka izan da (historiaren aurka eta historia erabiltzeko moduaren aurka, jeltzaleena izan hala José de Artecheren orduan arrakastatsua izan hori modua)¹⁰⁴. Iragana baino gehiago, etorkizuna egon da jokoan; ipuin historikoak baino tesi politiko batzuk gehiago; edo tesirik baino, Euskal Herriaren ikuspeia, ekintzaren sentidoa, kultura bat orokorki.

Iragana borrotua, etorkizuna paper zuri bat oraindik. Belaunaldi honek ahalegin handia egin beharko du egiazko historia –ezkutatua, ukatua–, bere herriaren historia bizia, h. d., hizkuntza, literatura,

pariente Agripa, en las hondonadas de Régil, y salvabais del imperio romano a los mayores y primates de nuestra familia [!] en las cumbres del Hernio, encargando a cuantos pudiesen caer en manos del vencedor que comiesen las hojas del ponzoñoso tejo para morir antes de penetrar en la ciudad eterna, amarrados al carro del vencedor (...). Vosotros habeis cumplido el ministerio que os confiara la providencia de ser los centinelas avanzados del hogar común y los guardadores del fuego sacro de nuestra vida nacional», etab. Baina arrazoi bera alde batera zein bestera berdin aprobetxarzen jakiten dute politikoei. Kasu polita da nola Castelar horrixek, gu antzinadanik hain barbaroak izatea Foruak ezabatzeko arrazoi ona iruditu zaion beste batean, Euskal Herri mendibatasari hori behin betiko zibilizatzearen. Lege Zaharren antzinakotasuna, antzinako askatasunarena bezala (askatasuna espainola bada) izan baitaiteke politiko sofista batentzat modernitate faltaren frogak (euskalduna bada askatasuna).

¹⁰³ Ik., SUDUPE, aip. lib., 85 eta hurr.

¹⁰⁴ Hona Jaime I. del Burgok ere nola arrazoitzen duen historiarekin: «Argi gelditu behar du, gaztelania Nafarroan sortu zela, eta euskara baino askoz lehenagotik bilakatu zela Nafarroan ofizial», ik. *Argia* 1997ko otsailak 9. Eta, logika horrekin jarraituz, askoz lehenago sortua eta ofizial deklaratu da orobat esklabutza ere Giza Eskubideen Deklarazioa baino, etab., etab. (Eraskin gehitua).

zuzenbidea eta tradizio politikoak, kultura guztia, deskubritzeko eta ikasteko; eta ahalegin handia, une berean, hori dena transmiti ziezagukeen kultura (esanahi txarrean) «tradizionalista» gairitzen. Ez da ahaztu behar tradizionalismoak tradizionalismoa pertsegitzen zuela: espainolak euskalduna. Orixe («Euskaldunak»), Txomin Agirre («Garoa»), etab., politikoki ez dira izan abertzaleak, kulturalki tradizionalistak bai. Horregatik abertzaletasun tradizionalak problemarik gabe baitaratu ahal izan ditu. San Martinek edo Txillardegik, oster, anakronikoak eta kasik beren euskal kontzientzia berriaren iraingarritzat sentitu dituzte. (Uste dut, halere, birresatea ez dela sobera egongo, etena, belaunaldi berriak, berak egin baino areago, nozitu egin duela. Euskal historiarik apenas ezagutzen genuen, ezta gerra zibilekoa ere: iraganik gabekoak jaino ginen!). Gazteok beste era batera ikusten zuten iraganaren arazoa; gure iragana, European guztien iragan bera zela, sumatzen zuten: Voltaire eta Marx, Unamuno, Kierkegaard...

Kultura zahar horren ihesi, existentzialismoak –Espainian debekatua egotean erakusten zuen erakarmenaz gain– mintzaira bat eskaintzen zuen, paradigma bat, unibertso bat, globalki aurreko guztiarekin hausteko (erlijioarekin, politikarekin) eta salto batetik mundu berri batean paratzeko. Haren totxo ulerkaitz eta astunagoak utzita, Sartreren *El existencialismo es un humanismo* testu laburrean (1946: 47an itzulpen espainola) hauteman daiteke hori zehazki, existentzialismoak funtsean gazteoi tradizioaren aldean bestelako pentsamolde bat garatzeko zer eskaintzen zien. (Iruditzen zait, gainera, oraingoxe diferentzien sakonean mentalitate edo izpiritu diferentzia erradikalenari erreparatzeko ere balio diezagukeela: alegia nola gure jende razional eta zentzuzko anitz eta anitzek, hainbat «mito» tradizional erdeinatzen duenak eta kanpoaxaletik oso modernoak denak, pentsaera errotik tradizionalista esentzialistan jarraitzen duen halere barnebarnean, eta horregatixe gazte askoren pentsamoldea nahitaez ulerkaitza eta «irrazionala» kausitzen duen berriro).

Zer da existentzialismoa? (Eta hamabost da). Hasteko, moda burrunbatsu bat izan zen bere tenorean, kulturako eta gizarteko alor guztiak inbaditu zituen (janzkera eta orrazkera, zinema, nobela,

teatroa...): Kafka, Rosellini, Ingmar Bergman, Heidegger, Unamuno, Camus.... Belaunaldi hau pentsa eta sentigiro horretan hazi da, bera ohartuki ala oharkabe. Ordea, zer izan da hertsikiago existentzialismoa, filosofia bezala, pentsamendu tradizionalaren aurkez aurke? Pentsamendu tradizional horretatik begira, irrazionalkeria besterik ez. Nahasteria eta kaosa, ordena tradizionalaren txikizioa, moralaren emagaltzea, gazteriaren sedukzio eta perbertsioa (Oi Unamuno eta Sartre gaizto haiek!)¹⁰⁵. Sartrek berak dioskunez, existentzialismo ezberdinak daude (kristaua, ateista), baina denak berdintzen dituen da, esentziaren aurretik ipintzen dutela existentzia¹⁰⁶. Konkretuki, zer esan nahi du horrelako frase batek?

Existentzialismoa ongi ulertzeko, aurretik Nietzsche suposatu beharra dago, hemen ez baitaukagu hainbeste luzatzerik. Nietzsche Sokrate eta Platonez gerozko kultura mendebaldar guztiaren errotiko arbuizatzailea da, alegia, kultura horri orpotik eusten dion eta hori taxutzen duen metafisika platonikoarena, honen bertsio kristauarena guztiz gain («bulgoaren platonismoa»). (Hau guztia Mirande da noski)¹⁰⁷. Gauza bat zer den, hori da esentzia: gauza baten zer-dentasuna, zer-izana. Alta, bada, metafisika horren arabera, gauza bat izan ez da ageri den hori; gauza bat egiaz dena esentzia da: baina esentzia beti zerbait ideal eta betibat, denboragabekoa da. Imagina dezagun edozein produktu fabrikatu: liburu hauxe edo paper-laban bat, esaterako. Objektu hori fabrikatzeko, artisaua kontzeptu batean edo ideia batean inspiratu da, fabrikazioa bideratzen duten arau batzuek baliatu da («errezeta» bat azken finean), helburu batzuekin edo eginkizun batzuetarako balio izateko zertu du bere objektua. Esan genezake, hortaz, paper-laban edo liburu fabrikatu horren kasuan esentzia (fabrikazioa gidatu edo ahalbidetu duen haren kontzeptua, kualitateen eta errezeten suma) haren existentziari aurreratu egiten zaiola. Metafisika honetan esentziari gero ondozkutzen zaion edo ez zaion akzidente soila da

¹⁰⁵ Ik. E. Erkiagaren «Jean Paul Sartrearen ardi galduak» olerkia (1951) in. SARASOLA, I., *Gerraondoko euskal poesiaren antologia (1945-1964)*, Donostia 1973, 41-42. Orixe eta existentzialismoaz: IZTUETA, P., *Orixe eta bere garaia*, Donostia 1991, 1000-1006.

¹⁰⁶ SARTRE, J.-P., *El existencialismo es un humanismo*, Buenos Aires 1985. (UPV/EHUko bibliotekarteko zerbitzuetan espainolez bakarrik hori ere!).

¹⁰⁷ Ik. *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, Donostia 1989.

existentzia, eta hori izan da pentsamolde mendebaldarraren eredia unibertsoa –gauzak nahiz gizakiak– pentsatzeko. Kristautasunean Jainkoa da Artisanu Subiranoa. Hark, bere Adimen eternalean betidanik dituen ideien arabera, berdin sortzen ditu harri bat eta gizon-emakume bat: «Así el hombre individual realiza cierto concepto que está en el entendimiento divino. En el siglo XVIII, en el ateísmo de los filósofos, la noción de Dios es suprimida, pero no pasa lo mismo con la idea de que la esencia precede a la existencia. Esta idea un poco la encontramos en todas partes: la encontramos en Diderot, en Voltaire y aún en Kant. El hombre es poseedor de una naturaleza humana; esta naturaleza humana, que es el concepto humano, se encuentra en todos los hombres, lo que significa que cada hombre es un ejemplo particular de un concepto universal, el hombre»¹⁰⁸. Hortara, gizaki guztiek, existentziara datozenean, natura bera dute basokoak eta New Yorkarrak; kontzientzia bat eta bera prehistorian, feudalismoan eta gaur; esentzialki moral berbera monjeak eta piratak, proletargoak eta burgesiak, zapalduak eta zapaltzaileak, gizonak eta emakumeak, haurrak eta agureak. Historiak ez du gizatasunean ezer pintatzen, kultur diferentziek eta ekonomiak ere ez... Gauzak eta gizakiak zinez izan (versus itxuraz izan), esentziak dira. Eternoak. (Horrela ulertzen da nola hiritar ilustratuak, burgesak, unibertsala eta kosmopolita, hots, «esentziala» izatea pretenitzen duen! Eta unibertsalak bere balioak, razionalitatea, morala...). Akzidenteak, historiko, sozial, kulturalak, bigarrentiar eta axalekoak dira, iragankorrak; hemen halakoak, eta hor holakoak, leku batetik bestera edo urtetik urtera alda litezkeenak. (Metafisika edo mundu-ikuskeraren honen gailurra da mendebaleko teknologia, puntu honetan bat etorri dira Heidegger eskuinekoa eta Frankfurteko Eskola ezkerrekoa: metafisika edo ikusmolde honetan gauzak, unibertsoa, gizon-emakumea, fabrikatzen eta manipulatzaren diren objektuak, «agerkizunak» dira, beste ezer ez)¹⁰⁹.

¹⁰⁸SARTRE, J.-P., aip. lib., 14-15.

¹⁰⁹Lévinasek hala esplikatu du gerraren ondoriozkotasuna mendebaleko razionalitatean: «La guerra es la gesta o el drama del interés de la esencia. Ningún ente puede esperar su turno. Todo entra en conflicto, a pesar de la diferencia de regiones a las que pueden pertenecer los términos en conflicto. De esta manera, la esencia es el sincronismo extremo de la guerra», ik. *De otro modo que ser o más allá de la esencia*, Salamanca 1987, 46-47.

«El existencialismo ateo que yo represento –protestatzen du Sartrek– es más coherente¹¹⁰. Declara que si Dios no existe, hay por lo menos un ser en el que la existencia precede a la esencia, un ser que existe antes de poder ser definido por ningún concepto, y que este ser es el hombre, o como dice Heidegger, la realidad humana.¹¹¹ ¿Qué significa aquí que la existencia precede a la esencia? Significa que el hombre empieza por existir, se encuentra, surge en el mundo, y después se define. El hombre, tal como lo concibe el existencialista, si no es definible, es porque empieza por no ser nada. Sólo será después, y será tal como se haya hecho. Así, pues, no hay naturaleza humana, porque no hay Dios para concebirla. El hombre es el único que no sólo es tal como él se concibe, sino tal como él se quiere, y como se concibe después de la existencia, como se quiere después de este impulso hacia la existencia;

¹¹⁰ Alegia, Ilustrazioa baino koherentegoa: hark Jainkoa baztertu bai, baina Jainkoak egindakoa bezalakoxe munduaren ikusmoldearekin jarraitu baitu. Berdintsu jazo da moralaren mailan XIX. mendeko laizismoarekin: «El existencialismo se opone decididamente a cierto tipo de moral laica que quisiera suprimir a Dios con el menor gasto posible. Cuando hacia 1880 algunos profesores franceses trataron de constituir una moral laica, dijeron más o menos esto: Dios es una hipótesis inútil y costosa, nosotros la suprimimos; pero es necesario, sin embargo, para que haya una moral, una sociedad, un mundo vigilado, que ciertos valores se tomen en serio y se consideren como existentes a priori; es necesario que sea obligatorio a priori que uno sea honrado, que no mienta, que no pegue a su mujer, que tenga hijos, etc. etc. Haremos por lo tanto un pequeño trabajo que permitirá demostrar que estos valores existen, a pesar de todo, inscritos en un cielo inteligible [Ideien zeru platonikoan], aunque, por otra parte, Dios no exista. Dicho en otra forma -y es, según creo yo, la tendencia de todo lo que se llama en Francia radicalismo-, nada se cambiará aunque Dios no exista; encontraremos las mismas normas de honradez, de progreso, de humanismo, y habremos hecho de Dios una hipótesis superada que morirá tranquilamente y por sí misma» (Ib., 20-21).

¹¹¹ Sartrek hemen Heideggeren bermea bilatzen duela ikusten dugu. Ezaguna da, urtebete bakarrik geroago Heideggerek esaldi horrexetaz, Sartrearen humanismotik distantziatzeko, baliatu nahi izan zuela: esentziari existentzia aitzinduz Sartrek platonismoa inbertitu izango zukeen, «pero la inversión de una proposición metafísica sigue siendo una proposición metafísica», argudiatu zuen Heideggerek, ik. *Carta sobre el humanismo*, Buenos Aires 1948. Baina Sartrek egin duena ez da kontzeptu platonikoak inbertitu bakarrik: esentzia, izatea betiereko gelditasun batean ainguratzen zuena, bilakaeraren isurian ipini du, beti eginez doana inoiz bukatu gabe. (Gizatasunaren esentzia ere, hortaz, askatasunean dago, eta ez Heideggerek hain bildur duen «animalitasun» horretan). Ez dago «platonismo inbertitu»rik.

el hombre no es otra cosa que lo que él se hace»¹¹². Gizakia, bada, bere existentzian, ezerezaren gainean dago: askatasun hutsa da. Ezer ez da. Ahaltasun hutsa. Arrisku hutsa. Egiteko dauka bere burua. Iraganean ezer ez da: etorkizunean dago bere zer izan guztia. «El hombre es ante todo un proyecto que se vive subjetivamente, en lugar de ser un musgo, una podredumbre o una coliflor; nada existe previamente a este proyecto; nada hay en el cielo inteligible, y el hombre será ante todo lo que habrá proyectado ser»¹¹³.

Hor ikusten da garbi asko jatorrian zein sentido konkretua zuen Rikardo Arregi eta belaunaldi gazteak —orain nazionalisten «esentzialismoaz» hitz egitea irain gisako lelozahar bat bilakatua dago, esaten dutenek berek zer adierazi nahi duen jakiten ez dutena— tenore hartan kritika hori egiteak abertzaletasun zaharrari. Honek euskaldun fededun zintzoa, gure izpiritu demokratikoa historia guztian, etab., aipatzen bazituen, «hori esentzialismo eta eskolastizismo hutsa da!» osteratzen zuen gogor gazteak. Herriak ez dira zer izan diren, baizik zer egiten diren!

Nemesiok nekez uler zezakeen gazteek euskal historia zahar guztia, legendak, berak hain maite zuen dena, lumazo batekin borrotuta uztea. (Eta, nahitaez, Francok gauza bera egiten zuela, pentsatu behar zuen, beste justifikazio batzuekin eginda ere). Historia afrontatzeko diferentzia horretan, etorkizuna afrontatzeko izpiritu diferentzia azaltzen da ordea. Ekintzaren sentido berria existentzialismoan. Erantzukizunaren balioa. «Si verdaderamente la existencia precede a la esencia, el hombre es responsable de lo que es»¹¹⁴. Gizakiak —eta herriak— berak burutu behar dizu bere zer-dentasuna, berak hautatu behar du zer izan. Hemen daukagu korapiloa: zer hautatu? nola orientatu xede eta balio diferenteen artean ongi erabakitzeke? Non ikusi Ongia eta Gaizkia? Ez metafisikan eta ez historian eta kulturaren daukagu honez gero Ongi eta Gaizkiaren neurririk. Metafisikan ez: «El existencialista piensa que es muy incómodo que Dios no exista, porque con él desaparece toda posibilidad de

¹¹²SARTRE, J. P., op. cit., 15-16.

¹¹³Ib., 16.

¹¹⁴Ib., 17.

encontrar valores en un cielo inteligible; ya no se puede tener el bien a priori, porque no hay más conciencia infinita y perfecta para pensarlo; no está escrito en ninguna parte que el bien exista, que haya que ser honrado, que no haya que mentir; puesto que precisamente estamos en un plano donde solamente hay hombres. Dostoievsky escribe: «Si Dios no existiera, todo estaría permitido». Este es el punto de partida del existencialismo. En efecto, todo está permitido si Dios no existe y en consecuencia el hombre está abandonado, porque no encuentra ni en sí ni fuera de sí una posibilidad de aferrarse. No encuentra ante todo excusas. Si en efecto la existencia precede a la esencia, no se podrá jamás explicar por referencia a una naturaleza humana dada y fija; dicho de otro modo, no hay determinismo, el hombre es libre, el hombre es libertad. Si Dios no existe, no encontramos frente a nosotros valores u órdenes que legitimen nuestra conducta. Así, no tenemos ni detrás ni delante de nosotros, en el dominio luminoso de los valores, justificaciones o excusas. Estamos solos, sin excusas»¹¹⁵. Tradizioan, edo kulturean, ez dugu laguntza handiagoa aurkituko. Tradizio hori edo kultura hori geu bezain erlatiboak eta baldinpekoak dira. Horien balioespina eta irakurketa ere kondizionatua da, eta bakoitzak bere modura egingo dizu. «El existencialista tampoco pensará que el hombre puede encontrar socorro en un signo dado sobre la tierra que lo oriente; porque piensa que el hombre descifra por sí mismo el signo como prefiere. Piensa, pues, que el hombre, sin ningún apoyo ni socorro, está condenado a cada instante a inventar al hombre»¹¹⁶. Itsasoan galdurik gabiltza hortaz eta zeruan ez da gida gaitzakeen izarririk: guztientzat eta beti baliozko moralik inon ez dago jada. «Ninguna moral general puede indicar lo que hay que hacer; no hay signos en el mundo. Los católicos dirán: sí, hay signos. Admitámoslo: soy yo mismo el que elige el sentido que tienen»¹¹⁷.

(Eta, orain, galderetan galdera: biolentzia «bidezkoa» da?).

Hamasei: Irekita dago eztabaida. Biolentziarekin ezer ez dela lortzen, ez da, zoritxarrez, berak lortua duenaren¹¹⁸ lelozarra besterik

¹¹⁵Ib., 21.

¹¹⁶Ib., 22.

¹¹⁷Ib., 25.

¹¹⁸Halere, ez bera indarrak jaso eta eusten duen politikoak horrela predikatzea publikoan, da fenomeno zinez interesantea, baizik komerian doktrina hori beren fede eta berriontzat harturik morroi berak baztertuak agertzea «pazifista».

(Francok ez du ezer lortu!), eztabaida oro ukatzearren ebidentzia ukatzen duena, historia guztia eta prehistoria bera ignoratu nahi duen slogan tentela, interesatuki gora garrisikatzeak edo letania modura erlijiosoki errepikatzeak ez duena egiagoa bihurtzen. Bakea benetan nahi duenak, horrelako txorakeriak esaten ez dauka ibiltzerik. Nola «lortua» ote da Espainia? Bortxak eraiki ez duen zein «Zuzenbideko Estatu» dago munduan bat bakarra? Giza eskubide elementalenetako zein lortu izan ote da historian bortxa gabe? Eta demokrazia modernoa bera (orain «demokrazian bortxa ez da bidezkoa» esaten duena)?...

Daukanaxe dauka gizakiak historia. Ez, gustatuko litzazigukeena. Esan dezagun, hortaz, apal-apal eta garbi: gizakiaren historia orain arte holakoxea izan da, eta basta; hemendik aurrera bestelakoa egin nahi dugu. Baina egiaz bestelakoa egiteko, gizarte eta historigintzan bakea tresna efikaza izateko, ez da ikusten hain zuzen egungo politikoek asko lagundu nahi dutenik, ezta horretan ezer sinesten dutenik ere. Antza, bakea horientzat –«natura» edo «jainko» suerte metafisikoren batek ezarririk– egon beharra daukan zerbait da, ez egin beharra dagoena. Bortxaren eztabaida, orduan, metafisikoa bihurtzen da («etikoa»), beraien ezker ez egiteko horixe komeni zaie eta.

Izan ere, oso zaila bilakatu da eztabaida, batez ere gure kulturaren, tresna guzti-guztiak –Jainko ahalguztidun bat, arau moral eta sozial absolutuak, bekatua, zigorra, «kontzientzia txarra»– beti eskura edukitzera ohitua egon den honetan, bere zuzentasunaren ziurtasun osoa edukitzeko. Eten sakona dago. Hori da arazoa: geroz eta sakonagotzen doala. Batzuek eskema historiko sinplista horixe asko maite badute ere, honek ja ez baitauka zerikusirik karlisten eta liberalen kontu harekin¹¹⁹. Azalean diferentzia politiko (ez handiegi) batzuk gorabehera, karlistak eta liberalak izpiritu «esentzialista» berdin-berdinak ziren funtsezko beren metafisikan, mundu-ikuskeran, oinarri moraletan. Oso erraz pasa zitekeen edozein karlismotik liberalismora edo alderantziz, bere oinarritzko filosofia kanbiatu gabe. (Hamaikatxo ibili zen ibili ere batetik bestera). Eta mundu hartan ez zen batere itxuragabekoa, zeinek bai eta, Ostiral Santuko predikua Isabel II.aren Gorteko Errege Kaperan Don

¹¹⁹Benetan posible dela ukatu gabe, batzuk karlistak eta liberalak izatea berak oraindik (PNV, PSOE, etc.), eta «demokratak» eta «zintzoak» denak elkarrekin bat-bat.

Vicente Manterola jaunak predikatzea. Oraindik adostasun osoa zegoen Alderdien artean gizarte bizitza arautzen duten oinarrizko «balio absolutuetan».

Horixe puskatu da. Carl F. von Weizsäcker fisikariak, existentzialismoa eta fisika modernoa konparatuz, idatzi du: «ambas formas de pensamiento tienen en común un decidido volver la espalda a aquella imagen del mundo que recibió en la física clásica su forma tal vez más cerrada». Kontzeptu klasikoak, mundua ziurtasunez eta esentzietan iraunkor pentsatzekoak, suntsituak dira. «La disolución de conceptos tradicionales tales como espacio, tiempo, materia, determinación, engendra en todo hombre que se enfrenta seriamente con ella, en primer lugar, el sentimiento de hallarse frente a la nada. Yo lo considero una experiencia peculiar de nuestro tiempo»¹²⁰. Ezerezaren esperientzia, kontzientziari zientziak eta filosofiak ebidentzian ipinia: horra esperientzia berri-berri bat gizakiaren historian. Gure gainean dagoena ez da zerua, espazio huts azkengabea da; mundua gure azpian, ez da oinarri bat, oinarri gabekoa da bera, abismoan. Hori da, fisika modernoak baino lehen edo batera, filosofia existentzialistak egin duena: gizakia ezerezaren aurrez aurre paratu. Horretan datza humanismo existentzialista: gizakiari bakar-bakarrik dagoela gogoratzean. Bera bakar-bakarrik dela Ongiaren eta Gaizkiaren egilea eta jauna. Hori dela gaurko egia eta gaurko humanismoa, ikaraturik antzinatera iheska anparatu nahi ez duen ororentzat. «Humanismo porque recordamos al hombre que no hay otro legislador que él mismo, y que es en el desamparo donde decidirá de sí mismo; y porque mostramos que no es volviendo hacia sí mismo, sino siempre buscando fuera de sí un fin que es tal o cual liberación, tal o cual realización particular, como el hombre se realizará precisamente en cuanto a humano»¹²¹.

Hori horrela, honez gero borrokan dabilena gure artean ez da bi hautu soil, bi opzio: baina bi humanismo, bi kultura. Bi aro. Ondorioz, bi moral, etab.

¹²⁰ WEIZSÄCKER, C.F. von, *La imagen física del mundo*, Madrid 1974, 247.

¹²¹ SARTRE, J.-P., aip. lib., 43.

- «Bortxarik ez dagoen artean ez dago zer eginik, inork ez gaitu aintzat hartzen!».

- «Bortxa dagoen artean inork ez gaitu aintzat hartzen, desprestigiatu besterik ez dugu egiten gure herria, hola ez goaz inora!».

Hau da: hola eta hola, inork ez gaituela aintzat hartzen. Hori da, beraz, kontua. (Zer kontu?).

XIII

Hamazazpi: Bai, zein da kontua? Batzuen irabaztea, zanpatzea, apurtzea dela, ematen badu ere, hemen den-denok dakigu azkenean zein den kontua, labur asko adieraz daiteke hori: bakea –«baina ez edozein preziotan».

Ez, edozein preziotan ez: hori gizatasunaren umiliazioa bakarrik izaten baita, minduaren edozein matxinada justifikatzen omen duen horixe, gizatasun arrastorik geratzen zaion artean.

Zein preziotan? Hori, denok behintzat ez dakiguna da. Agian inork ez dakiena. Erabaki eta ikusi egin beharko da, ordua hel dadinean eta erabakitzeke duenak. Bitartean komeriante asko dabil «intelektualen» oholtzatxo paperezkoan –gerra berak soilik irabazi beharrekoa balu bezala imintziotan. Mundu honetan zernahi errazten duela ere, bakea ez da errazten duena, eta gutxiago askatasuna. Nik uste dut gerra horretan intelektualek ez dutela batere parterik: endredatu bakarrik egiten dute (maizago, propaganda tresna biluz-biluz ez badira bilakatzen). Denen artean muntaturiko Konfusioaren Operazio Handian bakarrik laguntzen dute asko. Arazoa ez da morala, historikoa, filosofikoa, soziologikoa. Arazoa ez da akademikoa. Politikoa da.

Politikoen lana bakea egitea da, ez bakea predikatzea (biolentziarik eza, biktimen kupida eta beste kontuak: hori dena politikoei baino askoz hobeto geuk dakigu). Ez daude horretarako ordainduak. Ez dira horretarako kargudun publikoak. Ja penagarria da gure politikoei besteren predikari-mantu hingatuz beren inutilkeria politikoa estaltzen ikusi behar hori.

«Ez dago negoziatzerik, bizitza sakratua da» esaten da: eguna joan eguna etorri, bizitza baino sakratuagoak gauza ezkutu asko dituztela politikoei, ulertzea da logika posible bakarra, «ezin» negoziatu izateko. (Batzuetan ezkutuki horiei denei «demokrazia» deitzen zaie). Horien izenean, atentatu eta heriotz gehiago ere politikoei prest daude «jasateko»... Indignazio eta negar publiko handiekin, noski.

Euskal Herriko politikoei eta Alderdiak Madrigo Gobernuari; sindikatuei, intelektualei, bakezaleei, patronalari, manifestaldiei, inori

egitekotan, politikoei exigitu behar diete bakea: ez, bakea eginda emateko politikoei besteren batek. Zertarako dira, bestela, politikoak, Jaurlaritzak, Gobernuak eta Parlamentuak? (Imaginatzen duzue Israelgo Gobernuak, hamabietan puntuan atarian, argazkia ateratzeko bezala, palestinarren aurka manifestatzen? Eusko Jaurlaritzak bakarrik egiten du horrelako ridikuloa). ETAk berea egiten du, poliziak berea: zer egiten dute politikoeak? Bestek eginari arrimatu? Batzuk zein besteek...

ETAk agian ez du Estatua garaituko, ez dakit ezer. Baina, batzuek horixe bilatzen badute, posible ez dakit izango den, gauza segurua da, ETA polizialki garaitzea, ez dela demokraziak garaitzea izango. Beste gerra irabazi baten eta beste gerra galdu baten ostean egongo gara berriro; beste gerra baten aitzinean berriro...

Ordura arte gabe ere, gerra-aldi berri baten giroa ematen du sumatzen dela azken garaiotan kalean, Unibertsitatean, prentsan, telebistan (ETB edozer gauza izango da, bakearen tresna ez). Gazteak eroak dira berriro, atzoko eroak zuhurak eta prestuak orain. «Eta jende nagusia eskuak burura eramanda hor ari zaigu oihuka: zer da hau? Nora goaz honela? Zer egin dezakegu gazte bihurri hauekin?».

XIV

Nemesiok, bere inguruko mundua ezin jasanda, mundu berri bat nahi zuen. Etorri bazen etorri zen mundu berri hori, ondo kostarik etorri bada ere, arrapaladan gero. «Bestelako pentsabideak bestelako bizimoduen eskutik», diagnostikatu zuen Koldo Mitxelenak. Javatarrek «bestelako landak, bestelako matxinsaltoak» esaten omen dute, C. Geertzek kontatzen duenez. «Bestelako garaiak, bestelako txoriak / bestelako txoriak, bestelako kantak...», esaten zuen Heinek. Eta berari gustatzen ez omen zitzaizkion Alemania «berriko» bestelako kantuok, bukatzen du burlesko Atta Troll poema parodikoa (besteak beste, euskaldunoz majo trufatzen da hor), «gustatu izango zitzaizkidan agian / ukan banitu bestelako belarriak». Nemesiok ere, musika berrien gustatzeko, ez zeuzkanak, bestelako belarriak: Nietzscheren obran hainbeste aldiz aipatzen diren belarri erne horiek, berriari zabalik eta ezkutuari urrundik adi-adi egoteko, kaptatzeko, entzuteko, baitaratzeko.

Hau da, historia zaharra da historia hori. Gure historia, toki askotako historia izan da Europan. Historiako etapa ezberdinen kontua bezala irakur liteke; klase ezberdinen kontu bezala, belaunaldien arteko borrokarena... Gutunketa hau da lekuko, nola, gure kasuan, belaunaldiek ez duten ulertu, txori zahar eta berriek, bata-bestearen kanta. Ulertu behar zutenenak ere nola geroz eta urrunago egon diren, erruki gabeko elkarren etsai bihurtzeraino eta elkarri uko egiteraino. Odolezko umoreko Villon eta Tappecoueren karnabalak kopiasamartzzeraino¹²².

Tira, tristurak eraginda edo ez dakit, uste dut azkeneko bolada honetan gehiegi ari naizela beti «gure garaiaz» hitz egiten. Birrinkarnazioen birpredikariei asko sinesterik ez badago ere, daukat inpresioa, historia hau guztia bigarren aldiz bizitzen ari naizela puntuz puntu. (Baina alai eta kementsu imaginatu beharra zegoen euskal Sisifo!).

¹²² «Apaiz geran aldetik, sotana kendu edo Elizaren seme agertzea zegokidan», aitortu du larruhuts-hutsik Nemesiok berak nola gazteekiko harremana kontzientziako problema etengarria bilakatu zaion berari ere geroago barean. Ik. pasarte osoa in SUDUPE, P, aip.lib., 218.

Espero dut irakurleak eskutitzotan halatsu ikusiko duela. Bakarrik –hemezortzigarren, honez gero– rolek harez gero inbertituak dirudite: orain Zesarrek asinatzen du Bruto, Gobernu eta Armada eta Eliza Santu Katolikoa eta Unibertsitatea eta gehien-gehiengoa dira tolerantzia eta libertatea eskatzeko manifestaldi itzelak eta horma pintadak antolatzen dituztenak gutxiengo minimo mailakatu kaskar baten aurka, eta faxismo uholde bat «faxista! faxista!» orruka pasatzen da erriberako sarats dardarti bati. (Egia da bezperan komunistak omen zirela horiek berberak. Horrela, mendean amorratuenik mundu guztian elkar borrokatu duten ideologia erraldoi biak, asteburuko kale-kantoi istilu batzuetan bat bilakatzen ditugu Euskadi kaskar honetan: markakoak beti izan gara eta, berriz ere, XX. mende zaharraren mundu guztiko sintesia eta kontraesanen gaindipena eta Aro Berria, logikan inposibleak beste inon, aisa egiten ditugu hemen...). Aresti bera –behialako borroka gorria– arrox-arroxa apainkeratzeko ez dute lotsarik, berena ez den borroka historia lapurtzeko alegia hobeto ukatzearren, Boterearen Abokatu bihurturiko Aresti bat, mailua kendu eta biola hutsa, haren bertsoak hala errezitatzeko egungo delfinarentzat, hark «euskaldun faszistez» garbi-garbi esaten zuena ezkutatu, edo ez jakinez, edo ez nahiz jakin: «Hor dabilta kamuflaturik, demokrata eta sozialista maskararen pean desgisaturik. Milaka daude gure alorrean; eta maltzurrek, azeri madarikatuek, Herriaren desalienazioari traba eta oztopo handiak jartzen dizkiote, produzio bideak sozializa daitezen debekatzen duten sozialista horiek, jabetza pribatuaren kontsakrazioa benedikatzen duten sozialista horiek, herrien autodeterminazioa ukatzen duten demokrata horiek, oligarkiaren botereak eternaldu nahi dituzten demokrata horiek... Bai... badaezpadako faszista horiek».

Nahiko zaharra da, Aresti baino askoz zaharragoa, izan, abentura eta arrisku guztietatik bere kontzientzia ona «demokratismoan» anparatzen dizun «razionalitate» burges-txikiaren kritika: kontzientzia on horren hipokrisia eta ustelarena partikulazki. Ez dago Nietzscheren fededuna izan beharrik, demokrataren arima santuzuriari zein ederki antzeman dion hark ohartzeko, egunoro ikusi beharra daukagunez bakearen eta bortxaren eztabaida guzti horretantxe: «todo el que hoy se siente a sí mismo «hombre bueno» es totalmente incapaz de enfrentarse

a algo a no ser *con deshonesta mendacidad*, con abismal mendacidad, pero con inocente, candorosa, cándida, virtuosa mendacidad»¹²³. Bakarrik, demokrata jaunxkila sumindua berehalaxe mendekatu zaio, bere arma horietxekin: faxista deitu dio Nietzsche horri ere burura, –haren kritikaren zuntasuna guztiz berretsiz hain zuzen! (Miranderen historia ez da izan oso bestelakoa). Logikoa da.

Faxismoa, niretzat, errazegi aipatzen da hemengo demokrazian, eta modu interesatu kuriosoeagian. («Demokraten» autojustifikatzeko molde interesatuegi eta errazegian). Faxismoa bilatu nahi bada, bila bedi askoz errazago aurkituko den printzipio oraindik bizi-bizi horretan, «Deus ez Estatuaz landara, Estatuaren gain, Estatuaren aurka [irakur bedi: Demokraziaz landara, etab.]»¹²⁴. Dena Estatutik, Estatuarentzat, Estatua baitan» (Mussolini). Ez al da serio-serio «eskubideen iturria Konstituzioa da (Estatua)» argudiatzen? (Konstituzioa bera zuzenbidearen printzipioren batetik ilkia ez ote da? Ala egia da, indar eta boteretik soil-soil jalgi dela eta botereen tresna huts-hutsa dela?)...

«Demokratentzat bide bakarra dago –entzuten diot esaten Lehendakariorde Jauregiri: «frente a la violencia; fortaleza»: alegia, frente a la violencia, biolentzia («demokratikoki» esanda bakarrik). Estatuaren biolentzia. Betiko biolentzia. (Francorekin ere demokrazia hori bazegoen). «Demokrazia batean ez dago negoziatzerik biolentzian» (Francorekin ere ez, –eta noiz bai sekula historian?). «Demokrazian ez dago preso politikorik» (Juventudes Socialistas de Vizcaya). (Baina Fraga

¹²³ NIETZSCHE, F., *Genealogía de la moral*, Madrid 1984, 160. Lévinasek «una civilización esencialmente hipócrita» derizkio, baina hipokrisia zergatik zaion esentziala gure kultura honi, ulertu nahi du - azken batean esplikazioa ez baita beharbada Nietzscheren oso ezberdina: «Tal vez sea tiempo de reconocer en la hipocresía, no sólo un despreciable defecto contingente del hombre, sino el desgarramiento profundo de un mundo ligado a la vez a los filósofos y a los profetas». Ik. *Totalidad e infinito*, Salamanca 1977, 50.

¹²⁴ Eta iturrian: «Deus ez Elizaz landara, Elizaz gain, Elizaren aurka»; ikus *Espainolak eta euskaldunak*, 1992, 121-142.

Iribarne Francoren Ministroa zen, Espainian preso politikorik ez zegoela esaten zuenean), etab. , etab...

Oso katoliko espainolak gara oraindik (edo berriro). «Demokratok egian gaude, turkoak gezurrean!». Zaldun Guruztariak aspaldi bezain harro eta harroago dakigu guk gaur, «Paiens unt tort e chrestiens unt dreit» (*Chanson de Roland*, v.1015). Biolentoak unt tort eta demokratek unt dreit. Biba gu! Eta demokraziaren defendatzaile gotorrak dira beren ustean, «Alah handia da! Alah handia da!» oso gotor deiadarkatzen dutelako. Handia da demokrazia, santua da demokrazia. (Fundamentalismoa? Ez, ez: hori besteak dira).

Eta nolaerebait ulertzen dut, zinez demokrata baino postfrankistago batzuek interesa edukitzea faxismoa ez dadin izan historia konkretu bat eta izen propio konkretua, arrazoi konkretu batzuekin, herentzia konkretuekin, gure herri eta herrisketako istorio triste guztiekin, erakundeen erantzukizun jakinekin, sozialisten eta zentristen edo kristau-demokraten erru historiko eta konplizitate lohi ukaezinekin, harekin beraiek ere erantzukizunak izan zituztena eta dituztena hemen bezala Europa osoan (faxismoaren arazoa, lehen eta orain, boterearen arazoa da: mozorrokeriak ez ditzagun gehiegi maite), eta nahiago izatea nola-halako ideia unibertsal konfuso eta birao bat bihurtu, patxada burgestxiki «demokratikoa» apurtzen duen edozein koadrila zalapartatsuri leporatzeko –eta horiek kriminalak izanda ere, ez ditu bihurtzen faxista. (Kontzeptuak zaindu beharko lituzkeen intelektual asko, ordea, horixe dago hemen berriro bilakatu: burgestxikiaren terapeuta periodistikoa). Azkenean faxismo okerrenak bozketa *demokratiko* eta Alderdi halaber *demokratikoen* laguntza eta koalizio bidez agintean ezarritako Gobernu *demokratikoen* dekretu *demokratikoki* arras legalez ezarritako aginte totalitario guztiz *legezko* batzuk izan dira, orain halako benerazioz esaten den «Estatu Zuzenbidekoak» horixe alegia, eta biziki estriktioak gainera¹²⁵. (Nola ez? Zuzenbidea Estatua bera da! Adibidez,

¹²⁵ Hitlerrek horrelaxe ezarri du «guztiz demokratikoki» bere agintea, 1933ko martxoaren 23an Parlamentuak gehiengoz onarturiko «Botere osoaren lege» [*Ermächtigungsgesetz*] bitartez. (Horregatik Alemania Federaletako Konstituzioak orain debekatu egiten ditu -salbuespen egoera gisako- lege modu horiek). Baina demokratikoki totalitariaoa bilakatzeko artea, zesarismo moderno eta modernoagoak aparte, Atenastik bertatik ezagutzen da, 412/411an demokrazia atikoa oligarkia bihurtu zen maneratik, aspaldi beraz.

epaitu gabeko hiritarren deportazioak eta konfinazioak, berdin da Cabo Verde eta Santo Domingora izan ala Auschwitz eta Buchenwaldera, edo Pariseretik Madrilgo komisarietara), oso-oso ordenaren eta autoritatearen maisuak beti berak: Abisiniako kanpaina, Gernikako bonbardaketa, Oradour, Dachau izan dira haien ordenaren kapitulu batzuk (guztiz zuzenbidezkoak zirenak –gerra galdu eta gero arte behinik behin!), eta gizadi osoa kiskali duen Mundu Gerra bat haien obra zibilizaziozko nagusia; ez manifestaldi eta kale istiluren batzuk asteburuan. Aitzitik, ordenaren eta gehiengoaren borondate sakratuaren alde gizonaren historian sekula muntatu diren manifestaldi jendetsuenak halaxe antzestu dira: Gobernu faxistek konbokatutik eta gehien-gehieneria absolutuak, «beldurra galdurik», ausarki obedituak.

Zein pentsamendu eta zein balio izan dira faxismoak altxatu dituenak, eta gizarte masak gurtu dituenak, eta hari gizartean garaipena eman diotenak? Faxismoak «Alderdi bakarreko demokraziak» izan badira (komunismoak bezalaxe) eta «demokrazia organikoak», orain bilatzen den «pentsamendu bakarreko demokrazia» honetan, gogoratuko al dugu apur bat hori guztia? (Baina bistan da, gaurko gazte eroek pentsamendurik edo baliorik batere badaukatenik suposatzea, biolentoei arnasa ematea izango dela). Gogora ditzagun, bada, Estatuaren eta ordenaren mito faxista; txukun-txukun, ilemotz, garbi eta dottore uniformaturiko gazteria nazi-faxista eta falangisten martxa paramilitarrak, etab., langabeziak eta krisiak jotako hirietan... (Kale zalapartarik ez! Hori gehienez ere anarkismoa izango da). Faxismoaren arrakasta ziurtatu duena, gaurkoa bezalaxe, krisi total batek ikaratuta zegoen gizarte larriari konfiantza berria ematea izan da. Kontserbismoan. Berritasun eta etorkizun inseguru orearen ukoan. Balio irme seguruen mezuan eta ordena apurtezinaren promesan, manifestazio gazte bortitzen diziplinak eta kalea bete uniformeen arauotasun makinalak (uniformea eta gorbata!) burges txiki izutuari eragiten zion faszinazioarekin¹²⁶. «Entrega mecánica a valores convencionales, sumi-

¹²⁶ E. Cassirerek *Vom Mythos des Staates* bere liburua -Estatuaren mitoaz- mito politikoak sortzeko «teknikaz» kapituluarekin ixten du! (Loc. cit., 360-390 orr.). Mitologia berria (Estatu faxistarena, Demokraziarena...) «produktu tekniko» bat da, hedabideek eta indoktrinazioak sortua.

sión ciega a la autoridad, que con odio ciego ataca a todos los oponentes y a los intrusos; repudio del comportamiento introvertido; mentalidad estereotipada», etab., karaktere faxista oso «razionalaren» ezaugarriak dira Horkheimeren arabera («Enseñanzas del fascismo», 1950). Faxismoak iragan hautsigabe baten fikzioa biztu du krisialdiko noraezean, balio eternoen iraupenaren segurantzia birreraiki, norma tradizionalen santutasuna eta autoritatea birrezarri; labur, gezur maite denak egia jator deklaratu, judu-masoi-boltxebike gutxi batzuk ero, gaizto, gaixo eta gusto den oro bezala erdeinatuz: «gizartea (gu, alegia) sano dago; gaixoak ero (edo traidore, masoi, separatista, etc.) gutxi batzuk dira. Laster garbituko ditugu malapartatu horiek. Laster garbi egongo gara». Horretarako «sano» guztiok batu egin behar dugu, diferentziak utzi eta mahai batean denok elkartu eta berdindu eta lotu etsai horiek zanzatzeko. Bestela, izan ere, galduak gaude, gutxi gaizto horiek prestu asko guztiok suntsituko gaituzte. «A la fin –Horkheimer judu marxista nazismoaren biktimari entzungo diogu–, il ne reste plus aux hommes, comme forme rationnelle de la conservation de soi (horretara ekarri da «arrazoizkotasuna»), que la docilité volontaire, laquelle est indifférence tant à l'égard du contenu politique que du contenu religieux. C'est à cause d'elle que l'individu perd sa liberté, et sans cette liberté il s'anéantit dans l'État totalitaire»¹²⁷.

«La docilité volontaire...»

Faxismoa, edo haren funtsean dagoen autoritarismoa behintzat, ez da Hitler, Mussolini eta Francorengana mugatzen den kontua Europako historia garaikidean. «Hitler ez da fenomeno alemana baino gutxiago europarra, idatzi du Hitleren aurreneko biografo Alan Bullock Oxfordeko profesoreak¹²⁸. Hark esplotatu zituen zirkunstantziak eta mentalitatea, *malaise* hura, haren sintoma bera izan dena, ez ziren

¹²⁷ HORKHEIMER, M., *Éclipse de la raison*, Paris 1974, 213-214. (Liburu hau EHUko Bibliotekarteko zerbitzuetan frantsesez bakarrik eskuratzen da, ez autorearen jatorrizko ingelesean eta ez bigarren argitalpen autorizatuko alemanean. Unibertsaltasunak eta mestizaiak, ulertzen da, ezta?, egiaz noraino iritsi ohi diren. Baina (errealitatean fikziozkoa bakarrik den) gure unibertsalismoaren ipuin hori «toleratzen» jarraituko dugu).

¹²⁸ BULLOCK, A., *Hitler. A Study in Tyranny*, Londres 1952. Epilogo (neure itzulpena).

mugatzen lurralde bakar batera, Alemanian beste tokietan baino indartsuago agertu baziren ere. Hitleren hizkuntza alemana zen, baina hark adierazi zituen pentsamendu eta sentimentuak, unibertsalkiago zeuden zabalduak». Alemania, Italia, Espainia eta Portugal aparte, mugimendu faxista masiboak egon baitira, egon ere, Frantzia, Belgika, baita Ingalaterran ere, Norvegia, Hungaria, Errumania, Kroazia, etab., ia Europa osoan, – aldi berean sozialismo internazionalak hartu duen jite arras autoritaria ez aipatzeko. Kultura bat da. Kultura horretan nagusitu da faxismoa, kultura horrexen fruitu eta espresio basatiena. (Eta Adornoren «Auschwitz ondoko kultura oro...»-rena ez dezagun ahaztu). Europa osoan berdina zen funtsean diskurtso faxista hori –ez oso diferentea orain «demokraziak» predikatzen digun bertsea: oroz gain Estatuak; Estatuaren prerrogatibak Boterea eta Zuzenbidea dira (Guido Bortolotti ari naiz segitzen, Zuzenbideko profesore prestua Erromako Unibertsitatean). Estatuak indartsu eta bat-bata izan behar du. Gizartean talde interesak sakabanatzen direnean Estatu ahuldu egiten da (hori ei da liberalismoaren ahultasuna): beraz, Estatuak diferentziak ezabatu eta denak bateratu eta lotu egin behar ditu, Estatu sendo tinkatzeko. Estatu jokoan dagoenean ez dago eskuinik eta ezkerrik: denak demokratik, h. d., den-denak «fascio» bat (azao bat). Estatu liberalaren xede esentziala askatasuna bada –faxismoaren teoriko guztiek egin dute kontrajarren hau, eta diskurtso faxistak oso maite izan duena da oposizio fundamental hori– Estatu faxistaren esentzia Zuzenbidea eta Legea da. Faxistak beti harrotu dira beren Estatu legearen eta ordenaren prototipoa bezala proklamatzeko. Ez askatasuna, Legea da Estatuaren esentzia. (Legea bera, gero, indarraren eta nagusigoaren espresioa izango da gehiago justiziarena baino). Botereak autoritatez, esku gogorrez, jokatu behar du. Buruzagi faxistak agintari burgoia izan behar du herriaren aurrean. Alegia, jendemasa, emakumeak bezala –horrela irakurtzen da behintzat in *Mein Kampf*–, arazoi abstraktuek baino gehiago sentimentuek eta bere joranez mugitzen baitute, indartsua miresten eta maitatzen du, garailea, errukirik ez duen borrokari harroa, gogorra, zanpatzailea. «Masak irabazi nahi dituenak, haren bihotzeko atea zabaltzen duen giltza ezagutu behar du. Hori ez da objektibitatea, hau da, ahultasuna, nahimena baizik eta indarra». Buruzagi horren pean gizarte masaren batasunak absolutua izan behar du. «Ordena, diziplina, hierarkia» zen faxismo italiararen slogana.

(Ez al zaizkigu ezaguntxoak egiten berriro kanta moduok?).

Faxistek bazituzten beren «etsaiak»: juduak... eta quasi-juduak, Hitlerrek *Mein Kampf*-en deskribatu dituen 1918ko «nahastaileak» bezalakoak: gerraondoko hiri alemanetan ugari ziren «gorriak», Hitlerentzat kalapitazaleak soil, istilua istiluaren gain egunoro kaleak grebaz eta barrikadaz deboilazten dituzten «asozialak», «Estatuarekiko beren erlazioa kraskatu zaien eta errogabe dabiltzanak», «edozein ordena sozialekiko harremana galdu dutenak», «beren azken kredoa nihilismoan aurkitu duten iraultzaileak»..., alegia, gaurko gazte eroak! (Termino hauetantxe deskribatu ditu Hitlerrek beti, faxismoaren antipoda osoak bezala alegia). Handik aurrerako historia ezagutzen dugu. Ordenaren «etsaiak» –alegia, «diferenteak» oro– ez dira gizasemeak, juduak dira! Eta juduekin eta nahastaileekin badakigu zer egiten den. Ordenak nazio osoaren batasun osoa eskatzen du –eta, diferentziak oro utzi edo suntsiturik, «Autorität und Führertum»!

Talde eta mugimendu politikoek beren ideologiak, programak, sostengatzen dituzten klase sozialak, errepresentatzen dituzten interesak, etab., izaten dituzte. Analisi politiko oso axaleko baten terminoetan ere, ordea (ala analisi «psikologikoaren» adieran ulertu behar da faxismoaren kontu hau dena ere?): ez helburuen aldetik (1), ez sostengua ematen ei dien edo haien sostengua irabaztea bilatzen den klase sozialenetik (2), ez errepresentatzen diren ideologia eta balioenetik (3), eta ez organizazioaren edo kale borroka nahiz atentatuetak ituenetik (lurrazal gainetik garbitu beharreko «arraza» bat) –ez, ez dago zerikusirik.

(Baina istiluak badaude. Problema badaude. Irainak ere nahikoa daude. Ez dagoena analisiak dira, elementalena ere. Beraz, galdetzeko dagoena da, hor edonon faxista eskandalagarriak ikusteko prentsa eta telebistetako enpeinu hori zerena den ispilua, ikusle horietxen izpirituarena ez bada). (Izan ere, nola aitortuko du gaur faxista batek faxista denik? Honez gero edozein eskuindar arma daiteke ezkerreko bokabularioaz, eta edozein faxista berbajario demokratikoz).

Faxismoa Holokaustoa da. Serioegia da hitz horrekin jolasean ibiltzeko. Tragedia handiegia, inork ez luke txolinki banalizatu, tribializatu, ez profanatu behar. (Baina faxismoaren herentzia denok heredatu dugu: denok behar genuke historiatic zer bait ikasi!). Gazteek

nahi dutena egingo dute, gustu gutxiko gehiegikeria polemikoa aparte, intelektualki obszenoa da honelako kasu batean fenomeno sozial berriak, eta ez esplikazio simple errazekoak, topiko zaharrekin «ulertzeko» (ezulertzeko = a priori deskalifikatzeko eta, beraz, inoiz zerbait ulertu ahal izateko atea ixteko) joera zantar hau, kontzeptu ohikoak ditugulako razionalki ongi menderatuak ditugulakoan, klixexar txar horiek, horixe besterik ez direnak hain zuzen, ohiko topiko eta klixexak. Hau dena beste kapitulu bat litzateke ordea.

Eta gogoratuko al dugu orobat nola faxismoaren kritika horrekin ere Estatuia «intelektualen» laguntzaz— «rolen inbertsioaren» operazio maltzur bezain errentagina egiten ari zaigun beti? Estatuia biktima da berriro (gaztetxo batzuen!). Aldiz 50/60. urteetan, faxismoa garaitu eta, gerraosteko Estatuak, militariki desegindako faxismo harekintxe politikoki geroz eta gehiago berdinduz, poliki-poliki, emeki-emeki, nola doazen gero berak, subjektua ezabatuz, gizabanakoa Estatu makinan irentsiz, hainbat kritikok aztertu eta salatu du, faxismoaren biktimarik biktimenak izandako juduak horietatik asko (Horkheimer, Adorno, Marcuse, Hannah Arendt, Lévinas, etab.). Horkheimerek «la tendencia del liberalismo a transformarse en fascismo (...), tendencia que tan frecuentemente ha surgido en la historia europea más reciente» biluzki salatzen zuen (1946). Frantzia «demokrazia liberal bat, geroz eta faxistagoa», Francoren pean bertan ausartzen zen salatzen Rikardo Arregi (1969). P. P. Pasolini —batez ere zinetatik nahiko ezaguna egin zen, nik uste—, homosexuala zen eta, bere «patuak» ongi erakutsi baitzion Demokrazia Kristauaren barne ilunean argi ikusten, bere izkribu nahiz filmeetan, samurtasun ebangelikotik ihauteri rabelaisko gordinenerainoko baliabide guztiekin salatu du «faxismo postfaxista» hori (bere hitzak dira) Elizan, Estatuan, Alderdi demokratikoetan, gerraondoan eraiki den «K & K» (kontsumo eta konformismo) inperioan: ordena, produkzioa, kontsumoa, beste federik alboan ametitzen ez duen mitologia berria. «Askatasun» obligatuak eta pseudotolerantziak (abortua, dibortzioa) ezartzen dituen «faxismo hedonista», sexuarekin industria egiten duena («koitua obligazioa da, bikotean ez dabilena ez da modernoa»)¹²⁹; ohiko balioetatik, Elizatik eta autoritate

¹²⁹ «El sexo toma el poder, - lo que naturalmente significa también que en lo sucesivo el poder y el poder político van a ejercerse insidiosamente utilizando para ello los dispo-

tradizionaletarik hiritarrak «emantzipatzen» dituen, erabatekoa eduki dezaten disposizioa dominazio tipo permisibo berrirako. Ilustrazioaren ideiaz jabetzen dena eta gero perbertitzen duena, Kontsumo Aroaren modernitate berria pseudoantiklerikalismo, pseudorazionaltasun komertzialen pitxi faltsu merkeez burua ileapaintzeko, etab. Korruptzioaren aurreko indiferentzia zinikoari, politiko demokraten astotratuei, ustelkeria politikoa liberaltasun handienaz toleratzeko «pasibitate apokaliptikoari» deitzen zien Pasolinik orduan «faxismo postfaxista». Orain, hori dena oraindik hor dago, baina faxismoaren sanbenito itsusi hori bere kritikoen gainera bota nahi du Demokrasiak: eta harrigarri bakarra da, zenbat seme «intelektual kritiko» aurkitu duen Aita Estatuak berari simaur lan horretan laguntzeko prest... (Horrela, oraingo Estatuak, haren aurkako arrazoiak ere, demokraziaren aitzakiaz, bere aldekoak bihurtzen ditu: demokrazia salbatzeko, torturak eta justiziaren arbitrariedadeak eta Barne Ministroen astakeriak, dena salbatzen da).

Gure lehengo historia hartara etorri, ironia ematen du, nola Gabrielekek bere burua «Guatemalako belaunaldian» klasifikatzen zuen..., eta «Guatemalak» ez zuen bera tutik ulertu. Baina Nemesio ez da izan bakarra, mundu berriaren abiada ez ulertzen. Ez da 60. urteetako abertzaletasun klasikoa bakarrik, Euskal Herrian pentsamendu berriarekin zer gertatu den, fitsik ulertu ez duena. Berrito berdin gaude antza. «Jende serioak» berriz ere bere lana eta dirutxoak egin nahi du; eta bere lana egiteko eta dirutxoak gozatzeko «bakea» nahi du. (Eta horri, demokratikoki «Euskadi egitea» deritzo). Mundu hau beraiek ekarri dute, edo mundu honekin etorriak dira berak ere mundura. Atzoko gazte tirtirikuak (denak «68ko maiatzeko» margaritak noski!) egun Unibertsitateko irakasleak, tailer jabeak, Eusko Jaurlaritzako funtzionarioak, politikoak, euskaltzain ohoragarriak dira serio, «et les

sitivos de la sexualidad», ik. BLANCHOT, M., *M. Foucault tal y como yo lo imagino*, Valencia 1988, 58. Pasoliniren «faxismo hedonistaren» kontzeptua eta haren kritika sarkastikoak, batzuetan gustu txarreraino gehiegizkoak diruditenak, ulergarriagoak egiten dira, Foucaulten sexualitatearen historiaren ikerketekin erlazioan ikusita.

autres sont devenus,/ Dieux merci!, grands seigneurs et maîtres», esango zukeen Villonek. Baina bere lehengo ausardiak ikaratu duen asko batez ere, atzo biziro gorri eta gaur hori-hori edo hori-gorria, edo oraindik atzoko iraultzaren iraultzaile dabilena, betidaniko demokrotak zer esanik ez, eta moral garbiaren betiko ariar puru odolgarbiak, «horrela ez goaz inora!»ren Iurramendian bilduta denak koru batean, gazte zoro komunistak eta faxistak eta antidemokrotak madarikatzen baino berriro ez dakitenak,

literato eta Falstaff handi, funtzionario handi,
 aberchale handi horiek,

injustiziaren maitaleagoak desordenarenak baino:

«and I, thy Caliban, for aye thy foot-licker».

«La violencia no arregla nada: hay que tener una visión realista de la situación», esaten zuen Printze potolo oportunistak *Las manos sucias*-en...

Total, bueltan-bueltan, 60. urteetara ari gara itzultzen berriro, nik uste. Dena da diferentea, eta dena antzekoa. Establishment kontzientzia on osoaren jabe ikaratu batek, berriz ere gazteria ero bat ezin du ulertu... Noizbait sentido bero-beroz kargaturiko «sozialismoa», «abertzaletasuna», askatasun eta borroka terminoak izan zirenak, ordenaren apologiako diskurtsotan aspaldi transfiguratu dute beren sentidoa. Instituzio berriek beren familia ekonomiko berriak ekoiztu dituzte, Parlamentuaren, Udaletxeen, ETB-Irratiaren... inguru-minguruan: eta batzuen interes pribatu ziztrinak denon interes nazional sakratuak bihurtu dira. Instituzio berriek errealismo sozial berria ere ekoiztu dute. «Produzitu egin behar da!»¹³⁰. Aurrena «abertzale erradikalen» aurka asmatu da, baina berehalaxe itzuli da logika hori edozein abertzaletasunen aurkaria: «Bortxak inbertsioak uxatzen ditu»:

¹³⁰ Aspaldiko maisuarena gogoratu: «La conciencia feliz -o sea, la creencia de que lo real es racional y el sistema social establecido produce los bienes- refleja un nuevo conformismo que se presenta como una faceta de la racionalidad tecnológica y se traduce en una forma de conducta social», ik. MARCUSE, H., *El hombre unidimensional*, Barcelona 1981, 114 [orig. ingelesa 1964koa; EHUko Biblioteketan gaztelaniaz bakarrik].

arrazoitu dizu errealistak; «Autodeterminazioa aipatzeak ere bai», beste errealistagoak berehala. («Independentziak agian erakar litzake?», errealistarik inork ez du galdetzen antza). Intelektualak eta poetak berak razionalitate berriaren maisuak bilakatu dira. Ilustratuak. Su eta fu pertsegitzen dizute satorzulo guztietan erromantizismoa, gaixo hori –Herder eta infernuko profeta irrazional asmatu guztiekin (deskuidatzen bazara Kant bera erromantikoa da!)– etsai publiko numero bat bihurtua gaugero intelektualontzat, gaitz guztien iturri gaitzo. («Nada más ridículo en Vetusta que el romanticismo. –irakurtzen zen behin *La Regenta* obran– Y se llamaba romántico todo lo que no fuese vulgar, pedestre, prosaico, callejero»). Agian Vetusta Asturiatik ekialderantz lerratua da bitartean). Balioen krisia aipatzen da gero, gizartearen zabalean: «klase berri» horren balioek inolako krisirik ez dutela jasaten hobeto ezkutatzeko. Politikoeak diskurtso politikoa desprestigiatu egin omen dela, berek deitoratzen dute, beste alde batera begira dezagun errudunen bila. Eta GAL, Barrionuevo... «inor ez da errudun, frogatu arte!», esatea da, esaten dakiten guztia, maila guztiak ongi nahastuz. (Barrionuevo hiritarra ez, Barrionuevo Barneministroa bai! Horregatik egiten dira hauteskundeak). PSEren bozeramaile Buesak, gerra zikinagatik Estatuaren susmorik duen oro bera jotzen digu susmagarriztat: Estatuaren zerbitzari leiala, izpiritu funtzionario gehiagorekin, demokratikoa baino. (Demokratikoa Botereaz beti susmo txarra izatea da, eta gehiago XX. mendeko esperientziarekin: Hitleren kontzentraziozelaia ez ziren frogatu gerra bukatu arte, Stalinenak ez ziren frogatu Stalin hil arte, etab., etab.; h. d., Botereak oso-oso gutxitan frogatzen du Boterearen krimenik). Hain zuzen ahulak eta txikiak Estatu Boterearen abusutik babesteko omen ziren printzipioak: errugabetasun-presuntzioa, tolerantzia, diskriminaziorik eza (euskara ez dakitenek pairatzen omen duten diskriminazio latz hori!), abusuaren defentsa ziurrenak bihurtzen dira, eta demokrazia esaten zaio horri. Borroka luzearekin botereari kentzea lortu zena, atzera Botereak kentzen digu. Eta Boteretik babestu behar gintuena Boterearen babes a egin da.

Balioen eta rolen inbertsio publiko, «demokratiko»ari jarraiki: Gandhi gogoratzen da, handiki gogoratu: eta ahaztu egiten da justu, bakezko bere borroka *botere demokratikoaren aurka* erresistentzia *efikazena* kontsideratzen zuela hark; eta hobesten zuela horregatik hura, ez zuela baina gaitzesten beste batzuen borroka armatua Indiaren askatasunaren alde...

Ordea, boteretxo aztoratuen Brumario honetan, hobe izango da kontuok utzi –honek ez, ez darama inora–, beldurra eta pena ematen du gauza hauek pentsatzen ibiltzeak ere berriro, inorentzat onik gabe. (Mario Onaindiak aipatu ohi zuen lehenago, errepikatzen den dramaren fartsarena). Hipokrisia bera zinikoa bilakatu da, eta ukatzen du, baiezten du, justifikatzen du bere burua, hitz eta pitz egiten du atergabe –demokrazian hori egin behar du politikoak–, bere hitz jaritotik inork ez diola ezer sinesten jakiteak, deus axola gabe.

Ni beldur naiz, Gasteizko nahiz Madrilgo tribunu eta edilen pronuetan txistularien albako bixigarria dirudiena (gure «demokrazia berria»), errosario zahar bat ez ote den. (Hemeretzi, hoge eta..., luzatuko al gara puntu honetan?, nahi dituzun adina zenbakiak). Begira, Heineren poesia guztiak liburu batean sartzen dira, eta lehen parteko orrietatik azken aldera kontraste izugarria dago: *Intermezzo Liriko*-an, lehen kopletan, bozkarioz ari da gaztea bizitza kantatzen (1822):

*Im wunderschönen Monat Mai,
Als alle Vögel sangen*

«Maiatzeko hil eder zoragarrian / txori denek abesten zutenean».

Argiz betea ageri da etorkizuna dirdir. Hogeita urteren batzugarrenago, Marxek Parisera aldegin duenean eta Heinek Parisetik Alemaniara, Silesiako ehuleen matxinada bezperetan, erritmo hits astun honetan abiatzen dizu Alemania probintziano babalastoaren bere poema, *Deutschland - Ein Wintermärchen* («Alemania - Neguko ipuin bat»):

*Im traurigen Monat November wars,
Die Tage wurden trüber,*

«Azaroko hil tristean izan zen / goibelagoak egin ziren egunak»...

1960, 1995: denboraren danbolina. Guretzat goibelagoak, gaxteago zenbaitentzat egun argiz beteak izango dira hauek ere, zer duda. «Halatan hor-izan den oro, behin/ hor date berriro, lehen zen arau», ttunttundaratzen du betiere Mirande paregabearen oroipen zaharrak memorian: denboraren gurpilak, behin izan zen oro, itzularazten du berriro izatera. Eta betiere berriro...

Historia amesgaizto bat omen da, handik esnatu nahi eta ezinda bizi garena: hala irizten zion James Joycek.

Estatu berri «demokratikoa» berehalaxe hartuz joan den modu faxistoide zaharrak, batzuk harriari negar eragitekoak dira, torturari buruzko Alderdien eta erakundeen jokabide ofizial berri txit zahar hau esaterako; besteak, ez dakigu barre ala lotsa eragitekoagoak diren, Parlamentu eta Senatuetan hautetsi guztiak bortxatze hori adibidez juramentuaren urkabe kaudiarpetik burumakur pasa behar izatera (herriaren hautespenean ala botereari juramentuan ote datza «legitimitate demokratikoa?»): nagusiari bizi ala hil lotzen zuen basailu feudalaren juramentuaren hondar bat, zaldun gizartearen Erdi Aroko mentalitate erlijioso magikoan bere adiera osoa bazuena apika, gaur edukinik batere ez, formalki ere pseudomitologia zibileko erritual ohiko batena beste balio arrazoizkorik ezin duena eduki, hain astaserioski hartua ordea Gobernuak eta Parlamentuak eta prentsak eta demo guztiak, Nazioaren sakraltasunaren zeinu –eta txantaigailu– bihurtzen baita. Eta HBko hautetsi pare bategatik dena. Hauek beren ihauteria zerabilten. Eta orain Tappecoue da, ihauteriak piska bat dibertitzeko besterik nahi ez zuen Maître Villoni, Estatu-paramentu sakratuak jantziarazi nahi dizkiona derrigor burutik behera, bere gogoaren kontra, karnabala krimenerainoko seriotasunez hartuz amorratuki.

Torturaren gai lazgarrian –amesgaiztoa, benetan, errepikatu egiten da– Jose Antonio Agirre Lehendakariaren testu batzuk gogoratuko ditut bakarrik: «Ante un solo caso de mal trato infligido a los detenidos, la ciudadanía de un pueblo culto se debiera levantar exigiendo inmediata responsabilidad. Y cuando se repite en cientos de casos, ¡ah! entonces un pueblo que resiste impávido que las declaraciones se «saquen» mediante el tormento y permanece mudo ante la incivildad, no merece tal nombre, sino el estigma de la esclavitud»... (Haren Alderdikideen protesta asko entzun al duzue azken denboran?). Demokraziak abertzaleak torturatzea (oraingo «abertzale demokrata» batzuentzat ezinezkoa bilakatua dirudien hori) batere berria eta oraingoa ez dela, Agirre Lehendakariaren *Entre la libertad y la revolución 1930-1935* izkribuan ikusten da; baina orain interesgarriagoa guretzat

Agirrerren orduko jarrera da: «Yo protesto ante el mundo civilizado de estos hechos (...) y proclamo que Euzkadi, la Patria de los vascos, vive tratada en sus hijos en la forma que el Cristianismo y la simple idea de Humanidad rechazan»¹³¹. Lehendakaria ez dute asebetetzen orduan eskubide sakratu formalek eta legeek, «leyes que protegen la dignidad humana, tan cacareadas y que tantas náuseas produce el oír las en boca de ciertas gentes». (Berriro, rolen eta testuen inbertsioa!). Ez diote begirune santu gehiago inspiratzen agintari jaun demokratikoek: «Los gobernantes que permiten sin sanción ejemplar tan indignos casos y tan brutales procedimientos desconocidos en los pueblos cultos, no merecen ni aquel nombre ni la consideración de las personas dignas». (Agirrerren insistentzia, Espainia ez dela munduan herri kultuetako bat –«Afrika da!»–, nahikoa konstantea da haren obra osoan). Prentsak, aldiz, orduko prentsa demokratiko errepublikanoak («cierta prensa gozosa y silenciosa ante 'nuestras persecuciones'» orduan ere!), ez dirudi oraingo prentsa demokratiko monarkikoak baino oso bestela jokatzeko zizunik Espainia eternoan: «Y la prensa –¡oh! serenísima prensa– que no registra en sus columnas una protesta, ni una advertencia siquiera ante tanto atropello contra la dignidad humana...»

60. urteetan, Estatu guztiz katoliko apostolikoa zen berriro, gazteen tortura zaharrek amorru berriz jarraitzen zuten Espainia berrian (Espainiako historia horren axialganean, aldi bakoitzean izaten da dena berria, eta dena lehen bezalakoxea izaten da barruan, trapu berriekin), sonatuak egin ziren Nemesioren gutunak Gipuzkoako Gobernadoreari gazteen torturak salatuz –alfer-alferrik noski: «no juegue con los suplicios de unos detenidos indefensos. ¡Qué distinta es la conducta de los policías británicos!; Y qué vergüenza para los católicos, que nos ganen los herejes en el respeto y la consideración para con el prójimo!»... (ik. *Izotz kandelak* publikazioan). Orduan ere prentsak «silenciosa y gozosa» jarraitu zuen, agintariak eta gotzainak indignaturik agertzen ziren «kalumnia» horiengatik, eta «25 años de paz!», mundua zoriontsu, eta familietan negarra. Beraz, kontu oso zaharrak berri beti ere gure herrian.

¹³¹ AGUIRRE Y LECUBE, J. A., *Obras Completas*, I. bol., Donostia 1981, 571-575. Luis Artetxe Gallaga eta Luis de Ugarritza gazte abertzaleen torturak aipatzen dira bereziki, eta poliziaen jukutriak errugabeei krimen faltsuak leporatzeko.

Nolabait berria, gehiengo/gutxiengo mekanismoaren butxadura politikoa eta, ondorioz, diferentziak bortxa bilakatu izana da geuron artean. Baina hau produktu politiko bat da, Ajuriaeneako Itunaren periodoko fenomeno hain zuzen ere, «kale borroka»rekin batera, eta bere kausen eta erantzuleen irakurketa propioa, politikoa, eskatzen du, doi–doia. Hemen irakurketa kulturalera mugatu nahi dugu, ordea. Moralki, bortxa Goardia Zibilaren ala Ertzainen aurka izan, diferentziarik –berritasunik– ez du egiten. Aitzitik, diferentzia egiten duena, kulturalki eta baita moralki ere tragikoki berria, konfrontazio zibileraino modu honetan ailegatu izatea da: ez moralak, ez Zuzenbideak eta ez politikak inolako zentzurik izateko (azken batean, «gizarterik» ez egoteko) bidean jarriz Euskal Herria. Demokraziak gizartea zatipuskatu eta desegin egin ote du –askotan, ezer axola gabe, gizartea ukatzerainoko lehia gorritz guztiaren gaintik baietsi nahi dela dirudien «instituzio» fetitxe horrek? Diferentziei irtenbide bat eman behar zienak, ez ote ditu berak, bide guztiak itxita utzi eta jazarritakoak, gazteria oroz gain, itolarrira eta bortxara behartu eta bortxatu? Ezer itxarotekotan, euskal errealitate txikituarentzat, integrazioa itxaron zitekeen demokraziaren «borondate onetik» (Franco ondoren!), bakea egiazkoa lortzeko: integrazio soziala (etorkinak eta bertokoak), instituzionala eta politikoa, herrialdeen integrazioa (Nafarroa/Baskongadak), linguistikoa. Zer harritu, orduan, desintegrazioa –Alderdien alderdikeriei eskerrak– areagotu eta saminkorragotu bakarrik egin bada egunetik egunera maila guztietan, biolentzia ere, jabaldu ordez, suagotu bakarrik egin bada?... Ez gara analisisetan alferrik luzatuko.

Nola birregin orain gizarte honetan hitz hautsia? Moral hautsia, dialogoa? Esperantza hautsia eta herri hautsia, –dogma eta kredo gabe ordea, ez jainko itzalgaitzezko, ez arrazoi «absolutu»rik, gizatasun huts-hutsez eta minimo niminoena amore eman gabe halere askatasunik eskatzen duen intolerantzia guztian? Politikoez nahi dutena esan bezate, eta esanaraz biezaiete nahi dutena beren bozgorailuei: ondo egingo zuen ala gaizki, baina biolentzia, ez-biolentzia eta bakea, askatasuna, erresistentzia, gai horiek denak asko eztabaidatu dituen etapa bat egona dago herri honetan¹³², eta atzera diskurtso fundamentalistara itzulbiderik

¹³²1964ean idazten zuen jada Joan Mari Torrealdaiak: «Gogortasuna, gogortasunik-eza: agortu ezinezko eztabaida. Lehen OAS zela-eta, zer esan zati baterako eman ziguten hitz hauek. Gandhik, bestetik, modan jarri zuen gogortasunik-eza (...). Eta konta

ez dago, adimenaren Ancien Régime edo «adintxikitasun geure erruzkora», gehiengo absolutuenak hala nahita ere. Beraiek han badaude, gu ez gaude han, eta ez dugu nahi han egon. Bitartean asko ibili da bidea. Hondamendi honetatik irtenbide bakarra, geratzen diren hondarrekin birreraikitzen hastea izango dugu. Ezaguturik, Jainko zaharraren ondoren, jende askorentzat, Estatu modernoaren jainkotasuna ere hila dela.

Demokratak izango gara, baina demokraziaren esklaboak ez.

Aristotelek (Ongiaren metafisika platonikoa baztertuz ere) polis grekoaren eremu seguru eta autorizatuaz kontatzen zuen, «helburu konkretuen» etika jentil bat komunitatearen barruan gizakiarentzat eraikitzeko –eta hori ere berezitua gero gizon librearentzat, esklaboarentzat, haurrentzat, emakumearentzat. Baina polis hori eta pentsamendu hori guretzat urruti geratu dira. (Txillardegik 1961ean muturreratu zion polemikan Orixeri: «Aristotelesen kontrakoa naizela

ezinak zaizkigu, azkeneko urte hauetan, «gogortasunik-eza eta gogortasuna»z hezurmamitu diren artikulua eta liburuak» (ik. «Abarrak», *Jakin* 17, 1964, 95). *Jakin*-en zenbaki horretan bertan Pello Agirretxeren beste artikulua bat dator: «Gogortasunik ezaren indarra» (48-53 orr.). Neuk ere, zilegi badut gogoratzea, euskaraz idazten hasi berritan, Gandhiren «Satyagraha»z idatzi nuen nire lehenengoetakoa gauzatxo bat (*Gure Izarra* 11, 1960, 219-221). Karlos Santamariak 100 (ehun!) izkributik gora du bortxaz eta bakeaz, artikulua eta liburuak. Nemesiori buruz ik. Pako Suduperen aipatu liburuan, 202-219 orr., azalpen egoki-egoki ezin gogoangarriagoa haren pentsamenduaren eboluzio, arazo, gorabeherak bortxaren arloan. Biolentzian ez geratu nahi eta Gandhi erreal batera ezin heldu. (Gandhi, mendebalean, aipatzeko dago ondo, ez praktikatzeko: galdetu, bestela, Itoiz-en aurkako «borrokari ez-biolentoei», ea zenbat demokratak jarraitu dien beren borroka metodoan edota eutsi dien ordena demokratikoaren zigorra etorri denean. Hemen Gandhiren «ez biolentzia aktiboa» goraki aipatu eta Gandhiren oroitaldi ekintzak antolatu, ez-biolentzia pasiboan goxogoxo geratzeko aitzakia huts bezala egin izan dira beti!). ETAn bertan 60. urteetan maiz eztabaidatu dira Gandhi eta ez-biolentzia. 1962an bakarrik: «En torno a la no violencia», *Zutik* 7, ik. Hordago (arg.), *Documentos*, bol. II, Donostia 1979, 295-296; «Más opiniones sobre la no-violencia», Julen K. de Madariagak izenpeturikoa, *Zutik* 8 (Ib., 301); «Más sobre la no-violencia», *Zutik* 9 (Ib., 312); «Más sobre el problema de la no-violencia», *Zutik* 12 (Ib., 355); «Diálogo o violencia», *Zutik* 17 (Ib., 387-388), eta ez dut uste bilketa esaustiboa denik. Txillardegirentzat ik. *Huntaz eta hartaz*, 1965, 7-16, Gandhiren sinpatia handiaz idatzia (hura hainbat Gotzain-bereziki Espainiako-guduzalari kontrajarritz). Baina ez dugu oin-ohar hau ikerketa bat bihurtuko!

esateak ez dit lotsarik batere ematen»)¹³³. Heideggerek, tradizio greko-mendebaldar hura orpotik auzitan jarri duenak, «noiz idatziko duzu etika bat?» galdetzen zitzaionean, oraindik argitzeko dagoela horizontea, erantzun ohi zuen, gerora etikak zein tankera posible agertuko duen: aurrena abiagune edo oinarri berria aurkitu beharko dugu, ikusiko da gero han zein etika jaso litekeen. Sartrek behin baino gehiagotan azaldua zuen, etika filosofiko bat idazteko asmoa. 1964ean azkenik, orain etika bat ezin dela idatzi, adierazi zuen: patxada ederrean Parisen bapo bizi eta nola idatzi etika filosofiko bat, h. d., etika unibertsal bat, Afrikan goseak hiltzen dagoen edo errepresioak zanpatzen duen batentzat balio izateko prententsioarekin?

Historian orain gauden momentuan, unibertsoak utzi dio batasun handi borobila izateari, «jainkozko animalia». Zientziek espazio eta figura geometriko pila batean ebaki dute dena. Batasunaren galderak berak, hipotesi fisiko-matematiko baten adiera du jada, ez metafisikarena, gutxiago zentzu poetiko-erlijiosoa. Ordena, ez dago bat, baizik unibertsoaren ordena mota ezberdin asko. Eta honek berdin balio du gure kontzientziarentzat, hots, barruan gu bakoitza garen komunitate diferenteentzat, esperientzi mundu haustiarentzat: izan ere, familiar balio diguten printzipioekin, ez genuke jokatu inola ere gure profesioan, edo bizitza publikoan (negozioetan adibidez); apaltasunarekin eta karitatearekin ezingo genuke politika antolatu, errukiarekin komertzioa bizkortu, etab. Baina harreman komertzialetan sakratuki agintzen duten arauekin, seguruenik ez du inork jokutzen politikan, eta barne-politikako zenbait arau Alderdien arteko jokoan onartu ez du balio nazioarteko zerikusietan. Gure barrua «pluralista» bilakatu da: zenbat etika beharko genituzke, etikoki bizitzeko mundu honetan? Kontua da, gizarte modernoko errealitate siple eta nabari-nabari honetaz ohartuko ez bagina bezala ihardun nahi izaten dugula. (Bestela gehiegi konplikatzeko dira gauzak). Semijainkoen —«balio» sakratuen— artean ekaitzak eraso dionean, euskaldun «zintzoa» («animalia jatorra, demokrata gainera», esango genuke Nietzscherekin) bere lanbidean eta familiako zokoan errefuxiatu da epel-epel. Gerra horretaz hobe da ezer ez jakin. Intelektualek berek, oraindik «badakitenek» behintzat,

¹³³TXILLARDEGI, «Gogaide ez, baina bai adiskide», in: *Jakin* 14 (1961) 53.

razionalitate galduaren nostalgian eta Ilustrazioaren zubipe metafisikoetan aurkitu dizute zaparradan aterpe, berentzat eta beren artaldearentzat; eta bera pentsaera errotik dogmatikoak, tesi galdu ezdogmatiko bakantxo batzuen defentsan arranpaloarenak egiten ditu gero superetikoak. Etikarik, baina, ez dago: birrindu genuen hori¹³⁴. Eta –«razionalki» hain zuzen!– alternatibarik ez daukagu –ez dago. Hori nola birregin, bai?, aspaldian horixe da gure komeria...

Artxipelago bat bagara, polita da artxipelagoa izatea (gu ez bagara ere modu politean etorri horixe bihurtzera). Ez dugu Cayenne bat bezala nahi Euskal Herria larderiatsu, harresiz eta zentinelaz itxi, uniformatu, diziplinatua. Artxipelagoaren politena da, irlak banatzen dituen bera dela batzen dituen ere, itsasoa. Diferentzia da elkarri lotzen ere dituen. Guk ez dugu denok berdin pentsatu, berdin ibili nahi. Euskal Herriak artxipelago bat izaten jarrai dezala nahi genuke, mila unibertso txiki diferente, baina edonondik edonora joatea libre –libre itsasoa–, eta irlen artean dialogoa beti bizi-bizi: ez gaur bezala, diferentziek bereizi bakarrik egiten gaituztela. Inoren eta ezeren absolutismorik gabeko ideien eta asmoen nabigazioa nahi genuke. Camusekin esateko: «Il s'agit de savoir pour nous si l'homme, sans le secours de l'éternel ou de la pensée rationaliste, peut créer à lui seul ses propres valeurs» (*Actuelles I*). Hori zen gure erronka. Eta hori, gure aurrekoen mundua eta hitza puskatuta aurkitu genituen ez gero, zeintzuk ez dugun egiten jakin, Injuriaeneako Mahai guztiekin (konfrontazio politikoa liskar zibil bihurtzeko inbentu «antiterrorista» horrekin: politikoen erantzukizunak «herri zabalaren» gain barreiatuta –deskargatuta– uzten dira horrela), batzuek aski froga eman dugu. Beste Sisifo baten lana izan beharko du harri honek.

Ez dugu ezer ikasi.

¹³⁴Eta birrintzen jarraitzen dugu: bortxaren aurka joatearren edo, askotan, borroka helburuak oro arbuiatzeko polemika amorratua egiten da, aberriaren kontzeptua, menpegabezia kolektibo (nazional) edo askatasun eta justiziazko etorkizun esperantzak, iraultzaren utopia, «mitoak»: antza, horiek «abstrakzio» hutsak omen direlako, edo horietan norbakoitza kolektiboari, pertsonak ideiei, oraina geroari, menperatzen zaizkielako. Konturatu gabe, hitzez hitz hartzekotan, kritika horiek edozein etika eta edozein gizarte bihurtzen dutela ezinezkoa, ez «biolentoena» bakarrik, aingeru goardakoena ere baizik, status quoaren betirako tirania eta

XV

Hain aspaldi ez duelako egun batez «trantsizioak», demokraziak, «hasiera berri» baten eta libertatean elkarbizitza berriaren itxaropen argitsuak piztu bazituen herri honetan, ondo itzaliak dira argi haiek aspaldi. «Ez diogu elkarri aurpegira behatzen», analisatu du poetak: «Hemen urkoa ezagutzea arriskutsua da beti» (K. Izagirre). Eta inon bukatu ezin den gerra honen gerrabazterretik, «gizasemea anakronismo jakingarria da hiri gaitzenean» meditatzen du berriro poeta gazteak bakardadeko desesperantza fedegalduean: «denek nahi dute hura kaiolako burdinetan ikusi»¹³⁵.

«Politikak gezurra zio/n, adimena!» (Desengainuarekin hasten omen da Ilustrazioa).

Dena den, berriz ere egia da asko ez ditugula ulertzen, baina (zenbatgarren puntua?): mila koloretako, «gazteak harritzekoak datoz» berriro...

kanonizazioa ez bada behintzat. Zergatik beharko nintzaioke «menperatu» oraintxe, eskola, semaforo gorria, zergak... (eta: ez hiltzea, ez gezurrik esatea, etc.) «inposatzen» dizkidan gizarteari? Zergatik ez dut izango hoberena, ahal dudan guztietan ahalik putada handienak edozeini eta guztiei egitea, «abstrakzioak» utzirik? Gure katramila politikoak termino etikoetan eztabaidatu nahiak, eztabaidatzen ari garen moduan eta arrazoitzen den eran, etikaren beraren errauspenera eramaten gaitu zuzen-zuzen.

¹³⁵ Berriro -edo beti ere- zein izpiritu edo esperientzian bizi garen ikasteko, aldera L. BERRIZBEITIAren hitzok (*Eremu karroinduak*, 1992, 113) eta «zigor zelda mugarik gabeko honetan», K. IZAGIRREren euskal munduaren definizioa (*Balitzko erroten erresuma*, 1989, 57): ispilu bi, errealitate bat.